

LANAREN KONTRAKO (BESTE) LAN-SAIAKERA BAT

Igor Rezola Iztueta

Zuzendaria: Arantza Lauzirika Morea

2018

Arte eta Teknologia Saila
Arte Ederren Fakultatea
UPV/EHU

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**LANAREN KONTRAKO
(BESTE)
LAN-SAIAKERA BAT**

Igor Rezola Iztueta

Lanaren kontrako (beste) lan-saiakera bat

Igor Rezola Iztueta

Lizentzia



Zuzenketak

Leire Arano Amas

Diseinua eta maketazioa

Ibon Sáenz de Olazagoitia

ESKERRAK

- Euskal Herriko Unibertsitateari ikerketa hau egiteko eman didan bekarengatik.
- Ismael Manterola Ispizuari bere prestasun, eskuzabaltasun eta konplizitatearengatik.
- Arantza Lauzirika Moreari, nigan jarritako konfiantzarengatik, eta denbora honetan eman didan babes eta laguntzarengatik.
- Gurasoei, familia aurrera ateratzeko egin duten lan guztiarengatik eta, batez ere, eskaini didaten laguntza eta maitasunarengatik. Hori gabe lan hau ez zen posible izango.

Aitari eta amari

-0-

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA

1.1. Motibazioa	23
1.2. Metodologia	24
1.3. Oharrak	26
1.4. Sarrera	27

2. ARTEAREN ETA LANAREN ARTEAN

2.1. Kapitalismoaren sorreraren inguruan	33
2.2. Lanaren gorespena	34
2.2.1. Landatik fabrikara	34
2.2.2. Lana, fede berria	36
2.3. Lan kapitalistaren asmakizuna	37
2.4. Lanaren nozio kapitalistari kritika	39
2.5. Autonomia artistikoa	41
2.6. Kapitalismoa eta artea	44

3. LANAREN PROMESA

3.1. Gizarte industrialetik gizarte postindustrialera	53
3.1.1. Kapitalismo industrialaren krisia	53
3.1.2. Kapitalismoaren espirtu berria	54
3.2. Ekonomiaren kulturizazioari buruz	59
3.2.1. Produkzio immateriala eta sinbolikoa	60
3.2.2. Kreatibitatea eta estetizazioa	64
3.2.3. Autorrealizazioa	68
3.3. Kulturaren ekonomizazioari buruz	71
3.3.1. Industria kulturala	72
3.3.2. Industria kulturalak	73
3.3.3. Industria kreatiboak	74
3.3.4. Ekintzaile eta langile	76
3.4. Eremuak bata bestean urtu direnekoa	78

4. LANA, LANA, LANA!

4.1. Mitoak desmitifikatzen	87
4.1.1. Lan immaterialaren idealizazioa	87
4.1.2. Lan immateriala eta kultura.....	89
4.1.3. Produkzio artistikoa	91
4.1.3.1. Artista, figura mitifikatua	91
4.1.3.2. Okerreko zenbait uste	93
4.1.3.3. Lan-eremu malgu eta prekarioa	95
4.1.3.4. Kontra esatearen kontraesanak	97
4.1.4. Artista, neoliberalismoaren langile-eredu	101
4.1.4.1. Sorkuntza-esparruaren argi-ilunak	101
4.1.4.2. Artista, periferiatik erdigunera	105
4.2. Fabrika fabrikatik haratago	108
4.2.1. Lana etxeko eremuan	109
4.2.2. Lana denbora librearen eremuan	114
4.2.2.1. <i>Prosumer</i>	116
4.2.2.2. <i>Free labour</i>	119
4.2.3. Fabrika soziala	122
4.2.4. Lanak bizitza kolonizatu du	127

5. ONDOEZAREN GORPUTZA

5.1. Gizarte postindustrialaren erradiografia bat	137
5.1.1. Malgutasuna	137
5.1.2. Azelerazioa	140
5.1.3. Etenik gabeko oraina	142
5.1.4. Hiperaktibitatea	145
5.1.5. Niaren produkzioa	147
5.1.5.1. Nortasun materialetik espektakuluaren nortasun immaterialera	147
5.1.5.2. Nortasun indibidualizatuaren ahulezia.....	150
5.1.5.3. Nortasuna eta klasea	152
5.1.6. Lehia	154
5.1.7. Ikusgaitasuna	155
5.1.8. Bizi-esperientziaren pobretzea	159
5.1.9. Denbora falta	161

5.2. Gaur egungo lan eta bizimoduaren zenbait ondorio	163
5.2.1. Botereari buruz	164
5.2.2. Prekarietatea, gobernantza-tresna	166
5.2.3. Esplotaziotik autoesplotaziora	170
5.2.4. Nekea, gaixotasuna, ondoeza	173

6. OHE GORRIA

6.1. Ondoezaren politizazioa	187
6.1.1. Errendimenduaren gizartetik dopinaren gizartera	187
6.1.2. Ondoeza arazo politikoa denean	190
6.1.3. Ondoezaren ahalmen eraldatzailea	193
6.2. Nork ez du lanik egin gabe bizi nahi?	194
6.2.1. Lanaren ukazioa	194
6.2.2. Ezetzaren ahala eta ezina	202
6.2.3. <i>Ne travaillez jamais?</i>	203
6.2.4. Ezetzarekin eta nagitasunarekin bueltaka	205
6.3. Teknologiaren alde, teknologiaren kontra	208
6.3.1. Teknologiaren promesa	209
6.3.2. Utopia teknologikoaren berpiztea	212
6.3.3. Lanaren amaiera	213
6.3.4. Teknologiarekiko mesfidantza	216
6.3.5. Teknologia eta etorkizuna	221

7. ATSEDEN HARTZERA JOAN AURRETIK

7.1. Ondorioak	229
7.1.1. Lanak aske egiten ez duenean	229
7.1.2. Denbora librerik gabeko denbora	231
7.1.3. Ondoeza	235
7.2. Amaitzeko	236
7.2.1. Gelditu, atsedeen hartu, pentsatu	236
7.2.2. Denbora librearen alde	239
7.2.3. Lanaren kontra	241
7.3. Bibliografia	251

*«Con mi mano quemada escribo sobre la naturaleza del fuego».*¹
Flaubert

1 GARCÉS, Marina: "La honestidad con lo real". Iturria: <http://www.tea-tron.com/sismo/blog/2011/10/06/la-honestidad-con-lo-real-de-marina-garces/>

·1·

HITZAURREA



► **"FUGAS", 2017.**

Erratza astinduz fabrikako hauts artean desagertzen omen zen "Fugas". Lantokitik ihes egin ondoren, urte batzuk geroago, fabrika industrialetik haratago doan "fabrika soziala" deiturikoan, su-itxalgailuak hustuz desagertzen omen da.

Lotura: <https://vimeo.com/275841763>



1.1. MOTIBAZIOA

*«Tratar honestamente lo real no es hablar de lo real, no se trata de documentar lo real, y ni siquiera es el supuesto activismo que intenta transformar lo real. Tratar honestamente lo real significa sentirse afectado por lo real hasta el punto de poder transformarte a ti mismo por esa afectación».*²

Marina Garcések dioen bezala, ez da gauza bera norberak bizi ez duen zerbaiten inguruan hitz egitea edo norbera alderik alde zeharkatu eta bete-betean ukitzen duen zerbaitez mintzatzea. Ildo horretatik, hemen aurkezten dugun ikerketaren izaera autobiografikoa azpimarratu nahi genuke ororen gainetik. 20 urtean zehar fabrikako lanean lehenik eta artearen esparruan ondoren langile bezala izandako bizi-esperientzia ezinbesteko lehen-gai izan da ikerketa-lan honetan, eta hala, bizi izandakoa oinarri duen lan teoriko bat da aurkezten ari garen hau.

Neure burua “ikasle txartzat” neukala eta, hobereana lanean hastea nuela erabaki nuen bere garaian. Soldatzailearen ofizioa ikasi ostean, trenak egiten dituzten fabrika handi batean hasi nintzen lan egiten. Nahiz eta nire behar materialak asetzeko aski eta sobera balio zidan, segituan ohartu nintzen jarduera hura ez nuela atsegin, ez nuela gustuko, behartuta egiten nuela, alienatzailea gertatzen zitzaidala. Lanerako nuen motibazio bakarra ekonomikoa zen, eta ez zuen nire barrena asetzen. Ez dut ezkutatuko fabrikako lanarekiko nire arbuioa. Langile fina nintzen, hala ere; neure burua halakotzat neukan behintzat, nahiz eta lankideek, oraindik oso ondo ulertzen ez dudan zerbaitengatik, “Fugas” ezizenaz bataiatu ninduten.

Fabrikari trenak egiten hasi nintzen garai berean, lanetik kanpo, muralak margotzeari ekin nion. Jarduera hura fabrikari egiten nuenaren kontrakoa zen. Errentagarritasun ekonomikorik ez zidan ematen, baina gogobete egiten ninduen; margotzen nuenean errealizatua sentitzen nintzen.

Hala, fabrikari 11 urte neramatzala, eszedentzia hartu eta Arte Ederrak ikastera joateko hautua egin nuen. Ez zen inondik inora erabaki kontziente bat, baina nire barnean banuen seguruenik nolabaiteko esperantza, pasio bilakatu zitzaidan hartatik, pinturatik, bizitzekoa. Esparru batetik bestera halako aldaketa egiteko erabaki hark bazuen zer ikusia egiten ari nintzen jarduera hura eta barne-beharrak ase nahiarekin, alienatzailea gertatzen zitzaidala eta nire baitan sortutako lan haren kontrako halako jarrera batekin, edo lanaren bitartez errealizatua sentitzeko premiarekin.

Labur-labur esateko, beraz, ikerketa-lan hau behar pertsonal batetik jaio da. Alde batetik, lanak bizitza material zein espirituala goitik behera zeharkatu eta baldintzatzen duelakoan

gaude, eta horregatik, ezinbestekotzat daukagu lanaren nozioaren inguruan hausnartzea eta zer egin pentsatzea. Izan ere, nor izatea, hori lanaren nozioak norbanakoarengan nahiz komunitatean betetzen duen funtzioak zehazten du, lana nor izatearen parte funtsezkoa da, eta beraz, jarduera horren inguruan arakatu eta sakontzea ezinbestekoa da, gure aburuz. Eta bestetik, ikerketa hau nire praktika artistikoaren garapen logikoa da: hainbat urtean egindako lana aztertu eta hausnartzeko beharretik dator doktore-tesi honen motibazioa.

1.2. METODOLOGIA

Ikerketa egiteko modua, funtsean, praktika artistikoaren eta ikerketa teorikoaren bitartez bideratu dugu, eta irudi eta testu bidez eraiki dugu tesia. Irudi bidez jaso ditugu azken urteotan egin ditugun zenbait proposamen artistiko, eta testuaren bitartez, berriz, ikerketaren gorputz teorikoa litzatekeena. Horretarako, arte, filosofia, ekonomia, soziologia eta feminismoetatik datozen hainbat artista eta pentsalariren ekarpenez baliatu gara, dela liburu, artikulu, hitzaldi, bideo eta erakusketak entzun eta ikusiz, dela mintegi eta tailerretan parte hartuz. Era askotako materialez baliatu gara, beraz, gertatzen zaizkigun gauzen inguruan pentsatu eta sakontzeko. Nahiz eta ikuspegi kuantitatibotik alde teorikoak presentzia handiagoa duen, ez dugu bata bestearen gainetik ipintzen. Osagarriak dira, eta alderdi kualitatibotik, bata zein besteak pisu bera dute.

Lan hau 7 ataletan antolatu dugu, eta hauxe du egitura:

1. atala: sarrera labur batekin batera, motibazioa, metodologia eta tesia irakurtzeko beharrezkoak diren zenbait argibide bildu ditugu lehenengo atalean.

2. eta 3. atalak: ikergaira hurbiltzeko marko teorikoa zehaztu dugu atal hauetan.

2. atalean, lan kapitalistaren sorreraren nondik norakoa, bete izan duen funtzioa eta haren ondorioak azalduko ditugu, oso modu eskematikoan. Ikusiko dugu kapitalismoa sortzearekin batera produkzio-moduak aldatuz joan zirela, eta nekazaritzakoak eta artisautzakoak ziren produkzio-modu haiek produkzio-modu industrial bihurtu, azken hori hegemoniko bilakatzeraino. Lanak beste zentzu bat hartu zuen, lehenengoaren aldean oso bestelakoa, eta hegemoniko bihurtu zen lan-modu hark langilerian zer-nolako ondorioak izan zituen ere ikusiko dugu. Fenomeno horretan murgilduta arteari ere erreparatuko diogu, eta ikusiko dugu nola arteak une jakin batean, fabrikako lan industrialaren logika ekonomizistatik aldentuta, autonomia aldarrikatu zuen; nola arteak, lan industrialak ez bezala, lanaren bitartez errealizatzeko aukera eskaintzen zuen; nola artearen esparrua lan egiteko eta bizitzeko bestelako moduak saiartzeko eremu izan zen, eta azkenik, artearen eta lan kapitalistaren artean zer tentsio izan ziren.

3. atalean, 60-70eko hamarkadetan produkzio-eredu kapitalistari egin zitzaizkion kritiketan ipiniko dugu arreta. Garai hartan hainbat tokitan izandako gertakarien eragina aztertuko dugu, eta Frantziako 68ko maiatzeko gertakizunei erreparatuko diegu nagusiki. Testuinguru hartan egindako kritika, protesta eta aldarrikapenek kapitalismoari espiritu berri bat emateko balio izan zutela ikusiko dugu, eta orobat, testuinguru haren ostean mugimendu bikoitza gertatu zela: batetik, ekonomiaren “kulturizazioa”, eta bestetik, kulturaren “ekonomizazioa”. Prozesu horrek zer ondorio ekarri zituen ikertuz itxiko dugu atal hau.

4., 5. eta 6. atalak: ikerketaren funtsa edo mamia atal hauetan jasotzen da, hemen helduko diogu ikergai edo problematika zehatzari.

4. atalean, 60-70eko hamarkadetan izandako aldaketak abiapuntu hartuta, ikusiko dugu kapitalismoak hartu zuen espiritu berria zela tarteko nola produkzio-modu berriek arte- eta kultura-esparruarenak ziren hainbat ezaugarri bere egin zituzten, eta artista langile eredu-garri bihurtu. Ikertuko dugu nola lanaren bitartez errealizazio pertsonalerako aukera posible izatera igaro zen. Aldi berean, artistaren lan eta bizimoduaren argi-ilunetan sakonduko dugu, bai eta hura eredutzat hartu zuten lan-eredu berrienak ere. Zalantzan ipiniko dugu autorrealizazioa promestuz zetorren arte-esparruko lana eta artista nahiz artearen eremua eredutzat hartu zituzten produkzio-modu berrietatik egiten zen lan-modua, ikusteko ea lanaren bitartez norbera autorrealizatzeko promesa betetzen zuten edo ez. Atal berean, lantzat hartu ohi den jardueratik haratago burutzen diren bestelako zeregin eta jarduera batzuetan jarriko dugu arreta, lanaren nozioaren bitartez zer ulertzen den birpentsatzeko.

5. atalean, gizarte postindustrialala zertan oinarritzen den sakonduko dugu. Horrela, haren ezaugarri esanguratsuenak identifikatzeaz batera, ezaugarri horiek gaur egungo bizimodua nola baldintzatzen duten aztertuko dugu.

6. atalean, gizarte postindustrialeko produkzio-moduek eta haien inguruan antolatutako bizimoduak zer-nolako ondorioak eragiten dituzten ikertuko dugu lehenik eta ondorio horietan sakonduko dugu gero. Ildo horretatik, lanari buruz eta lanak sortzen dituen erreakzioen inguruan hausnartuko dugu, eta ikergai hartuko ditugu, gainera, erreakzio horien adierazpen baino ez den lanarekiko arbuioa, batetik, eta teknologiak betetzen duen papera, bestetik.

7. atala: azken atal honetan, alde batetik, ikerketaren ondorioak biltzen dira; bestetik, ikerketaren bitartez atera ditugun ondorioen inguruko zenbait gogoeta, eta azken-azkenik, amaitzeko, doktore-tesi hau egiteko erabili den bibliografia aurkeztuko dugu.

1.3. OHARRAK

1. Ikerketa hau egiteko hainbat ezagutza-arlotara jo dugun arren, argi utzi nahi dugu, lehenik eta behin, artearen esparrutik egindako ikerketa bat dela.
2. Ikerketa hau, Mendebaldeko kultura heteropatriarkal eta arrazializatuak zeharkatutako mundu-ikuskerak batetik abiatzen den neurrian, eta errealitatea tokian-tokian desberdina delako, askotarikoa, ikerketa mugatua da guztiz; horretaz kontziente gara. Subjektibitate horrek ikerketa baldintzatzen duela jakitun izanda, ez da gure nahia, inondik ere, tesi honetan biltzen dena eta atera diren ondorioak egia bakar, monolitiko eta absolutu moduan aurkeztea. Ez da gure asmoa inolako katedrarik ezartzea ere. Aipatutako horretaz gain, badakigu, gainera, gaiaren konplexutasuna dela eta, gauza ugari ihes egiten digutela. Horregatik guztiagatik, bestelako subjektibitate, mundu-ikuskerak eta jarrerekin hitz egin eta eztabaidatzeko asmoz proposatzen diren egia partzialak baino ez dira hemen jasotzen direnak.
3. Badakigun arren ikuspegi partziala dela, tesiaren irakurketa errazte aldera, "lan" terminoa enplegua edo ordaindutako jardunaz aritzeko erabili dugu. Dena den, tesian aurrera egin ahala, lanaren kontzeptu horren partzialtasuna nabarmenduko dugu, soldatapeko lanetik haratago burutzen diren beste hainbat jarduera ere lana direla argudiatuko dugu, eta ildo horretan, aipamen berezia egingo diegu erreproduktzio-lan, etxeko eremuko lan edo zaintza-lan deritzenei.
4. Intentsitate handiko zikloak bizi izan dira kapitalismoaren sorreratik hona. Lehen eta Bigarren Mundu Gerrez gain, Lehen Internazionalaren agitazio politikoa aurrena eta erakunde politikoa eta sindikal sozialisten eratzea ondoren, Errusiako Iraultza, Afrikako eta Latinoamerikako askapen-prozesuak, eta 60ko hamarkada inguruan munduko hamaika bazterretan izan ziren protesta eta errebolta ugariak, adibidez, aintzakotzat hartu behar dira, beste askoren artean, ikerketa honen marko teorikoa ulertzeko.
5. Ikerketan zehar jasotzen ditugun aipuak irakurritako liburu eta hizkuntzan uztea erabaki dugu.
6. Aipatzen diren Interneteko iturri guztiak 2018ko maiatzean egiaztatu ditugu azkeneko aldiz.
7. Ikertzaile-kontratua amaitzeaz batera eman zaio amaiera ikerketa-lanari.

1.4. SARRERA

Modernitatea kategoria solidoen bitartez egituratua agertzen zen. Bizitzako esparruak eta haien arteko mugak identifikagarriak ziren. Garai hartako kategoria trinkoak, alabaina, malgu bilakatu dira, eta solidoa zena likido bihurtu da. Lehen, ekonomia eta kultura, lana eta bizitza, fabrika eta etxea, merkantzia eta subjektibitatea, arlo aski bereziak ziren, haien arteko mugak argi eta garbi zehaztuta zeuden. Elkarrengandik apartekoak ziren esparru haiek, ordea, orain nahasian ageri dira, eta elkargurutzaketa horretan mugak zehaztea eginkizun konplexu bezain zaila bilakatu da, ezinezkoa ez bada. Testuinguru horretan lur hartzen dute kapitalismoaren produkzio-eredu eta bizimolde berriek.

Mendebaldeko herrialdeetan, hegemonikoa izan den lan-eredu industrialaren gainbeheraren ostean, paradigma produktibo berri baten aurrean gaude. Kapitalismo immateriala omen da gaur egungoa; informazioarena, komunikazioarena, kulturarena. Lan industriarekin batera, langileria-masa ere desegin, disolbatu eta banandu egin da. Langileriaren osaera berrian, langile-masa bat ez baizik eta banakako langile, ekintzaile, freelance eta subjektu enpresen oldea dugu. Lanaren aldeko etikak ere, erlijioa eta fedea oinarri zituen hark, beste aurpegi bat erakusten du orain. Lanaren aldeko diskurtsoak, izan ere, autonomia, sorkuntza eta autorrealizazioa promestuz datozkigu.

Fordismotik postfordismorako aldaketak hausnarketa ugari eragin ditu teoria ekonomikoaren esparruan, baina baita filosofia, soziologia eta artearen esparruetan ere. Testuingurua aldatzeak, izan ere, badu eragina artearen esparruan, eta ez nolana hikoia, artea testuinguru jakin batean inskribatzen denez gero, beti. Nolakoa den testuingurua, hala-koa izango da artea, eta alde horretatik, arte-praktika ezin da ulertu analisi estetiko edo teknikoen bitartez bakarrik. Testuingurua zehazten duten faktore ekonomiko, politiko eta sozialek baldintzatzen dute artista, eta beraz, haren arte-praktika eta proposamen artistikoa ere bai.

Mugak desegin eta urtu izanak gauzen konplexutasuna adierazten du, nabarmen. Artea, lana eta autorrealizazioaren nozioak elkarrekin ipintzean, elkargune zaila ageri zaigu aurrean, kontraesan, tentsio eta galderaz zeharkatutako elkargune bat. Eta txirikordatze hori gaur egungo bizimoduaren konplexutasuna islatzen duten adibideetan bat baino ez da.

·2·

**ARTEAREN
ETA LANAREN
ARTEAN**



► **"24 ORDU", 2015.**

Errentagarritasun ekonomikoa helburu duen gizarte honetan, lana bizitzako eremu guztietara barreiatua izan da. Hori dela eta, bizitza, beti martxan dagoen lantoki erraldoia bilakatu da. Mugarik eta amaierarik gabeko produkzioari ate guztiak ireki zaizkio. Berdin dio zer den, eguna edo gaua, negua edo uda, edozein toki eta edozein ordutan lan egiten da.

Lotura: <https://vimeo.com/132511965>



Atal honetan eta hurrengoan, ikerketaren marko teorikoa zehaztuko dugu. Lana, artea, bizitza eta autorrealizazio-nahia gurutzatzen diren tokian sortzen diren harremanak eta kontraesanak aztertzea helburu duen ikerketa honen funtsa zehaztea eta definitzea da hasierako atal hauen arrazoia. Ikerketari testuingurua emateko, gaiarekin bat datozen hainbat helduleku, ideia, definizio eta kontzeptu bilduko ditugu jarraian.

2.1. KAPITALISMOAREN SORRERAREN INGURUAN

Kapitalismo izenaz ezagutzen dugun produkzio-eredua nola sortu zen azaltzen digu Karl Marxek, *Kapitala* liburuko atal ezagun batean jaso zuen “jatorrizko metaketa” edo “metaketa primitibo” kontzeptuaren bitartez.³ Pasarte horretan azaltzen duenaren arabera, kapitalismoaren sorrera bi bidetatik etorri zen: lur komunalen desjabetzetik eta industria-lizaziotik, batetik, eta lurralde berrien kolonizaziotik, bestetik.⁴

Baina kapitalismoaren sorrera ezin da bi prozesu horien bitartez soilik ulertu. Silvia Federici teorialari marxista eta feministak, adibidez, Marxen ekarpena balio izugarrikoa izan zela aitortu eta haren analisiekin bat egin arren, emakumezkoek egindako erreprodukzio-lanari behar adinako arreta jarri ez izana leporatzen dio Marxi, erreprodukzioko lana ezinbestekoa izan baitzen, Federiciren esanetan, bai kapitalismoa sortzeko eta bai kapitalismoak iraun ahal izateko:

«[...] emakumeen eta gizonen arteko botere-diferentziak eta ordaindu gabeko emakumeen lana haien berezko gutxiagotasunaren azpian ezkutatu izanak bidea eman dio kapitalismoari “lanegunaren ordaindu gabeko zatia” izugarri zabaltzeko, eta, orobat, emakumeen lana metatzeko erabili ahal izan du soldata (gizonena)».⁵

Feudalismo garaian abiatu zen prozesu hartan, emakumeei beren nortasuna erauzi eta botere oro kendu zieten, Federicik azaltzen duenez. Kriminalizatu eta degradatu egin zituzten. Eta nortasun berri bat eraiki zieten: emakumea, gizonaren menpekkoa, ahula,

3 MARX, Karl: *El capital. Crítica de la economía política. El proceso de producción del capital*, I. lib., 3. libk., Siglo XXI, Madril, 2009 (891. or.).

4 Ibidem (939. or.).
Marxek atal horretan azaltzen duenez, Erresuma Batuan feudalismo garaian “lur komunal” zeritzenak nekazarien bizimoduaren bermea ziren. Lurrak, beren jabetzakoak ez izan arren, nahierara antola eta kudeatu zitzaizketen; horretarako eskumena zuten. Eta izenak berak aditzera ematen duen bezala, nekazariez osatutako komunitatea zen eginkizun hartaz arduratzen zena. Lur komunalen desjabetze-prozesua etorri zen, ordea, eta hein handi batean horrek eraginda, feudalismotik kapitalismorako trantsizioa. Izan ere, nekazariak, ustiatzen zituzten lurrik gabe utzi zituztenean, beren produkzio materialerako eta erreprodukzio sozialerako bitartekorik gabe gelditu ziren. Eta hantxe zeuden Industria Iraultzarekin jaiotako berri ziren fabrikak, lan-indar izugarriaren premian. Hala, ondasun komunalez desjabetzea funtsezko gertatu zen, nekazariak biziraupena bermatzeko baliabiderik gabe utzita, haien fabrikako produkzio kapitalistara bideratzeko prozesuan. Bestetik, europar kolonizatzaileek, lurralde berriak “aurkitzeaz” batera, lurralde haietan bizi zen jendea esklabo bihurtzeaz gain, haien aberastasun naturalak ere esplotatu zituzten, oso modu ankerrean, gainera. Harrapaketak, estortsioa, iruzurra, bortxaketak, zigorrak eta beste hainbat metodo bidegabe ezarri zituzten. Eta Marxek aztertu eta ezagutzera eman zuen moduan, herri haien baliabide eta ondasunen desjabetzeak eta esklabotzak egin zuten posible merkataritzaren garapen bizkorra, lehenik, eta aberastasunaren metaketa izugarria, ondoren: «*El descubrimiento de las comarcas auríferas y argentíferas en América, el exterminio, esclavización y soterramiento en las minas de la población aborigen, la conquista y saqueo de las Indias Orientales, la transformación de África en un coto reservado para la caza comercial de pieles-negras [...] constituyen factores fundamentales de la acumulación primitiva.*»

5 FEDERICI, Silvia: *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*, Elkar eta Jakin, Donostia, 2017 (208. or.).

bere gorputzaren jabe ez dena, arrazoitzeko gaitasunik gabea, asexuatua... Emakumeak gizonaren beharra du bizitzeko, eta hark egindako lanak ez du baliorik, ez aintzatespenik. Horrela, Federiciren esanetan, ordena patriarkal bat jaioko da, emakumeak menpean eta esplotatuta edukitzean oinarritua, zeinean emakumeak gizonen lan-indarraren zerbitzari bilakatu baitziren. Emakumezkoen lan gutxietsi hura ezinbestekoa izan zen kapitalaren metaketarako, eta hain zuzen ere, sexuaren arabera lan-banaketaren ondorioz historikoki emakumezkoek egin izan dituzten lanek, etxeko eremuko lana edo zaintza-lanak deritzen horiek, aintzatespen sozialik gabeak izanagatik ere, zenbaterainoko garrantzia izan duten ikusiko dugu ikerketa honetan aurrera egin ahala.

“Jatorrizko metaketa” deritzonaren bitartez Marxek egindako ekarpenak, eta Federicirenak ondoren, hankaz gora ipintzen dituzte kapitalismoaren sorrera lan, izerdi eta ahaleginaren fruitu izan zela dioten ekonomialari burgesen tesiak, prozesu natural eta bakezkotik ezer gutxi izan zuela garbi erakutsi baitigute Marx, Federici eta beste pentsalari askok. Indarkeriaz betetako prozesu baten ondorio izan zen, nabarmen. Marxek azpimarratzen duen bezala, hasi burutik eta oinetara, poro guztietatik odola eta desohorea zeriola jaio zen mundura kapitala.⁶

2.2. LANAREN GORESPENA

*«La época heroica del capitalismo produjo un tipo de subjetividad caracterizada por un peculiar “amor” al trabajo [...]».*⁷

Emmanuel Rodríguez

2.2.1. Landatik fabrikara

Lanak zentralitate erabatekoa du gure gizartean, eta hori lanaren etikaren eta gorespeneraren ondorioa da, datozen lerroetan ikusiko dugun moduan. André Gorzen esanetan, helburu ekonomikoz egiten den lana ez da beti izan gizakiaren jardun nagusia, garrantzi handienekoa. Fenomeno hori, lan ordaindua bizitzaren muin eta ardatz izatea, kapitalismo industrialarekin batera sortu zen, Gorzen arabera.⁸ Beraz, lanaren zentralitateaz hitz egiten denean, ez genuke ahaztu behar fenomeno berri samar batez ari garela.

Nekazaritza-mundutik mundu industrialerako jauzia eragin zuen prozesuak izugarriko aldaketa ekarri zuen. Besteak beste, gaur egun lantzat ulertzen dugun jarduera bera, zeina zeharo barneratuta baitugu guk, berebiziko aldaketa egin zitzaizen garai hartako langileei,

6 MARX, Karl: op. cit., 2009 (950. or.).

7 RODRÍGUEZ, Emmanuel: *El gobierno imposible. Trabajo y fronteras en las metrópolis de la abundancia*, Traficantes de sueños, Madril, 2003 (26. or.).

8 GORZ, André: *Metamorfosis del trabajo. Búsqueda del sentido. Crítica de la razón económica*, Sistema, Madril, 1995 (277. or.).

nekazaritza-mundutik fabriketara joan ziren aurreneko haiei, eta ez zitzaien batere samurra gertatu jarduera eta egoera berri eta guztiz arrotz hartara egokitzea. Alde batetik, nekazaria bere buruarentzat jardutera ohituta zegoelako, eta lana urte-sasoi eta eguraldiaren arabera antolatzen zuelako, gainera; naturaren legeen menpeko zen, hein handi batean. Eta bestetik, nekazariak hasieratik bukaeraraino kontrolatzen zituelako egin beharrekoak; ez zen jarduera bakar batera mugatzen, lan asko eta askotarikoak egiten zituen. Marxek kontatzen duen moduan, industrializazioa iristeaz batera, indarkeria izugarria baliatuz, nekazaria bere lan-indarra saltzera behartu eta fabrikara bultzatu zuten:

*«[...] la población rural, expropiada por la violencia, expulsada de sus tierras y reducida al vagabundaje, fue obligada a someterse, mediante una legislación terrorista y grotesca y a fuerza de latigazos, hierros candentes y tormentos, a la disciplina que requería el sistema del trabajo asalariado».*⁹

Diziplinamendu-prozesu baten ostean, adar-hots, ordulari, nagusi, sermoi eta zigorren menpeko izatera pasatu zen langile industrial bihurtutako nekazaria. Lau paretaren artean itxita, erabat arrotza zitzaion lan simple, mekaniko eta errutinario bat egitera behartuta zegoen, soldata baten truke. Lehenengo kapitalistek arazo latzak izan zituzten, eguna joan eta eguna etorri, lanaldi osoan zehar, langileei lantokietan iraunarazi eta lan eginarazteko. Etengabe lanetik ihes egiten omen zuten langileek. Hain zuzen, langileak moralizatu, diziplinatu eta egonkortzeko kanpainak egin zituzten sasoi hartan, eta elizak paper berezia bete zuen horretan. Dominique Médak dioen moduan, nekazaria “hezi” eta “otzandu” egin behar izan zuten, itxialdira eta lan-ordutegira ohitu zedin, eta aberastasuna metatzea bere onerako zela uler zezan.¹⁰ Otzantze hura gertatzeko, nekazariari hainbestearaino eragiteko, ezinbestekoa izan zen, Zygmunt Baumanek esaten duen moduan, lanaren etika.¹¹ Etika berri hark helburu bikoitza zuela dio Baumanek: ekonomikoa, bata, eta morala, bestea. Alde batetik, gizarte industrialaren funtzionamendu zuzena ziurtatzeko, eskulan-premia asetzea izan zuen eginkizun; eta bestetik, bizimodu zintzo, ondradu eta moralki onargarria izateko bide bakarra lana zela sinetsaraztea. Lanerako gogorik ez zutenak, alferrak edo arloreak, kalean alderrai zebiltzan “moldatu gabeak” azken finean, gizarte industrialaren etorrera arriskuan ipin zezaketela eta, zama baino ez ziren.

9 MARX, Karl: op. cit., 2009 (922. or.).

10 MÉDA, Dominique: *El trabajo. Un valor en peligro de extinción*, Gedisa, Bartzelona, 1998 (116. or.).

11 BAUMAN, Zygmunt: *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Gedisa, Bartzelona, 2000 (24. or.).

2.2.2. Lana, fede berria

Max Weberrek *Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua* liburuan azaltzen duen bezala, lanak une hartan hartu zuen garrantzia erlijio protestantearen sorreraren eta gora-kadaren ondorio izan zen. Weberren esanetan, protestantismoak, eliza katolikoaren erre-forma burutuz, moral berri bat ezartzea zuen helburu. Erlijio katolikoan, elizako errezo eta konfesioekin batera, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna erakusten zuten ekintzen bitartez, gizakiak bere bizitzari zentzu bat ematen zion. Protestanteen iritziz, alabaina, munduaren ikuskera hark gizakia bizitzan zegozkion ardura eta eginkizunetatik aldentzea zekarren. Hala, salbazioa ordura arte otoitzaren bitartez bilatu zuten haiek, erreforma protestantearen ondoren, lanaren bitartez edo lanean bilatzen hasi ziren. Horretan, aldaketa erradikala eragin zuen protestantismoak: zeruko kontuei baino, lurreko bertako jardueri ematea balioa; errezoaren lekuan lana jartzea. Eta lanari erlijiozko funtzioa ematean, fedea ulertzeko modua aldatu zen. Artean, hala ere, lanaren helburua ez zen irabazi ekonomikoa; aszetismoak helburu arbuigarriztat zeukan aberastasun bila aritzea. Eta aintzatespen edo arrakasta soziala lortzeko bitarteko hutsa ere ez zen. Lana ahaleginean eta sakrifizioan oinarritutako jarduera zen, aberastasun espiritualerako bidea. Lanaren bitartez lortuko zen, eta ez otoitzaren bidez, salbazioa. Lana zen Jainkoak gizakiari agindutako jarduera, bizitzaren zentzu eta helburu absolutua, fede-aitorpen gorena.¹² Pertsona langile eta saiatua izatea fededun zintzoa izatea zen, eta alferra edo nagia izatea, aldiz, Jainkoaren esanaren kontra agertzea.

Emmanuel Rodríguezek dioenez, lana zen langileria industrialak erredentzio espirituala lortzeko zuen modu bakarra. Lanaren bidetik baino ezin irits zitekeen taberna eta bestelako bizioetatik libratzera, bizimodu errespetagarri, zuzen eta duina izatera, eta aintzatespen soziala lortzera.¹³ Bizitzaren ikuskera berri hark lanaren gorespena ekarri zuen. Lanaren bitartez lortzen zuen pertsonak duintasuna eta gizartean onartua izatea. Eta lanari eman zitzaion funtzio hark, jakina, eragina izan zuen ekonomiaren esparruan ere. Weberren tesiaren arabera, nahiz eta etika protestantearen helburua ez zen produkzio-eredu kapitalista abian ipintzea, sortu berri zen kapitalismo industrialari ezin hobeto etorri zitzaion lanaren aldeko fede berri hura.¹⁴

Lanaren aldeko ideologiaren arrakasta ez zen elizaren edo kapitalisten diskurtsoaren ondorio bakarrik izan, ordea. Langileek lagundu egin zuen horretan, Rodríguezen esanetan:

*«La edad clásica de la cultura obrera, [...] estuvo orquestada por esta inversión de la moral trabajista, que hacía de la identidad con el trabajo la forma principal de autovalorización».*¹⁵

12 WEBER, Max: *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, Península, Bartzelona, 1969 (131.-132. or.).

13 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (26. or.).

14 WEBER, Max: op. cit., 1969 (259. or.).

15 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (27. or.).

Lanaren aldeko ideologia langile-mugimenduaren hazkunderako ezinbestekoa izan zela dio Rodríguezek. Langile-mugimenduak, funtsean, lanaren aldeko mugimenduak izan ziren, lana baitzen nortasuna, aintzatespen soziala eta aberastasuna lortzeko modu bakarra. Salatu ere salatu zituzten alienazioa eta esplotazioa, hala da; baina ez ziren lanaren kontrako mugimendua izan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Laburbilduz, beraz, erlijioa arduratu zen, fedearen izenean, bizitza lanari eskaintzearen aldeko sinesmena hedatzeaz. Kapitalistek eta langileriak ere lanaren aldeko diskurtsoak egin zituzten, garapena eta aberastasuna sortzeko bitartekoa zelako. Eta hala, XX. mendearen erdialdean jaiotako gizarte indibidualizatu hartan, lanaren aldeko ideologiak garapen pertsonalarekin eta errealizazioarekin lotuta ageri dira, David Frayneren esanetan, aparteko atal batean sakonago ikusiko dugun bezala.¹⁶ Lana, horrenbestez, obligazio moral, sozial eta arrakasta pertsonalerako bide bihurtu zen, gizakiaren jardunetan garrantzitsuena, lanaren aldeko etikaren eraginez. Harrezkero, Gorzen esanetan, lanaren aldeko ideologiak zeharkatzen du, alderik alde, gure mundu-ikuskerara.¹⁷

2.3. LAN KAPITALISTAREN ASMAKIZUNA

Industrializazioa, esan dugunez, XVIII. mendearen bigarren erdian abiatutako eraldaketa ekonomiko, sozial eta teknologikoaren ondorio izan zen. Nekazaritzan oinarritutako ekonomiatik industrian oinarritutako ekonomiara emandako saltoak zeharo aldatu zuen bizimodua. Lur komunalen desjabetze-prozesuak tarteko, eta lanaren etikaren eraginaren ondorioz, lana bizitzaren muin eta ardatz bihurtu zen, eta haren inguruan antolatu behar izan ziren beste jarduera guztiak.

Médak dioenez, lanaren nozio modernoa ekonomialarien asmakizuna izan zen.¹⁸ Aurreko mendeetan, aberastasuna metatzeko lan egitea gaizki ikusita zegoen, eta orain, aldiz, historian lehenengo aldiz, aberastasuna sortzeko jarduerarik garrantzitsuena gizakiaren lana bihurtuko da. Adam Smith ekonomialariaren idatziak erabakigarriak izan omen ziren horretan, lan-eredu industrial kapitalista produkzio-eredu hegemoniko bihurtu zedin. Smith izango zen, lanari funtzio guztiz instrumentala emanez, lana aberastasuna sortzeko bitarteko gisa planteatu zuen lehena. Beste era batean esanda, lanaren nozioa aberastasuna sortzeari uztarturik agertzen hasi zen Smithen idatzietan. Nazio batzuk beste batzuk baino oparagoak zergatik ziren aztertzerakoan, esate baterako, arrazoa merkataritzako edo nekazaritzako soberakinean zetzala esplikatu zuten aurreko ekonomialariek, eta Smithen, aldiz, oso bestelako tesia plazaratu zuen: lana zela gizakiari bere beharrak ase ahal izateko modua ematen zion jarduera, gizartea eraikitzeke jatorrizko indarra, eta hortaz, lanaren

16 FRAYNE, David: *El rechazo del trabajo. Teoría y práctica de la resistencia al trabajo*, Akal, Madril, 2017 (110. or.).

17 GORZ, André: op. cit., 1995 (278. or.).

18 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (54. or.).

fruitu zela nazio ororen aberastasuna.¹⁹ Nahiz eta lanaren definizio zehatzik ezin atera daitekeen haren hitzetatik, Médak ondorioztatzen duen bezala, lana balioa produzitzeko bitartekoa zen Smithentzat: «*Es la fuerza humana y/o "mecánica" que permite crear valor*».²⁰ Horra hor, beraz, Smithen bidez, historian lehenengo aldiz lanari balioa produzitzeko funtzioa eman zitzaionekoa.

Lan hori zertan datzan labur-labur azaltzeko, balioa sortzea xede duen lan kapitalistaren bi ezaugarri nagusi aipatuko ditugu: lanaren zatiketa eta lanaren abstrakzioa.

Lanaren zatiketak produkzioa handitzeko helburuari erantzuten dio, Smithek ondorioztatu baitzuen, ez alferrik, pertsona bakoitzak objektu bat hasieratik amaierara fabrikatuta baino objektu gehiago ekoizten zirela, denbora berean, hura fabrikatzeko zereginak zenbait langileren artean banatuta.²¹ Lanaren zatiketaren bidez, beraz, produktu baten ekoizpenerako egin beharreko zereginak zenbait lan sinple eta espezializatutan banatuz, lan horiek era egokian antolatuz eta langileak horretarako prestatuz, produkzioa nabarmen handitzea lortzen zen.

Bestalde, lan kapitalista lan abstraktua da. Kapitala sortzea baita lanaren helburua. Marxek azaltzen duen bezala, merkantzien salerosketa posible izan zedin, elkarren artean konparatu ahal izateko, erlazio bat ezarri behar zen. Eta hori ez zuen ematen lan-motak, baizik eta lan-mota horrek sortzen zuen balioak, orain ikusiko dugun moduan.

Lan abstraktua, horixe da langileak balioa produzitzeko egiten duen jarduera. Ez da kontuan hartzen balioa sortzen duen jarduera hori, lana bera, zer eta nolakoa den, zertan datzan. Balioa sortzea lehenesten da, eta egin beharreko jarduera-mota bigarren maila batean geratzen da. Berdin dio produzitzen dena zer den ere. Horrek ez du garrantzirik. Lan abstraktuak, izan ere, "erabilera-balioa" deritzonaren gainera ipintzen du "truke-balioa". Marxek argitu zuen moduan, lana abstraktua da, zeren eta elkarren arteko desberdintasunak alboratu eta lan guztiek amankomunean duten ezaugarria murrizten baita: denbora jakin batean erabiltzen den lan-indarraren bitartez produzitzen den baliora.²²

Lan kapitalista nazioek aberastasuna handitzeko jaio zen. Prozesu horretan kapitalistak bere irabaziak izango zituen, eta langileak, soldata bat. Médaren esanetan, lanak zer funtzio beteko zuen argi zeukaten kapitalistek:

«Desde el principio quedó sujeto a la lógica de la eficacia, la lógica del capitalismo y de su principio de rentabilización del capital invertido. [...] El trabajo aparece como

19 SMITH, Adam: *La riqueza de las naciones*, Alianza, Madril, 1996 (13. or.). Iturria: <http://ceiphistorica.com/wp-content/uploads/2016/04/Smith-Adam-La-Riqueza-de-las-Naciones.pdf>

20 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (51. or.).

21 SMITH, Adam: op. cit., 1996 (33. or.).

22 MARX, Karl: *El capital. Crítica de la economía política. El proceso de producción del capital*, I. lib., 1. libk., Siglo XXI, Madril, 2010 (90. or.).

*simple medio al servicio de los fines del capitalismo. Y además, sólo lo ejercen aquellos individuos impelidos por el hambre a vender su fuerza de trabajo».*²³

Errentagarritasun ekonomikora eta aberastasunaren metaketa amaigabekora bideratutako jarduera da kapitalismoarekin asmatutako lana, eta balioa sortu behar horretan, eraikia, instrumentala eta abstraktua, Médaren esanetan.²⁴

2.4. LANAREN NOZIO KAPITALISTARI KRITIKA

Lan industrialak oparotasun materiala ekarri bazuen ere, eta lanaren aldeko diskurtsoak gogotik goraiatuagatik lan-modu hark gizakiari ekarriko zizkion abantailak, kontua da ondoez-iturri ere izan zitzaiela langileei lan industrial, ondorengo lerroetan azalduko dugun moduan.

Smith bera ere, kapitalismoaren eta merkatu librearen aldeko teorialaria izanagatik, lan industrialaren onurak azpimarratzearekin batera, jakitun zen produkzio-eredu haren alde ilunaz, eta egin zuen aipurik eguna joan eta eguna etorri ordu luzez lanaren zatiketan, espezializazioan eta errepikapenean oinarritutako zereginetan aritu beharrak zekartzan kalteei buruz. Fabrikako lan mekanikoak langileari duintasuna ekarri ez eta sorgortu egiten zuela esan zuen, eta langilearentzat autosuntsitzailea ere bihurtzen zela azkenean:

*«Con el desarrollo de la división del trabajo, el empleo de la mayor parte de quienes viven de su trabajo, es decir, de la mayoría del pueblo, llega a estar limitado a un puñado de operaciones muy simples, con frecuencia sólo a una o dos. [...] Un hombre que dedica toda su vida a ejecutar unas pocas operaciones sencillas, cuyos efectos son quizás siempre o casi siempre los mismos, no tiene ocasión de ejercitar su inteligencia o movilizar su inventiva para descubrir formas de eludir dificultades que nunca enfrenta. Por ello pierde naturalmente el hábito de ejercitarlas y en general se vuelve tan estúpido e ignorante como pueda volverse una criatura humana».*²⁵

Marx izan zen, zalantzarik gabe, kapitalismoaren produkzio-eredua sakonen ikertu eta harekiko kritikoen agertu zen autorea. Hark ondorioztatu zuenez, lanaren handitasuna langilearen miseria bihurtzen zen kapitalistaren logikaren pean antolatzen eta gauzatzen zenean. Gizakia, oinarritzko beharrak ase ostean, natura eraldatu eta hari objektuak gehitzen hasten dela esan zuen. Mundu propio bat eraikitzeari ekiten diola, mundu artifiziala, naturatik aparte eta naturari lotua aldi berean. Ingurua gizatiartzeko beharra agertzen du gizakiak, eta hori lanaren bitartez egiten duela azpimarratu zuen Marxek. Baina haren

23 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (115.-116. or.).

24 MÉDA, Dominique: "¿Qué sabemos sobre el trabajo?". Iturria: http://www.trabajo.gob.ar/left/estadisticas/descargas/revista-DeTrabajo/2007n04_revistaDeTrabajo/2007n04_a01_dM%C3%A9da.pdf

25 SMITH, Adam: op. cit., 1996 (458. or.).

esanetan, lanaren bitartez ingurua eraldatzearekin batera, bere burua ere eraldatzen du gizakiak:

*«El trabajo es [...] un proceso entre el hombre y la naturaleza [...]. Pone en movimiento las fuerzas naturales que pertenecen a su corporeidad, brazos y piernas, cabeza y manos, a fin de apoderarse de los materiales de la naturaleza bajo una forma útil para su propia vida. Al operar por medio de ese movimiento sobre la naturaleza exterior a él y transformarla, transforma a la vez su propia naturaleza».*²⁶

Marxek ikertu eta azaldu zuenez, beraz, lanak ez zuen merkantzia soilik produzitzen: langilea bera ere produzitzen zuen lanak, lanaren bitartez gizakiak bere izatea eraldatzen zuen heinean. Marxen ikerketaren arabera, lan kapitalista, lanaren zatiketaren eta abstrakzioaren eraginez, arrotza eta iraingarria bihurtzen zen langilearentzat. Norberaren indibidualtasun, subjektibitate, intelektualtasun eta sormenetik banandu, eta jarduera mekaniko, estandarizatu, errepikakor eta monotonoak langileari gizatasuna eta garapen pertsonala ukatzen zizkion. Jarduera hartan, langilea makinaren apendize bilakatzen zen, produkzio-katean katebegi huts, beste makina bat azken finean. Jarduera behartu, mertzenario eta arrotz hark gizakia fisikoki zein espiritualki degradatzen zuen, eta langilearen esplotazioa eta alienazioa eragiten. Honela definitu zuen Marxek lan kapitalistaren eta langilearen arteko harremana:

*«[...] el trabajo es externo al trabajador, es decir, no pertenece a su ser; [...] en su trabajo, el trabajador no se afirma, sino que se niega; no se siente feliz, sino desgraciado; no desarrolla una libre energía física y espiritual, sino que mortifica su cuerpo y arruina su espíritu. Por eso el trabajador sólo se siente en sí fuera del trabajo, y en el trabajo fuera de sí. Está en lo suyo cuando no trabaja y cuando trabaja no está en lo suyo. Su trabajo no es, así, voluntario, sino forzado, trabajo forzado. Por eso no es la satisfacción de una necesidad, sino solamente un medio para satisfacer las necesidades fuera del trabajo. Su carácter extraño se evidencia claramente en el hecho de que tan pronto como no existe una coacción física o de cualquier otro tipo se huye del trabajo como de la peste».*²⁷

Kapitalistari berdin zitzaion zer ekoitzi, helburua gainbalioa sortzea zuelako, Marxen esanetan.²⁸ Horixe zen lan kapitalistaren benetakoa arrazoia, haren lehen eta azken helburua, eta ez genuke hori sekula ahanzi behar, Marxek gogorarazten digunez. Kapitalaren meta-keta zenez kapitalistaren helburu, haren mesedetan ipintzen ziren gizakiaren beharrak. Alde horretatik, langilea lanerako bizi zen, ez zuen bizitzeko lan egiten. Eta zenbat eta lan gehiago egin, zenbat eta aberastasun gehiago sortu, are eta behartsuago bihurtzen zen, lanak harengan zuen eraginarengatik. Izan ere, arrotza, behartua, desatsegina egiten

26 MARX, Karl: op. cit., 2010 (90. or.).

27 MARX, Karl: *Manuscritos: economía y filosofía*, Alianza, Madril, 1980 (1) (109. or.).

28 MARX, Karl: op. cit., 2009 (313. or.).

zitzaionez, sufrimendua eragiten zionez, eta motibazio bakarra ekonomikoa zuenez, lana, langilearen errealizatorako bidea izan beharrean, haren “desrealizazio” eta alienazioaren sinonimo bihurtzen zen, Marxek argudiatzen duenez:

*«Esta realización del trabajo aparece [...] como desrealización del trabajador, [...] como extrañamiento, como enajenación».*²⁹

Ondasunen produkzio eta metaketa etengabekoa lortzeko asmoz jaio zenez kapitalismoa, gizakiaren behar material zein espiritualak bigarren mailan uzten zituen. Lana, hala, gizakiaren errealizatorako jardura nagusia izan ordez, errealizatzea eragozten dion jardun bihurtzen da, eta horixe izan zen, hain zuzen ere, Marxek gogor salatu zuen alderdietako bat.

2.5. AUTONOMIA ARTISTIKOA

Lan industrialak, lan-modu alienatzaile hark, langileari sufrimendua eragin eta errealizatzea eragozten zion, beraz. Dirudenez, errealizatu nahi izate horretarako aukera artearen eremuan aurki zitekeen, hurrengo lerroetan azalduko dugun bezala. Ikusiko dugunez, arte-praktikak, aberastasunaren metaketa helburu zuen logikatik kanpo, eremu autonomo bat eraikitzea lortu zuen, eta fenomeno hura, Peter Bürgerrek adierazten duen moduan, artearen autonomia edo autonomia artistiko bezala ezagutuko da.³⁰

Industrializazioa gertatzeaz batera, artea eta lana bereizi egin ziren. Lan industrialaren aldean, artearen eremua zeharo apartekoa zen, bai ezaugarriengatik eta bai funtzionatzeko moduarengatik, zalantzarik gabe. Batetik, lanari ematen zitzaion zentzua zen guztiz desberdina; artistarentzat bere lanak zuen zentzuak ez zeukan zerikusirik batere merkantzien produkzio kapitalistako lanak zuenarekin. Fabrikako langilearen motibazioa ekonomikoa baitzen, eta artistaren motibazioa, aldiz, artea bera. Bestetik, lan egiteko modua zen zeharo bestelakoa. Artistaren lana industrializazioaren eraginetik aparte mantendu zen, eta Erdi Aroko artisauen produkzio-moduari atxikita jarraitu zuen, eskuzko lanaren tradizioari lotuta. Beste ogibideak merkatu modernoaren eskakizunetara egokitu ziren, baina artea ez, ordea, eta sistema ekonomikoa nahiz politikotik eta praktika erritualetatik bananduta, bere esparruaren autonomia aldarrikatu eta estatus berezi bat hartu zuen, Bürgerrek azaltzen duenez.³¹

Produzitzeko modu industrialaren eta artisau-moduaren artean zeuden desberdintasun haien atzean, ezkutuan, arrazoi ideologikoak zeuden, José Luis Break aditzera ematen

29 MARX, Karl: op. cit., 1980 (1) (105. or.).

30 BÜRGER, Peter: *Teoría de la vanguardia*, Península, Bartzelona, 2000 (99. or.).

31 Ibidem (65. or.).

duenez.³² XIX. mendearen erdian, industriak hazkunde ikaragarria izan zuen. Boterea aristokraziaren eskuetatik burgesiarenera pasatu zen, eta azken horiek beraien mundu-ikuskerara ezarri joan ziren. Pierre Bourdieuk kontatzen duen moduan, kapitalaren meta-keta xede zuen botere berri hark, poliki-poliki, bere morala gizartean arau bihurtzeari ekin zion. Kulturarik gabeko aberats berri haiek, ekonomiaren aldetik zuten botereari esker, bizitza antolatzeke beraien arauak ezartzeaz batera, literaturaren zein artearen esparruko egiteko modua nahiz edukiak baldintzatzten eta beraien gustuak ezartzen ere hasi ziren. Intelektual, idazle eta artistek, ordea, ez zuten burgesiaren mundu-ikuskerara bera.³³ Haien morala bestelakoa zen, eta gustu-kontuetan ere ez zetozen bat. Hala, talde baten eta bestearen interesak hain desberdinak izanik, ekonomiaren eta artearen eremuen arteko talka ekidinezina gertatu zen:

«[...] *el campo económico surgió históricamente como un universo en el cual, según se dice, "los negocios son los negocios" [...]; el campo artístico, por el contrario, se constituyó gracias a la negación, o inversión, de la ley de la ganancia material*».³⁴

Burgesiaren hegemonia berriak eta produkzio kapitalistaren inperioaren logikak lana aberastasuna metatzeko tresna bihurtzean, artistak eta intelektuak, produkzio-modu haiekin bat egin ordez, aurka agertu ziren. Bürgerrek azaltzen duenez, arteak estatus berezi bat eraiki zuen sistema kapitalistaren barruan, eta horren ondorioa izan zen aipatu berri dugun autonomia artistikoaren aldarrikapena.

Burgesiaren hegemoniaren eta hark ezarri zituen gustu eta balioen kontrako erreakzio gisa sortu zen autonomia artistikoa, bai eta bohemia³⁵ izenaz ezagutzen den fenomeno ere. Burgesiak bere ohitura eta gustuak arau bihurtu nahi zituen bezala, artistek eta intelektuak kontrako ohitura eta gustuak defendatzeari ekin zioten. Kotsentsua urratuz, eztabaidak sortuz, probokatuz, burgesiaren normalizazio-prozesua etetea lortu nahi

32 BREA, José Luis: *El tercer umbral. Estatuto de las prácticas artísticas en la era del capitalismo cultural*, Cendeac, Murtzia, 2008 (9. or.).

33 BOURDIEU, Pierre: *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*, Anagrama, Bartzelona, 1995 (113.-118. or.). Burgesiaren etorreraren aurrean artistek eta intelektuak eremu autonomo bat eraiki zutelak kontatzen du Bourdieuk. Zehaztu behar da, dena den, artearen eremua ez zela homogenea, eta alde horretatik, artea ulertu eta egiteko modu desberdin eta kontrajarriak zeudela. Bourdieuk, zehazki, hiru joera aipatzen ditu. Batetik, "arte burgesa" edo arte komertzial deritzona omen zegoen: nagusi zen klasearekin lotzen zen joera hura, aldarrikatzen zituen bizimodu eta balioengatik eta lortzen zituen etekin material eta sinbolikoengatik. Bestetik, "arte sozial" izenaz ezagutzen zen arte-joera aipatzen du Bourdieuk: arte komertziala defendatzen zutenen nahiz artearen purutasunaren alde zeudenen aurka agertzen zen, eta sorkuntzaren funtzio sozial eta politikoa defendatzen zuen. Eta azkenik, "arte arteagatik" izenaz ezagutzen zen joera zegoen: artearen purutasuna eta autonomia defendatzen zituen, eta ideologia honen arabera, arteak artearen beraren barne-arauak soilik erantzun behar zien, eta ez zuen zertan erabilgarri gertatu, ez kanpoko eremuekiko konpromisorik agertu, ez eta publiko burgesaren gustuko izan ere. Hain zuzen ere, azken joera horri buruz ari da Bourdieu artearen autonomia edo autonomia artistikoa aipatzen dituenean.

34 BOURDIEU, Pierre; Wacquant, Loïc J.D.: *Respuestas por una antropología reflexiva*, Grijalbo, Mexiko, 1995 (64. or.).

35 LÓPEZ CUENCA, Rogelio: "Ciudad Picasso" kapitulua, in ZENBAIT AUTORE: *Ciudad Picasso*, Galería Juana de Aizpuru, Madril, 2011 (129. or.). Iturria: http://www.malagana.com/libros/ciudad_picasso.pdf
Ciudad Picasso izeneko proiektuan, Rogelio López Cuenca Picassoaren figura hartzen du bohemiaren eredu gisa, eta honela definitzen du: «*La figura romántica del artista como héroe trágico, arrastrado por un impulso inconsciente, cuya excéntrica originalidad se adelanta a los cánones de su época, con los que choca frontalmente; el artista profeta que, a modo de Cristo Redentor, se sacrifica por el porvenir de la humanidad toda —en este caso, por el progreso del arte y la cultura universal—, ignorado por una sociedad que sólo reconocerá su error a posteriori, con la erección de templos expiatorios dedicados al culto y salvaguarda de las reliquias del mártir, ante las cuales los peregrinos, vanidosos, nos podemos pensar como cultos y entendidos mientras condenamos la ignorancia y la barbarie de aquellos que en el pasado no supieron apreciar la verdadera belleza y su valor*».

zuten. Burgesiak, esate baterako, ordena eta eguna defendatzen zituen; bohemiak, aldiz, kaosa eta gaua. Negatibitatearen bitartez definitzen zuen bere jarrera. Gizarte diziplinatu eta normalizatu haren aurka, periferiara bultzatuak edo oraindik kolonizatu gabe zeuden balioak interesatzen zitzaizkion. Eta burgesiak ezarri nahi zituen gustu estetiko eta bizi-moduaren aurka, bere purutasuna, askatasuna eta indibidualtasuna aldarrikatzen zituen bohemiak. Artea egitea zen helburua, baina ez edonola: burgesiaren eta merkatuaren arauen aurka eta haien eraginetik ahal zen urrutien egin nahi zuen artea bohemiak. Logika komertzialari uko egin, eta autonomian eta askatasunean oinarritutako sorkuntzari ematen zion garrantzia, sorkuntza eta errentagarritasun ekonomikoa ez baitziren bateragarri haientzat. Eremu sinbolikoan arrakasta izatea zen artista bohemiaren helburua, eta artelanak izan zezakeen arrakasta ekonomikoarekin bateragaitza zen hori. Autonomia artistikoa eta bizimolde bohemiakoa, nolabait, bizimodu burgesarren erabilgarritasun, funtzionalitate edo instrumentalizaziotik desberdintzeko modu bat ziren.

Bohemiak, azken batean, lanaren zatiketa, diziplina, kontrola eta errutina oinarri zituen lan industrial alienatzaileari eta haren inguruan eraikitako bizimoldeari aurre egitea zuen helburu. Bizitza benetakotasunez bizitzea lortu nahi zuen. Kafeetan bildu eta izaten zituzten eztabaida sutu eta amaigabeak, gauetan musikaz eta ardoz blaitutako festak, amodio-kontuak... Arte-praktikari uztartuta zihoazen halako guztiak, artistaren bizimodutik ezin banandu zitezkeen. Artea eta bizitza uztartzea ezinbestekoa zen egunerokotasuna intentsitatez bizitzeko. Artista bohemiari buruz Balzacek emandako definizio honek, Bourdieuk jasoa, oso ondo biltzen du, autonomiaren ideari atxikita, artearen eta bizitzaren arteko mugak desegiteak zer esan nahi zuen eta espiritu bohemiaren muina zertan zen:

*«Su ocio es un trabajo, y su trabajo un descanso; es alternativamente elegante y descuidado; se pone, cuando le viene en gana, el guardapolvo del labrador, y decide qué frac llevará el hombre de moda; no sigue ninguna ley, las impone. Tanto cuando se ocupa de no hacer nada como cuando piensa una obra de arte sin parecer ocupado; [...] tanto cuando no tiene ni un real como cuando tira el oro a manos llenas, él es siempre la expresión de un gran pensamiento y domina la sociedad».*³⁶

Artearen autonomiari eta bohemiaren fenomenoari buruz, gizarte baten barruan sortutako beste gizarte bat izan zela esaten du Bourdieuk. Beren esparru propioa eraikitzea lortu zuten, arau propioak zituena, autonomoa. Alde horretatik, bizitzeko beste modu bat asmatzeko laborategi gisa funtzionatu zuen artearen eta kulturaren esparruak. Bohemiaren fenomenoaren interes, balio eta ekarpen nagusia garai hartako margolari eta eskultore ofizialen izate formalarekin nahiz burgesiaren bizimodu errutinarioarekin etetea izan zen. Bestelako bizimolde bat asmatzea, lana, sorkuntza, fantasia, musika, edaria eta maitasuna uztartzen zituen bizimolde bat, eta hura arte bilakatzea, horra bohemiaren xedea. Bourdieuk esaten duen moduan: *«[...] convertir el arte de vivir en una de las bellas artes [...]»*.³⁷

36 BOURDIEU, Pierre: op. cit., 1995 (92. or.).

37 Ibidem (91. or.).

2.6. KAPITALISMOA ETA ARTEA

Marxen obra oso oparoa izan arren, ez zuen arteari buruz berariazko ezer ere idatzi. Dena den, bada arteari buruzko aipamenik zenbait testutan, eta aipu horiek kontuan hartuz eta aztertuz, Marxen ideia estetikoek inguruko lan sakona egin zuen, adibidez, Adolfo Sánchez Vázquezek. Orain datozen lerroetan horrexeri helduko diogu, hain zuzen, eta Marxek lanaren eta artearen arteko harremana nola ulertu zuen azalduko dugu, Sánchez Vázquezek idatziak oinarri hartuz.

Lana eta artea elkarrengandik guztiz bereiz zeuden eremutat zeuzkaten, oro har, garai hartan: lanak gizakiari bere izaera sortzailea ukatzen zion, aberastasuna sortzera bideratutako jarduera zen neurrian, eta artea, aldiz, gizakiaren espresio askerako bidea eta jarduna zen, nolabait. Lehena nekearen eta sufrimenduaren pareko zen, beraz, eta zoriontasunaren eta plazeraren pareko, bigarrena. Marxek, ordea, lana eta artea ez omen zeuzkan jarduera kontrajarritzat. Sánchez Vázquezek azpimarratzen duenez, Marxen pentsamoldean, produkzio oro gizakiaren sorkuntza zen, edo gizakiaren izaera sortzailearen espresio. Ildo horretatik, lana ez zen behar jakin batzuk asetzeko balio zuten objektuak sortze hutsa, eta bai, aitzitik, ideiak, desirak eta giza sentimenduak hezuramaitzen zituen jarduera bat ere. Horregatik, artea ez ezik lana ere jarduera sortzailea zelako, artearen bidez ez ezik lanaren bidez ere gizakiak bere buruaren espresio ziren objektuak sortzen zituelako, bi-biak elkarren antzekotzat zeuzkan Marxek. Lana eta artea enbor beretik zetozen, Marxen iritzian; halaxe dio Sánchez Vázquezek:

*«Arte y trabajo se asemejan [...] por ser la actividad creadora mediante la cual el hombre produce objetos que lo expresan, que hablan de él y por él. Entre el arte y el trabajo no existe, por tanto [...] oposición radical [...]».*³⁸

Ñabardura txiki bat egiten du, dena den. Gizakiaren beharrak bi eratakoak direla aipatzen zuen: behar materialak, erabilgarritasunari edo praktikotasunari dagozkionak, eta behar espiritualak, espresioa, gizatasunaren baieztapena edo subjektibitatea azalarazteari dagozkionak. Baina bai batzuk eta bai besteak lanaren bitartez aseko ziren, Marxen esanetan, eta alde horretatik, lanak bi funtzio beteko zituen, haren ustez: praktikoa eta estetikoa. Funtzionalitatea edo erabilgarritasuna tarteko zenean, gizakiak garatu beharreko lanak zenbait muga aurkituko zituen. Halakoetan, izan ere, lanak helburu zehatz bat zuen, funtzio jakin bat bete edo erabilera jakin bat izango zuen objektu bat ekoiztea, eta helburu horrek baldintzatu egiten zuen gizakiaren izaera, ahalmen eta lan sortzailea. Aldiz, lanaren helburua gizakiaren espiritualtasuna asetzea edo hari bide ematea zenean, orduan, jarduera mugarik gabea zen; orduan, erabilgarritasunetik eta arlo praktikotik esparru estetikorako pausoa gertatzen zen, edo beste modu batean esanda, lanetik arterako pausoa.

Marxentzat, artea eta lana, edo lana eta artea, gizakiaren esentzia sortzailearen ondoriozko jarduerak ziren bi-biak. Lana, sortzailea eta librea zenetan ere, mugatua gertatzen zen, ordea, helburu zehatz bat bete behar zuelako. Aldiz, arte-praktikan muga horiek desagertu egiten ziren, eta helburu zehatz bati erantzun behar ez izateak norberaren ahalmen eta subjektibitate guztia garatzeko eta azaleratzeko aukera ematen zion gizakiari. Lanak behar praktikoa materialak asetzen zituen, eta arteak, berriz, espiritualtasunarekin edo espresioarekin lotutakoak. Horixe zen Marxen ikuspuntua, Sánchez Vázquezek azaltzen duenez, eta bazegoen, beraz, produkzio materialaren eta produkzio artistikoaren artean halako alde kualitatibo bat, baina kontrakotasunik ez, ordea. Gizakiak bere gizatasuna modu askean azaleratzen zueneko lan-esparrua zenez artearena, alde estetikoaren ere gizakiaren beharra bilakatzen zen, jatea edo lo egitea bezala. Sánchez Vázquezen esanetan, esparru estetikoaren lan librearen adarrik garatuena izango zen Marxentzat:

*«[...] ve en él un peldaño superior del proceso de humanización de la naturaleza y del hombre mismo, una dimensión esencial de su existencia, dimensión que se da justamente por la semejanza del arte con lo que para Marx es la esencia misma del hombre: el trabajo creador. Así pues, el arte, surge para satisfacer una necesidad específicamente humana; la creación y el goce artísticos caen, por tanto, dentro del reino de las necesidades del hombre».*³⁹

Marxen iritzian, beraz, lanak artearen aldean hainbat muga izanagatik ere, lanaren eta artearen artean berez ez zegoen kontrakotasunik, baldin eta lana librea bazen. Zeren eta bestela, bai, lana eta artea kontrakotasun betean gertatzen baitziren lana alienatua zenetan; alegia, gizarte kapitalistan.

Horixe da egoera, ordea. Arte-praktika gizarte kapitalistaren parte da, eta haren logikak baldintzatzen du, erabat. Theodor Adornok eta Max Horkheimerrek, besteak beste, arte-praktika merkantzia bihurtzean haren zentzua galbideratzen zela salatu zuten:

*«El arte es una especie de mercancía, preparada, registrada, asimilada a la producción industrial, adquirible y fungible; pero esta especie de mercancía, que vivía del hecho de ser vendida y de ser, sin embargo, esencialmente invendible, se convierte hipócritamente en lo invendible de verdad, tan pronto como el negocio no sólo es su intención sino su mismo principio».*⁴⁰

Artearenak beste mundu bat izan nahi zuen, eta izan zen. Gizarte kapitalista burgesaren lege eta arauetatik bestelakoa, merkantilismoaren eta diru-gosearen agindupeko logikaren kontrakoa. Baina hori iraganaren parte da. Artearen eremuak aspaldi utzi zion aparteko mundu bat izateari, Gilles Lipovetskyk eta Jean Serroyk azaltzen duten bezala:

39 Ibidem (60. or.).

40 ADORNO, Theodor W.; HORKHEIMER, Max: *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madril, 1998 (203. or.).

«El universo del arte ha dejado de ser un "antimundo": hoy participa totalmente en las leyes del sistema mediático y económico». ⁴¹

Arteak autonomia galdu du gizarte kapitalistan. Gizarte burgesaren instituzio, ohitura eta balioen kontra agertzen zen modernitateko artista konformagaitz hura arte-sistemaren barrenean dago orain, jada kanporik ez baita, aurrerago ikusiko dugun moduan. Mundu-mailan irekiz joan diren erakustoki, galeria, museo, feria eta bienalen gorakada ere horren froga da. Espazio horien arrakasta bertaratutako bisitarien kopuruaren arabera neurtzen da, eta artelanak, beste edozein produktu bezala, merkatuan saldu eta erosten diren merkantziak baino ez dira.

Artearen eremua gustu, moda eta merkatuaren legeen eraginpean dago, eta artistaren jarduna baldintzatzen du. Hala, sorkuntzaren eta merkantziak produzitzearen arteko talka gertatzen da. Hain zuzen ere, kontraesan horren berri ematen digu Marxek. Aipatu dugun moduan, Marxentzat, produkzio-eredu kapitalistan lana, alienatua zen neurrian, espresioa eta autorrealizazioa ukatzen dizkion jarduera du gizakiak, eta artea, aldiz, kontrakoa: bere barne-desira eta ahalmena kanporatu, espresatu eta objektibatzeke modua ematen dio gizakiari arteak, lana dela medio. Arrazoi horregatik, kapitalismoa eta artea kontrakotasunean daudela esaten du Marxek: «[...] [la] producción capitalista es enemiga de ciertas ramas de producción, como, por ejemplo, el "arte y la poesía"». ⁴²

Produkzio-sistema kapitalistaren eta arte-produkzioaren arteko bateraezintasunaren berri eman zuen. Kapitalismoan artea lan bilakatzen bada, artea lan kapitalista bihurtzen da ezinbestean, eta horrenbestez, beste edozein lanekin gertatzen den bezala, ekonomiaren arauen arabera funtzionatuko du. Eta Marxentzat, hain zuzen ere, produkzio artistikoa produkzio kapitalistaren legeetara egokitzeke zetorren bateraezintasuna, baldintza ekonomikoek gizakiaren jarduera aske eta sortzailea baldintzatzen dutela-eta hura mugatzea dakartelako, eta beraz, pobreagoa bihurtzea. Artearen ezaugarrietan bereizgarriena jarduera libre eta sortzailearen eremu izatea bada, ekonomiaren arauen menpeko bihurtuko orduko, arteak zentzua erabat galdu du. André Gorzek esaten duen bezala: «Todo se degrada cuando se los somete a la racionalización económica: a las normas de rendimiento». ⁴³

41 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: *La cultura-mundo. Respuesta a una sociedad desorientada*, Anagrama, Bartzelona, 2010 (97. or.).

42 MARX, Karl: *Teorías de la plusvalía I. Tomo IV de El Capital*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1980 (2) (262. or.).

43 GORZ, André: *Miserias del presente, riqueza de lo posible*, Paidós, Buenos Aires, 1998 (109. or.).

-3-

**LANAREN
PROMESA**



► **"AITA-SEMEAK", 2015.**

Biak langile, baina nor bere belaunaldiaren ezpala dira aita-semeak. Kapitalismoa, industrialia izatetik postindustrialia, kulturala, immateriala, sinbolikoa izatera pasatu da. Bilakaera horretan, ekonomiaren produkzio-moduak aldatu egin dira, eta esplotazio- zein erresistentzia-moduak ere bai.

Lotura: <https://vimeo.com/132515926>



3.1. GIZARTE INDUSTRIALETIK GIZARTE POSTINDUSTRIALERA

Kapitalismoaren sorrera, lehen azaldu dugun bezala, lur komunalen desjabetzea, lurralde berrien kolonizazioa eta sexuaren araberako lan-banaketa batu zituen prozesuaren ondorio izan zen. Nekazaritzatik lan industrialera langilea egokitu zedin, funtsezkoak izan ziren lanaren aldeko etika eta diziplinamendua. Bestalde, artearen eta lanaren arteko bateraezintasuna zela eta, arteak bere eremu autonomoa eraiki eta iraunaraztea lortu zuen une jakin batean, produkzio-eredu kapitalistaren logikatik kanpo eta burgesiaren hegemoniaren kontra. Orain erakutsiko dugun bezala, alabaina, kapitalismo industrialak bilakaera bat izan zuen, eta harekin batera, artearen esparruak ere bai.

3.1.1. Kapitalismo industrialaren krisia

60ko hamarkadan berebiziko aldaketak izan ziren. Industria Iraultzaren sorreratik, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenei esker, lan-eredu industrialak izugarri garatu zen. Produktibitatea ikaragarri handitu zen. Langileek, hamaika aldarrikapen eta borroka tarteko, lan-baldintzak hobetzea lortu zuten. Lanaldia murriztea lortzeaz batera, denbora libre irabaziz joan ziren. Soldadak hobetzea lortu zuten, eta zahartzaroan erretirorako eskubidea izatea ere bai. Hazkunde ekonomikoak kontsumo-gizartea sortzea ekarri zuen, eta harekin batera, garai batean burgesiaren esku baizik ez zeuden hainbat pribilegio langile-jendearen esku ere egotea. Merkatuak eskaintzen zituen zerbitzu eta objektuen aukera izugarri ugari hura zorientasunaren promesa zen. Hantxe zeuden lan-prozesuen automatizazioa, etxeko lanetarako aparatu asmatu berriak (garbigailua, xurgagailua...), garraio-sistemak (trena, autoa, hegazkina), komunikazioak (posta, telefonoa, irratia, telebista, sare informatikoak)... Eta bazirudien horiek guztiek gizakiari askatasuna ekarriko ziotela. Aldi berean, gainera, langile-jendea seme-alabei ikasketak emateko modua izaten hasi zen. Kapitalismo industrialak, hala, kontsumoaren kapitalismoari bidea ireki zion.⁴⁴ Eta prozesu hartan, lehenago kontzientzia soziala eta solidaritatea erakusten zuen proletariotza hura, apurka-apurka, kontsumitzaile bezala integratu zen ongizatearen gizartean, Miguel Amorósek azaltzen duen bezala.⁴⁵

50-60ko hamarkadetako ustezko mundu zoriontsuaren ondoren, kontsumo-gizartearen promesa hura izugarritzko iruzurra izan zela ohartu ziren, Thomas Franken esanetan.⁴⁶ Frankek dioenez, gizarte-masarentzat konformismoa gotorleku izan zen, baina 60ko hamarkadan kontrako ahotsak ere agertu omen ziren, gogor agertu ere, konformismoari aurre egitera eta norberaren berezitasuna eta indibidualtasuna aldarrikatzera dei eginez. Eta hala, produkzio eta kontsumo kapitalistaren gainean sostengatzen zen ongizate-

44 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (8. or.).

45 AMORÓS, Miguel: *Tecnología y disolución de clases. Las armas de la crítica*, Likiniano Elkartea, Bilbo, 2004 (40. or.).

46 FRANK, Thomas: *La conquista de lo cool. El negocio de la cultura y la contracultura y el nacimiento del consumismo moderno*, Alpha Decay, Bartzelona, 2011 (230. or.).

gizarte hark bitxia badirudi ere ondoeza eragiten baitzuen kontsumitzaile bihurtutako proletario haiengan, areagotuz joan zen ondoez hari ihes egiteko nahia, eta ugaritzen, aldi berean, errutinari, estandarizazioari eta konformismoari uko egiten hastearen eta benetakotasunaren nahiz bizi-esperientzia aberatsagoen aldeko aldarriak.

Ondoez hura, funtsean, bizitza produkzioaren eta kontsumoaren inguruan antolatuta egotetik zetorkien. Fabrikako lan mekanikoak, lanaren zatiketak, teknikaren garapenaren protagonismoak, hierarkiak, autoritarismoak, diziplinak eta ordutegi inposatuek, izan ere, fabrikako hormen artean batere tokirik gabe uzten zuten langilearen giza alderdia. Alde materialetik begiratuta, langileek hobekuntzak lortu zituzten, baina lanak indar gehiegi kentzen zien, eta kontsumoak nekez betetzen zuen beren baitan sumatzen zuten hutsunea. Benetakotasunik gabeko bizitza zutelako sentipena zabaldu zen, eta bizi-esperientziarik ezarena, zoritxarrarena, desilusia. Protestak eta haserrea areagotuz joan ziren, eta ondoez hartatik jaiotako indar eta kemen harexek eraman zuen gizartea kapitalismo industrial edo produkzio-eredu fordistatik testuinguru postindustrial edo postfordista batera, Frayneren⁴⁷ eta Virnoren⁴⁸ ustean.

3.1.2. Kapitalismoaren espirtu berria

Kapitalismoarekiko konpromisoa justifikatzen duen ideologiari “kapitalismoaren espirtu” deitzen diote Luc Boltanskik eta Ève Chiapellok.⁴⁹ Izan ere, autore horien esanetan, kapitalismoak garai bakoitzean hartzen duen espirtua hari egiten zaion kritikaren ondorio da. Edo beste era batean esanda, kapitalismoaren espirtua hari egiten zaion kritikari lotuta doa. Azalpen hau ematea beharrezkoa iruditzen zaigu, gizarte industrialetik postindustrialera edo fordismotik postfordismora izandako bilakaera ulertu ahal izateko.

Boltanski eta Chiapelloren tesiaren arabera, kapitalismoa kapitalaren metaketa muga-gabea helburu duen sistema bat izanik ere, kapitala sortzeko eta metatzeko jarduera oro ez da izaten, beti eta berez, onargarria. Aberastasuna sortzeko era guztiak ez dira

47 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (60. or.).

Lan industrialari lan fordista ere esaten zaio, eta Fraynek azaltzen duenez, lan-eredu haren aurrekaria Frederick Taylor ingeniariak garatu zuen, XIX. mende amaieran, produkzio kapitalistak helburu zuen efizientzia eta etekina areagotzearen kostuak murrizteko antolaketa-modu bat diseinatu, gerora taylorismo deritzona, eta funtsean, lana modu zientifikoan antolatu eta zatitzean eta langileak kontrolatzean zetzana. Henry Ford enpresaburuak (Ford Motor Companyren fundatzailea), gero, taylorismoak ezarritako aldaketak perfektionatu, modu intentsiboan baliatu, eta katean lan egiteko sistemari enpresa handitzeko beste estrategia batzuk gehitu zizkion. Produkzio masiboa estandarizatu, autoen produkzioa handitzea, kostuak murriztea eta errentagarritasun ekonomikoa areagotzea lortu zuen Fordek, eta lan-modu horrek langileari gizatasuna ukatzen bazion ere, gerora fordismo deitu izan zaion produkzio-sistema huraxe bihurtu zen industriaren produkzio-eredu hurrengo hamarkadetan.

Postfordismoa produkzio-eredu industrial edo fordistaren krisiaren ondorioz jaio zen. Produkzio-modu honek fabrikako muntaketa-katean langileari ukatuak zitzaizkion alderdiak aintzat hartu eta baliatu egiten ditu. Ezagutzen, informazioan eta zerbitzuetan oinarritutako ekonomia da, eta horregatik, Fraynek dioen moduan, langileari ukatua zitzaion gizatasuna bere jardueraren bidez berreskuratzeko aukera emango diote lan-eredu postindustrialek.

48 VIRNO, Paolo: *Virtuosismo y revolución. La acción política en la era del desencanto*, Traficantes de sueños, Madril, 2003 (26. or.). Paolo Virnok honela definitzen du produkzio-eredu postfordista: «[...] el postfordismo remite de modo general a la informatización de lo social, la automatización en las fábricas, el trabajo difuso, la hegemonía creciente del trabajo inmaterial y del llamado terciario (comunicativo, cognitivo y científico, performativo, afectivo)».

49 BOLTANSKI, Luc; CHIAPELLO, Ève: *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madril, 2002 (41. or.).

berdinak, denak ez dira justuak, eta beraz, ez dira denak justifikagarriak. Ez da gauza bera, adibidez, norbaitek bere lurra baldintza duinetan landu eta handik lortutako produktua saltzetik etekin ekonomikoa ateratzea, edota horretarako, lurra lantzeko, eskubide oro ukatuak zaizkion lan-indar esklaboa erabiltzea. Azken hori bezalako egoeretan, aberastasuna sortzeko modua testuinguru bakoitzeko arauen arabera bidegabekotzat hartua denean, haren aurkako kritika, haserre eta protestak sortzen dira. Kapitalismoak, beraz, ezin du kapitala metatze hutsera mugatu. Metatze hori justifikatuko duen etika baten babesa behar du nahitaez. Kritika antikapitalistari aurre egiteko bere burua justifikatu beharrean aurkitzen da, eta beraz, aldakorra da, malgua, egokitu egiten da. Boltanskik eta Chiapellok honela azaltzen digute:

*«[...] para mantener su poder de movilización, el capitalismo debe de incorporar recursos que no se encuentran en su interior, acercarse a las creencias que disfrutan, en una época determinada, de un importante poder de persuasión y tomar en consideración las ideologías más importantes —incluidas aquellas que son hostiles— que se encuentran inscritas en el contexto cultural en el cual se desarrolla. De este modo, el espíritu que, en un momento determinado de la historia, posibilita el proceso de acumulación se encuentra impregnado por producciones culturales contemporáneas a él, pero que han sido desarrolladas en la mayoría de los casos con fines totalmente ajenos a la justificación del capitalismo».*⁵⁰

Autore horien esanetan, 60ko hamarkadan hainbat tokitan izandako gertakizunak erabakigarriak izan ziren lan-eredu fordista eta haren inguruan eraikitako bizimodua krisian ipini eta kapitalismo postfordistari ongiatorria egiteko. Parisko 68ko maiatzeko esperientzia hartzen dute erreferentziatzat aldaketa-prozesua deskribatzeko, eta honela diote:

*«[...] las cualidades que en este nuevo espíritu son garantes del éxito —la autonomía, la espontaneidad, la movilidad, la capacidad rizomática, la pluricompetencia (en oposición a la rígida especialización de la antigua división del trabajo), la convivencialidad, la apertura a los otros y a las novedades, la disponibilidad, la creatividad, la intuición visionaria, la sensibilidad ante las diferencias, la capacidad de escucha con respecto a lo vivido y la aceptación de experiencias múltiples, la atracción por lo informal y la búsqueda de contactos interpersonales— están sacadas directamente del repertorio de mayo de 1968».*⁵¹

Boltanskik eta Chiapellok diotenez, 68ko maiatzaren testuinguruan azaleratu zen ondoez eta haserre hura arrazoi baten baino gehiagoren ondorio zen, eta bi eratan formulatu zen: “kritika soziala” eta “kritika artista” deritzetenen bitartez.⁵²

50 Ibidem (61. or.).

51 Ibidem (149. or.).

52 Ibidem (85.-87. or.).

“Kritika soziala” deitzen dioten hark lehenik sozialistak eta ondoren marxistak izan zituen oinarri, bi autore horien esanetan. Langileak esplotazioaren biktima zirela, horixe zen kritika haren salaketa nagusietakoa; esan nahi baita, urteen joanean ekonomiaren garapenaren hazkunderari esker irabaziak sortuagatik ere, irabazi horien banaketatik kanpo utziak zirela. Indibidualtasunak langileen arteko diferentzia eta egoismoa eragin zituela ere bazegoen haien kezken artean, eta hierarkiari eta produkzioaren antolakerari buruzko hainbat kontuz gain, langileen segurtasuna bermatzearen aldeko aldarrikapena ere egin zuen. Funtsean, langileriaren lan-baldintza duinekiko errespetua, lanpostuak mantentzearen aldeko borroka eta era horretako eskakizunei eman zien lehentasuna, eta laburbilduz, beraz, langileriaren aldarrikapen- eta borroka-molde tradizionalei atxikita ageri zen “kritika soziala”.

“Kritika artista” esaten dioten hark, berriz, lan industrialaren hegemoniak gizatasunaren galera eragin zuela salatu zuen nagusiki: lanaren zatiketan, ordutegi inposatueta eta autoritarismoan oinarritutako lan-modu hark, langileari autonomia eta sormena ukatzen zienak, giza alderdia galtzea ekarri zuela, alegia. Kapitala metatzea beste helbururik gabeko eredu hark langilea produkzio industrialaren menpeko egin zuen; lan egiteko modu hura, eta are bizimoldea bera, kontrolean eta diziplinan oinarrituak, zapalkuntza hutsa ziren. Horregatik, artisten eta intelektualen kritikak burgesiaren moral, gustu eta bizimodua izan zituen jomuga. Kritika honen oinarria, lehen ikusi dugun moduan, bizimodu bohemiaren logikarekin bat zetorren, eta “kritika artista” hark, finean, lana bakarrik ez baizik eta bizimodua bera bihurtu nahi izan zuen eztabaidaren muin.

Bi joera horien atzean justizia sozialarekiko kezka eta askatasun indibidualerako nahia daude nolabait, eta bata eta bestea ez dira ezinbestean bateragarri, David Harveyk esaten duenez.⁵³ Horren adibide, hain zuzen ere, 68ko testuinguruan sortu zen egoera bat aipatzen du Harveyk: elkartasun sozialaren alde agertu ziren ezkerreko sindikatu eta partidu tradizionalak leudeke alde batean, eta askatasun indibidualaren eskaeraren alde egin zuen ikasle-mugimendua, beste aldean. “Kritika soziala” egin zutenen logikan, esplotazioaren nozioa zen langileriaren kritikaren ardatz nagusia, eta “kritika artista” egin zuten ikasle, intelektual eta artistek, berriz, alienazioaren nozioa izan zuten kritikaren ardatz, Boltanski eta Chiapelloren iritziz. Batzuek zein besteek burgesia desagerraraztea zuten xede eta amets, baina hala eta guztiz ere, horretara bultzatzen zituzten arrazoiak berberak ez zirelako, batetik, eta artista indibidualtasunaren, egoismoaren eta moralik ezaren sinonimotzat hartzen zelako, bestetik, bateraezintasunak eta tirabirak sortu omen ziren haien artean.

Edonola ere, “kritika artistak” bete zuen papera azpimarratzen dute autore horiek, joera horretakoen aldarrikapen eta eskakizunak izan omen zirelako, funtsean, kapitalismoari espiritu berri bat eman eta fordismotik postfordismorako jauzia egiteko baliagarrienak gertatu zirenak. Diotenez, “kritika artista” izan zen gaur egun dugun ordena ekonomiko,

53 HARVEY, David: *Breve historia del Neoliberalismo* (47. or.). Iturria: <https://teoriaeconomicatercersemestreri.files.wordpress.com/2012/09/breve-historia-del-neoliberalismo-de-david-harvey1.pdf>

politiko eta sozialerako zorua, XIX. mendeko artista bohemiaren bizimoduari zegozkion ezaugarriak izan baitira, hurrengo ataletan ikusten joango garen bezala, lan-eredu postindustrialetan balioa eman zaienak: autonomia, kreatibitatea eta autorrealizazioa, besteak beste.

Horri dagokionez, Franco Berardik, "Bifo" goitizenez, ñabardura txiki bat gehitzen dio Boltanskik eta Chiapelloren tesiari, aipatu beharrekoa, gure ustez. Bifok dio, izan ere, ez zela kasualitatea izan 80ko eta 90eko hamarkadetan enpresa-munduan agertu ziren enpresari berritzaile asko eta asko 70eko hamarkadan mugimendu postsozialista, anti-autoritario, anarkiko eta autonomoetan arituak izatea. Autore horren iritziz, ordea, hori ez zen gertatu balio iraultzaileei traizio egin zitelako; konbergentzia-kontua besterik ez omen zen izan.⁵⁴ Hau da, eraldaketaren aldeko mugimenduek zituzten interesak eta kapitalarenak momentu hartan bat etorri zirela eta horrek eragin zuela konbergentzia, horra Bifok dioena.

Jacques Rancière ez dator bat bi kritikak kontrajarritzat jotze horrekin. Hark dioenez, Boltanski eta Chiapellok azaltzen dutenaren arabera badirudi langileen kezka bakarra lan-baldintzak hobetzea izan zela, eta artistena eta intelektuala, aldiz, kontu estetiko eta intelektualak. Rancièreren esanetan, ordea, langileriaren borroka ez da sekula bizi-erperientzia berri bat eta gaitasun indibidualak kontuan hartzetik bananduta egon:

*«La emancipación social ha sido al mismo tiempo una emancipación estética, una ruptura con las maneras de sentir, de ver y de decir que caracterizaban la identidad obrera en el orden jerárquico antiguo. Esta solidaridad de lo social y de lo estético, del descubrimiento de la individualidad para todos y del proyecto de colectividad libre, ha constituido el corazón de la emancipación obrera».*⁵⁵

Maurizio Lazzarato-ren esanetan ere guztiz irakurketa erredukzionista eta azalekoa da bereizketa hori; alegia, alde batean jartzea askatasuna, autonomia eta benetakotasuna aldarrikatzen zituen "kritika artista" bat, eta beste aldean, solidaritatea eta berdintasuna aldarrikatzen zituen "kritika sozial" bat. Eta Boltanski eta Chiapelloren tesia ukatzera letorke, Lazzaratok dioenez, Frantzia espektakuluaren eremuko artistek eta teknikariek sortutako erresistentzia-mugimendua (Aldizkakoan eta Prekarioen Koordinakundea),⁵⁶ nahiz eta aitortzen duen, aldi berean, hura salbuespen bat izan zela.

60-70eko hamarkaden inguruan, munduko hainbat bazterretan, aldarrikapen eta borroka ugari ekin zieten langileriak, ikasle-mugimenduek, mugimendu feministek, gay eta lesbianek, afroamerikarren eskubide zibilen aldeko mugimenduek, talde ekologista eta antimilitaristek, eta mugimendu antiinperialistek, besteak beste, eta eskakizun eta borroka

54 BERARDI "BIFO", Franco: *El alma y el trabajo*, Elefanta, Mexiko, 2012 (117. or.).

55 RANCIÈRE, Jacques: *El espectador emancipado*, Manantial, Buenos Aires, 2010 (39. or.).

56 Ikusi "Kontra esatearen kontraesanak" azpiatala.

haiek eragin erabakigarria izan zuten hurrengo hamarkadetan kapitalismoak hartu zuten norabidean. Ikusiko dugun moduan, ordea, noranzko hura ez zen, hain justu, eraldaketaren aldeko mugimenduek nahi zutena.

Michael Hardtek eta Antonio Negrik diotenez, kapitalismoak ezer berririk ez zuten asmatu, eginkizun hori ikasle- eta langile-mugimenduek hartu zuten beren gain. Bizitzaren miseriak eta benetakotasunik ezak beste bide batzuk urratzera eta saiatzera eraman zituen, eta horren ondorio omen dira gaur egungo produkzio-, kontsumo-, harreman- eta subjektibazio-modu berriak. Kapitalismoak mugimendu haien ekarpenak eta aurkikuntzak bereganatzea besterik ez zuten egin, bi pentsalarien esanetan:

*«[...] si no hubiera habido revueltas estudiantiles y obreras en los 60, si no hubiese ocurrido el 1968 y la segunda ola de movimientos feministas, si no hubiese estado toda la serie de luchas anti-imperialistas, el capital se habría conformado con mantener su propio dispositivo de poder [...]. La reestructuración de la producción, desde el Fordismo hasta el pos-Fordismo, desde la modernización a la posmodernización, fue anticipada por el ascenso de una nueva subjetividad».*⁵⁷

Kapitalismoak funtzionatzeko konformismoa behar duela uste duena oker dabil. Alderantzizkoa gertatzen dela esan daiteke. Joseph Schumpeterrek azaltzen duen bezala, kapitalismoa sekula ere ez da izan eta ez da izango egonkorra. Ezin du izan. Kapitalismoak, etengabeko ezagutza, ikerketa, esperimentazioa, kreatibitatea eta berrikuntza tarteko, produktu eta zerbitzu berriak fabrikatu eta saltzeko moduak sortu behar ditu, eremu berriak kolonizatu, etengabe. Prozesu horretan, egitura ekonomikoak zahartuz doazen neurrian, ezinbestekoa du haien ordeztu beste batzuk sortzea. Zaharkitutakoak suntsitu eta berriak sortu behar ditu. Horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, kapitalismoaren funtsa eta biziraupena: "suntsiketa kreatiboan".⁵⁸

Marxek ere halatsu jaso zuten, Grundrisseetako atal batean:

*«El capital, empero, como representante de la forma universal de la riqueza —el dinero— constituye el impulso desenfrenado y desmesurado de pasar por encima de sus propias barreras».*⁵⁹

Eta liburu berean, aurrerago, hauxe gehitu zuten:

«[...] pasa también por encima de las barreras y prejuicios nacionales, así como sobre la divinización de la naturaleza; liquida la satisfacción tradicional, encerrada dentro

57 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Imperio*, Harvard University Press, Massachusetts, 2000 (241. or.). Iturria: <http://www.infojur.ufsc.br/aires/arquivos/michael%20hardt%20-%20antonio%20negri%20-%20imperio.pdf>

58 SCHUMPETER, Joseph A.: *Capitalismo, socialismo y democracia*, I. lib., Folio, Bartzelona, 1996 (122.-123. or.).

59 MARX, Karl: *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política (Grundrisse) 1857-1858*, I. lib., Siglo XXI, Mexiko, 2007 (1) (276. or.).

*de determinados límites y pagada de sí misma, de las necesidades existentes y la reproducción del viejo modo de vida. Opera destructivamente contra todo esto, es constantemente revolucionario, derriba todas las barreras que obstaculizan el desarrollo de las fuerzas productivas, la ampliación de las necesidades, la diversidad de la producción y la explotación e intercambio de las fuerzas naturales y espirituales".*⁶⁰

Marxek egoki azaltzen duen moduan, kapitalismoak esparru bati etekina ateratzeko aukera bere muturrera eraman eta agortzen duenean, krisi-egoera sortzen da. Baina krisia kapitalismoaren beraren esentzia da. Bere amaiera baino, bere motorra da. Hain zuzen ere, krisialdia gainditu ahal izateko beharretik dator esparru berrien kolonizazioa. Kapitalaren metaketa mugagabea helburu duen produkzio-ereduan, beraz, muga bakoitza, urratu, apurtu edo gainditu beharreko hesi bat da. Kapitalak ez du esparru zehatz baten barruan jarduten, baizik eta esparru horien mugak gainditu eta esparru berriak kolonizatzen ditu, asegaitza den metaketa-egarria ase nahian.

Kapitalismoari egindako kritika izan zen hurrengo hamarkadetan haren eraldaketa piztu eta bultzatu zuena. Ikusiko dugun bezala, kapitalismoaren espiritu berria, 68ko aldarrikapenekin bat eginez, tradizio bohemio eta artistikoaren eraginetik sortu zen. Eraldaketa hura ez zen, dena den, langileriak, ikasleek, intelektualek eta artistek nahi zuten modukoa gertatu. Paolo Virnok esango lukeen bezala, eskakizun haiek modu "kontrairaultzailean" mamitu ziren:

*«La "contrarrevolución" es, literalmente, una revolución a la inversa. Es decir: una innovación impetuosa de los modos de producir, de las formas de vida, de las relaciones sociales que, sin embargo, consolida y relanza el mando capitalista».*⁶¹

3.2. EKONOMIAREN KULTURIZAZIOARI BURUZ

*«La fábrica postfordista se distingue de la fábrica industrial en que ella ha asimilado en su interior ese espacio 'otro' que era propio del artista. [...] la subjetividad y el 'inconsciente' han devenido un espacio de trabajo fundamental del capitalismo, han sido puestos a trabajar en todas partes y a todas horas».*⁶²

Octavi Comeron

Kontsumo- eta ongizate-gizartearen etorrerak hasiera batean bizitza merezi zuen bizitza baten esperantza sortu bazuen ere, 60ko hamarkadan zehar indar hartuz joan ziren protestek eta aldarrikapenek sinesmen haren porrota ikusarazi zuten. Azaldu dugun

60 Ibidem (362. or.).

61 VIRNO, Paolo: op. cit., 2003 (127. or.).

62 COMERON, Octavi: *La Fábrica Transparente. Arte y Trabajo en la época postfordista*, doktore-tesia, Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelona, 2007 (209. or.). Iturria: http://mpison.webs.upv.es/seminario2/archivos/thesis/Octavi_Comeron.pdf

bezala, ordea, krisia ez da kapitalismoaren amaieraren seinale, haren funtzionamenduaren esentzia baizik. Eta aldarrikapen haiek, hain zuzen ere, kapitalismoa eta haren ondorioak desagerrarazteko ez, baizik eta hura erreformatzeko izan ziren baliagarri. Sasoi hartako borrokak bizi- eta lan-moldeen eraldaketarako pizgarri izan ziren. 60-70eko hamarkadetan sortu ziren mugimenduen aldarrikapen eta borrokek kapitalismoaren berrantolaketa bultzatu zuten.⁶³ Aldarrikapen eta protesta haiekin batera, garapen teknologiko eta informatikoak, aurrena, eta Interneten sorrerak, geroago, produkzio-moduen iraultza eragin dute. Bere garaian lan industrialak nekazaritzaren eremuko lana ordezkatu zuen bezala, orain lan industrialaren lekuan beste produkzio-mota batzuk nagusitu dira. Haren ondoren, Break azaltzen duen bezala, mugimendu bikoitza gertatu da: ekonomiaren kulturizazioa eta kulturaren ekonomizazioa.⁶⁴ Eta horren ondorioz, lanaren eta artearen arteko mugak desegin egin dira. Atal honetan, hain zuzen ere, mugimendu bikoitz horren ezaugarriak aztertuko ditugu. Ikusiko dugu sortu diren lan-eredu berriek artearen esparruarenak ziren hainbat ezaugarri bereganatu dituztela, eta aldi berean, kontrako noranzkoan, artearen eremuak lanaren munduko ezaugarriak bereganatu dituela. Orain, gizarte postindustrialean sortu diren lan-eredu berriek artearen esparruaren ezaugarri ugari ditu, eta alde-rantziz; lana artearen eremuaren gero eta antzekoagoa da, eta artea, lanaren gero eta parekoagoa. Lipovetskyk eta Serroyk esaten duten gisan:

*«Este movimiento de doble dirección crea la mutación característica de la hipermodernidad cultural. En la época de la cultura-mundo, la cultura se vuelve mundo de marcas y consumo, y el mundo comercial se vuelve más o menos cultural».*⁶⁵

Segidan ikusiko dugun moduan, fabrikako lan industrialaren hegemonian langileari ukatuak zitzaizkion hainbat ezaugarri, hala nola kreatibitatea, estetizazioa eta autorrealizazioa, produktiboak bihurtu dira lan postindustrialean.

3.2.1. Produkzio immateriala eta sinbolikoa

Mendebaldeko herrialdeetan paradigma ekonomiko berri baten aurrean gaude. Gizarte industrial edo fordistatik gizarte postindustrial edo postfordistara igaro gara, Byung-Chul Hanen esanetan:

*«El capitalismo industrial muta en [...] modos de producción posindustriales, inmateriales [...]».*⁶⁶

63 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Commonwealth. El proyecto de una revolución del común*, Akal, Madril, 2011 (81. or.).

64 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (21. or.).

65 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (75.-76. or.).

66 HAN, Byung-Chul: *Psicopolítica. Neoliberalismo y nuevas técnicas de poder*, Herder, Bartzelona, 2016 (2) (16. or.).

Marta Malok aipatzen duen bezala, bi arrazoi nagusi daude horren atzean.⁶⁷ Alde batetik, Mendebaldeko produkzio industrialak kapitalistari errentagarrien gertatzen zaion lurraldeetara desplazatu dela; hau da, produkzioa deslokalizatu egin da, eskulan merkeagoa dutela eta kapitalistari irabazi handiagoak ematen dizkieten tokietara. Eta bestetik, lehen seriean eta masiboki ekoizten ziren merkantzia estandarizatuak protagonismoa galduz joan direla, indibidualtasunaren garai honetan merkantziak eta zerbitzuak pertsonaltuagoak bihurtu direlako. Orain, jendearen behar eta nahiak aztertzen dira lehenik, eta horren arabera fabrikatzen da. Enpresa batentzat garrantzitsuena jada ez da produktu mordoa fabrikatzeko gaitasuna izatea, baizik eta jendeak zer behar eta nahi dituen ikustea, merkeen non produzi dezakeen jakitea, eta merkantziak mugitzeko modu ekonomikoena zein izan daitekeen ikertzea.

Suely Rolnikek dio 60-70eko hamarkadetako mugimenduek eragindako krisiari erantzun bat emateko sortu zen kapitalismo-modu berriari bestelako hainbat izen ematen zaizkiola orain.⁶⁸ Fabrikako lanaren antolakuntza gizarte informatizatuak ordezkatu du,⁶⁹ produkzio ekonomikoa harreman sozialen eta bizimoduen ustiaketan oinarritzen da gero eta gehiago,⁷⁰ eta hala, kapitalismo garaikidea kapitalismo kognitiboa da orain,⁷¹ edo kapitalismo kulturala,⁷² informazioaren, komunikazioaren eta harremanen kapitalismoa⁷³ edo semio-kapitalismoa,⁷⁴ besteak beste. Kapitalismoaren aurreko fasean hegemonikoa izan zen lan industrialak haren garapenaren motorrik garrantzitsuena izateari utzi zion, eta izendapen-aniztasun horrek, hain zuzen ere, kapitalismoak izan duen eraldaketa adierazten digu. Kapitalismo garaikideak ezagutza, zeinuak eta irudiak produzitzen ditu nagusiki, eta ez horrenbeste, zentzu tradizionalan ulertzen zen bezala, merkantziak. Jeremy Rifkinen esaten duen bezala:

«[...] *el capital intelectual es la fuerza motriz de la nueva era y lo más codiciado. Los conceptos, las ideas, las imágenes —no las cosas— son los auténticos artículos con*

67 MALO, Marta: *Treball més enllà de l'ocupació: producció i reproducció en l'era de la postfeina*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=IHwVSU6JVXo>

68 ROLNIK, Suely: "Geopolítica del chuleo". Iturria: <http://eipcp.net/transversal/1106/rolnik/es>

69 NEGRI, Toni: *Fin de siglo*, Paidós, Bartzelona, 1992 (38. or.). Iturria: <http://fpschool.es/doc/matematicas-1-eso-ejercicios-resueltos.pdf>

70 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2011 (76. or.).

71 RODRÍGUEZ, Emmanuel; SÁNCHEZ, Raúl: "Prólogo. Entre el capitalismo cognitivo y el Commonfare" kapituluia; in ZENBAIT AUTORE: *Capitalismo cognitivo, propiedad intelectual y creación colectiva*, Traficantes de sueños, Madril, 2004 (14. or.). Kapitalismo kognitibo esaten denean, ezagutzaren produkzioan oinarritutako praktika ekonomikoei egiten zaie erreferentzia. Prozesu horretan, ezagutza pribatizatu eta merkantilizatzen da, errentagarritasun ekonomikoa lortu nahian.

72 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (21. or.). Kapitalismoa kulturala dela esaten da aberastasuna sortu duena lan sinbolikoa denean; hau da, kultura denean errentagarritasun ekonomikoa lortzeko baliabide nagusia.

73 RODRÍGUEZ, Emmanuel; SÁNCHEZ, Raúl: op. cit., 2004 (14. or.). Kapitalismoa informazioarena, komunikazioarena eta harremanena dela esaten da kapitalaren metaketaren oinarria informazioaren, komunikazioaren eta subjektuen arteko harremanak bihurtzen direnean.

74 BERARDI "BIFO", Franco: *La fábrica de la infelicidad. Nuevas formas de trabajo y movimiento global*, Traficantes de sueños, Madril, 2003 (29. or.). Semiokapitalismoa zeinuen produkzioan oinarritzen den sistema ekonomikoa da.

*valor en la nueva economía. La riqueza ya no reside en el capital físico sino en la imaginación y la creatividad humana».*⁷⁵

Bifok zehazten duenez, giza lan orotarako behar da adimena, baina gaur egungo gizartean, eskuz egitekoak diren lanak automatizatzeko joera dagoela eta, gaitasun kognitiboa bilakatu da produkzio-baliabide nagusia.⁷⁶ Lanik estimatuena lan kreatiboa, sortzailea, mentala da.

Lazzaratok eta Negrik diotenez, fabrikako lan industrialak hegemonia galdu du 70eko hamarkadaren ostean, eta Mendebaldeko gizarteetan, industria desegin izanak eragindako tertziarizazio-prozesuen ondorioz, lehen erabat nagusi zen lan industrial hura apurka-apurka lan intelektual eta afektiboek ordezkatu dute. Bizitza psikiko edo espirituala, afektibitatea eta harremanak asetzea dute helburu lan-mota berri horiek. Aberastasuna, lehen, objektu fisikoak produzitu eta saltzetik zetorren, produkzio materialetik, alegia; orain, informazioa, ideiak, harremanak eta afektuak produzitu eta saltzetik dator, bi autore horien esanetan. Aberastasuna sortzen duen lan-mota horri lan immateriala⁷⁷ esaten diote zenbaitek.⁷⁸ Beste modu batean esanda, gizarte postindustrialean, lan immateriala bihurtu da produkzio-eredu hegemonikoa, autore horien esanetan.⁷⁹

Break esaten duen bezala, kapitalismoak bilakaera bat izan du, eta gaur egungo produkzio-ereduak ez ditu lehengoaren ezaugarri berberak.⁸⁰ Batetik, gure gizarteetan produkzio intelektual eta afektiboak hartu duen garrantzia dela eta, lan immateriala deitzen zaion hori nagusitu da. Bestetik, jarduera ekonomikoa zeharo aldatu da, eta nagusiki ekonomia produktiboa zena ekonomia espekulatiboa da orain. Eta azkenik, aurreko bie loturik, kulturaren eta entretenimenduaren industriak izandako gorakadaren eraginez, kapitalismoa kulturala bihurtu da.

75 RIFKIN, Jeremy: *La era del acceso. La revolución de la nueva economía*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2000 (4. or.). Iturria: <https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=ZGVmYXVsdGRvWFpbnxwdW50b3BoaXneDozZJU4MDQwM2U2MTk3ZTI2>

76 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (16. or.).

77 LAZZARATO, Maurizio; NEGRI, Antonio: "Trabajo inmaterial y subjetividad" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Brumaria 7. Arte, máquinas, trabajo inmaterial*, Brumaria A.C., Madril, 2006 (45.-46. or.).

78 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2000 (255. or.).
Lan immaterialaren barruan, hiru mota desberdintzen dituzte Negrik eta Hardtek. Lan immaterial mota bat informatizazio-prozesuen eta komunikazioaren teknologien eragina jasan duen produkzio industrialaren eremua litzateke, zeinean lanak zerbitzu-izaera erakusten baituen eta lan materiala immaterialarekin nahasten baiten. Bigarren mota batekoak dira jarduera analitiko eta sinbolikoak, adimenarekin eta kreatibitatearekin lotuta daudenak. Eta hirugarren mota batekoek afektuekin dute zerikusia, eta halako prozesuek ezinbestekoa dute pertsonen arteko harreman zuzen eta gertukoa.

79 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio*, Debate, Bartzelona, 2004 (138. or.).
Hardtek eta Negrik zehazten dute, dena den, horrek ez duela esan nahi lan immaterialak lan industrial edo materiala eta nekazaritza-munduari dagokiona ordezkatu edo desagerrarazi dituenik. Lan immaterialaren esparruan jarduten duten langileak sektore txiki bat baino ez dira, eta gehien-gehienak gaur egun nagusigoa duten herrialdeetan aritzen dira, gainera. Autore hauek azaltzen dutenez, XIX. mendean lan industrialak hartu zuen toki bera hartu du orain lan immaterialak; hau da, lan industrialaren fabrikak urri ziren garaian gertatu zen bezala, nahiz eta orduan urri izan, produzitzeko eta bizitzeko moduaren eraldaketa erabatekoa ekarri zuen, eta orain ere, lan immateriala hegemonikoa bada, beste produkzio-moduetan eragiteko eta haiek eraldatzeko gaitasuna duelako da hegemoniko, lan industrialak bere garaian izan zuen bezala. Lan immaterialaren hegemonia eta eraginikortasuna termino kualitatibotan ulertu behar da, bi autore hauen esanetan.

80 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (70.-71. or.).

Kapitalismo kulturalaren garai honetan, balioa desplazatu egin da. Fordismoan, objektuen produkzio materialetik sortzen zen balioa, eta postfordismoan, berriz, objektu batengatik amaieran ordaintzen den balioaren zati bat baino ez da produkzio materialari dagokiona; horri, izan ere, kreatibitate, diseinu edo markaren bitartez txertatzen zaizkion ezaugarri immaterialak gehitu behar zaizkio. Alde horretatik, merkantziaren balioaren produkzioan fabrikak zuen garrantzia gutxitu egin da. Produkzio materiala objektuaren ekoizpenean ezinbesteko zatia da, baina merkantziaren alde sinbolikoak produzitzen du balioa, beste ezerk baino gehiago. Alegia, balioa orain ez da lortzen baliabideen esplotazio materialaren bitartez, baizik eta ezagutza-moduei etekina atera eta sinboloak manipulatzetik, Boltanski eta Chiapelloren esanetan.⁸¹

Fabrikako lanak modu estandarizatuan hartzen zuen gizakia, modu uniformean, giza alderdia ukatuta, eta fabrikak ekoizten zituen produktuen kontsumoa ere beste horrenbeste. Produktuak modu mekaniko eta masiboan produzitzen zituzten eta denak berdinak gertatzen ziren, homogeneoak, monotonoak, aspergarriak eta despertsonalatuak. Halako une batean, alabaina, produktuak sortze hutsa ez zen nahikoa. Gizarteak aseta zituen oinarrizko behar materialak, eta emozio, pasio, desira eta sentimenduei uztarturik agertzen diren behar psikikoak ase nahi ditu orain.⁸² Produktu baten ezaugarri materialak baino gehiago balioesten dira haren ezaugarri immaterialak, sinbolikoak. Aintzat hartzen dena nagusiki ez da jada arropa baten ehundura, joskeraren kalitatea, baizik eta marka horrek erosleari ematen dion nortasuna, estatusa, ospea. Kontsumoak bizipenarekin, esperientziarekin edo subjektibitateak eraikitzearekin dauka lotura kapitalismo kulturalaren testuinguruan. Honela azaltzen du Slavoj Zizekek:

*«Compramos mercancías no por la consideración de su utilidad ni como símbolo de nuestro estatus, lo hacemos principalmente para obtener la experiencia que proporcionan; las consumimos para hacer nuestras vidas placenteras y llenas de significado».*⁸³

Gaur egun ekoizten den merkantziak, ezaugarri materialak ez ezik, ezaugarri immaterialak eskaintzen ditu. Horregatik, kontsumoaren ekintza ez da soilik erabilera-balioa duen objektu bat eskuratzea, baizik eta, nagusiki, immateriala den zerbait geureganatzea. Zoriontasuna, segurtasuna, osasuna, edertasuna, solidaritatea, errebeldia... Kontzeptuak biltzen ditu merkantziak bere baitan. Horretaz arduratzen dira, hain zuzen ere, marketinaren eta publizitatearen esparru boteretsuak. Kontsumitzaileari bizimoldea eta pentsamoldea aldatuko dizkioten objektuak jartzen ditu merkatuak erosleek eskura, horiek kontsumituz norberaren burua eraikitzeko aukera eskaintzen ari zaielako promesa eginez, gainera.

81 BOLTANSKI, Luc; CHIAPELLO, Ève: op. cit., 2002 (121. or.).

82 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (25. or.).

83 ZIZEK, Slavoj: *Primero como tragedia, después como farsa*, Akal, Madril, 2011 (36. or.). Iturria: <https://kabirabud.files.wordpress.com/2013/10/c5beic5beek-s-primero-como-tragedia-despues-como-farsa-2011.pdf>

Enzo Rullanik dioenez, kontsumitzailea prest dago jantzi bat fabrikatzeak benetan duen kostua baino hamar aldiz gehiago ordaintzeko, jantzi horrek aukera ematen diolako bere nia definitzeko, nortasuna eraiki eta besteekin komunikatzeko edo desberdintzeko, talde sozial baten parte izateko.⁸⁴

Merkantziari nortasuna edo esperientzia sortzeko gaitasuna eskatzen zaionean, ezaugarri kualitatibo, immaterial edo sinbolikoak bihurtzen dira garrantzitsuena. Eta Naomi Kleinek azaltzen duen bezala, enpresen mundua ere jabetu zen horretaz une batean, garrantzitsuena ez zela objektuak produzitzea. Hala, mundu-mailan arrakasta lortu zuten zenbait marka ospetsuri buruz ari dela, hauxe dio:

*«Lo principal que producían estas empresas no eran cosas, [...] sino imágenes de sus marcas».*⁸⁵

Eta aurrerago:

*«Los productos que tendrán éxito en el futuro no serán los que se presenten como "artículos de consumo", sino como conceptos: la marca como experiencia, como estilo de vida».*⁸⁶

Orain, erosten dena ez da merkantzia material hutsa. Erosleak merkantzia bat kontsumitzen duenean, hark eskaintzen dituen ezaugarri immaterialak direla tarteko, gizartean toki bat, estatusa edo nortasuna bereganatzen du. Horregatik, produkzio horretan, ezaugarri kualitatiboak, immaterialak edo sinbolikoak ezinbesteko bilakatu dira.

3.2.2. Kreatibitatea eta estetizazioa

Autonomia artistikoa errealitate bat izan zela ikusi dugu, baina arteak aspaldi galdu zuen autonomia hura, aspalditik ez da aparteko eremu bat artea. Jada ez du bere barne-logikaren eta arau propioen arabera funtzionatzen. Hito Steyerlek azaltzen duenez, autonomia artistikoa deitu izan zaion hark artea bizitzatik banandu zuen.⁸⁷ Autonomia artistikoak egunerokotasunaren errutinatik banandu egin zuen artea, mundutarra, lurtarra zen hartatik urrundu. Eremu ekonomiko, politiko eta sozialekoak ziren gaien mesedetan lan egiteari uko egin zion. Arrazoi instrumentala eta erabilgarritasuna ekidin zituen. Eta hala, produkzio artistikoa, bizitzatik bananduta, eremu espezializatu bat bihurtu zen. Baina

84 RULLANI, Enzo: "Arte y Economía: la Creación de Valor en el Capitalismo Cognitivo" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producta 50. Una introducción a algunas de las relaciones que se dan entre la cultura y la economía*, YProductions, Bartzelona, 2007 (240. or.).

85 KLEIN, Naomi: *No Logo. El poder de las marcas*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2001 (22. or.). Iturria: <https://hemerotecaroja.files.wordpress.com/2013/07/klein-naomi-no-logo-el-poder-de-las-marcas-2000.pdf>

86 Ibidem (39. or.).

87 STEYERL, Hito: *Los condenados de la pantalla*, Caja Negra, Buenos Aires, 2014 (114. or.).

artea bizitzatik bereizi eta izan zezakeen erabilgarritasunari uko egitean, gizartean zuen pisua eta garrantzia galdu zituen, Steyerlen esanetan. Abangoardia artistikoak horren kontra egin omen zuen, bereizketa haren aurka, hain zuzen, artearen eta bizitzaren arteko urruntze hura desagerrarazi nahian. Artea bizitzara eraman eta bizitzan barreia eta urtu zedin lortu nahi zuen abangoardiak, baina denboraren joanean kontrakoa gertatu da, autore horrek dioenez. Steyerlen esanetan, arteak bizitza inbaditu du, eta are, okupatu:

*«Hoy en día, la invasión de la vida por el arte no es una excepción sino la regla. [...] En todos los niveles de actividad cotidiana, el arte no sólo invade la vida, sino que la ocupa».*⁸⁸

Prozesu horren ondorio dira kreatibitatearen nozioak egun duen garrantzia, batetik, eta egunerokotasunaren estetizazioa, bestetik. Kreatibitatearen nozioak sekula baino balio-tsua goa dirudi gizarte postindustrialean. Nahiz eta kreatibitatea beti izan den garrantzitsua ekonomiarentzat, azken urteotan alderdi horrek hartu duen protagonismoa areagotu egin dela ohartzeko nahikoa da ekonomialari, ekintzaile eta coachen eskuliburu eta diskurtsoei begiratu bat egitea. Paula Sibiliak esaten duen moduan:

*«[...] la creatividad se ha convertido en el combustible de lujo del capitalismo contemporáneo».*⁸⁹

Badirudi orain denak izan behar duela eta denok izan behar dugula artearen, sorkuntzaren eta kreatibitatearen eraginpekoak. Charles Landryren "hiri kreatiboa" kontzeptua⁹⁰ eta Richard Floridaren "klase kreatiboa",⁹¹ besteak beste, horren adibide dira. Azken horren esanetan, nahiz eta ados dagoen ekonomiaren ezaugarri garrantzitsuenak neurri batean informazioa edo ezagutza direla dioten autoreekin, kreatibitateak dakar benetan aldea, kreatibitatea da ekonomiaren benetako motorra:

*«La creatividad humana es el recurso económico definitivo. La capacidad de generar nuevas ideas y formas mejores de hacer las cosas es, en definitiva, lo que aumenta la productividad y, por lo tanto, el nivel de vida».*⁹²

Kreatibitatearen nozioak inon arrakastarik izan badu, San Frantziskon izan da: Silizio Haranean jaiotako enpresa teknologikoen munduan. Richard Floridak kontatzen duenez, AEBetan 60ko hamarkadaren ondoren ekonomiaren eremuan gertatu zen eraldaketa erabatekoaren eragile nagusia kontrakultura bohemia izan zen. Bohemioak, hippyak,

88 Ibidem (114.-115. or.).

89 SIBILIA, Paula: *La intimidad como espectáculo*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2013 (13. or.).

90 LANDRY, Charles: *The Creative City: A toolkit for Urban Innovators*, Earthscan, Londres, 2000.

91 FLORIDA, Richard: *La clase creativa. La transformación de la cultura del trabajo y el ocio en el siglo XXI*, Paidós, Bartzelona, 2010 (47. or.).

92 Ibidem (11. or.).

konformagaitzak eta teknologia informatikoarekiko interes izugarria zuten hainbat gazte batera egokitu omen ziren garai hartan.

Bizar eta ile luzedun hippy itxurako informatikari, hacker, programatzaile eta ingeniari osatutako gazte-talde ameslari eta errebelde hartatik sortu omen zen gerora eredugarri bihurtu den “garajearen kultura”. Floridaren esanetan, ekintzaile berri haiek, hierarkian eta diziplinan oinarritutako enpresa handien antolaketa-moduei uko egin, eta prekarietate, autonomia eta kreatibitatearen aldeko apustua egin zuten. Lan industrialari kontrajarriak zitzaizkion artista bohemioen balioak bere egin eta praktikan jarri zituzten gazte haiek, eta hala, ordura arte interes kontrajarritzat hartzen zirenak (burgesiaren interesak eta bohemiarrenak) guztiz bateragarri bihurtu zituen Silicon Valleyn jaiotako ekintzailetzaren kultura hark:

*«Antes era bastante fácil distinguir entre el mundo burgués del capitalismo y la contracultura bohemia. Los burgueses trabajaban para grandes empresas, vestían de gris y acudían a la iglesia. Los bohemios eran artistas e intelectuales. Los bohemios fueron los defensores de los valores de la liberada década de 1960. Los burgueses fueron los yuppies emprendedores de la década de 1980. Sin embargo, ahora, lo bohemio y lo burgués está mezclado [...]».*⁹³

Silicon Valleyko enpresa-ereduari “lantoki bohemio” deitzen dio Andrew Rossek.⁹⁴ Teknologiaren esparruko hainbat lantoki ikertu ostean, Rossek dio espazio horiek artista bohemioen espazioek zituzten ezaugarriak bereganatu dituztela, eta aipatzen du jendearen janzkera informalean zein bulegoko hedonismo eta festa-giroan antzeman zitekeela hori.

Artistaren estudioa eredu duten lantoki horietan, laneko uniformeak desagertu eta arropa informala, tatuaiak edo piercingak dituzte orain, baita enpresako exekutibo arrakastatsuek ere. Enpresarik garrantzitsu eta entzutetsuenek ere fabrikako eredu edo bulego tradizionala alde batera utzi eta itxura berri batekin ageri dira. Espazioaren antolaera hierarkikoa albora utzi eta talde-lanak sustatzeko eta errazteko bestelako antolaera-moduak nahi dira. Bulego gardenak, espazio irekiak ikusten dira. Kolore biziko muralak, kartelak eta artelanak ere ager daitezke paretetatik eskegita, eta beste batzuetan, berriz, margotu gabe ageri dira hormak, hodiak eta zutabeak begien bistan utzita. Jateko, atsedeen hartzeko eta jolaserako guneak dituzte, musika... Gauza nabaria denez, tradizionalki bulegoek izan duten itxuratik oso urrun dago espazio-mota hori, eta behinola artistaren estudioak izan zezakeen itxuratik, oso gertu. Marion von Ostenek esaten duen bezala, artistaren estudioa lan-molde berrietarako eredu bihurtu da.⁹⁵

93 Ibidem (269. or.).

94 Ibidem (192. or.).

95 VON OSTEN, Marion: “Salidas Incalculables” kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional*, Traficantes de sueños, Madrid, 2008 (87. or.).

Arteak bizitza okupatu du, beraz, eta egunerokotasunaren erabateko estetizazioa ekarri du horrek. Orain, lorezainak paisajista dira; ile-apaintzaileak, estilista; sukaldariak, sortzaille; eta ekintzaileak, artista. Industria eta artea, merkataritza eta artea, komunikazioa eta artea, edo aisia eta artea, denak nahasita ageri dira. Eta bizitzari soilik ez, arteari berari ere eragin dio bizitza horrela inbaditu izanak, eta komertziala den horri, erabilgarritasunari edo entretenimenduaren logikari lotuta agertzen denetik, arteak purutasuna galdu du. Produkzio-, banaketa- eta kontsumo-sistemak estetizazio-prozesuen menpeko dira. Beste ororen gaintetik merkantziaren balio estetikoa gainjartzen da. Maite Aldazen esanetan, produkzio estetikoa merkantzien produkzioan txertatu da.⁹⁶ Eta Break dioenez, arteak eta estetikak produkzio industrialaren bilakaerarekin eta merkatuarekin bat egindakoa, munduaren estetizazioa gertatu da. Kapitalismo postindustrialaren ezaugarrietan nagusia merkantziaren estetizazioa izan omen da; alegia, merkantzia, merkantzia estetizatu bihurtzea. Brearen esanetan, kapitalismo garaikidea ez litzateke posible izango, munduaren estetizazioa gertatu izan ez balitz.⁹⁷

Mundu guztiz estetizatu batean bizi garela zalantzarik ez dago. Lipovetskyk eta Serroyk diotenez, jarduera ekonomikoa artistizatzeko ahaleginean jardun du kapitalismoak,⁹⁸ eta arteak, hala, marka komertzialen eta kapitalismoaren ekimen oro legitimatzeko tresna gisa funtzionatzen du. Ekonomia eta artea elkartu izanaren eraginez, orain, dena da estetikoa, dena da artistikoa. Arrazoi horregatik, bi autore horiek kapitalismo garaikidea kapitalismo artistiko bezala definitzen dute:

*«El capitalismo artístico es el sistema económico que funciona estetizando sistemáticamente los mercados de consumo, los objetos y el entorno cotidiano. En adelante, el paradigma estético no será ya ajeno a las actividades industriales y comerciales, sino que estará incorporado a estas».*⁹⁹

Lehen azaldu dugun bezala eta laburbilduz, gizartea eta kontsumitzaileen beharrak aldatuz doaz. Industrializazioaren hasieran masarentzat seriean produzitzen ziren merkantzia estandarizatuak jada ez dituzte asetzen desberdintasun- eta subjektibazio-egarriz dauden kontsumitzaileen beharrak. Honela dio Fredic Jamesonek:

«Lo que ha ocurrido es que la producción estética actual se ha integrado en la producción de mercancías en general: la frenética urgencia económica de producir frescas oleadas de artículos con un aspecto cada vez más novedoso (desde ropa hasta aviones), con tasas crecientes de productividad, asigna ahora a la innovación

96 ALDAZ, Maite: "Institución arte y precariedad. Las prácticas artísticas en la época de la mercantilización de la vida" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017 (16. or.).

97 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (198. or.).

98 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: *La estetización del mundo. Vivir en la época del capitalismo artístico*, Anagrama, Bartzelona, 2015 (22. or.).

99 Ibidem (37. or.).

*y experimentación estéticas una función y una posición estructurales cada vez más esenciales».*¹⁰⁰

Kapitalismo garaikideak behar-beharrezkoa du sorkuntza artistikoak erabiltzen duen osagarri estetiko-emozionala. Azken urteotan, alderdi artistikoa ezinbesteko elementu bihurtu da enpresa-munduaren garapenerako, balio ekonomikoaren hazkunderako eta enplegua sortzeko. Modernitatean aski bananduta zeuden produkzio industrialak eta produkzio kulturalak, baina haiek bat egin eta ekonomiak artea eta estetika bere egin dituenean, ekonomiaren kulturizazioa gertatu da, eta negozioa arte bilakatu.

Historia luzean atzera, baliabide naturalak ustiatzetik lortu izan du gizakiak aberastasuna, baina industriaren sorrerak errotik aldatu zuen hori. Gizarte industrialak produkzio eta kontsumo estandarizatuan oinarritu zen, eta gizarte postindustrialaren beharrak asetzeko, berriz, kapitalismo seduktore batera igaro gara. Testuinguru berri honetan, kreatibitatea eta estetizazioa ezinbesteko baliabideak dira. Rolniken hitzak bere eginez, honela dio Sibilia:

*«Lo artístico no sólo se ha convertido en algo vendible [...] sino también y principalmente en algo que ayuda a vender o a venderse».*¹⁰¹

3.2.3. Autorrealizazioa

Floridak, Ronald Inglehartek hitzak berera ekarriz, azken urteotan balio-aldaketa bat gertatu dela azaltzen du.¹⁰² Nekazaritza-gizartean, baina baita aro industrialeko zati handi batean ere, jende gehiena urritasun-egoeran bizi zen eta bizirik iraun ahal izateko egiten zuen lan. Gerora, zientziaren eta teknologiaren ekarpenek, ekonomiaren garapenean izan duten eraginarengatik, oparotasun materialaren aroan kokatu gaituzte. Jendeak behar materialak aseta dituen lurraldeetan, orain arte baloratuak izan ez diren beste alderdi batzuk kontuan hartzen hastea ekarri du horrek. Ildo horretatik, Mendebaldeko herrialdeetan nolabaiteko segurtasun ekonomikoa lortu ostean, balio postmaterialistak indarra hartuz joan dira, eta gure baliorik behinenek jada apenas duten zerikusirik biziraupenarekin, eta bai, aitzitik, bizi-kalitatearekin. Hala dio Floridak, eta ideia bera jasotzen dute Lipovetskyk eta Serroyk ere, gogoeta honetan:

*«En la cultura "posmaterialista" no basta con ganar dinero; se sueña con ejercer un trabajo no rutinario y libre, el individuo quiere realizarse, expresarse, crear, hacer cosas estimulantes [...]».*¹⁰³

100 JAMESON, Fredric: *El posmodernismo o la lógica del capital cultural avanzado*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 1991 (17. or.).

101 SIBILIA, Paula: op. cit., 2013 (199. or.).

102 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (130.-131. or.).

103 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2015 (92. or.).

Fabrikako lanak etxera soldata bat eramateko balio zion langileari, baina jarduera hark irauten zuen denboran eta lekuan ez zuen bere burua ezagutzen, bere onetik aterata sentitzen zen, gizaki bezala ukatua. Lantokitik kanpo hasten zen benetako bizitza langilearentzat; bere familia, lagunarte, aisia eta atsedenez gozatzeko aukera zuenean. Lanerako motibazioa ekonomikoa soilik denean, motibazio ahula gertatzen da. Eta horixe izan zen 60-70eko hamarkadetako langile-mugimenduen eskaera garrantzitsuenetako bat: autonomia eta errealizazio pertsonal zein kolektiborako modua ematen zuen jarduera izan zedila lana. Kontua ez zen bizitzea, baizik eta bizitzeko arrazoi bat izatea. Mugimendu haiek inflexio-puntu bat markatu zuten, belaunaldien arteko marra bat, Ingleharti irakurtzen diogunez:

*«[...] un cambio intergeneracional que ha desplazado el énfasis que se ponía en la seguridad económica y física para ponerlo con más intensidad en la autoexpresión, el bienestar subjetivo y la calidad de vida [...]».*¹⁰⁴

60-70eko hamarkadetan, fordismoaren sistema industrialak goia jo zuen une berean, langileen aldetik lanaren aurkako jarrera agertu zen, Bifok dioenez. Lana jarduera erreplikakor, mekaniko eta hierarkikoa zen, langileak bere adimen eta kreatibitatea erabil zitzan ezertarako behar ez zuena. Lehentasuna kapitalaren produkzioari eman, eta giza beharrak alboratu egiten zituen sistemak. Lan industrialaren logikak eta diziplinak langilerian ondo eza eragiten zuten, eta kritika nagusia lanaren izaera alienatzaileari zuzendu zitzaion: lana ezin izan zitekeela langileria ondoezaren sinonimo eta, hedaduraz hortaz, bizitzeari uko egitearen pareko. Hala, testuinguru hartan jaio ziren mugimenduek hauxe zuten helburu:

*«[...] la conquista de una condición social en la que el trabajo productivo y la realización de uno mismo fueran la misma cosa».*¹⁰⁵

Biforen esanetan, 80-90eko hamarkadetako ekintzaile asko mugimendu antiautoritario eta autonomoetatik zetozen gazteak ziren.¹⁰⁶ Lanaren bitartez autorrealizazioa lortzeko aldarria, alabaina, ez zen haiena soilik izan, langile-jende eta mugimendu eraldatzaileena bakarrik, alegia. Aitzitik, eta harrigarria badirudi ere, enpresaren munduak ere interes handia agertu zuen, 60-70eko hamarkadetan bizi izandako krisiaren ostean, lanari beste izaera bat emateko. Lehen esan dugun moduan, lan-eredu fordistan langilearen motibazio bakarra materiala baitzen.

Enpresen mundua ohartu zen ez zela inola ere gauza bera langilea lanean izatea eta langilea lanean inplikatzeko, eta haren axolagabekeria eta inplikazio eza desagerrarazteko modurik onena ez zela langilea bere jardunera behartzea edo horretarako indarkeriaz baliatzea, baldin eta produkzioari ahalik eta etekin handiena ateratzea lortu nahi bazen.

104 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (132. or.).

105 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (113. or.).

106 Ibidem (73. or.).

Enpresak, ondasun ekonomikoak ekoitzi beharraz ez ezik, langilearen jarduerari beste zentzu bat emateaz ere arduratu behar zuen. Horrela, enpresa-kudeaketaren literatura karismadun lider, ekintzaile eta abenturazale izateko dei egiten hasi zitzairen langileei, enpresa haien bitartez bihur zitzatela beren ametsak egia, besteekin parteka zitzatela. Azken finean, beren jarduerari zentzu bat emateko modua izan nahi zuen. Langilearen desirak enpresarenak bezainbesteko garrantzia izan behar zuen. 60ko hamarkadatik hona, lanak behartuta eta gogoz kontra egiten den jarduera desatsegina izan behar duelako ideiarekin apurto nahi izan da, lanarekiko arbuioa eta motibaziorik eza desagerrarazi, eta horrek langilea beste ikuspegi batetik ikusten hastea ekarri du, eta haren nahiak entzuten hastea ere bai. Lanaren helburu bakarrak ezin izan daitezke kontu produktiboak, langilearen helburuak ere hartu behar ditu aintzat.

60ko hamarkadatik aurrera, aholkulari, gestore, psikologo eta tartean zegoen aprobetxategiren batek osatutako industria bat sortu zela kontatzen du Jaron Rowanek.¹⁰⁷ Industria haren zeregina lan-espazio eta -egiturak eraldatzea zen, langileari bere gaitasunak lantzeko askatasuna eman eta bertan eroso sentitu zedin, gizaki bezala garatu.

*«[...] esta industria se propuso reformar el mundo interno de las organizaciones con el fin de liberar la subjetividad autónoma del trabajador de tal modo que ésta se alinea con las aspiraciones de la empresa [...]».*¹⁰⁸

Horren adibide dira Silicon Valleyn sortutako enpresa arrakastatsuenak. Langileak egin beharreko lana kreatibitatearekin, motibazioarekin eta autorrealizazio-nahiarekin uztartzen dira. Langileek egin beharreko lana haien zaletasun eta grina izanik, lanarekiko izugarrizko konpromisoa erakusten dute, gorputz eta arima inplikatzeko dira zeregin horretan. Lana zaletasun bizi bihurtzen zaie, eta zaletasuna lan, lana bizitza eta bizitza lan bihurtzeraino, modernitateko artista bohemioei bezalaxe.

Ekintzaile eta mikroenpresa ugari sortu dira Silizio Haranetik jaiotako ereduak liluratuta, neoliberalen diskurtsoek animatuta eta administrazio publikoen askotariko programek bultzatuta. Lana jarduera astun eta desatsegina delako uste hedatua aldatuz eta lanari halako izaera gizatiar bat emanaz, nolabait aditzera eman nahi da lanaren bitartez errealizatu sentitzea posible dela. Kreatibitatearen eta autonomiaren nozioekin batera, logika enpresarial berrian, autorrealizazioaren promesa funtsezkoa izan da langilearen motibazioa eta mobilizazioa lortzeko. Lanak erakargarri agertu behar du langilearen begietara, kapitalistaren bene-benetako helburua lortuko bada:

107 Rowan, Jaron: *Emprendizajes en cultura. Discursos, instituciones y contradicciones de la empresarialidad cultural*, Traficantes de Sueños, Madrid, 2010 (70. or.).

108 Ibidem (72. or.).

«[...] conseguir que el trabajo no se perciba como una restricción sino como algo que puede ser bueno en sí mismo: que puede ser un medio para realizarse». ¹⁰⁹

Horrek, noski, badu azalpena. Gizarte industrialetik postindustrialera pasatzean, produkzio-eredua aldatzeaz batera lan-mota ere aldatu zen, eta horrekin batera, nola ez, lanerako behar zen langile-mota. Fordismoan, fabrikako lana estandarizatua, sinplea, mekanikoa eta errepikakorra zenez, langilearen indar fisikoa baizik ez zuen behar kapitalistak. Lan mentala, intelektuala, espresiboa, afektiboa eta kreatiboa ez ziren baliagarri produkzio-modu industrialean katean jarduten zuen langilearentzat. Antonella Corsanik dioen bezala, ordea, lehen langileari lanean ukatuak zitzaizkion hainbat alderdi erabil ditzala exijitzen zaio orain, lan-eredu postindustrialetan:

«Si en el capitalismo industrial la subjetividad debía aparcarse en las taquillas de la fábrica, en el capitalismo contemporáneo debe manifestarse, debe ser puesta a trabajar». ¹¹⁰

Langile postfordistak bere ideiak eta desirak produktibo bilakatu behar ditu. Sortzaile eta kreatibo izan behar du. Bere gizatasuna baliatu egin behar du, lanean jarri. Produkzio-mota honetan bereziki garrantzitsua da langilea bere lanean eroso, gustura, motibatuta egotea, errealizatua sentitzea, garapen pertsonalerako baliozkoa zaion jarduera bat egiten ari dela ikustea. Langilearen onena eta enpresaren interesa norabide berean ipintzea da xedea, enpresak ahalik eta errendimendu handiena lor dezan, langile motibatu horrek lagunduta. Ekonomia berriaren diskurtsoek, azken batean, zera eman nahi dute aditzera: lanaren eta autorrealizazioaren artean inolako kontrakotasunik ez dagoela, lanaren bitartez autorrealizatzea posible dela. Esan daiteke, nolabait, jada zaharkitua geratua zen behinolako etika protestante hura lanaren bitartez errealizatzea posible dela dioen etika berri honek ordezkatu duela, eta hori izan da kapitalismoaren garaipena. Bifok esaten duen moduan:

«Precisamente gracias a la absorción de la creatividad, del deseo, del estímulo individualista y libertario hacia la autorrealización el capital supo reencontrar su energía psíquica, ideológica y también económica». ¹¹¹

3.3. KULTURAREN EKONOMIZAZIOARI BURUZ

Arteak autonomia aldarrikatu zuen modernitatean, eta gaur egun, aldiz, ekonomiaren logikak zeharo baldintzatutako produkzio-esparrua da artearena, edo beste era batean esanda, ekonomiaren eremuari egokitu izan zaizkion ezaugarri eta kontzeptuei lotuta

109 Ibidem (72. or.).

110 CORSANI, Antonella: "Los Fabricantes de Espectáculos del Empleo Discontinuo" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producta 50. Una introducción a algunas de las relaciones que se dan entre la cultura y la economía*, YProductions, Bartzelona, 2007 (48. or.).

111 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (117. or.).

ageri da orain, azken hamarkadetan sortu diren “industria kultural”, “industria kreatibo”, “ekintzaile” eta horrelako beste hainbat kontzeptuk agerian nabarmen uzten dutenez. Aurreko atalean, ekonomiaren esparruak artearen eta kulturaren eremukoak ziren ezau-garriak bereganatu dituela ikusi dugu, eta orain, kontrako mugimenduaren berri ematen saiatuko gara.

3.3.1. Industria kulturala

Industrializazioaren garapenak bizitzako eremu oro blaitu zuen azkenerako, eta ildo horretan, produkzio-modu industrialia artisautza-produkzioa ordezkatzeko hasi zen bezala, artearen eta kulturaren esparruak ere berehala inbaditu zituen. Kultura, eta horren barruan artea, industria kultural izatera pasatu zen.¹¹² Une jakin batean arteak autonomia lortu bazuen ere, ekonomiaren arauen arabera funtzionatzen hastean galdu egin zuen. Adornok eta Horkheimerrek proposatutako “industria kulturala” kontzeptuak kapitalaren legeei erantzunez ekoizten zen kultura adierazten du:

*«[...] la técnica de la industria cultural ha llevado sólo a la estandarización y producción en serie y ha sacrificado aquello por lo cual la lógica de la obra se diferenciaba de la lógica del sistema social. Pero ello no se debe atribuir a una ley de desarrollo de la técnica como tal, sino a su función en la economía actual».*¹¹³

Kultura, behin merkantilizazioaren logikak zeharkatuta, autonomia eta potentzialtasuna galduta, etekin ekonomikoak lortzeko esparru bat gehiago bilakatu zen. Telebista, zinema, irratia eta musikaren industria erraldoiak jo zituen nagusiki produkzio industrializatuak. Adornok eta Horkheimerrek esaten dutenez, kontsumo masiboaren logikari jarraituz, masara iristeko asmoz, arte- eta kultura-proposamenak izan ziren kaltetuak. Horren harira, bi autoreek diote industrializazioaren eragina sorkuntzaren esparruarentzat galera gertatu zela. Proposamen mamitsurik ez eta proposamen uniformizatu, serializatu, simple eta ulerterrazak ziren gehienak. Ahalik eta publiko zabalenak kontsumi zitzan, erraz eta hutsal bihurtu ziren, benetakotasunik gabeak. Masara iritsi nahi zuela eta, hark inolako ahaleginik egin beharrik ez izateko moduko proposamenak ziren industria kulturalarenak. Helburua egunerokotasunaren arazoan aurrean ihesbide bat ematea zen, entretenimendua eta plazera eskaintzea. Fabrikak ekoizten zuen beste edozein produkturen pareko bilakatutako kultura hura, ordea, estandarizatu eta seriean produzitua zen hura, ezin har zitekeen benetako kulturatzat. Lipovetskyk eta Serroyk azaltzen duten bezala:

«[...] Mientras que la cultura se fijaba como meta la formación de la persona, la elevación y la mejora del género humano, la cultura de masas se desentiende radicalmente

112 ADORNO, Theodor W.; HORKHEIMER, Max: op. cit., 1998 (165. or.).

113 Ibidem (166. or.).

*de este ideal de perfeccionamiento en nombre del hedonismo individualista y la distracción generalizada».*¹¹⁴

Artearen eta kulturaren konplexutasunari uko egite horretan, haien esentziaren zati garrantzitsu bat eta haien karga kritikoa galtzea eragin zen, Adornok eta Horkheimerrek diotenez. Haien aburuz, herritarrei saltzen zieten kultura merkantilizatu hark menderakuntza-aparatu baten pareko funtzionatzen zuen nagusi zen klasearen eskuetan. Telebista, zinema eta irriaren kasuan bereziki, entretenimendura zuzendutako edukien bitartez, bizimoldeetan, pentsamenduan eta subjektibazio-prozesuetan eraginez, gizartean nagusi zen klasearen ideologia erreproduzitzea bermatzen zela salatu zuten autore horiek. Salaketa horretan ahaleginean jardun zuten Adornok eta Horkheimerrek, industrializazio-prozesuak artearen eta kulturaren esparruetan zer-nolako eragina zuen azaldu eta aurre egin nahian. Pentsalari haiek argitaratutako lanaren xedea argi zegoen zein zen. Honela azaldu zuen Gerald Raunigek:

*«[...] este ensayo estaba dirigido contra la creciente influencia de la industria del entretenimiento, contra la comercialización del arte y contra la uniformización totalizante de la "cultura" [...].»*¹¹⁵

3.3.2. Industria kulturalak

Rowanek dioenez, 70eko hamarkadan Adornok eta Horkheimerrek proposatutako "industria kulturala" nozioa, denboraren joanean, pluralizko "industria kulturalak" bihurtu zen¹¹⁶. UNESCOk honela definitzen ditu industria kulturalak:

*«[...] se refiere a aquellas industrias que combinan la creación, la producción y la comercialización de contenidos creativos que sean intangibles y de naturaleza cultural. [...] Las industrias culturales incluyen generalmente los sectores editorial, multimedia, audiovisual, fonográfico, producciones cinematográficas, artesanía y diseño.»*¹¹⁷

Aldaketa horrek garrantzi handirik gabeko zerbait eman dezake hasiera batean, baina aldaketa esanguratsua da. Adornok eta Horkheimerrek proposatutako nozioak zentzu kritikoa zuen, eta nozio birziklatuak, aldiz, oso bestelako zerbait ematen zuen aditzera. Izaera kritikoko lehen nozio hura balio positiboko nozio bihurtu zen, kultura ekonomikoki errentagarria izan zitekeela ikusi zenean, Rowanek dioenez. Europa, Australia eta AEBetako ehundura industrialak gain behera zihoan, eta egoera kezkarri horretan zirela, kulturak

114 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (81. or.).

115 RAUNIG, Gerald. "La industria creativa como engaño de masas" kapituluak; in ZENBAIT AUTORE: *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional*, Traficantes de sueños, Madril, 2008 (27. or.).

116 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (33. or.).

117 UNESCO. Iturria: http://portal.unesco.org/culture/es/files/30850/11467401723cultural_stat_es.pdf/cultural_stat_es.pdf

hazkunde ekonomikoa ekar zezakeela ikusi zuten. Une hartan, hiri industrial izandakoak beste eredu ekonomiko baterantz bideratzeko beharrak bultzatuta, tertziarizazio-prozesua martxan jarri eta zerbitzuen hiri bihurtzeari ekin zioten. Kulturari balioa emateko diskurtsoak areagotuz joan ziren hala. Hiri-eredu haietan, ondasuna produzitzeko, "industria kulturalak" garrantzi handiko sektorea izango ziren:

*«Estos autores introdujeron la idea de que la cultura puede ser un elemento de crecimiento económico capaz de reemplazar a la "decadente industria pesada" que no pudo hacer frente a las continuas demandas de productividad, abaratamiento y agilidad que le imponían los elementos neoliberales».*¹¹⁸

Jarduera industrialaren eten egin den hirietan, artea eta kultura baliabide ekonomiko izatera pasatu dira. Lehen fabrika izandako tokietan arte- eta kultura-espazioak daude orain. Museoa fabrika bat dela esaten du Steyerlek.¹¹⁹ Arte garaikideko zentro asko, izan ere, lehen produkzio-gune edo fabrika izandako tokietan daude, eta hori ez da kasualitatea, haren esanetan.

Fabrika fordistarik jada ez dago. Halakoak itxi ostean, erabilerarik gabeko espazio horietara museoak eramanez, eta uste dugu espazio horrek fabrika izateari utzi diola, beste zerbait bihurtu dela, baina irakurketa hori okerra da, Steyerlen esanetan. Aitortzen du baietz, aldatu dela zerbait. Lanorduen hasiera eta amaiera jakinarazteko adar-hotsik orain ez da entzuten. Fabrikaren barruko espazioek beste itxura bat dute. Makinak eta lan-tresnak desagertu egin dira. Buzo urdinez jantzitako langile-masa erraldoirik ez dugu topatuko bertan. Eta produzitzen den merkantzia ere ez da lehengo bera. Baina fabrika artearen eta kulturaren eremuko espazio eta museoek okupatu duten heinean, jarduera ekonomiko baterako espazio izaten jarraitzen duen heinean, fabrikak hori dirau. Fabrika industrialak museo fabrika eragin eta ekarri du. Tximiniatik kerik ez dario, bertako jarduera ez da industrialak, baina produzitzen jarraitzen du, eta horregatik, Steyerlek esaten duen bezala, fabrika ez da desagertu.

3.3.3. Industria kreatiboak

90eko hamarkada inguruan, beste aldaketa bat gertatu zen kulturaren eta ekonomiaren arteko harremanean. Rowanek kontatzen duenez, industria kulturalen inguruan bazen enpresa txiki, autonomo eta agente independentez osatutako ehundura zabal eta konplexu bat (halako ekonomia informal bat, nolabait esatearren), ordura arte kontuan hartua izan ez zena, nahiz eta hirian balioa sortzeko ezinbestekoa zen. Haien artean baziren desberdintasunak, baina kreatibitatearekin lotutako ogibideak ziren denak. Enpresen ohiko funtzionamendutik urrun zeuden eta bizimodua ahal zuten bezala ateratzen zuten,

118 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (33. or.).

119 STEYERL, Hito: op. cit., 2014 (66. or.).

nork bere jardueraren bidez, baina halako batean, autonomo eta ekintzaile haiek sektore industrial moduan pentsatzen hasi ziren. Hala, lehen ekonomia informala osatzen duten norbanako, elkarte eta kolektibo haiek beren burua enpresari edo ekintzaile gisa ikustera pasatzen dira. Hiriko ekonomiarako garrantzitsuak ziren jarduera haiek guztiak nolabait formalizatu ahal izateko, "industria kreatiboak" izenaz ezagutzen den kontzeptua jaio zen.¹²⁰ Industria kulturalaren kontzeptuak biltzen zituen jardueretatik haratago zeudenak ere jasotzen zituen kontzeptu berriak. Ereku zabalagoa hartzen zuen. Eta hala, ekonomia informalaren ehundura ikaragarri zabala osatzen zuten enpresa txiki, autonomo, ekintzaile, freelance eta agente independenteak industriaren dinamikan integratu zituzten. Era askotako jarduerak dira tartean: zinema, musika, telebista, irratia, artea, arte eszenikoak, artisautza, arkitektura, moda, diseinua, softwarearen garapena, bideo-jokoak eta zerbitzu informatikoak, besteak beste.

*«El término industria creativa supone un conjunto más amplio de actividades que incluye a las industrias culturales más toda producción artística o cultural, ya sean espectáculos o bienes producidos individualmente».*¹²¹

Rowanek dio historikoki kultura inoiz ez dela hazkunde ekonomikorako pizgarri moduan planteatu, orain arte, eta bi faktoreen eraginez lortu duela inoiz izan ez duen protagonismoa: batetik, desmaterializazioa (jabetza intelektualaren eskubideak, esaterako), hazkunde ekonomikoa eragiten duen heinean, eta bestetik, mundu-mailako merkaturan ondasun sinbolikoen banaketa hazi izana (filmak, musika, turismoa, gastronomia...). Ildo bertsutik, kapitalaren garapena eta turismoa sustatzeko asmoz kultura nola erabili den aztertu du George Yúdicek, eta hauxe dio: Europar Batasuna, Munduko Bankua, Garapenerako Banku Interamerikarra eta nazioarteko fundazio nagusiak, besteak beste, kulturaren esparrua sekula kontuan hartu izan ez duten arren, inbertsiorako esparru erabakigarria izan zitekeela konturatu zirenean, beste edozein baliabide bezala tratatzen hasi zirela.

Hiri industrializatuen krisiaren ostean, tertziarizazio-prozesuei ekiteaz batera, kultura eremu ekonomiko eta politikoaren mesedetarako erabili eta jarri izan da, balioa berez duen eremu gisa ikusi ordez. Helburu izatetik bitarteko izatera pasatu da. Eskaintzen diren zerbitzuetan beste bat baino ez da, denbora-pasa hutsa. Entretenimenduari lotuta, hiriaren hazkunde ekonomikoa sustatzeko jarduera izaten amaitu du. Hitz gutxitan esateko, kulturaren eta kreatibitatearen nozioak barnean hartzen dituen "industria kreatiboak" kontzeptua industria tradizionalaren gainbehera ordezkatzeko asmoz sustatu zen.

Atzera begiratzen badugu eta 90eko hamarkadan industria kreatiboak ekonomiaren esparruan arrakastaz sartu zireneko unea analizatu, orduan abian jarritako politikak helburu bikoitza izan zutela agerikoa da, Angela McRobbieren hitzak berera ekarriz Rowanek

120 Rowan, Jaron: op. cit., 2010 (36. or.).

121 UNESCO. Iturria: http://portal.unesco.org/culture/es/files/30850/11467401723cultural_stat_es.pdf/cultural_stat_es.pdf

azaltzen digun bezala¹²². Batetik, talentu kreatiboa helburu guztiz ekonomikoak lortzeko moduan bideratuz eta formalizatuz, etorkizuneko belaunaldientzat lan-aukerak ugaritzea. Eta bestetik, berriz, industriaren sektorean aritu ziren langileak freelance indibidual bihurtzea. Batean zein bestean, kultura baliabide hutsa baino ez da.

Kultura, beraz, Yúdicek dioen moduan, baliabide bihurtu da,¹²³ eta noizbait kulturaren balioa nabarmentzeko ahaleginik egin bazen, ez zen izan kulturak berak berez eta izatez zuen balio eta interesarengatik, beste eremu batzuen mesederako erabilgarri izan zitekeelako baizik.

3.3.4. Ekintzaile eta langile

Ekintzailearen nozioa Schumpeterrek proposatutako "enpresari" noziotik jaio zen, segidan ikusiko dugunez. Schumpeterrek zioen enpresariak inperio ekonomiko bat sortzearekin amets egiten duela, zaharkituta gelditutakoa desagerraraztea helburu zuen indar berritzailea dela. Honela definitu zuen zer den ekintzailea:

*«[...] la función del empresario consiste en reformar o revolucionar el sistema de producción, explotando un invento o, de una manera más general, una posibilidad técnica no experimentada para producir una mercancía nueva o una mercancía antigua por medio de un método nuevo, para abrir una nueva fuente de provisión de materias primas o una nueva salida para los productos, para reorganizar una industria, etc.»*¹²⁴

Rowanek dioenez, ekonomialarien eskuliburuetan ageri ohi den ekintzailearen figura zeharo bat dator Schumpeterrek proposatzen zuen nozioarekin, biek helburu bera dutelako: aberastasun ekonomikoa produzitzea. Ekintzaile kulturalaren nozioa ere asmo berberarekin proposatu zela gehitzen du Rowanek, ekintzaile kulturalaren xedea kulturari eta kreatibitateari balioa ematea baita, baina balio ekonomikoa betiere:

*«[...] empezaron a pensar la práctica y el trabajo cultural desde una óptica más económica. Contemplaban así la posibilidad de hacer de la esfera cultural un espacio económico que pudiera no sólo sustentar a sus propios trabajadores sino además tener el potencial de generar crecimiento económico. De este pensamiento surgió la figura del emprendedor cultural»*¹²⁵

Rowanen esanetan, bi kontzeptu horiek funtsean gauza bera diren arren, enpresari edo ekintzaile soilaren aldean ekintzaile kulturalaren etiketa askoz *cool* eta erakargarriagoa

122 ROWAN, Jaron: op.cit., 2010 (79. or.).

123 YÚDICE, George: *La cultura como recurso. Usos de la cultura en la era global*, Gedisa, Bartzelona, 2002 (23. or.).

124 SCHUMPETER, Joseph A.: op. cit., 1996 (181. or.).

125 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (40. or.).

da, gazteenentzat batez ere.¹²⁶ Zehaztapen bat ere gehitzen du Rowanek, ordea: zer esparru ekonomikoaz ari garen, badira desberdintasunak ekintzailearen eta ekintzaile kulturalaren artean. Ekintzaile ekonomikoaren helburua, adibidez, ondasunaren metaketa da, eta kultura-ekintzaileak, aldiz, autonomia, askatasuna eta lanean errealizatua sentitzea, besteak beste, etekin ekonomikoaren gaintetik ipintzen ditu. Eta lanaren zertarakoa bestelakoa izateak ekonomiaren eremuko nozioarekin kontraesanean sartzea eragiten du. Ekintzaile kulturalaren motibazio nagusia ez da aberastasuna metatzea, eta autonomo, freelance, mikroenpresa edo ekintzaile forma hartzen badute, lan-egoera erregulatzeko izaten da askotan:

*«[...] las y los trabajadores del sector cultural, ya sea con el objetivo de salir de la precariedad, o porque han dado con las nuevas formas de financiación asociadas a las políticas de emprendizaje, o por una voluntad de dar "rienda suelta a la creatividad", o porque los viejos modelos de trabajo no les resultan satisfactorios, o simplemente porque necesitan sentir que tienen más control sobre sus vidas, se han puesto a experimentar con las nuevas fórmulas de organización del trabajo».*¹²⁷

Laburbilduz, kapitalismoak bizitzako eremu guztiak baliatzen ditu, ustiatzeko modukoak gertatzen bazaizkio, eta alde horretatik, artea eta kultura ez dira salbuespen izan. Artearen autonomia eta horren logika antagonikoak aspaldi amaitu ziren. Sistema komertzialaren parte bihurtu ostean, arteak eta kulturak ere ekonomiaren arauetara erantzuten diete.

Break esaten duen bezala, artistaren produkzioa lana bihurtu da. Ez da jarduera berezi bat, baizik eta beste edozein lanen pareko. Artista langile bat gehiago da. Jada ez da produkzio ekonomikoari antagonikoa eta arrotza zaion aktore bat; jada ez da xaman bat, kasta bereizi bateko kide edo marfilezko dorrean bizi den jenioa. Arteak eremu bereizi izateari utzi dio, sinboloen mundukoak ziren gauzen produkzioa mamitzen zuen aparteko esparru izateari, eta ekonomiaren barruko jarduera soila bilakatuta, beste bat gehiago da. Horregatik, praktika artistiko eta kulturalak produkzioaren eta lanaren ikuspuntutik ulertu behar dira, eta ez esparru ekonomiko eta produktibotik kanpo dagoen jarduera gisa. Break esaten duen bezala:

*«El trabajo que realiza el productor artístico se sitúa en la órbita de cualquier otra actividad, de la actividad cualsea. Es, como todo el resto del trabajo que realizan cualesquiera otros ciudadanos, una mera actividad productiva y su espacio de inscripción no es otro que el dominio público, el espacio social, definido por los actos de intercambio. Nos guste o no, en las sociedades actuales este espacio se encuentra exhaustivamente prefigurado por la actividad económico-productiva, bajo cuya administración se decide la forma reglada de todo intercambio social».*¹²⁸

126 ROWAN, Jaron. 2010/09/08. Iturria: <http://www.nativa.cat/2010/09/entrevista-jaron-rowan/>

127 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (166. or.).

128 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (193. or.).

3.4. EREMUAK BATA BESTEAN URTU DIRENEKOA

60ko hamarkadatik aurrera gauzak aldatu egin dira. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, kapitalistek eta eredu horren aurka zeuden hainbat mugimenduk bat egiten amaitu dute, kapitalismoak etengabe eremu berriak kolonizatzeko duen beharrak bultzatuta, batetik, eta bestetik, inkonformismoaren alternatiba-proposamenek, autonomia, malgutasun edo autorrealizazio eske bide berriak urratu nahian, norabide hori hartu zutelako. Dena den, ez da eremu desberdinen artean gertatu den uztartze edo bat-egite kasu bakarra. Lipovetskyren eta Serroyren esanetan:

*«[...] estamos en un ciclo nuevo caracterizado por una relativa desdiferenciación entre lo económico y lo estético, la industria y el estilo, la moda y el arte, el pasatiempo y la cultura, lo comercial y lo creativo, la cultura de masas y la alta cultura».*¹²⁹

Mendebaldeko herrialdeetan, hegemonikoa izan zen lan-molde industrialia agortu ondoren, lan-eredu berriak sortu dira. Ekonomiak, lehen lanetik kanpo uzten zituen langilearen hainbat gaitasun, orain lanean jarri eta produktibo bihurtu ditu. Produkzio sinbolikoa, tradizionalki artearen eta kulturaren esparruko jarduera izan den hori, orain ekonomiaren eremuko faktore garrantzitsuetako bat bilakatu da. Era berean, kulturak ekonomiaren ezaugarri eta egiteko moduak bereganatu ditu, eta industria kultural eta kreatiboen garapena dela tarteko, ekonomiaren hazkunderako esparru garrantzitsua bilakatu da. Mugimendu bikoitz horren berri ematen du Break, hain zuzen ere. Prozesu horretan, ekonomiak kulturaren ezaugarriak bereganatu ditu; kulturak, ekonomiarenak; eta bi eremuak bata bestearen barruan urtu eta bat izatea izan da emaitza:

*«La entrada del capitalismo contemporáneo en una nueva fase tiene lugar al producirse la colisión sistémica entre los registros de la economía y la producción simbólica, entre el sistema económico-productivo, en general, y el subsistema de las prácticas culturales y de representación».*¹³⁰

Fredric Jamesonek dio kapitalismoaren azken aroaren logika produktiboa kulturala dela. Kultura jada ez omen da, kapitalismoaren beste fase batzuetan bezala, autonomiaren jabe. Azken hamarkadetan kulturak bizi izan duen ez-tandaren ondorioz, hedapen mirargarria izan du gizartean. Gizarte-antolara azken zirrikituraino zabaldu da, gizarte-eremua guztiz ziprztindu du. Kultura bizitzako alor guztietara barreiatua izan da, eta kapitalismo berantiarren testuinguru bihurtu da. Orain, dena da kultura, eta ekonomiaren eta kulturaren eremuen artean jada alderik ez dago, biek bat egin baitute, Jamesonen esanetan:

129 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2015 (10. or.).

130 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (21. or.).

«[...] *todo, incluidas la producción de mercancías y las altas finanzas especulativas, se ha vuelto cultural; y la cultura también pasó a ser profundamente económica u orientada hacia las mercancías*». ¹³¹

Ekonomia eta kultura edo kultura eta ekonomia bata bestean urtu eta bat bihurtu direnekoa esplikatzeko, prozesu korapilatsu horren konklusio edo metafora gisa, Fabrika Gardena aipatzen du Comeronek. ¹³² Fabrika Gardena Volkswagen markako gama altuko auto-mota bat ekoizteko diseinatutako instalazio bat da, baina fabrika bat izanagatik, ez du zerikusirik batere fabrikez aritzean burura etorri ohi zaigun ohiko irudiarekin. Ez da begien bistatik ezkututzen den toki zikin eta zaratatsu bat. ¹³³ Alderantziz. Kristalezkoa du kanpoko geruza, bai eta barrua ere, eta hortik datorkio izena, hain zuzen ere. Fabrika Gardena lantoki bat da, baina bezero, bisitari eta turistei fabrikaren barrua eta funtzio-namendua erakusten zaie. Zorua astigar gorriaren zurez eginda dago, itxura ederrekoa gerta dadin ez ezik, lanaren ondorioz sortzen den zarata-apurra xurga dezan. Gardena bezain isila da fabrika. Ez da mailu edo bestelako tresnen edo makinaren zarata desatseginik entzuten. Langileek, ohiko buzo urdinaren orde, laborategiko arropa eta eskularru zuriak darabiltzate. Espazio kirurgiko guztiz higienizatuaren itxura du. Fabrika Gardena denborak eta espazioak nahasten direnekoaren adibide bat da. Leku horretan, bat egi-ten dute eremu publikoak eta pribatuak, produkzio- eta subjektibazio-denborek, lanak eta aisiak. Fabrika hori ez da autoen produkzio hutsera mugatzen. Lan industrialak ezarri zituen mugak desegin izanaren irudi izateaz gain, esanahi kultural eta sinbolikoekin batera, bizitzeko moduak ere ekoizten dituela esaten du Comeronek. Fokuen argipean jokatzen den emankizun edo espektakulu moduko bat da fabrika horrek bere lanaren bitartez eskaintzen duena. Artearen eremuko beste edozein espazioren parekoa da, azken finean Fabrika Gardena emaitza irudi bat delako. Fabrikak, autoekin batera, bere irudi propioa ekoizten du, hau da, espazio produktibo isil, lasai, higieniko, eder eta erakargarri bat izatearen irudia:

«[...] *el ejemplo de la Fábrica Transparente ofrece una imagen de hasta qué punto, en la era de la información y de la economía global, incluso lo que históricamente había sido el máximo exponente del trabajo material —la fabricación de automóviles—, se encuentra inmerso en un acelerado proceso de fusión con el orden simbólico. La fábrica pasa a ser un espacio abierto y atractivo —y deviene una imagen: una vitrina que exhibe espectacularmente ese trabajo productivo que la Modernidad había aprendido a ocultar y a dejar ob-scenae*». ¹³⁴

131 JAMESON, Fredric: *El giro cultural. Escritos seleccionados sobre el posmodernismo 1983-1998*, Manantial, Buenos Aires, 2002 (105. or.).

132 COMERON, Octavi: op. cit. (19. or.).

133 GODARD, Jean Luc: *Godard on Tout va bien (1972)*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=hnx7mxjm1k0> Godardek elkarrizketa batean esan zuenez, langileak ez zuen bere lantokia filmatzeko baimenik. Kamerak debekatuta zeuden fabriketan.

134 COMERON, Octavi: op. cit. (21. or.).

·4·

LANA, LANA, LANA!




► **"(BESTE) INTERNAZIONALA", 2015.**

Laneguna da. Auto-ilara bat agertu da hiriko kaleetan barrena. Ibilgailuetako bat Internazionala ari da erreproduzitzen bozgorailuetatik, baina langileriaren ereserkiaren hitzetatik LAN hitza osatzen duten L, A eta N letrak kendu ostean sortutako bertsioan. Beste bi ibilgailuek irudi bana daramate: ohe gorri batean datzan norbaiten irudia, batek, eta Internazionalaren hitzak, besteak, baina LAN hitzeko L, A eta N letrak ez beste guztia ezabatua duela.

Lotura: <https://vimeo.com/153389911>





4.1. MITOAK DESMITIFIKATZEN

Aurreko bi ataletan ikusi dugun bezala, ekonomiaren kulturizazioa eta kulturaren ekonomizazioa gertatzearen ondorioz, haien artean behinola zeuden mugak zeharo desegin eta urtu dira. Sorkuntza eta kreatibitatea kapitalismoaren motor bilakatu dira. Asmatu diren lan-eredu berriek sorkuntzaren esparruko ezaugarriak bereganatu dituzte, eta alderdi askotan arte-praktiken oso antzekoak dira orain. Langile postfordistak desirak, afektuak, ezagutza, ideiak eta abar produktibo bihurtu behar ditu. Ekintzaile, ausart, sortzaile izatea eskatzen zaio. Produkzioaren balioa immateriala eta sinbolikoa den horretatik dator nagusiki, eta irudiak betetzen duen papera erabakigarria da. Dena estetizatzeke joera dago. Arteak bizitza okupatu du. Kapitalismoa artistiko bihurtu da.

Bestalde, oinarrizko behar materialak jende gehien-gehienak aseta dituen testuinguruetan, bestelako beharrak azaleratu dira. Errealizazio pertsonalarekin lotutako beharrak dira funtsean. Horrelako lekuetan, lana, aberastasuna lortzeko bitarteko huts izateari utzi eta behar postmaterialistak asetzeko jarduera bihurtu da. Diskurtsoa ere aldatu egin da, jakina: protestantismoarekin sortu zen lanaren aldeko etika hura, edo langile-mugimenduak agertutako "ideologia trabajista" edo langilekeriazkoa aurrena eta lanaren aldeko ideologiak geroago, hasieran izandako indarraz hustuz joan dira, eta orain, soldatapeko jarduera errealizazio pertsonalerako bidea izan daitekeela esanez seduzitzen du lanaren aldeko diskurtsoak. Norberak gustukoa duen horretatik bizitzeko aukeraz baliatzera animatzen gaituzte. Ezin uka daiteke artearen esparrua eredutzat daukaten produkzio-modu eta bizimoldeak erakargarriak direla, baina dena ez da itxura batean dirudiena, eta horregatik, gai honetan arakatuko dugu segidan datozen lerroetan.

4.1.1. Lan immaterialaren idealizazioa

Maiz esaten da hegemonikoa izan zen lan-eredu fordista desagertu eta lan-eredu postfordista dela orain gailentzen dena. Gogoan izan beharrekoa da, ordea, baieztapen horrek Mendebaldeko testuinguruari erantzuten diola. Izan ere, nahiz eta egia den herrialde horietan industria-ehuna funtsean desegin egin dela, horrek ez du esan nahi lan-eredu fordista edo lan industrialia desagertu egin denik. Informazioaren eremuko lana egiteko, bai eta izaera intelektual, kreatibo, sinboliko edo immaterialekoa den makina bat lan egin ahal izateko ere, ezinbestekoak dira ordenagailuak, mugikorrak eta bestelako gailu teknologiko berriak. Eta baliteke tresna horien bidez egindako lanaren emaitza immateriala izatea, baina gailuek berek immaterialetik ezer gutxi dute: bitarteko materialak izaten jarraitzen dute, fabrikariak produzitutako objektu fisikoak, azken finean. Mendebaldean lan industrialaren gainbehera gertatu dela ukazina da, baina produkzio-eredu fordista ez da desagertu:

lekuz aldatu da, besterik ez, kapitalaren metaketarako egoera hobea aurkitu duen beste lurralde batzuetara. David Harveyk esaten duen moduan, fordismoa orain periferikoa da.¹³⁵

Silvia Federicik, ildo horretatik, kritika zorrotza egin die Hardti eta Negriri. Immaterialtasunaren teorialari biek Mendebaldean lanaren antolaera kapitalista gainditzeko aukerak ikusten dituzten bitartean munduaren beste aldean martxan ipini den esplotazio-prozesu izugarriaren aurrean itsu ageri direla salatzen du.¹³⁶ Loft batean lan immateriala deitzen zaion horretan jarduten duen langilea eta baldintzarik tamalgarrienetan huskeria baten truke koltana ateratzen lan materiala egiten duena elkarrizkuzen-zuzen lotuta daude; hari fin batek lotzen ditu biak. Lurraren alde bateko garapenak beste aldeko azpigarapena eragiten du. Eta hain zuzen ere, horrekiko itsu izatea leporatzen die Hardti eta Negriri Federicik, aipatutako artikulu horretan: lan immateriala deritzogun hori egin ahal izateko hariaren beste aldean egiten den lana kontuan ez hartzea, alegia.

Hardtek eta Negrik diotenez, laneko denbora eta bizitzakoa nahasi egin dira. Lana informala eta partziala da gero eta gehiago, eta harremanak, komunikazioa, emozioak, zaintza eta afektuak produktiboak bihurtu dira.

Orain, adibidez, etxeko eremuan tradizionalki emakumezkoek egin izan dituzten lanekin lotu ohi diren dohainek, zaintzakoak eta afektuarekin eta harremanekin lotutakoak, besteak beste, balio bat dute lanaren merkatuan. Eta Hardtek eta Negrik ohartarazten digutenez, dohain edo ezaugarri horiek produkzioaren sektorearen erdigunean jarriz joan diren neurrian, lan horien “feminizazioa”¹³⁷ gertatu da.

Federiciren ustez, ordea, lan immaterialaren teorialari biek ez diote behar adinako aitortza egiten emakumezkoek egin izan dituzten lan horiei. Azaleko analisisia egitea leporatzen die. Hardtek eta Negrik, etxeko eremuko zaintza-lanei “lan afektiboa”¹³⁸ deitu eta lan immaterialaren kategorian sartzen dituztenean, modu anekdotikoan baino ez omen dituzte hartzen kontuan, analisi feministei aho txikiarekin babes modukoa agertzeko edo, “lan afektiboa” esaten dioten hori afektuak, sentimenduak eta gogo-aldarteak produzitu eta kudeatzea baino ez baita bi teorialarientzat; gehienez ere, otorduak zerbitzatzeko enpresa bateko emakumezko langileak bezeroei irribarre egitea, langile “afektiboa” delako. Federiciren esanetan, etxeko eremuan emakumezkoek egin ohi izan dituzten lanak emozio eta sentimenduen produkzioarekin lotutako jarduera direla esatea, beste behin ere horretara mugatzea, atzerapauso galanta da, ez duelako aintzat hartzen zer-nolako pisu eta garrantzia duen sistema kapitalistan erreprodukzio-lanak, hark iraungo badu ezinbestekoa.

135 HARVEY, David: *La condición de la posmodernidad. Investigación sobre los orígenes del cambio cultural*, Amorrortu, Buenos Aires, 1998 (210. or.).

136 FEDERICI, Silvia: “El trabajo precario desde un punto de vista feminista”, 2010/01/03. Iturria: <http://www.sinpermiso.info/textos/el-trabajo-precario-desde-un-punto-de-vista-feminista>.

137 HARDT, Michael; Negri, Antonio: op. cit., 2011 (76.-77. or.).

138 HARDT, Michael; Negri, Antonio: op. cit., 2000 (254.or.).

Emakumeei historikoki eta estrukturalki ezarriak izan zaizkien soldatapeko zein doako lanen ezaugarriak egungo lanaren ezaugarri bihurtu dira. Amaia Pérez Orozcok dioenez, azken hamarkadetan lana feminizatuz joan da,¹³⁹ eta lanaren lan-baldintzetan zein edukietan gertatu da feminizazio-prozesu hori. Lan-baldintzetan, lehen emakumezkoei egokitu-tako lanen prekarietatea oro har zabaldu da, eta soldata-harremana indibidualizatu. Eta edukietan, historikoki zaintza-lanetan garatu diren gaitasunak dira lan-merkatuak gero eta gehiago eskatzen dituenak (esaterako, aldi berean zenbait zeregin, denbora eta espazio kudeatzeko gaitasuna, eta talde-lanean aritzekoa), eta bestalde, egungo produkzio-moldeetan, alderdi afektiboa nahiz harremanena eta komunikaziorako gaitasuna gero eta erabakigarriagoak dira. Pérez Orozcoren esanetan, lanaren feminizazioak zaildu egiten du enpleguak diru-sarrerak eta eskubideak lortzeko iturri seguru izaten jarraitzea.

Produkzio-moduak aldatu egin direla gauza nabaria da. Bat gatoz zaintza, afektu, harreman, komunikazio, informazio, ezagutza, irudi eta sinboloen produkzioak berebiziko garrantzia dutela kapitalismoaren oraingo fase honetan. Egia da oraingo produktu eta zerbitzuak, ohiko kontsumo-objektuen aldean, kualitatiboki desberdinak direla, eta beste-lako beharrei erantzuten dietela. Baina gaur bezala bihar ere, etxea, autoa, janaria eta arropa bezalako merkantzia materialen beharra izaten jarraituko dugula zalantzarik ez dugu, David Harveyk dioen bezala.¹⁴⁰ Beste horrenbeste gertatzen da bizitzaren eta lan-indarraren erreprodukzioari dagokionez ere. Janaria prestatu, etxea txukundu, adinekoak eta gaixoak zaindu, eta haurrak eskolara eramaten jarraituko dugu. Argi dago, beraz, fabrikako lanak eta etxeko eremuko lanek ezinbestekoak izaten jarraituko dutela oraingoz. Lan immaterialaren teoriak arrakasta izan badu, hori, lanaren amaiera, lan-prozesua “komuna” bihurtzen ari delako ustea eta bestelako elementu utopiko batzuk jaso dituelako gertatu dela dio Federicik.¹⁴¹ Nahiz eta prekarietate- eta esplotazio-egoeran murgilduta dagoen immaterialtasunaren langilea, egoera hobeago bat lortzeko norabide zuzenean dagoela sinetsarazteko gaitasuna erakutsi du kapitalismoak azken fase honetan.

4.1.2. Lan immateriala eta kultura

*«Todas las relaciones estancadas y enmohecidas, con su cortejo de creencias y de ideas veneradas durante siglos, quedan rotas; las nuevas se hacen viejas antes de llegar a osificarse. Todo lo estamental y estancado se esfuma; todo lo sagrado es profanado, y los hombres, al fin, se ven forzados a considerar serenamente sus condiciones de existencia y sus relaciones recíprocas».*¹⁴²

139 PÉREZ OROZCO, Amaia: *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Traficantes de sueños, Madril, 2014 (117. or.).

140 HARVEY, David: *Diecisiete contradicciones y el fin del capitalismo*, Traficantes de sueños, Madril, 2014 (1) (233.-240. or.).

141 FEDERICI, Silvia: op. cit., 2010/01/03.

142 ENGELS, Friedrich; MARX, Karl: *Manifiesto del Partido Comunista*, Centro de Estudios Socialistas Carlos Marx, Mexiko, 2011 (34.-35. or.). Iturria: <https://centromarx.org/images/stories/PDF/manifiesto%20comunista.pdf>

Produkzioaren esparruan harreman eta sinesmen guztiak etengabe goitik behera aldatu beharrak solidoa zen hura airean barreiatuta galtzea zekarrela esatera zetozen Marx eta Engels. Ekonomia industrialetik ekonomia postindustrialerako saltoa egin ostean, Mendebaldean lana immateriala bihurtu dela esaten da. Ondasun materialen produkzioa ordezkatu egin duela zerbitzu, ezagutza, informazio eta komunikazioaren produkzioak, eta orain langileari ezagutza, kreatibitatea, harremanetarako gaitasun soziala, afektuak edo subjektibitatea lanean ipintzea exijitzen zaiola. Hori esatean, badirudi lanak izaera gizatiarragoa hartu duela, eta ildo beretik, lanaren bitartez norbera errealizatzeko aukera errealitate bihurtu dela.

Egia da zenbait lanetan langileak bere kreatibitate, ezagutza eta nortasunaz baliatu behar duela, baina lan immaterial esaten zaien lan asko fabrikako lanetik gertuago daude lan gizatiar eta sortzaile batetik baino. Ordenagailuaren aurrean eserita eguna joan eta eguna etorri eragiketa berberak egiten jarduteak, adibidez, antz handiagoa du fabrikako langile alienatu haren jardunarena, subjektibitatea produzitzen jartzen duen artistaren lanarena baino. Teleoperadoreen lana, esaterako, lan immateriala den arren, lan errepikakor eta errutinarioa da. Orain langileari bere lanean buru eta bihotz murgiltzea eskatzen zaio, emozioak, nortasuna eta indibidualtasuna produktibo bihurtzea. Baina, aldi berean, bere izaera emozionala kontrolatzea ere bai. Jarrera zuzen, goxo, atsegina izatea exijitzen zaio, baina haserrea eta tristezia kontrolatu egin behar ditu. Harremanak izateko modu partikularrak, norberarenak, zaindu egin behar ditu langileak; horretan trebatzen dute, prestatu, eta harremanetarako moduak estandarizatu egiten dituzte horrela. Bezero baten aurrean maldizioka hasteko nahikoa arrazoi izanagatik ere langileak pentsatzen duena irentsi eta irribarretsu agertu behar badu, ordea, lan horrek gizatiarretik gutxi duela ezin uka daiteke.

Teknologiak langilea lan errepikakor eta aspergarririk libratuko zuela uste zen, langileari jarduera gizatiar eta sortzaileetan aritzeko aukera eskainiko ziola, baina ez da hala izan: lana estandarizatzeko erabili da, ez du lanetik askatu. Fraynek azaltzen duen bezala, egia da langile postindustrialak ez dituela fabrikako langilearen lan-baldintza berberak pairatu behar (fabrikako lan-eremu zikinaren ordeztu, lan-espazio diafanoa du inguruan, eta makinaren zarata beharrean, hari musikaletik datorkion melodia erlaxagarria entzuten du orain), baina langilearen ondoezak, hala ere, berdin-berdin hor dirau. Gorputzez ez baina mentalki akitzen da langilea postfordismoan, eta horrenbestez, Frayneren esanetan, nekearen eta alienazioaren eragin gaiztoaren pean dago orain ere langilea.¹⁴³ Médak lan immaterialari buruz dioen bezala:

«[...] aunque este tipo de trabajo de cierta cabida a la personalidad y permita un mínimo de autoexpresión, esto no es inherente a su naturaleza, sino que lo hace accidentalmente. La autonomía y la autoexpresión son otra cosa. Consiste en regirse

*por las leyes que uno mismo se dicte y según los objetivos y medios que uno mismo se dé».*¹⁴⁴

Méda mesfidati ageri da lan immaterialaren alde egiten dutenen diskurtsoekiko. Haren esanetan, automatizazio-prozesuek gizakiari lan astun eta desatsegin asko gainerik kentzeko aukera ematen dioten arren, makinak eta ordenagailuak kontrolatzeko langileak behar dira, eta ordenagailu baten bitartez makina bat kontrolatzen ari den langilea errealizatu senti daitekeela pentsatzea inozokeria hutsa da. Zortzi orduan pantaila baten aurrean egotea, nahiz eta inguruan zaratarik eta zikinkeriarik batere ez izan, kateko lana bezain alienatzailea da. Horretaz gain, Médak esaten duenaren arabera, lan industrialaren deslokalizazioa gertatu den herrialdeetan, libre geratutako lan-indarrak bere lan propioa asmatzea beste irtenbiderik ez du izan. Lan horiek, funtsean, zerbitzuen eta zaintzen alorrean jaio dira. Eta horiek ere langilearen autorrealizaziorako jarduera izan daitezkeela pentsatzea, hori oso eztabaidagarria da. Tabernari, erizain edo kale-garbitzaileei galdetu beharko litzaieke, adibidez, ea beren jardueraren bitartez errealizatuak sentitzen diren. Egia da langilea kirtendu eta alienatzen zuen fabrikako lan astunetik libratu dela kasu horietan, baina sortzen ari diren lan immaterialek langilearen errealizazioa eta autonomia posible egingo dutela pentsatzea astakeria besterik ez da, Médaren iritziz. Egia da lan-eredu berrietan emozioei, subjektibitateari, intelektueltasunari eta kreatibitateari tokia egin zaiela, baina merkatuaren arau eta beharrek horretara bultzatuta gertatu da hori, eta ez langilearen beharrak ase nahi izan direlako. Lan-eredu berrietan, errealizazioarena ustekabean gertatutako zerbait baino ez da, Médak oso ondo azaltzen duen bezala.

4.1.3. Produkzio artistikoa

*«Solo como efecto de un espejismo o una ensoñación romántica podría el ansia del pobre satisfacer su entusiasmo cuando no hay libertad. Fue hermoso idealizar al creador pobre cargado de conflicto, presuponiéndolo libre a pesar de las dificultades, ennobleciendo su carácter y convirtiéndolo en alguien singular y extraordinario. No pocas figuras míticas han conformado esa visión cargando un plus de exigencia y valentía al que crea, que sea capaz de anteponer su pasión a su alimento y a la expectativa que el mundo (familiar y social) pone sobre su persona».*¹⁴⁵

Remedios Zafra

4.1.3.1. Artista, figura mitifikatua

Von Ostenek dioen bezala, artista, lan egiteko eta bizitzeko moduen sortzaile izan den neurrian, ezohiko figura bat da.¹⁴⁶ Artistak gizartean aintzatespena eta legitimazioa

144 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (133. or.).

145 ZAFRA, Remedios: *El entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital*, Anagrama, Bartzelona, 2017 (37. or.).

146 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (82.-83. or.).

dituelako eta kapital sinbolikoa daukalako, alde batetik, eta haren bizimoduak esperientzian aberatsa eta intentsoa izateko itxura duelako, bestetik, garai hartako gazteei oso erakargarria egiten zitzairen artista bohemioaren bizimodua. Jarrera heroikoz ahal bezala eutsiz lortzen zuten, nola hala, irautea, baina marjinalitateak eta pobreziak zeharkatutako bizimodua zen gehienena. Mitoak mito, miseria materiala eguneroko ogia zuen artista bohemioak. Bourdieuren esanetan, egoera hartan, zaila zen arte-praktika merkatuaren atzaparretatik urrun edukitzea edo artearekin loturarik ez zuen bigarren lan bati uko egitea. Oso gutxi gorde ahal izango zuten arte-praktika diruaren eraginpetik. Arte-merkatarien edo burgesiaren babes ekonomikorik izan ez arren, eta publiko zabal batek beren lanak kontsumitu ez arren, artista gutxi horien ekoizpena nolabaiteko autonomia ekonomikorik gabe ez zela posible izango gehitzen zuen Bourdieuk. Edo beste modu batean esateko, artearen purutasuna diruaren eraginetik urrun gorde ahal izan bazuten, behar materialak aseta zituztelako izan zen. Dirua izango zen beste behin ere diruarekiko askatasuna bermatuko zuena, eta paradoxikoa badirudi ere, burgesiaren eraginetik eremu autonomo batean artearen purutasuna bermatu ahal izateko, burges izatea beste aukerarik ez zegoen, Bourdieuk dioenez:

*«Si se observa [...] bajo qué condiciones específicas los miembros de la Escuela del arte por el arte podían ocupar su posición en el campo, se ve que su característica biográfica más importante era, sin lugar a dudas, ser burgueses [...]. Es necesario ser burgueses, disponer de las reservas necesarias para poder resistir a las incitaciones directas de la demanda y esperar las remuneraciones materiales simbólicas necesariamente diferidas [...] que el mercado de los bienes simbólicos puede ofrecer a los artistas que no aceptan plegarse a las exigencias inmediatas del público burgués».*¹⁴⁷

Artea arteagatik egiten zuen artista bohemioa purutasunaren jabe zen.¹⁴⁸ Inspirazioa zela medio, gorengoarekin, sublimearekin, gainerako lurtar arrunten zentzumenei ihes egiten zien harekin konektatzeko eta hura atzemateko sentsibilitatea erakusten zuen.¹⁴⁹ Bazuen ulertezina, ikusezina, ukiezina zen misterioa gorpuzteko edo irudikatze gaitasuna. Konformagaitz, ausart, bisionario edo heroi moduan aurkezten zuen besteen aurrean bere burua. Indibidualista eta bakartia zen. Eta merkatuarekin harreman gatazkatsua zuen, zeren eta, artea diruarekin nahas zedin eragozteko joera zuen artistarentzat, espiritua eta haragia gauza kontrajarriak baitziren, eta artea egitea, erlijioarekin gertatzen zen bezala, jainkotiarra eta sakratua zen harekin harremanetan jartzeko modua zen. Artea saltzea, azken batean, nork bere burua saltzearen pareko zen. Artetari halako funtzioa ematen zitzaion eta, artistak baldintza materialen ginetik ipini behar zuen bere praktika.

147 BOURDIEU, Pierre: *Campo de poder, campo intelectual. Itinerario de un concepto*, Montessor, Buenos Aires, 2002 (116.-117. or.). Iturria: <http://ceiphistorica.com/wp-content/uploads/2016/01/bourdieu-campo-de-poder-campo-intelectual.pdf>

148 Ibidem (99.-100. or.).

149 DELGADO, Manuel: "Lo sagrado en el arte contemporáneo". Iturria: <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com.es/2013/02/lo-sagrado-en-el-arte-contemporaneo.html>

Artista bohemioren irudi mitifikatu horrek ia batere zerikusirik ez du artista garaikideak bizi zuen errealitatearekin. Artista bohemioren irudi hori deseraikitzeke ahaleginek zerbait lortu badute ere, gizarte-mailan uste hedatua da oraindik (hedabideek eta zinemak proiektatzen duten irudiarengatik, besteak beste) artista mundura dohain, sentsibilitate, begirada eta gaitasun bereziekin jaio den ezohiko izakia dela. “Artista zara!” esamoldeak, adibidez, gainerakoak baino koska bat goragoko mailan ipintzen du esamoldea jasotzen duen pertsona. Jenioa, erromantikoa, errebeldea, konformagaitza, bizizalea edo alfer moduan ere deskribatzen den artista izatea balioa duen zerbait izatea da.

Artearen esparrua askatasunaren eta errealizazioaren eremua delako ideia oso barneratuta du oro har gizarteak. Praktika artistikoak, fabrikako lan alienatzaileak ez bezala, libreki adierazteko aukera ematen omen dio artistari. Ez omen du, beste ogibideek bezala, alienazioa eta ondoeza eragiten. Itxuraz bederen, artistak bere lana maite du, eta jarduera horren bitartez errealizatua sentitzen da. Orduetegi malguak, mugikortasuna, proiektukako lana, aldi baterako kontratuak, lanarekiko maitasun eta pasioa, ideia tartean eta kreatibitatearekin lan egitea eta abar langile ooren ametsa izan daiteke. Behartua, desatsegina eta alienatzailea gertatu ohi den lanaren aldean, badirudi beste ezaugarri horiek dituen lanak aske izateko aukera ematen duela.

4.1.3.2. Okerreko zenbait uste

Fabrikako lanean diharduenak produkzioko denbora eta denbora librea ondo bereziak ditu: fabrikari dagoeneko denbora negozio-denbora da, lan egiten du; fabrikatik kanpo dagoeneko, berriz, aisialdiko denbora da, atsedenerako tarteak. Artistak, ordea, laneko eta aisialdiko espazioen eta denboren arteko mugaren desregularizazioa bizi du, eta lanean ari denean ere, praktika artistikoko lana askotan ez da lantzat hartzen, sozialki behin eta berriz zalantzan ipintzen den kontua da hori. Etengabe entzun ohi da erakusketetara joandako bisitarien artean, lan baten aurrean daudela, “Hori gure 7 urteko alabak ere egingo luke!” eta horrelakoak. Artistaren jarduera, haren esfortzu mental zein fisikoa, bai eta horretan ematen duen denbora ere, bokazioarekin lotzen da, gustuko lanarekin, pasioarekin eta plazerarekin, autorrealizazioarekin... Alegia, artistaren lana denbora-pasatzat hartzen dela sarritan, *hobby* edo afiziotzat, plazerarekin eta gozamenarekin lotua, barne-espresioaren behararekin eta indibidualtasunarekin, baina ez lanarekin.¹⁵⁰ Gaur egun, oraindik ere, norbaitek artista dela esaten duenean, askok pentsatzen dute lan egiteko beharrik ez duela, ondasun materialen jabe-edo dela, edo maila oneko familia bateko kide.¹⁵¹ Artista lanik egin gabe bizitzeko aukera duen norbait delako ideia oso barneratuta dago. Garai batean gizonezko aristokrata eta burgesak izan ziren artea egiteko aukera izan zuten bakarrak; behar materialak aseta izateak arte-praktikarako aukera ematen zien. Ikuspegi horrek,

150 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (19. or.).

151 RUIDO, María: *Aula oberta #7. Saber, hacer, comprender*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/maria-ruido-aula-oberta7/226094>

artista lanik egin gabe bizi den norbait dela uste izateak, badu loturarik garai hartako artista burges eta aristokrataren irudiarekin. Kontua dirudien baino larriagoa da, gainera. Izan ere, ikuskera hori ez da soilik artearen esparrutik kanpokoan begirada. María Ruidok esaten duen bezala, artearen esparruko langileen artean ere artista bohemioren irudiak indarrean darrai:

«[...] la primera carencia de los artistas, en un importante número de casos, es su inconsciencia como trabajadores, una idea acentuada por la construcción profundamente arraigada del demiurgo romántico, desclasado y saturniano, demasiado individualista para mirar a su alrededor, perpetuada y acentuada por el imaginario mediático hasta nuestros días». ¹⁵²

Kontrako noranzkoan doan beste ideia bat ere badago, eta hau da: artistak pobrezia-edo miseria-egoeran dagoenean egiten dituela proposamen artistiko interesgarrienak. Uste da prekariedade, bizi-baldintza gogorrek, ezegonkortasuna edo miseria sorkuntzarako osagarri ezin hobeak direla, horrela ateratzen omen dituelako artistak bere sentimendu eta espresiorik gordin eta egiazkoenak. Arte puruaren tradizioarekin gertatzen zen moduan, arte-praktikari errendimendu ekonomikoa ateratzeak deserosotasuna sortzen du orain ere. ¹⁵³ Norberaren barne-espresioa litzatekeena diruaren bitartez “kutsatzea” onartezina da batzuentzat, antza, eta alde horretatik, badirudi arte-praktikaren sektorean erabat gainditu gabeko gaia dela hori oraindik.

Ematen du arraza, genero, klase eta horrelako beste hainbat parametro garrantzirik gabeko kontuak direla, eraginik gabeko ezaugarriak, ustez askatasunaren eremu den honetan, artearen esparruan. Baina legitimatutako zenbait espazio, zirkuitu edo testuingurutan artista onartua izateko, faktore horiek erabakigarriak dira, Ruidok adierazten duen bezala. ¹⁵⁴ Produkzio sinbolikoaren eremua ez da bere baitan autonomo edo puru irauten duen esparru bat. Artista guztiak posizio berean daudela eta denek aukera berdinak dituztela pentsatzea inozokeria hutsa da. Artearen eremuak bere arauak ditu. Eremu horretan, gainera, bizitzako beste alor guztietan bezalaxe, badira botere-harremanak, Pierre Bourdieuk bere garaian ederki asko azaldu zuen moduan. ¹⁵⁵ Eta arau eta kode zehatz batzuek egituratzen duten eremu oro, lehiarako eremu da. Ezin ahantz daiteke bakoitzaren *habitus* ¹⁵⁶ edo jatorriak dakarrela zer posizio izango duen eremu horren barruan;

152 RUIDO, María: “Mamá, ¡quiero ser artista! Apuntes sobre la situación de algunas trabajadoras en el sector de la producción de imágenes, aquí y ahora” kapitulua; in PRECARIAS A LA DERIVA: A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina, Traficantes de sueños, Madril, 2004 (263. or.).

153 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (18.-19. or.).

154 RUIDO, María: *Aula oberta #7*: op. cit.

155 BOURDIEU, Pierre: *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Taurus, Madril, 1998 (112.-113. or.).

156 BOURDIEU, Pierre: *El sentido práctico*, Siglo Veintiuno, Buenos Aires, 2007 (86. or.). Honela definitu zuen Bourdieuk *habitusa*: “egitura egituratzaila bezala funtzionatzeko prest dauden egitura egituratuak”. *Habitusak*, testuinguru sozial batean, pertsona-multzo batek gustu bertsua izatea eragiten du, besteak beste. Esate baterako, argazki bati ederra edo itsusia iriztean, iritzi hori *habitusak* baldintzatzen du; alegia, zer familiatan jaio den, nolako heziketa izan duen, zer ogibide duen eta abar. Hau da, bizi-kondizio mota zehatz batekin lotuta dauden baldintzapenek sortzen dute *habitusa*.

alegia, norbanakoaren izateko modua, pentsamendua, ekintza, begirada eta pertzepzioa, hori guztia baldintza historiko, sozial eta ekonomikoen ondorio dela, eta faktore horien guztien baturak definitzen duela norbanakoak eremu jakin horretan hartzen duen tokia. Hala, lehia horretan arrakasta izateko aukera, norberak duen kapitalak baldintzatuko du hori. Edo beste modu batean esanda, norberak zer kapital dituen (ekonomikoa, kulturala, soziala) eta kapital horiek nola kudeatzen dituen, arrakasta lortzeko aukerak biderkatu edo murriztu egingo zaizkio. Remedios Zafrak honela azaltzen du:

*«[...] nunca una creación se hace aislada del mundo material. Toda creación siempre es atravesada por las cosas cotidianas de la vida: el trabajo, el dinero, los espacios que habitamos, nuestros cuerpos y deseos [...]».*¹⁵⁷

4.1.3.3. Lan-eremu malgu eta prekariora

Artistaren lan-baldintzez eta horiek artistaren bizitzan dituzten ondorioez baino gehiago, bestelako kontuei buruz hitz egiten da, bai hedabideetan eta bai gizartean, orokorrean. Eta artista mintzagai denean, gainera, errealitatearekin ia zerikusirik ez duen bizimolde idealizatu eta figura estereotipatu bati egiten zaio askotan erreferentzia. Sorkuntzarekin eta kreatibitatearekin lotutako produkzioa abaguneetan eta optimismoan oinarritutako diskurtsoek guztiz desitxuratuta eta idealizatuta dagoela ohartarazten digu Marion von Ostenek:

*«La mitología de los procesos de producción artística proyecta hoy la imagen de un estilo de vida metropolitano en el que el trabajo y la vida se desarrollan en el mismo lugar —en el bar o en la calle— y al que además se vincula la ilusoria posibilidad de poder gozar del placer de la musa. El pensamiento de la flexibilidad y la movilidad se remonta precisamente a esa tradición del inadaptado [...] a aquella generación de artistas que intentaron huir del dictado moderno de la disciplina y el racionalismo. El estatuto social y el capital cultural que pende de la imagen del y de la artista remiten también a una forma del trabajo más elevada, [...] y que está destinada a algo “mejor”».*¹⁵⁸

Egonkortasunik ezaren eta ziurgabetasunaren esparrua da artearena, gaizki ordaindua eta lanbide gisa eusten zaila artista gehienentzat. Bea Espejok artearen testuinguru gordinaren berri ematen du.¹⁵⁹ Horretarako, Nebrija Fundazioak Granadako Unibertsitatearekin elkarlanean Espainiako estatuko artisten jarduera ekonomiko eta profesionalaren inguruan egindako ikerketaren datuez baliatzen da. Galdeketa zabal bat egin ondoren, artisten % 50ek Espainian adostuta dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren

157 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (19. or.).

158 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (87. or.).

159 ESPEJO, Bea: “¿De qué viven los artistas?”. Iturria: <http://www.elcultural.com/noticias/arte/De-que-viven-los-artistas/9565>

azpitik kobratzen duela jasotzen du txostenak. Diru-sarrera horiek ez datoz, gainera, arte-produkzioetik bakarrik. Ikerketan parte hartutako artisten % 20 baino gutxiago bizi da soilik artetik. % 32k baizik ez du harreman egonkorra galeriekin, eta horietatik % 3 soilik bizi da bere praktikatik. Irabazten duenarekin konforme omen dago, gainera. Kurioski, nahiko normalizatuta dagoen zerbait da instituzioek-eta antolatzen dituzten erakusketa eta jaialdietan espazioa edukiz betetzeko ardura duen langileak (artistak, alegia) ordainsaririk gabe edo huskeria baten truke lan egitea, nahiz eta ekimen horiek aurrera ateratzeko egin beharreko bestelako zeregin ugarietz arduratuko direnek gutxiago edo gehiago baina soldata kobratuko duten. Ikerketaren arabera, artista gehienak irakaskuntzatik bizi dira. Argazkilarien kasuan, iragarki edo modaren arlorako lan komertzialak egitetik. Hitzaldiak eta tailerrak ere ematen dituzte dirua ateratzeko. Galeriek kontratua edo hileroko diru-sarrera finko bat eskaintzea zeharo ezohikoa da. Eta museoek, berriz, gutxitan ordaintzen diete artistei, eta halakoetan ere ordaindutakoa ez da bizitzeko behar adinakoa.

Ordaintzeko modua sinbolikoa izan ohi da normalean. Esan nahi baita, batetik, lana bera dela ordainsari. Norberak zorioneko sentitu beharko lukeela maitatzen duen horretan lan egiteko aukera izate hutsarengatik. Pribilegiatu. Gustuko zerbaitetan aritzeko modua izatea badela nahikoa sari, nahiz eta diruz konpentsatua ez izan. Eta esan nahi da, bestetik, ordaintzeko modua aintzatespenaren eta ikusgaitasunaren bidetik datorrela. Rowanek¹⁶⁰ nahiz Aliagak¹⁶¹ esan duten moduan, uste edo pentsaera hori aski onartuta dago: egindako lanaren truke dirurik ez baina aintzatespena eta ikusgaitasuna lortzea ez dela ordainsari txarra, alegia. Artistak, ikusgaitasuna lortu, bere burua eta bere lana ezagutzera eman, edo gutxika-gutxika curriculuma gizendu ahal izatearekin ordaindutzat hartzen du bere lana. Egin duenaren aitortza etorkizunean etorriko zaiolako esperantzan bizi da, Von Ostenek¹⁶² eta Zafrak¹⁶³ esaten duten bezala; hau da, denboraren poderioz poliki-poliki metatzen ari den kapital sinbolikoa (eta horrekin batera kapital sozial eta kulturala ere bai) uneren batean errentagarri bihurtu eta kapital ekonomiko bihurtuko delako esperantzan. Aintzatespena eta ikusgaitasuna dira produktore artistikoentzat ordainsaria. Baldintzak baldintza, prekarietatea prekarietate, etorkizun oparo baten esperantzan, sorkuntzatik modu duin batean bizitzeko ametsa noizbait beteko delakoan, onartu egiten dira halako lan-baldintzak.¹⁶⁴ Bien bitartean, prekarietatea izango du bide-lagun. Kapital sinbolikoa edukitzeak posizio pribilegiatu batean jarriko du artista, baina horrek ez du sabela betetzeko balio.¹⁶⁵ Zafrak oso ongi azaltzen duen bezala:

«Su entusiasmo puede ser usado como argumento para legitimar su explotación, su pago con experiencia o su apagamiento crítico, conformándose con dedicarse

160 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (74.-75. or.).

161 ALIAGA, Juan Vicente: "A salto de mata. Algunas notas sobre la precarización del los/as artistas" kapituluak; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madrid, 2017 (95. or.).

162 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (86. or.).

163 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (14. or.).

164 Ibidem (15. or.).

165 Ibidem (42. or.).

*gratis a algo que orbita alrededor de la vocación, invirtiendo en un futuro que se aleja con el tiempo, o cobrando de otra manera (inmaterial), pongamos con experiencia, visibilidad, afecto, reconocimiento, seguidores y likes que alimenten mínimamente su vanidad o su malherida expectativa vital».*¹⁶⁶

4.1.3.4. Kontra esatearen kontraesanak

*«Tienes hambre, estás cansado, sobrecargado. Tomaste mucho en la fiesta y te acostaste con la persona equivocada, y después con la persona realmente equivocada. No entregaste a tiempo la propuesta, y lo dejaste pasar por un pelo. Los más avisados a tu alrededor se enriquecen y se hacen cada vez más conocidos. Tu dealer te pide que hagas más obras con rojo. "Esos rojos se están vendiendo bien. ¿Qué tal si haces sólo obras con rojo por un tiempo?" [...] Te haces preguntas. Dudas. Cambias de estilo, de medios, de ciudad. Experimentas, fallas. Una y otra vez».*¹⁶⁷

Andrew Berardini

Artistaren egoera ez da batere eroso, kontraesanek zeharkatzen dute etengabe. Batetik, mitologia elitista, purista eta kontserbadorearen eraginez, artista gizartearen begietara langile pribilegiatu moduan ageri da, lanik egiten ez duen langile gisa, alienatzailea ez den jarduera batean aritzen den langile moduan, bere barne-espresioa eta subjektibitatea lantzen dituen pertsona bezala, eta askatasun indibidualaren irudi da. Jende gehienak lan behartu desatseginetan diharduen bitartean, artistak zorioneko dirudi, gustukoa duen horretan aritzen delako. Baina bestetik, artistak inork baino hobeto daki, bizi duen errealitateak ia zerikusirik ez du diskurtso horiekin.

Arte garaikidearen esparruan gaur egun dauden lan-baldintza malgu eta prekarioek XIX. mendean eraikitako artista bohemioren figura dute jatorri, Teresa Marín Garcíaen arabera.¹⁶⁸ Artearen eremuko produkzioa beti oinarritu izan da produkzio-harremanetatik libre sentitu den jenio, erromantiko, bohemioren figuran,¹⁶⁹ eta askatasunaren ideia hori faltsua da, autore horren esanetan.¹⁷⁰ Marínek dioenez, artistak badu barne-espresiorako behar ekidinezin bat, eta edozein sakrifizio egiteko prest dago nolabait, desira hori gauzatu dadin. Hau da, baldintza materialen gaintik sorkuntza eta espresio librea jarriz, horri lehentasuna emanez, malgutasunean eta hautazko prekarietatean oinarritutako bizimodu baten aldeko apustua egiten du. Baina Marínen esanetan, lan-baldintza horiek prekarietatearen eta autoesplotazioaren oinarri dira, eta artistak pasioz eta maitasun osoz

166 Ibidem (15. or.).

167 BERARDINI, Andrew: "Cómo ser un artista no profesional". Iturria: <http://esferapublica.org/nfblog/artista-no-profesional/>

168 MARÍN GARCÍA, Teresa: "Frente a la precariedad laboral en las artes. Situación y tentativas colectivas (en el estado español)" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017 (71. or.).

169 NAVARRETE, Carmen: "Del artista como productor a la feminización del trabajo" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017 (112. or.).

170 MARÍN GARCÍA, Teresa: op. cit., 2017 (73. or.).

egiten duen lanari beste norbaitek ateratzen dio benetako etekina, eta ez artistak berak.¹⁷¹ Artista ez da aske; izan ere, bere jarduerarekiko pasioak eta beharrak bultzatuta onartzen dituen lan- eta bizi-baldintzen preso gertatzen da, eta arriskuak eta kostuak bere bizkar gainean hartzen dituen langile autoesplotatu eta prekarizatua bihurtzen, bai Rowanek eta Ruidok¹⁷² eta bai Navarretek¹⁷³ azaltzen duten bezala. Artearen autonomiak, arte puruak, artista bohemioren figurak, horiek guztiek artistari esperientziazko eta sorkuntzarako aukerak ireki eta espresio-moduak berritzeko bideak ekarri dizkiotela egia da. Baina aldi berean, artearen egitura produktibo desregularizatu baterako elikagai ere gertatu dira joera horiek. Artistak, nahiz eta hegemonikoa den horren aurka egiteko gogoz agertu, badaki egoera horren konplize ere badela. Aldazek honela azaltzen du:

*«[...] el arte es ahora un lugar central para la producción de capital —ya sea en forma de estilos de vida, de estetización de la mercancía y la política o de creación de redes internacionales de negocios y de especulación—; y en cuanto la precarización de la existencia que lo atraviesa es uno de los objetivos principales del proyecto neoliberal. Una vía para asegurarse deseo de sujeción y obediencia a sus dictados, para orientar el deseo productivo en la dirección de la neo-servidumbre».*¹⁷⁴

Artistaren inguruan eraiki den figura mitiko eta idealizatua artistaren interesen kontra doa. Artistak badu gizartean nolabaiteko aintzatespena, baina artista den heinean, eta ez langile den aldetik. Artistak lan-esparrurik ez eta eskubiderik eta babesik ez izateak hura esplotatu ahal izatea dakar. Egoera horrek ohiko bihurtzen du praktika artistikoa zerbait amateurra delako ustea, pentsatzea denbora-pasa moduan edo denbora librean ondo pasatzeko egiten den zerbait dela, eta ez lan bat. Eta arte-praktika lantzat hartzen ez den neurrian, harengatik ordaintzeko beharrik ez da ikusten.¹⁷⁵ Prekarietate-egoera horrek badu zertarako bat, ordea. Remedios Zafrak esaten duen bezala, kulturaren esparruak irauteko modua badu, hori, bokazioz eta pasioz diharduten ezin konta ahala produktore, afizionatu, zale eta kolaboratzailearen doako lanak sostengatzen duelako da.¹⁷⁶

Atzoko praktika artistikoaren mito eta idealizazioak gaurko praktika artistikoaren zorua dira. Lan eta bizimodu alternatiboen laborategi gisa funtzionatzen zuen eremu hark ekonomia neoliberalaren diskurtsoaren oinarriekin kointziditzen du. Ondoren datorren atalean argudiatuko dugun bezala, artista neoliberalismoarentzat langile eredugarri bihurtu da. Arrazoia argia da. Artista langile autonomoa da. Merkatuaren logika neoliberalak indibidualtasuna indartu eta kolektibotasunari balioa kendu dio. Nortasunaren indibidualizatzeko

171 Ibidem (73. or.).

172 ROWAN, Jaron; RUIDO, María: "In the Mood for Work. ¿Puede la representación alterar los procesos de valorización del trabajo cultural?" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producta 50. Una introducción a algunas de las relaciones que se dan entre la cultura y la economía*, YProductions, Bartzelona, 2007 (212. or.).

173 NAVARRETE, Carmen: "Mujeres artistas: precarias, pobres y silenciadas" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017 (135. or.).

174 ALDAZ, Maite: op. cit., 2017 (35. or.).

175 ALIAGA, Juan Vicente: op. cit., 2017 (94. or.).

176 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (25. or.).

prozesua ekintza kolektiborako oztopo izan da.¹⁷⁷ Artearen sektoreko prekarietatea eta despolitizazioa jarrera jakin baten ondorio garbia da: artearena eremu sozial, politiko eta ekonomikotik banandutako sektore bat dela aldeztzen duen jarrera horrena. Testuingurua kontuan hartzen ez duen jarrera horrek, norbanakoaren espresio eta askatasun indibidualaren purutasunari baizik begiratzen ez dionak, artearen ikuspegi elitista eta kontserbadore bati erantzuten dio, Carmen Navarreteren aburuz.¹⁷⁸ Egunerokotasunean, artista lanari gorputz eta arima emana bizi den eskubiderik gabeko langile porrokatu, malgu, prekarizatu eta autoesplotatua da. Mitoak mito, artearen esparruari uztartuta ageri ohi zaizkigun autonomiaren eta askatasunaren nozioak artistaren askatasun faltsu baten adibide besterik ez dira.¹⁷⁹ Izan ere, orain datorren atalean ikusiko dugun moduan, artista bohemia aldarrikatzen zituen autonomia eta askatasun haiek, hain justu, ideologia liberalaren ideologiarekin bat datoz zeharo. Produkzio-eredu kapitalistari komeni zaio, beste inori baino gehiago, artista jenio, erromantiko, motibatu, sortzaile, indibidualista eta bohemiaoren figura eta hari atxikita doazen lan- eta bizi-baldintzak bere horretan iraunarazi eta betikotzea.

Gogora ekarri nahiko genuke, lehen ere José Luis Brearekin esan dugun gisan, artista langile bat gehiago dela. Hamarkada batzuetatik hona, inoizko artista jenio hura lehenik artista profesional eta orain ekintzaile izatera pasatu da.¹⁸⁰ Jenioa berezko dohain bereziak zekartzala jaiotzen zen mundura, eta inspirazio bidez ezin ukituzko munduarekin harremanetan ipini eta sortzen zituen maisulanak; orain, beste edozein ogibidetan bezala, akademia, institutu eta fakultateetan formakuntza, prestakuntza eta trebakuntza jasotzearen fruitu da artista.

Ezagun denez, artista bohemiaok omen zeraman bizimoduaren aldean, artista profesionalarena ez da aditzera eman nahi den bezain eder, zerutiar, intentso eta zirrargarria. Artista profesionalak diziplina behar du, gogor lan egin eta lehiatu: deialdietara aurkeztu behar du behin eta berriz; dosierrak txukun prestatu, eta bere lana saltzen jakin; sariak, aipuak, gomendiozko gutunak, argitalpenak eta merituak metatu. Zafraren esanetan, asko dira artista izan nahiak izugarri erakartzen dituenak, baina bokazio, amets eta grinak bultzatuta arte-esparrura salto egiteko erabakia hartzen duenean norbaitek, prest egon behar du, tamalez, erosotasun materialei uko egin eta halakorik gabe bizitzeko.¹⁸¹ Artearen esparruan dauden lan-baldintzak onartu egin beharko baititu, zergatik eta, azken finean, jarduera hori maite duelako. Kontua da, ordea, arte-praktika jada ez dela lan egiteko beharrik ez duten aristokrata edo goi-klaseko batzuek egiten duten jarduera bat; eta hortaz, artistaren lanbidea beste edozein ogibideren pareko denez, eta artista ere langile denez, beste langileak bezala, orduan, artea ahalik eta baldintza duinenetan egiteak izan

177 ALIAGA, Juan Vicente; Navarrete, Carmen: "Prólogo" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017 (7. or.).

178 NAVARRETE, Carmen: op. cit., 2017 (112. or.).

179 MARÍN GARCÍA, Teresa: op. cit., 2017 (73.-74. or.).

180 DERESIWICZ, William: "La muerte del Artista, y el nacimiento del Emprendedor Creativo". Iturria: <http://esferapublica.org/nfblog/la-muerte-del-artista-nacimiento-del-emprendedor-creativo/>

181 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (17. or.).

beharko luke produktoreen lehentasuna, artistaren aldarrikapena. Askok oso barneratua duten zerbait da, ordea, arte-praktikaren purutasuna gorde behar dela, pasioz bizi duten jarduera hori dirutik babestu, kutsa ez dezan. Eta Miya Tokumitsuk dioen moduan, emozionalki asetzen gaituen lan bat ere lana da, eta hala dela onartzeak ez du inondik ere hura degradatzen,¹⁸² kontrakoak bai, ordea: lantzat hartua ez izateak esplotaziorik zitalenari ateak irekitzen dizkio.

«*No hay cultura sin derechos sociales*». ¹⁸³

Horrela idazten du Lazzaratok bere saiakeretako batean, artistaz eta teknikariz osatutako Aldizkakoen eta Prekarioen Koordinakunde Nazionalaren¹⁸⁴ aldarrikapena aipatuz. Hala zioten haiek, zuzen esan ere: kulturarik ez dela, baldin eta eskubide sozialik ez bada; ezin izan daitekeela askatasun, autonomia eta benetakotasunik (alegia, kulturarik), baldin eta solidaritate, berdintasun eta ziurtasunik ez bada. Arte-esparruko produktoreek jasaten dituzten lan-baldintzak emakumezkoek historikoki pairatu behar izan dituztenak bezalatsukoak dira orain, Navarretearen esanetan.¹⁸⁵ Remedios Zafraren arabera ere, artearen eta kulturaren esparruak produkzio-esparru feminizatuak dira.¹⁸⁶ Hona iritsita, ekidinezina gertatzen zaigu Virginia Woolfek idatzitakoa gogoratu eta gurera ekartzea. Hark esana baita, emakumezkoek sorkuntzarako zer-nolako oztopoak zituzten salatu nahian, modu aske eta autonomoan sorkuntzan jardungo bazuten funtsezkoa zela gutxieneko baldintzak ziurtatuta izatea. Eta ezinbestekoak ziren, haren esanetan, urtean bostehun libera eta gela bat kisketaduna izatea norberarentzat, nobelak eta poemak idazteko. Baldintza materialak nahitaezkoak ziren sorkuntzarako, eta hori bereziki azpimarratu zuen:

«*Gertakari ikaragarriak dira horiek guztiak, baina aurre egin beharko diegu. Argi dago —gure herriarentzat lotsaizun handia izanagatik—, ezen, gure gizarte-ongizateko sistemaren gabezia batzuen ondorioz, poeta pobreak ez duela gaur egun, aurreko berrehun urtean izan ez duen bezala, aukerarik txikiena ere. [...] Ingalaterrako haur pobre batek ozta-ozta duela Atenasko esklabo baten semeak baino aukera handiagorik burujabe izateko, hots, literatura onaren sorburu den askatasun intelektual hori bereganatzeko". Halaxe da. Askatasun intelektuala gauza materialen mende dago, eta poesia, berriz, askatasun intelektualaren mende».¹⁸⁷*

182 TOKUMITSU, Miya: "En el Nombre del Amor", 2014. Iturria: <https://www.diagonalperiodico.net/la-plaza/22753-nada-lubrica-mejor-la-explotacion-convencer-trabajadores-estan-haciendo-lo-aman.html>

183 LAZZARATO, Maurizio: "Las miserias de la 'crítica artista' y del empleo cultural"; in ZENBAIT AUTORE: *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional*, Traficantes de sueños, Madrid, 2008 (103. or.).

184 CORSANI, Antonella: op. cit., 2007 (46. or.).
Frantziar espektakuluaren sektoreko hainbat artista eta teknikaririk eraturiko talde hori salbuespena izan da lanaren munduan. Egoera berezia zuten, langile gehienek ez bezalakoa. Izan ere, soldatapeko langileak izanagatik ere, aldizka jarduten zuten, modu ez-jarraituan, eta horrenbestez, lanik gabeko sasoietan, sektoreak berak zuen desenplegu-aseguru baten bidez bermatzen zuten artista eta teknikari horiek errenta bat izatea. Askatasunaren eta ziurtasunaren tarteko toki bat eskaintzen zien kondizio berezitu hark. Frantziako gobernuak, ordea, eskubide haren kontra egin zuen, eta eraso hari erantzun bat eman nahian jaio zen Aldizkakoen eta Prekarioen Koordinakunde Nazionala izenaz ezagutzen duguna.

185 NAVARRETE, Carmen: op. cit., 2017 (116. or.).

186 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (24. or.).

187 WOOLF, Virginia: *Gela bat norberarena*, Consonni, Bilbo, 2013 (134. or.).

4.1.4. Artista, neoliberalismoaren langile-eredu

4.1.4.1. Sorkuntza-esparruaren argi-ilunak

Horren adibide dugu, besteak beste, Italian 60-70eko hamarkadetan lan-munduan bizi izandakoa. Langile gazteenek ez zuten gurasoek bezala fabrikako lanean aritzeko motibaziorik, eta beste lan eta bizimodu batzuk saiatzeko egarriz, saldoka alde egin zuten: lan-indarraren migrazio kontzientea izan zen, fabrikako lanetik kanporakoa.¹⁸⁸ Galdetuz gero zer jarduerak ematen duen modua aldi berean lan eta bizi-esperientzia aberasgarriak izateko, gogora datorkigun aurrenetakoa artistarena dela dio Von Ostenek,¹⁸⁹ eta lan-eredu postindustrialek, hain zuzen, erabili egin dute hori. Rowan ere antzera mintzo da, Angela McRobbieren iritzia azalduz: kreatibitatearekin lotura duten lanak (eta halakoak dira musika, zinema, arte, literatura, moda eta diseinu grafikokoak) bereziki erakargarriak gertatzen zaizkie gazteei, eta horregatik, autoenplegu- edo ekintzailtza-prozesuetarako osagai ezin hobeak izan dira.¹⁹⁰ Gaur egun, gazteek, fabrikari, supermerkatuan edo teleoperadore-lanean aritu baino nahiago dute sorkuntzarekin lotura daukaten eremuetan ibili, hala nola dantzan, musikan, antzerkigintzan edo artean. Apple, Google eta eBay bezalako enpresa kreatiboetan lan egitea ere gazteenen artean arrakasta duen zerbait da, ordainsari onak izateaz gain, lanak sorkuntzarako eta autorrealizaziorako aukera ematen duela dirudielako.

Tokumitsuk esaten duen bezala, *“Do what you love”* (DWYL) edo *“Egin maite duzun hori”* da garaiko mantra laborala.¹⁹¹ Konformagaitz izateari utzi eta amesten duzunaren alde borroka egitera animatzen da. Ekintzailtza sustatzen duten diskurtsoek argi eta garbi egiten digute dei bizitzan gehien gustatzen zaigun jarduera, gehien betetzen gaituen hori, ordaindutako enpresa-jarduera bihurtzera. Hala, lana ez da sekula berriro soldata baten truke egin beharreko jarduera derrigortu eta desatsegina izango, baizik eta autorrealizazio eta maitasunezko ekintza bat. Ekintzaileen artean ereduetan eredu den Steve Jobsek, Apple konpainiaren fundatzaileak, halaxe zioen:

*«Debes encontrar lo que amas. [...] Tu trabajo va a ocupar una parte grande de tu vida, y la única manera de estar verdaderamente satisfecho es hacer lo que creas que es un gran trabajo. Y la única manera de hacer un gran trabajo es amar lo que haces».*¹⁹²

Autoenpleguan, malgutasunean eta kreatibitatean oinarritzen diren lan-eredu post-industrialak artearen eta kulturaren esparruko lanen oso antzekoak dira alderdi askotan. Neoliberalismoak sustatzen duen ekintzaile berria, bestalde, talentu handikoa da, jenioa,

188 Ikusi “Prekariatatea, gobernantza-tresna” eta “Lanaren ukazioa” azpiatalak.

189 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (87. or.).

190 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (79. or.).

191 TOKUMITSU, Miya: op. cit., 2014.

192 Ibidem.

kreatiboa, indibidualista, konformagaitza eta ausarta, artista bezala. Arte-esparruko lana eta bizimodua, askatasunaren balizko eremu pribilegiatu hori, inspirazio-iturri on askoa gertatu zaio ekonomia neoliberalari. Floridak aitortzen duenez, ekonomia berriaren arrakasta balio bohemioek eta lan-munduak bat egitetik etorri da.¹⁹³

Lana maitatzeko, motibazioa funtsezkoa da. Norberak bere lana maitatuko badu, motibazio sendoa behar du, eta horregatik, gai horrek berebiziko garrantzia du lanaren aldeko diskurtsoetan. Lana jarduera derrigortu eta desatsegina denean, langileari motibazioa ez datorkio lanak berak jarduera gisa duen baliotik, lanaren “erabilera-baliotik”, alegia. Langilea jarduera horretan aritzera ez darama barrenetik sortzen zaion desira batek, “truke-balioak” baizik. Motibazioa, kasu horretan, ekonomikoa da. Beste batzuetan, aldiz, artistaren kasuan, esaterako, lanerako motibazioa langileari barrenetik jaiotzen zaio. Jarduerak berak asebetetzen du langilea. Lan gehienek kanpokoa dute motibazioa (hau da, motibazio ekonomikoa), eta ikusi dugunez, artearen esparruan kontrakoa gertatzen da: jarduera bera da motibazio nagusia, eta arrazoi ekonomikoa bigarren mailan gelditzen da. Floridak motibazioen arteko banaketa hau proposatzean (barne- eta kanpo-motibazioena), sorkuntza-lana barrenetik datorren motibazioaren fruitu dela zehazten du:

*«[...] lo que motiva a las personas verdaderamente creativas, desde artistas y escritores a científicos y creadores de programas informáticos de código abierto, es la motivación interna».*¹⁹⁴

Zafrak ere bereizketa bera egiten du.¹⁹⁵ Bada autore horrentzat ere gogo- edo motibazio-mota bat, barrenetik sortu eta askatasunaren seinale izan ohi dena, eta bada beste bat, kanpotik datorrena, ezarria. Barrenetik jaiotzen denari “entusiasmo intimoa” edo “entusiasmo kreatiboa” deitzen dio, eta merkatuaren kulturak elikatua den kanpo-motibazioari, “eragindako entusiasmoa”.

Lan-eredu fordistako lan mekaniko eta errepikakorretan, langilearen motibazioak produkzioan ez zuen eragin handirik. Denbora jakin batean pieza-kopuru jakin bat egin behar zuen, besterik ez. Ez zion axola langilea egun horretan triste edo kontentu jaiki zen. Langilea, bere subjektibitatea aldagelan utzita, fabrikako makina erraldoiaren apendizetako bat baino ez zen. Lan-eredu postfordistan, subjektibitatea elementu produktibo bihurtzean, motibazioak berebiziko garrantzia hartzen du. Lanaren aldeko diskurtso postindustrialek barne-motibazioa sustatzen dute, pertsona bakoitzaren onena ateratzeko asmoz. Bakoitzaren gaitasunei errentagarritasuna ateratzea lortu nahi da, eta horretarako, oztopo, akats edo ahultasun oro saihesteko bitartekoak ipintzen ditu. Langilearen kreatibitatea, efizientzia eta errendimendua areagotzea da helburua. Horren erakusgarri garbiak dira

193 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (200. or.).

194 Ibidem (76. or.).

195 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (31.-32. or.).

azken urteotan horrenbesteko arrakasta izaten ari diren *management* pertsonala, lidergo eta *coaching* enpresariala, *training* eta aholkularitza, eta subjektuaren errendimendua hobetzeko antolatzen diren ikastaro, mintegi eta tailer ugariak.

Barne-motibazioa sustatu nahi denean, espazioaren antolaerak ere berebiziko garrantzia du. Ildo horretatik, langilearen errendimendua hobetzeko, garrantzitsua da hura lanean gustura egotea, etxean egongo balitz bezala eroso sentitzea. Horregatik, lan-eredu berrien esparruan eraikitzen diren tokiek oso kontuan hartzen dituzte alderdi horiek. Itxura *cool*a duten espazioak, adibidez, lanaren eta bizitzaren artean lehen zeuden mugak ezabatu nahian diseinatutako espazioak dira. Kafe-makina, jolasteko guneak eta atsedenlekuak izaten dituzte halakoetan. Nork bere txokoa nahi duen bezala dekoratzeko eta lanera nahi duen moduan jantzita joateko aukera ematen dute. Lankideen artean harreman onak izan daitezen, tailer, dinamika eta irteerak ere antolatzen dira. Lantokiak etxea ematen du, eta lankideek, familia. Rowanek azaltzen duen moduan, enpresa-mota horietan erabakiak jada ez dira hartzen ohiko bulego tradizional grisaren erdigunean jarritako kaobazko mahai erraldoien inguruan, baizik eta futbolinean partida bat jokatu bitartean. Langileei hamaika jarduera eskaintzen zaie, haien erosotasuna areagotu eta bizitza espirituala aberasteko asmoz. Esate baterako, yoga edo meditazioa egin eta estresa kanporatzeko espazioak egokitzen dituzte, Rowanen esanetan.¹⁹⁶ Eta hori guztia gutxi balitz bezala, festarako tartea ere izaten da lantokian. *Before work*¹⁹⁷ deritzon fenomenoak modan dago New York, Los Angeles, Paris, Londres eta beste hamaika hiritan. Lanean hasi aurretik, errutinarekin hautsi eta langileak motibatze asmoz, festarako aukera ematen zaie. Hori bai, lantokia girotzeko DJak kontratatzen badituzte ere, alkoholduen edarien orde zuku osasungarriak izaten dituzte *healthy party* esaten dieten festa horietan. Eta hala, festaren ostean, indarrez gainezka eta gogotsu ekiten diote langileek lanari.

Fabrikan zebilen langileari motibazioa kanpotik zetorkion; soldata bila joaten zen lanera, eta ez lanak berak erakarri egiten zuelako. Kreatibitatearekin uztartuta ageri ohi diren lan-eredu berriek, aldiz, bestelakoa dute motibazioaren jatorria. Lanpostuetan izan diren aldaketak, itxura batean langileak mimatu eta eroso sentitzea lortu nahiari erantzuten dietela dirudien arren, bene-benetan, beste helburu batzuk lortzeko egin dira.

Rowanen aburuz, hain zuzen, langileari lantokian eroso sentiarazteak prozesu bikoitz bat jartzen du martxan, betiere, ez dezagun ahaztu, azken helburua enpresaren produktibitatea izanda: langileen kreatibitatea sustatzea, batetik, eta lanean plazera sentitzea, bestetik.¹⁹⁸ Langilea gustura egotea lanean, egiten duenarekin identifikatzea, errealizatu sentitzea, horiek guztiak langilea produktiboagoa izateko eta hari etekin handiagoa ateratzeko moduak dira. Helburu hori bete dadin, langilea motibatuta egotea edo inguru

196 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (72. or.).

197 GALAFATE, Cristina: "La tendencia 'before work' llega a España". Iturria: <http://www.elmundo.es/vida-sana/estilo-y-gastro/2016/02/29/56d40be2e2704e4d238b45ff.html>

198 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (72. or.).

atsegin batean aritzea ezinbestekoak dira. Ekonomia berria horretaz jabetuta dago, eta langilea lantokian eroso sentitzeko estrategiak garatu ditu. Ildo horretan ulertu behar dira produkzio-moduetan, denboretan eta espazioetan izan diren aldaketa itzelak. Doan jateko aukera emanez edo ariketa fisikoa egiteko modua eskainiz bulegoari etxe-itxura ematen badiote, langilea ahalik eta denbora gehien lanari lotuta egon dadin egiten dute, Hardtek eta Negrik diotenez.¹⁹⁹ Rowanek ondo ezagutu eta azaltzen ditu horrelako lan eta bizimoduen benetako ondorioak zein diren:

*«Estas nuevas oficinas camuflaban la explotación con canchas de basquet, fútbol y otros entretenimientos introducidos en el lugar de trabajo. El ocio y el trabajo se empiezan a diluir. Entonces no sabes si estas de fiesta o en una reunión informal. Estás tomando cañas con unos amigos pero también estás hablando de tu nuevo proyecto que vas a hacer pronto. O te vas al cine, pero estás pensando en la reseña para la revista que tienes que escribir. Desconecto pero siempre tengo el móvil por si me llaman... Toda una serie de cuestiones que en el trabajo asalariado estaban claras de repente se han fundido. Por un lado se ve como una conquista, decido mis horarios y tal... pero por el otro lado implica que te pasas 24 horas al día trabajando».*²⁰⁰

Egunean 24 orduz eta astean 7 egunez martxan dagoen ekonomia globalizatu honek ez du atsedenik hartzen. Azelerazioa, lehia, hiperaktibitatea eta errendimendua, horiek dira araua. Lan eta bizimolde horietara egokitzeko gai diren langileak behar dira, eta horretarako langilea motibatzea funtsezkoa da. Autorrealizazioa, malgutasuna, autonomia eta kreatibitatea oinarritzat hartzen dituen ekonomia berriaren helburuak aipatzean, langilea eroso eta errealizatu sentitzea lortu nahi dela esaten denean, ez da horrenbeste lana gizatiarrago bihurtu eta langilea zoriontsuago egiteko. Helburua beste bat da. Langileari lanean gustura sentiaraziz, lanean denbora gehiago pasatzea, errendimendua hobetzea eta produktiboagoa izatea lortzen da. Horixe da, eta ez besterik, lana eta lantokia langileari erakargarri eta eroso gertatzea nahi izatearen azken eta benetako arrazoia.

199 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2004 (177. or.).

200 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010/09/08.

4.1.4.2. Artista, periferiatik erdigunera

*«Los valores bohemios chocaron frontalmente con la ética protestante del trabajo y ambos hicieron algo más que sobrevivir a la colisión. Se transformaron en una nueva ética (el espíritu creativo) que se centraba en el cultivo de la creatividad. Todos, desde los programadores informáticos hasta los ingenieros de circuitos, podían trabajar como personas creativas, yendo y viniendo como les placiera, tomándose un tiempo para hacer ejercicio físico o trabajando al ritmo de música rock atronadora si era eso lo que deseaban. Los trabajadores de Apple llevaban camisetas con la leyenda: "90 horas a la semana. Me encanta". ¿Y por qué no iba a encantarles? El trabajo les divertía y, además, estaban cambiando el mundo».*²⁰¹

Richard Florida

Artista mitifikatu eta idealizatuaren lan eta bizimoduan neoliberalismoak kapitala metatzeko esparru ezin hobeak aurkitu ditu. Lan-eredu postindustrialek tradizionalki artearen esparruari egokitu izan zaizkion ezaugarriak bereganatu dituzte. Horixe ematen dute aditzera Jaron Rowan eta Maria Ruidok egindako ikerketek,²⁰² bai eta Marion von Osten eta beste hainbat autorek egindakoek ere. Fordismo garaiko lan industrialaren hegemoniaren aldean, artistaren lan eta bizimoldea salbuespen ziren. Orain, produkzio industrial hegemoniko hartatik kanpo zegoen praktika eta egoera hura, orduko artistarena, produktibitatearen iturri subertsibo, berritzaile eta motibatzaile izatera pasatu da gizarte post-industrialetan. Artistaren figura lan-politiken inguruko eztabaidetan erreferentziazkoa izaten da. Von Ostenek azaltzen duenaren arabera, artista neoliberalismoarentzat langile eredugarria bihurtu da.²⁰³ Eredutzat hartu dute teknologia berrien sektoreak eta hedabideenak, horiek nabarmenen, baina gainerakoetan ere eragin zuzena du, Von Ostenek dioenez. Beste horrenbeste esatera dator Carmen Navarrete ere. Azken horren esanetan, artistaren figura idealizatu eta mitifikatuak duen eragina produkzio-sektore guztietara hedatu da: iragarkiak, komunikazio eta teknologiak, diseinatzaile grafikoak, moda, zinema, etab.²⁰⁴ Baieztapen horren atzean ezkututzen diren arrazoiak azalduko ditugu hurrengo lerroetan.

Mendebaldeko herrialde kapitalistetan malgua, ezegonkorra eta prekarioa bihurtu da bizitza. Lan industrialaren ehuna desegin eta gero, bizitza guztiko lan egonkorraren ideia desagertu egin da. Lan derrigortu eta desatseginarekin sufrimenduan bizi den langilearen figuratik oso urrun, artista ageri zaigu, produkzioarako iturri ezin seduktoreagoa. Artistak, maite du bere lana, pasioz bizi du, eta artearekin guztiz konprometitu dagoen langilea da. Barne-motibazioak bultzatzen du, eta ez motibazio ekonomikoak, lanari gorputz eta arima emana bizitzera. Edozein toki eta edozein ordutan bere denbora guztia praktika

201 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (280. or.).

202 ROWAN, Jaron; RUIDO, María: op. cit., 2007 (214. or.).

203 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (86. or.).

204 NAVARRETE, Carmen: op. cit., 2017 (111. or.).

artistikoari eskaintzeko prest dago artista. Lanerako bizi da, eta lanak bizi du. Banaezinak ditu lana eta bizitza. Eta artista, gainera, autonomoa da, ekintzailea, bere buruaren jabe, indibidualista, lehiakorra eta konformagaitza.

Artistaren figura paradoxikoa da, hala ere. Artistaren lana askatasunarekin lotzen den arren, autoesplotatutako langile prekarioa da,²⁰⁵ eta alde horretatik, Juan Pablo Ordúñezek azaltzen duen bezala, egoera kontraesankorrean dago.²⁰⁶ Aske izateko, sorkuntza hautatzen du lan-esparru moduan; baina aldi berean, esparru prekarizatu baten menpeko bihurtzen da. Langile prekarizatu eta autoesplotatua izan arren, motibazio handiz, gogotsu eta ilusioz garatzen du bere praktika. Baina era berean, maite duen horretan lan egiteko gogo bizi horrek edozein lan-baldintza onartzera ere eramaten du. Hau da, edozertarako prest dago, baldin eta bere ametsa izan daitekeena aurrera ateratzeko aukera eskaintzen bazaio. Kontraesan-egoera horrexen berri ematen digu María Ptqk-k lerro hauetan:

*«Hacer de la subjetividad un recurso productivo —o dicho más poéticamente, convertirse en “artista de su propia vida”—, ese es el eslogan vencedor del discurso contemporáneo sobre el trabajo [...]. Porque cuando uno trabaja en lo que le gusta, como si fuera una prolongación de la propia vida, está dispuesto a hacerlo a cualquier precio».*²⁰⁷

Rowanek azaltzen duenez, norbera lanaren bitartez errealizatu eta zoriontsu izan daitekeelako diskurtsoa oso hedatuta dago orain.²⁰⁸ Lanak motibatu eta gozatzera eraman behar gaitu. Horrelakoa da lan desiragarria. Argudio horrek, Rowanek dioenez, sorkuntzarekin lotura daukaten lanak hobeak direla pentsatzera garamatza. Jendeak, hala, nahiago omen du gaizki ordaindutako lan kreatibo bat, ondo ordaindutako bestelako lan bat baino, nahiz eta hautu horrek prekariedade-egoeran egotea ekarri. Artearen eta kulturaren lan-eremuak prekarioak direla jakitun izan arren, norbera asebeteko duen jardueraren aldeko hautua egiteari ematen zaio lehentasuna. Eta hain zuzen ere, barne-motibazio horrek aldi berean indartsu eta kaltebera egiten du produktore artistikoa. Indartsu, edozein baldintzatan bere lana aurrera ateratzeko erakusten duen gogo, grina eta ilusioarengatik; baina kaltebera, bizitza malgu, ezegonkor eta prekarioa bihurtzen zaiolako. Arrazoi horregatik da artista neoliberalismoarentzat langile eredugarria; hain zuzen ere, edozein lan-baldintza onartzeko prest azaltzen delako, irribarretsu, betiere autorrealizazioa promestuz badator hura. Ptqk-ren ildo beretik, Isabell Loreyren ustez ere artistaren kalteberatasuna da neoliberalismoak hura langile eredugarritzat hartzearen arrazoia:

205 Ibidem (110. or.).

206 ORDÚÑEZ, Juan Pablo: "Del pedestal al suelo. Monumento a los débiles, a las fracasadas y a héroes de barrio" kapituluia; in ZENBAIT AUTORE: *Contra Escritos Sobre Crítica & Contracultura*, Popurrit, Bilbo, 2017 (77. or.).

207 PTQK, María: "Be creative under-class! Mitos, paradojas y estrategias de la economía del talento". Iturria: <http://www.mariaptqk.net/be-creative/>

208 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010/09/08.

«*Quienes trabajan de forma creativa, estos precarios y precarias que crean y producen cultura, son sujetos que pueden ser explotados fácilmente ya que soportan permanentemente tales condiciones de vida y trabajo porque creen en su propia libertad y autonomía, por sus fantasías de realizarse. En un contexto neoliberal son explotables hasta el extremo de que el Estado siempre los presenta como figuras modelo*». ²⁰⁹

“Egin maite duzun hori”, edo maite duzun horren aldeko apustua egitea, langilearen auto-rrerealizazioa eta zorientasuna lortzeko bidea izan beharko luke horrek. Baina artearen eta kulturaren esparruan gauza jakina denez, apustu horrek, gustuko lanaren aldeko hautua egiteak, prekarietatearen aldeko hautua egitea esan nahi du aldi berean. Barne-motibazioak edo motibazio intimo edo kreatiboak bultzatuta arrazoi ekonomikoak eta lan-baldintzak bigarren planoan gelditzen direnean, Tokumitsuk idazten duen bezala, norberaren lana maite duten langile horiek esploratzen oso errazak gertatzen zaizkie ahalik eta kostu txikienean langilearen jarduerari ahalik eta etekin handiena ateratzea beste helbururik ez dutenei:

«*[...] Nada lubrica mejor la explotación que convencer a los trabajadores de que están haciendo lo que aman*». ²¹⁰

Von Ostenek esaten duen bezala, lanaren munduko diskurtso baikorrek deskribatzen duten artistaren lan eta bizimoldea artista bohemioren figura mitifikatu eta idealizatuari dagokio. ²¹¹ Errealitatea ez da horren atsegina. Miya Tokumitsuk, alde horretatik, geure buruari galdera hauek egitea eskatzen digu: ea nori komeni zaion zenbait lanek lan-itxurarik ez izatea eta ea nork ateratzen duen etekina egoera horretatik. ²¹² Norberak gustukoa duen horretan aritzeko parada duenean, lantokiko giroa atsegina denean, ordutegia nahierara antolatzeke modua duenean, nahi bezala janzteko aukera ematen zaionean, jolastu, musika entzun eta atsedean hartzeko tarteak dituen orduan, fabrikari ez bezala, badirudi diziplinaren eta kontrolaren nozioak desagertu egiten direla. Langilea lanean gustura dagoenean, areagotu egiten dira lanarekiko identifikazioa, motibazioa, inplikazioa, eta horrekin guztiarekin batera, errendimendua. Apple enpresaren “*90 hours and loving it*” leloak modu ezin egokiagoan jasotzen du ideia hori. ²¹³ Normala baino ordu gehiagoan lan egin arren, langileak gustura jarraitzen du bere postuan. Horrenbeste atsegin du bere

209 LOREY, Isabell: “Gubernamentalidad y precarización de sí. Sobre la normalización de los productores y las productoras culturales” kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional*, Traficantes de sueños, Madril, 2008 (74. or.).

210 TOKUMITSU, Miya: op. cit., 2014.

211 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (88. or.).

212 TOKUMITSU, Miya: op. cit., 2014.

213 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (71. or.).

Ordenagailuekin lan egiten zuten lehenengo programatzaileen komunitateak lanarekiko erakusten zuen konpromisoa, gorputz eta arima aritze hura, benetan azpimarragarria zen. Entzutetsua izan zen, oso, Apple Macintosh enpresaren “*90 hours and loving it*” leloa. Steve Jobs eta haren lantaldea historia egiteko bidean ziren ordenagailuen munduan. Apple Macintosh izeneko lehenengo ordenagailu pertsonala diseinatzen zebiltzan. Jobsek, bere lidergoa zela medio, langileak baimendutako ordu-kopururik gora lan egitera motibatzea lortu zuen, eta haiek, gainera, zorientsu egiten zuten.

lana, ez baitio axola denbora librean lanean jarraitzea. Artearen esparruan gauza jakina da hori: lana sorkuntzarako eta autorrealizaziorako bide gisa aurkezten denean, nahiz eta hura baldintzarik prekarioenekoa izan, esplotaziotzat hartu beharrean onartu egiten da,²¹⁴ baita beren burua konformagaitz edo erradikaltzat daukaten produktoreek ere.

4.2. FABRIKA FABRIKATIK HARATAGO

«*El explotador no muestra la explotación de los explotados*».²¹⁵

Jean Luc Godard

Lana ez da soldatapekoa den jarduera bakarrik. Lantzat hartu ohi den nozioa baino gehiago da lana. Erreprodukzioko lana, etxeko eremuko lana edo zaintza-lanak izenez ezagutzen duguna, adibidez (historikoki emakumezkoek egin dutena, alegia), horren erakusgarri argiena da, zalantzarik gabe. Zeregin eta jarduera horiek ez ezik, alabaina, astialdi edo denbora libre deitzen zaion horretan egiten diren jarduerak ere lan bilakatu dira, jarraian ikusiko dugun bezala.

Postfordismoan, lana, fabrikako paretak gainditu eta gero, bizitzaren alderdi sozialera hedatu da. Eremu hori, alderdi sozialarena, fabrika erraldoia bihurtu zaigu. Bizitzako esparru oro lehiakortasunaren, produktibitatearen eta errentagarritasunaren logikak baldintzatzen du orain. Baina fabrika erraldoi horretan, badira lantzat hartzen ez diren hainbat jarduera, praktika eta egiteko modu: zaintza-lanak, nabarmen, baina baita *prosumer* nozioak biltzen dituenak eta doako lana edo *free labour* delakoa ere. Eta orain ikusiko dugun bezala, lantzat hartzen ez diren lan horiek nahitaezko eta ezinbesteko ditu gaur egungo ekonomiak bizirauteko.

Enpresen mundua, merkantzien produkzioetik ateratzen dituen etekinez ez ezik, inguruan egiten diren bestelako hamaika jardueraz ere baliatzen da, Rowan eta Ruidok diotenez, balioa produzitzerakoan.²¹⁶ Fenomeno horri “kanpokotasun positibo” edo “kanpo-efektu positibo” deritza, eta hauxe da: ekonomia-eragile batez ari garela, eragile horren zerbitzu edo produktuaren prezio edo balioan islatzen ez den beste eragile batzuen efektu positiboa.²¹⁷ Oro har, jarduera batek beste batzuei on edo kalteren bat eragiten dienean, baina beste horiek eragin onuragarri hori ordaintzen ez dutenean edota eragin kaltegarriagatik konpentsatuak ez direnean, orduan esaten da jarduera hori kanpokotasun bat dela: positiboa, eragina ona bada, eta negatiboa, kaltea eragiten badu. Produkzio-jardueraz ari garela, beraz, kanpokotasun bat da eragile baten produkzioak edo kontsumoak beste eragile batzuen produkzio edo kontsumoan eragiten duen efektu negatibo edo positibo

214 ROWAN, Jaron: op. cit., 2010 (42. or.).

215 GODARD, Jean Luc: *Godard on Tout va bien (1972)*: op.cit.

216 ROWAN, Jaron; RUIDO, María: op. cit., 2007 (219. or.).

217 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2004 (178. or.).

kobratu edo ordaindu gabea. Eta kobratu edo ordaindu gabea izanik, merkatuaren funtzio-namenduan kuantifikaziorik ez du; prezio-sistematik kanpo funtzionatzen du. Berrero ere kanpokotasun positiboetara etorrira, beste eremu batzuentzat onuragarri diren hainbat praktika edo jardun merkatuak produktibotzat ez kontabilizatzek argi eta garbi adierazten du zuzenean produkzioak ez beste bide edo modu batzuek ere aberastasuna sortzen dutela. Eta hain zuzen ere, Emmanuel Rodríguezek dioenez, informazioan eta ezagutzan oinarritzen den gure kapitalismo postindustrial hau kuantifikaezinak diren hamaika jarduerak ematen dioten etekinari esker sostengatzen da.²¹⁸ Haren esanetan, balizko jarduera horiek kanpokotasun positibo bezala funtzionatzen dute, eta beraz, gizarte-mailan harremanen nahiz afektuen aldetik eta alderdi intelektualetik egin bai baina ordaindua ez den lanari eta lankidetzari esker da posible. Hardtek eta Negrik ere azaltzen dutena aintzat hartuta, gaur egungo produkzio ekonomikoaren ezaugarri gero eta nabariagoa omen da ordaindu gabeko aberastasunaz jabetzea:

*«[...] las externalidades positivas se refieren a la riqueza social creada fuera de los procesos directos de producción, y cuyo valor [...] puede ser captado por el capital. El capital no ha de pagar por esas fuentes externas de riqueza [...]».*²¹⁹

Ekonomiaren eremuak kontabilizatzen duen zirkuitutik kanpo gertatzen diren jarduera ugari funtsezkoak dira hark iraun dezan. Horietako batzuk aisia edo denbora librearen esparruan aurkituko ditugu, geroago ikusiko dugun bezala. Baina kanpokotasun positiboaren nozioarekin zeharo bat datorren jarduerarik baldin bada ekonomia kapitalistan, hori, zalantzarik gabe, etxeko eremuko lana da. Produkzio-ereduan zaintza-lanak ez dira lantzat hartuak. Etxeko eremuan tradizionalki emakumezkoek egin duten erreprodukzioko lana kanpokotasun positiboen adibide argia da. Lan horiek gabe, ordea, produkzio-lana, ustez balio ekonomikoa sortzen duen bakarra den hori, ez litzateke posible izango. Erreprodukzioaren eremuko jarduerak onuragarri gertatzen zaizkio ekonomia edo produkzioaren eremuari. Kapitalak lortzen duen errentagarritasunaren sostengua, hein handi batean, ordaindu gabeko erreprodukzioko lana da, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala. Horregatik esaten eta aldarrikatzen dute feministek erreprodukzio-lanak ikusgaitasunik batere ez duen kanpokotasun positibo moduan funtzionatzen duela.²²⁰

4.2.1. Lana etxeko eremuan

«La acumulación capitalista es estructuralmente dependiente de la apropiación gratuita de aquellas inmensas áreas de trabajo que deben aparecer como externalidades al mercado, como el trabajo doméstico no remunerado que las mujeres

218 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (65. or.).

219 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2004 (179. or.).

220 PRECARIAS A LA DERIVA: *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*, Traficantes de sueños, Madril, 2004 (218. or.).

*han proporcionado y en el cual han confiado los capitalistas para la reproducción de la fuerza de trabajo».*²²¹

Silvia Federici

60ko eta 70eko hamarkadetako testuinguruan sortutako feminismoek egin zituzten azterketei eta analisiari esker, gaur egun badakigu etxeko eremuko lana esaten zaion hori (zaintza-lanak) ez dela prozesu natural baten fruitu. Arrazoi patriarkal eta kapitalistek ezarritako prozesu baten ondorio da. Federicik esaten duen bezala, etxeko eremuko lana kapitalismoaren asmakizuna da.²²²

Ikerketa honen hasieran azaldu dugun bezala, kapitalismoa ez zen lur komunalen desjabetetik edo hainbat lurralde kolonizatu eta esplotatzeari esker bakarrik sortu, Federiciren arabera. Sorgin-ehiza deitzen zaion prozesuaren bitartez, emakumeak buru ahuleko izaki basati gisa azaldu eta beren burua kontrolatzeko gai ez ziren esan txarreko pertsona menderakaitz moduan estigmatizatu eta gero, botere guztia kendu zieten, eta haien boterearen oinarrian zetzan ezagutza-sistema guztia eta harreman kolektiboko sareak suntsitu. Lurren desjabetzeak nekazari-jendea lan-indar premian zegoen eremu industrialera zuzentzeko balio izan zuen, eta emakumeak botere oroz gabetzeak, berriz, haiek etxeko eremura bideratzeko. Eta hala, Federicik dioenez, sexuaren araberako lan-banaketa sortu zen, eta horrekin batera, merkantzien produkzioa eta lan-indarraren erreprodukzioa bereiztea, eta emakumeak bigarren eremu horretara lotzea.²²³

Federicik azaltzen duen bezala, erregimen berri hartan, merkatuarekin lotura zuen produkzioa soilik hasi zen lan bezala balioetsia izaten; alegia, eremu publikoan, etxetik kanpo soldataren truke egiten zena, aintzatespen soziala zuena. Eta aldiz, emakumezkoiei egokitu zieten erreprodukzio-lana, logika ekonomizistatik kanpo gelditzen zen hura, etxeko eremu pribatuari zegokiona, lantzat hartua izateari utzi eta baliorik gabeko jarduera bihurtu zen.²²⁴

Marta Malok kontatzen duenaren arabera, lanari buruz hitz egiten denean, burura datorrigun lehenengo irudia fabrika da, tximiniak, muntaketa-katea, buzoa, industriako langile gizonezkoa. Lan-mota horren zentralitateak beste lan-mota batzuk estali edo ezkutatu ditu, autore honek azaltzen duen moduan.²²⁵ Batetik, emakumea etxeko lanez bakarrik arduratzen zela irudikatzen dago, baina hori ez da horrela. Emakume eta haur askok fabrikako muntaketa-katean lan egiten zutela ahaztu egiten zaigu, Maloren esanetan. Emakume asko zeuden garai hartan fabriketan lanean, nahiz eta, gizonekin alderatuta, eskubide gutxiago zituzten, lanordu gehiago egiten zituzten diru gutxiagoaren truke, eta

221 FEDERICI, Silvia: *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Traficantes de sueños, Madrid, 2013 (247. or.).

222 Ibidem (188. or.).

223 FEDERICI, Silvia: op. cit., 2004 (112. or.).

224 Ibidem (112. or.).

225 MALO, Marta: op. cit.

kaleratzen errazagoak ziren. Eta bestetik, produkzio-lanak inolako aintzatespen sozialik gabe utzi zuen erreprodukzio-lana, etxeko eremuko lana edo zaintza-lanak deritzogun hori; ikusgaitasunik batere gabeko jarduera bihurtu zen. Produktiboa ez zenez, ez omen zen lana; hala argudiatzen zen.

«¿Por qué decimos que una mujer tiene un “trabajo” cuando enseña en un jardín de infantes y que no lo tiene cuando cría a sus propios hijos? ¿Por qué a la primera se le paga por lo que hace y a la segunda no?». ²²⁶

Lantzat zer hartzen dugun zalantzan ipintzera zetorren Gorz, galdera horren bitartez. Lana, dio Gorzek, instituzio- nahiz gizarte-mailan aitortua den jarduera da; alegia, ofizio edo lanbide izendatu ohi dena. Norberaren etxeko lanetan aritzen den emakumeak ez ditu baldintza horiek betetzen, ez da profesionala gizartearen begietara, eta beraz, ez da lan egiten duen norbait. Baina lanaren nozio hori eraikuntza sozial bat baino ez da, Gorzek adierazten duen moduan. Zehatzago esanda, kapitalismo heteropatriarkalak eraiki duen nozio bat. Eta horrela baino ez da ulergarria, adibidez, nolatan haurrak haztea lantzat hartzen den batzuetan, eta beste batzuetan, ez.

Ekonomialari klasikoekin batera, eta haien aurka, kapitalaren produkzioa sakon ikertu eta teorizatu zuen autore garrantzitsuenen Marx izan zen, eta haren obra funtsezkoa izan da aldaketa sozialen aldeko eta langileen askapenerako mugimenduentzat. Baita feminismoentzat ere. Baina Marxek ere, ikerketaren hasieran aipatu dugun bezala, ez zion behar besteko arreta jarri erreprodukzioaren eremuak kapitalaren metaketan betetzen zuen paper funtsezkoari, Federicik leporatzen dionez. ²²⁷ Autore horren esanetan, izan ere, produkzioari buruzko edozein ikerketak nahitaez erreprodukzioaren esparrua ere ikertzera eramaten gaitu, kapitalismoan bi esparru bereiz diruditen horien artean lotura zuzena baitago, banaezinak dira. Biak dira produkzio-eredu beraren parte:

«[...] las actividades implicadas en la reproducción del trabajador asalariado forman parte de esa cadena de montaje: son parte de un proceso social que determina la plusvalía. Aunque no podemos precisar una relación directa entre lo que tiene lugar en una cocina y el valor que se genera, por ejemplo, con la venta de un coche o de cualquier otro producto, cuando contemplamos la naturaleza social de la producción de valor, se despliega una “fábrica social” más allá de la propia fábrica». ²²⁸

Federicik, baieztapen horretan, fabrika fabrikatik haratago doala esaten du. Lan industrialaren bidez (produkzioaren eremuan), merkatura bideratutako zerbitzu eta merkantzien produkzioa lortzen da; etxeko eremuko lanaren bidez (erreprodukzioaren eremuan),

226 GORZ, André: op. cit., 1998 (12.-13. or.).

227 FEDERICI, Silvia: *El patriarcado del salario. Críticas feministas al marxismo*, Traficantes de sueños, Madril, 2018 (13. or.).

228 FEDERICI, Silvia: “La construcción del patriarcado capitalista”. Iturria: <http://marxismocritico.com/2014/03/12/la-construccion-del-patriarcado-capitalista/>

norbanakoaren produkzioa eta erreprodukzioa. Eta Federiciren esanetan, nahiz eta sexuaren araberako lan-banaketa dela-eta bi eremuak apartekotzat hartu nahi izan diren, produkzioa eta erreprodukzioa, bi eremuak, prozesu bakar baten parte dira. Lan kapitalistaren bitartez sortzen den aberastasuna, gainbalioa, ez da pertsona edo jarduera bakar baten emaitza, ez da lortzen fabrika barruan langileak egiten duen lanari esker bakarrik, baizik eta, Federicik dioten moduan, produkzio sozialaren fruitu da. Beste hitz batzuekin esanda: merkatu-ekonomiak sortzen duen gainbalioa “muntaketa-kate” luze eta konplexu baten ondorio da, hainbat pertsona eta talderen ekarpenen fruitu. Produkzioa kolektiboa da, soziala. Katean lan eginez sortzen da ondasuna; eta produkzio-kate horretan, lanetan lehena emakumeek egiten dutena da:

*«El trabajo doméstico es mucho más que la limpieza de la casa. Es servir a los que ganan el salario, física, emocional y sexualmente, tenerlos listos para el trabajo día tras día. Es la crianza y cuidado de nuestros hijos –los futuros trabajadores– cuidándoles desde el día de su nacimiento y durante sus años escolares, asegurándonos de que ellos también actúen de la manera que se espera bajo el capitalismo. Esto significa que tras cada fábrica, tras cada escuela, oficina o mina se encuentra oculto el trabajo de millones de mujeres que han consumido su vida, su trabajo, produciendo la fuerza de trabajo que se emplea en esas fábricas, escuelas, oficinas o minas».*²²⁹

Erreprodukzioko lana, tradizionalki emakumezkoek egin eta inolako baliorik gabekotzat hartu izan den hori, paradoxikoki, lanik garrantzitsuena da. Lan hori ez da edozein lan. Erreprodukzio-lana, etxeko lanen edo zaintza-lanen eremu zabal hori, bizitzaren beraren sostenguaz arduratzen da. Ekonomialarien analisisetatik kanpo utzi ohi da, zaintza-lanek aberastasunik ez dutela sortzen esaten da, baina Federicik ohartarazten digunez, zaintzak sostengatzen eta bermatzen du produkzio-lana, ekonomiaren ikuspegitik gainbalioa sortzen ustez bakarra den lan-mota hori. Bazterrean utzi nahi izaten den beste lan-mota, aitortzen ez dena, ikusezin bihurtu dutena, emakumezkoek egin ohi dutena, zaintza, alegia; horixe da, Federicirentzat, ekonomiaren ikuspegitik balioa sortzen duen lan ororen ezinbestekoa zorua. Emakumeek egin ohi duten lan hori da ekonomia kapitalistaren sostengurako oinarria. Produkzio-eredu honek ez luke funtzionatuko egunero-egunero emakumeek egiten dituzten lanordu guztiengatik ez balitz. Erreprodukziok gabe ez dago produkziok. Emakumeek egin ohi duten lana erreprodukziokoa soilik ez eta produkzio-lana ere badela azpimarratu ohi da feminismoetatik. Lan horri esker sortu eta produzitzen da gero lan-merkatuara joango den lan-indarra, eta horregatik diote, lehen ere aipatu dugunez, produkzio-kateko lanetan lehena emakumeek egiten dutena dela.

Emakumeen lan horrek badu alde material bat, baina baita alde immaterial bat ere, eta ez nolana hiko. Ez baita soilik arropa garbitzea, jatekoa prestatzea, adinekoak zaintzea, haurrak hezte... Federiciri irakurri diogun bezala, fabrikara doan langilea maitatzeaz ere

arduratzen da, eta hura afektiboki zaindu eta sexualki asetzeaz. Zaintza-lanak ez dira bizitzaren erreprodukzioaz bakarrik arduratzen. Produzitu ere egiten dute, eta kapitalaren produkziarako ezinbestekoa den zerbait, gainera: lan-indarra. Emakumeak dira kapitalistak duen merkantzia-produktore baliotsuena: langile-produktoreak. Esan daiteke, hortaz, etxea langileak produzitzen dituen fabrika dela, eta emakumeak, fabrika horretako langileak. Edo are gehiago: etxea baino lehen, emakumeen gorputza bera bihurtu da fabrika kapitalismoarekin. Horixe dio Federicik gogoeta honetan:

*«[...] gizarte kapitalistan, emakumeentzat gorputza izan [da], hain zuzen ere, soldatapeko langile gizonentzat lantegia izan dena: beren lehenengo esplotazio- eta erresistentzia-eremua. Izan ere, Estatua eta gizonezkoak emakumeen gorputzaren jabe egin dira, erreprodukziarako eta lana metatzeko funtziora behartuta».*²³⁰

Ekonomialari klasikoek, baina baita Marx berak eta marxistek ere, ez zuten aintzat hartu ere egin metaketa kapitalistarako ezinbesteko esplotazio-esparrua izan zena (eta dena): etxeko eremua edo zaintzen esparrua. Feministak izan dira itzalpean edukitako jarduera horri begira fokua piztu eta hura argitara ekartzeaz arduratu direnak, zaintza-lanen pisua azaleratu dutenak eta, Pérez Orozcoren hitzetan esanda, “ezkutuko bestearen aurkikuntza”²³¹ egin dutenak. Erreprodukzioko lanaz ari dela, autore horrek dio merkatu-ekonomia deitzen zaion horretatik kanpo dauden bestelako eremu, lan eta subjektu ugariak horizatea ezinbestekoa dela kapitalaren metaketa-prozesuan. Ezinbestekoa dela, gainera, eremu, lan eta subjektu horiek, merkatu-ekonomiatik kanpo ez ezik, menpean hartuta edukitzea, azpiratuta egotea eta guztiz ikusezinak izatea. Pérez Orozco icebergaren metaforaz baliatzen da baieztapen hori argudiatzeko:

*«Esa invisibilización era el proceso simultáneo requerido para asentar en el epicentro a los mercados capitalistas y a su lógica de acumulación. La reproducción es el otro oculto de la producción. El sistema socioeconómico tiene la forma de un iceberg».*²³²

Icebergekin gertatzen den bezala, zatirik handiena urpean ezkutuan geratzen zaigu, eta ikusten dena bolumen guztiaren zatitxo bat baizik ez da. Kapitalaren metaketaren prozesua da agerian daukagun zati txikia, eta urpean ezkutatuta dauzkate bizitza sostengatzeaz arduratzen diren gainerako prozesu eta jarduerak. Horretarako arrazoia argia da, Pérez Orozcoren arabera: lantzat aitortuta ez eta ikusezin bihurtuta dagoen doako produkziolari esker soilik da posible kapitalismoak produkzio-prozesuetatik lortzen duen etekina. Aberastasuna sortzeko ezinbestekoa duen doako lan-kantitate zenbatezinen jabe egiten da kapitala. Lan hori guztia merkatuan erosi beharko balu, emaitzak oso bestelakoak izango lirateke, autore horrek dioenez.²³³

230 FEDERICI, Silvia: op. cit., 2017 (30. or.).

231 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (46. or.).

232 Ibidem (203. or.).

233 Ibidem (108. or.).

Gaur egun ekonomiaz ulertzen duguna oso ikuspegi itxi eta mugatuaren ondorio da. Pérez Orozcok esaten duen bezala, ekonomia ez da bakarrik normalean ekonomiatzat daukaguna; alegia, merkataritzaren eta finantzen eremua, kapital, merkantzia eta zerbitzuen salerosketan oinarritua. Gizakiaren beharrak ez dira soilik materialak, eta beraz, bizitza ezin berma dezake ekonomiatzat hartu ohi den horrek (produkzio-eremuak, alegia), baldin eta zaintzek, afektuek eta harremanek osatzen duten erreprodukzioaren eremurik ez bada. Benetako ekonomia, ekonomia erreal deitu ohi den hori baino gehiago da, autore honen esanetan. Ekonomia gure behar eta nahi material zein emozionalak asetzeko beharrezkoak diren eremu, lan eta subjektuen osotasuna da; edo bestela esanda, bizitza sostengatzeko beharrezkoa den guztia da ekonomia.²³⁴ Produktibitateaz eta balioa produzitzeaz hitz egitean, ezin da aintzat ez hartu horretarako beharrezkoak diren eta merkatu-ekonomiaren kontu eta zenbakietatik kanpo uzten diren lan eta jarduera guztien ekarpena. Horregatik, behar-beharrezkoa da bizitza posible egiten duen eremu eta jarduera oro identifikatu eta azalera ekarriz ikusgai bihurtzea, eta jakina, daukan balio soziala aitortzea.

4.2.2. Lana denbora librearen eremuan

«*La diversión es la prolongación del trabajo bajo el capitalismo tardío*».²³⁵

Theodor W. Adorno; Max Horkheimer

Gizon bizkorra zen Henri Ford (Ford auto-konpainiaren burua), eta ohartu zen, auto-fabrikan lanean zer-nolako jendetza zebilen kontuan hartuta, langileek auto bana erosiz gero, eskuartean zuen negozioa biribila izan zitekeela. Hala, langile arrunt batek erosi ahal izateko moduko autoa produzitzeari lotu zitzaion. Fordek, produkzio-kostua minimora jaitsiz eta langileei soldatak igoz, haiek lanean produzitzen zutena lanetik kanpo kontsumitzea lortu zuen.²³⁶

Industrializazioaren garapenarekin, hasiera batean kontsumorako aukera ukatua zuen jendetzari kontsumitzen hasteko parada ematen hasi zitzaion. Kontsumo-gizartearen etorrerarekin, jendearentzat denbora librea izan ohi zena kontsumorako denbora bilakatu zen. Edo Adornok dioen bezala, denbora librea negozio-denbora bihurtu zen.²³⁷ Adornoren arabera, denbora librea soldatapeko lanaren luzapena besterik ez zen. Asti-orduetarako proposatzen ziren ekintza, jarduera eta zerbitzu gehienak industriak planifikatu eta erren-tagarritasun ekonomikoa ateratzeko prestatuta zeuden. Jendea, bere denbora librea plazan kideekin berrikeretan ematetik, denda, taberna eta espektakuluetan erabiltzera pasatu zen. Langileak bere indar fisiko eta mentala lanean agortzen zituenez, bizitzaren miseria

234 Ibidem (34. or.).

235 ADORNO, Theodor W.; HORKHEIMER, Max: op. cit., 1998 (181. or.).

236 COMERON, Octavi: op. cit. (103. or.).

237 ADORNO, Theodor W.: *Crítica de la cultura y sociedad II*, Akal, Madril, 2009 (575. or.).

jasan ahal izateko, lanetik kanpo dibertsio eta entretenimendu bila jotzen zuela esaten du Adornok. Lanetik kanpoko orduak denbora libre izateari utzi zioten, produkzio-eredu kapitalistaren interesaren arabera antolatutako denbora bihurtu zirenetik. Denbora libreak, hala, libre izateari utzi zion.

Guy Debordek dio produkzio fordistaren hastapenetan langileari fabrika kolabora zezan eskatzen zitzaiola, biziraupenerako beharrezkoa zuen gutxienekoa jasotzearen truke, eta espektakuluaren gizartean, aldiz, bai lanean baina baita lanetik kanpo ere eskatzen zitzaiola langileari kolaborazioa. Alegia, langilea ezinbestekoa zen produkzio-prozesuan, baina baita kontsumoan ere. Lanean langilea menpean hartua zen, kontrolatua eta explotatua. Indarkeria zela medio kolaboratzen zuen hark. Lanetik kanpo, berriz, kontsumitzaile bihurtua, adeitasunez tratatua zen, eta tartean sedukzioa zela kolaboratzen zuen.²³⁸ Debordek azaltzen duenaren arabera, lehendabizi produkzioaren esparrua izan zen langilea bere denboraz desjabetu eta alienatu zuena, eta geroago kontsumoaren esparruak ere desjabetu eta alienatu zuen.²³⁹ Lanak eragiten zion neketik osatu eta langilea hurrengo egunean berriro ere indarberriturik onena emateko prest egon zedin, laneko denbora denbora librearekin tartekatzen zen. Langilea lanerako egoera onenean egon zedin, ezinbestekoa zen denbora libre atseden-denbora zela pentsaraztea. Baina hura ez zen benetan atsedena, eta beraz, ezta benetan denbora libre ere. Debordek dioen gisan, lan alienatzailearen ondoren denbora libre alienatzailea baitzeturren; lan-denboraren explotazioaren ondoren, denbora librearen esplotazioa. Pablo Rieznikek esaten duen bezala, kapitalismoan, denbora libre deitzen zaiona lan-denbora esklaboaren jarraipena baino ez da.²⁴⁰

Hurrengo lerroetan, itxura batean apartekoak diruditen bizitzako bi alderdi horien arteko harremanean sakonduko dugu: lanaren eta denbora librearen arteko loturan, alegia. Lehen aipatu dugun bezala, fordismoarekin balioaren produkzioa soldatapeko lanaren nozioari lotuta planteatu izan du ekonomiak, baina balioaren produkzioa diruaren truke egiten den jardueratik haratago doala irakatsi digute feminismoek. Eta ildo beretik, feminismoen ekarpena oso lagungarri gertatzen da orain ere, gai honetara ekarrita kapitalismoaren oraingo fase honetan soldatapeko lanetik kanpo nahiz etxeko zaintza-lanen eremutik kanpo astialdian gertatzen diren ekintzen eta jardueren inguruan hausnartzen jarraitzeko. Izan ere, Alvin Tofflerrek esaten duen bezala, itxuraz soldatapeko lanarekin loturarik ez duten jarduera ugari ari da ekonomiarentzat balioa produzitzen ustezko denbora libre horretan:

*«[...] hay mucha actividad sucediendo que no aparece en las cajas registradoras de los economistas, pero que es muy importante para la economía».*²⁴¹

238 DEBORD, Guy: *La sociedad del espectáculo*, Pre-Textos, Valentzia, 2010 (55.-56. or.).

239 Ibidem (55. or.).

240 RIEZNIK, Pablo: "La pereza y la celebración de lo humano". Iturria: <https://es.scribd.com/document/883471/La-pereza-y-la-celebracion-de-lo-humano>

241 TOFFLER, Alvin: *Sobre prosumo y prosumidores*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=4PXI618JTGy>

4.2.2.1. *Prosumer*

«Trabajo y consumo ya no representan dos actividades separadas como pasaba hace tiempo».²⁴²

Enzo Rullani

Jonathan Craryk esaten duen bezala, lana eta kontsumoa banatzen zituen muga desagertu egin da.²⁴³ Ohiko produkzio- eta kontsumo-moldeek gure artean jarraitzen duten arren, teknologia berriak etorri diren honetan, produktore eta kontsumitzaile nozioen arteko desberdintasun tradizionalak zentzua galdu du. Produkzioa ez da merkatu-ekonomiaren parametroen baitan bakarrik gertatzen orain, eta kontsumoa ere ezin da mugatu merkatuan erosi daitezkeen zerbitzu eta merkantziatarak bakarrik. Bi eremu horien arteko harremana aldatu egin da, eta beraz, beharrezkoa da horri modu zabalago batean begiratzea.

Produktoreak, produzitzeaz gain, kontsumitu ere egiten du, eta kontsumitzaileak, kontsumitzeaz gain, produzitu ere bai. Horrela, iraganean aski bananduta zeuden bi figurek, produktoreak eta kontsumitzaileak, bat egiten dute. *Prosumer*²⁴⁴ kontzeptuak horixe eman nahi du aditzera: behinola apartekoak izandako produktore eta kontsumitzaile figuren arteko mugak erabat urtu diren honetan sortu den figura berria. Aldi berean produktore eta kontsumitzaile izatera pasatu gara, beraz. *Prosumer* delakoak, euskaraz “protsumitzaile” esango diogun horrek, bere eduki propioak sortzen ditu, berak kontsumitzeko, edota inguruko kontsumorako, edo besteekin doan partekatzen. Neurri batean, merkatuak ezarritako menpekotasunetik aldentzeko modu bat ere bada. Badago jendea, esaterako, ordenagailuetarako dauden programak hobetzen edo berriak asmatzen dabilena. Ohiko samarra da, halaber, zerbaiten funtzionamendua esplikatzen tutorial bat sortu eta sarera igotzea; adibidez, bideo-ediziorako programa baten nondik norakoak azaltzen dituen. Eta ez da batere arraroa, esate baterako, argazkilari batek bere lana ezagutzera emateko web-orrialde bat sortzea. Protsumitzaileak, hasiera batean bederen, produzitutakoa doan partekatzen du besteekin. Eta aldi berean, besteek produzitu eta eskaintzen dutena kontsumitzen du, doan baita ere. Munduaren luze-zabalean milioika pertsonak, hala nahi dutelako, norberaren denbora eta ahalegina horretara jarrita egindako milaka eta milaka ekarpen egiten dituzte, dakiten edo egiten duten hori besteei erakustea eta besteek egiten dutena ikustea eta ikastea beste arrazoirik gabe.

242 RULLANI, Enzo: op. cit., 2007 (241. or.).

243 CRARY, Jonathan: 24/7. *El capitalismo al asalto del sueño*, Planeta, Bartzelona, 2015 (26. or.).

244 TOFFLER, Alvin: *La tercera ola*, Edinal, Bogota, 1981 (171. or.). *Prosumer* hitza akronimo bat da, ingelesezko *producer* (produktore) eta *consumer* (kontsumitzaile) elkartetik sortua. Marshall McLuhan eta Barrington Nevittek, *Take Today* izeneko liburuan, teknologia elektronikoen kontsumitzaileari bi rolak aldi berean betetzeko aukera emango ziotela aurreratu zuten; edukien produktore eta kontsumitzaile izatekoa, alegia. Alvin Tofflerrek kontzeptu hori erabiltzen du *La tercera ola* liburuan.

Internet da ziur asko fenomeno hori hobekien ikusten den esparrua. Zafrak esaten duen bezala, protsumitzailea ez da subjektu pasiboa, gauzak irakurri, entzun edo informazioa barneratu besterik egiten ez duen norbait, eta bai, aldiz, subjektu aktiboa, edukiak eraiki, manipulatu, bereganatu eta esangura berri bat ematen baitie.²⁴⁵ Tradizionalki protsumitzailearen jardunak etxeko eremuarekin, boluntariotzarekin eta *Do It Yourself* delako diskurtso edo jarrerarekin lotuta egon dira, autore horren esanetan; alegia, kontsumoaren esparruarekin lotutako jarduerak dira, ez-lanak, baina ondasun- eta zerbitzu-produktore. Zafraren ikerketak Interneten esparrua du ardatz, eta dioenez, Internet eta teknologia berriei dagokienez, gutxi batzuk errentagarritasun ekonomikoa ateratzen ari dira, erabilitzaile esaten zaienei esker. Erabiltzailea, hala, borondatezko produktore edo soldatarik gabeko langile bihurtu da, autore horren esanetan.²⁴⁶ Protsumitzailea, kontsumitzaile ez ezik produktore ere baden heinean, balio-produktore ere bada. Horren jakitun izanda, Zafrak esaten duen bezala, zenbait galdera egitea ekidinezina da:

*«Por ello, cabría preguntarse quienes y de qué manera están siendo hoy los prosumidores de productos, servicios y relaciones, quiénes neutralizan sus tiempos como donación gratuita al sistema y por tanto, se convierten en las nuevas “amas de casa” (sean o no mujeres) de la tecnología y el mundo globalizado, pagados/as seguramente con alguna suerte de contexto afectivo (antes al calor del hogar, acaso ahora al calor de las redes sociales). Pero ante todo cabe interrogarse por quiénes están siendo alienados y se benefician y lucran de esta situación».*²⁴⁷

Beste adibide bat jartzearen, bideo-jokoen mundua aipatuko dugu. Joko berri bat ateratzen duenean enpresa batek, halakoen zale eta aditu diren gazteei jokia probatzen uzten diete. Enpresak, gazteengan zer-nolako harrera duen ikusten du, eta horrela badaki zer atsegín duten eta zer ez. Lortzen duen informazioa benetan baliagarria da enpresarentzat, produktua nola hobetu daitekeen esaten baitiete jokalariek. Gazte horiek, nahiz eta biziki maite duten horretan pribilegiatu sentitzen diren bideo-joko berri bat probatzeko aukera eskaintzen zaielako, aldi berean, enpresarentzat lanean ari dira, baina doan. Kontsumitzaile-mota hori langile ere bada, aldi berean.

*«[...] la mercancía posindustrial es el resultado de un proceso de creación que implica tanto al productor como al consumidor».*²⁴⁸

Lazzaratok esaten duen bezala, kontsumitzaileak produkzio-prozesuan parte hartzen du. Orain ez da nahikoa, fordismo garaian bezala, produktu estandarizatuak sortu eta kontsumitzaileak noiz erosiko zain gelditzea. Ezta ere masarentzat seriean produzitutako

245 ZAFRA, Remedios: *Ojos y capital*, Consonni, Bilbo, 2015 (29. or.).

246 Ibidem (29. or.).

247 Ibidem (157.-158. or.).

248 LAZZARATO, Maurizio: “El ciclo de la producción inmaterial” kapituluak; in ZENBAIT AUTORE: *Brumaria 7. Arte, máquinas, trabajo inmaterial*, Brumaria, Madril, 2006 (56. or.).

objektuak ekoitzi eta kolorea hautatzeko aukera bakarrik uztea hari. Jendea ez da konformatzen seriean ekoiztako objektu estandarizatuekin. Nortasuna, izaera, diferentzia, dotoretasuna ematen duena lortu nahi da. Pasio, desira, afektu, ideia edo pentsamoldeekin lotura duten merkantzia pertsonalizuagoak nahi ditu jendeak. Kontsumitzaileari entzutea eta haren behar eta nahiak kontuan hartzea ezinbestekoa da horretarako. Joerak zein diren ikertzen da, eta horren arabera heltzen zaio produkzioari. Horrexegatik azpimarratzen du Lazzaratok ekonomia postindustrialaren informazioaren eta komunikazioaren tratamenduan oinarritzen dela.

Produkzioaren eta kontsumoaren arteko mugarik eza kasu batzuetan argi ikusten den arren, beste zenbaitetan dirudien baino zailagoa da identifikatzen. Orain azalduko dugun kasua horren adibidea da.

Hito Steyerlek zalantzan jartzen du produkzioaren eta kontsumoaren arteko bereizketa, eta fabrikaren eta museoaren arteko parekotasun interesgarri bat planteatzen du. Hasiera batean, gehienok esango genuke fabrika produkzioarako leku bat dela, eta museoa, berriz, kontsumorako leku bat. Lehena lanarekin lotzen da, beraz, eta bigarrena, denbora librearekin. Baina fabrika produkzio-espazio bat dela inork ere zalantzan jarriko ez lukeen arren, museoarekin ez da berdin gertatzen. Eta ikuspegi horren inguruan egiten du gogoeta Steyerlek, jarraian azalduko dugun moduan.

Autore horren esanetan, ez da kasualitatea garai batean aktibo egon ziren fabrika asko gaur egun museo, espazio kultural edo kultura-zentro moduan zabalik izatea. Horrelako espazioak, bertako langileentzat izan ezik, denbora librean edo astialdian kontsumo kulturala deitzen zaiona eginez bisitatzen diren espazio-mota bat dira jende gehienarentzat. Baina Steyerlek dioten bezala, museoek nahiz kultura-espazioek ez diote produkzio-eremu izateari utzi. Erakustokiak dira, bai, baina baita lantokiak ere, fabrikak.²⁴⁹ Steyerlek azaltzen duenaren arabera, museoa balioa produzitzeko espazio bat da, eta balio horren produkzioan mota askotako langileak aritzen dira: espazioa kudeatzeaz arduratzen direnak, garbitzaileak, mantentze-lanetarako langileak, bertan esku hartzen duten produktore kultural eta artistak, areto-zaintzaileak, inaugurazioan zerbitzari-lanak egiten dituztenak, bisita gidatuen arduradunak... Hori guztia begien bistakoa da beharbada, baina Steyerl pauso bat haratago doa, ikuslea ere langileentzat hartzen baitu. Harrigarria gerta daiteke ikusleak langileen multzo berean ipintzeak, eta bere burua ez du halakotzat turista kulturalak, denbora libreaz gozatzen dabilenak, ikusleak berak, alegia, baina Steyerlen aburuz, museo fabrikan ikusleek lan egiten dute:

«La fábrica excede sus límites tradicionales y se desborda hacia casi todo lo demás. Penetra en los dormitorios y en los sueños por igual, así como se infiltra en la percepción, el afecto y la atención. Transforma en cultura, cuando no en arte, todo lo

*que toca. [...] Un espacio artístico es una fábrica. [...] En esta economía incluso los espectadores y espectadoras son transformados en obreros. Entonces, "mirar es trabajar"».*²⁵⁰

Steyerlen argudioaren arabera, film baten aurrean dagoen ikuslea, kontsumitzaile izateaz gain, produktore ere bada. Steyerlek dioenez, ikusleak lanean ipintzen ditu zentzumenak. Begien aurrean duen horri forma bat, zentzu bat, esanahi bat eman nahi dio, eta horretarako lan egiten du. Eta aldi berean, bizi izandakoak, entzundakoak, ikusitakoak ikuslea zeharkatzen du, eragin egiten du harengan, eta beraz, ikusleak ere produzitu egiten du. Ikuslearen lanak eraikitzen du pentsamendua, irizpidea, gustua, nortasuna eta nia. Steyerlen iritziz, ikustea lana da, eta subjektua ikusle bihurtzen denean, langile bihurtzen da. Horrenbestez, ikusteko gonbita egiten duen espazioa fabrika bilakatzen da. Interesgarria da ohartzea garai batean fabrika izandakoak, orain beste izen batekin agertu arren, nola fabrika izaten jarraitzen duen. Steyerlek ederki azaltzen duen bezala, fabrika bat museo bihurtzen dutenean, ez dago produkzio-espazio bat kontsumo-espazio bihurtzen deneko aldaketarik. Fabrikak fabrika izaten jarraitzen du. Alde horretatik, guztiz proposamen esanguratsutzat jotzen du Harun Farocki zinemagilearen *Arbeiter verlassen di Fabrik (Workers leaving the factory)*²⁵¹ lana. Ez soilik lanaren irudikapenez egiten duen irakurketa interesgarria delako, baizik eta, batez ere, ezin egokiago jasotzen duelako fabrikako produkzioak gainezka egin eta bertako paretak gainditu ostean nola espazio artistikoa ere bereganatu duen. Steyerlek dioen bezala, Farockiren fabrikatik ateratzen diren gizon-emakume langileek beste fabrika batean amaitzen dute: museoan.²⁵²

4.2.2.2. *Free labour*

Ikusi dugun moduan, kontsumoaren eta lanaren arteko muga desegin egin da, urtu. Aisia eta lana bereiztea dirudien baino zailagoa da. Postfordismoan, lan gisa identifikatua ez izan arren balioa produzitzen ari diren jarduera ugari dago. Hain zuzen ere, kapitalaren metaketa, orain, zer joera izan daitezkeen berritzaile zelatatu eta halakoak ehizatu eta merkantzia bihurtzetik dator.²⁵³ Prozesu horietan produzitzen den balioa ez da iristen horretan zuzenean dabiltzaneren eskuetara; hirugarren batzuek ateratzen dute etekina. Horren adibide dira, esaterako, munduko hamaika kulturatako gazteen joerak zelatatzen eta aztertzen dituzten enpresak. Moda, musika eta pinturaren eremuko praktikekin behin eta berriz gertatzen da. Modu autonomoan merkatutik at sortutako azpikultura edo kontrakulturaren parte diren adierazpideak behin eta berriz bereganatzen eta irensten ditu industriak, inolako arazorik gabe, joera horien produktore izan diren komunitateak

250 Ibidem (67. or.).

251 FAROCKI, Harun: *Arbeiter verlassen di Fabrik (Workers leaving the factory)*. Iturria: <https://vimeo.com/59338090>

252 STEYERL, Hito: op. cit., 2014 (69. or.).

253 HEATH, Joseph; POTTER, Andrew: *Rebelarse vende. El negocio de la contracultura*, Taurus, Madril, 2005 (250. or.).

etekin-banaketatik kanpo utzita. Kontrakulturak hegemonikoa den horrekiko alternatiba bat sortu edo bereizteko saiakera bat egin orduko, merkatuak irensten du.²⁵⁴

Horrelako jardunbideen adibide argienetakoa ekonomia digitalaren esparruan gertatzen da, Interneten fenomenoarekin. Tiziana Terranovak oso artikulu interesgarrian azaltzen duen bezala, Interneten produzitzen diren edukien atzean ordaindu gabeko lan mordoa dago, *free labour*²⁵⁵ delakoa edo doako lana dela medio sortzen dira asko. Sarean doan lan egiten duten langileen kopurua zenbatezina da, haren arabera. Artikuluan esaten duenez, kontsumoa, azken batean, plazerak bultzatuta gertatzen den ekoizpen-era bat izatera pasatu da. Eta bokazioa, aisia edo denbora librea produktibo bihurtzea sekulako pagotxa da, inbertsiorik behar ez duten produkzio bihurtzen dira eta. Beste hitz batzuekin esanda, negozio batekin loturarik ez duten erabiltzaile edo kontsumitzaileek beren jardueraren bitartez eremu ekonomikorako gainbalioa sortzen dutenean, orduan, haien jarduera doako lana da. Desirak, plazerak edo gustuak hartaratuta modu askean eta norberak hala nahi izanda egiten diren jarduera, praktika edo ekintzen fruitu da doako lana, eta horixe da gakoa, autore horren arabera. Dena delakoa eginez gozatzen, jolasean, ondo pasatzen ari denak beste batentzat gainbalioa sortzen ari delako kontzientziarik ez duenean gertatzen da doako lana. Erabiltzaileak horretaz jabetu ez arren, produktu horiek eskaintzen dituzten enpresentzat lanean ari dira, enpresa horiek erabiltzaileen jarduera kapitalizatzen eta hari etekina ateratzen ari baitira. Doako lanaren sekretua, Terranovak esaten duen bezala, egiten dena lantzat hartua ez izatean datza.

Facebook enpresa adibide bikaina da autore horrek dakarkigun ideia argitzeko. Sare sozia- leko zerbitzuak eskaintzen ditu Facebookek, eta orain bertan munduko enpresarik garrantzitsu eta errentagarrienetako bat da. Ikusgaitasuna eta lehia nagusi diren honetan, izan ere, norberaren irudia ekoizteko ezinbesteko tresna bihurtu da sare sozial hori. Enpresa, marka, alderdi politiko, hedabide eta halakoek ere erabiltzen dute, baina pertsonen arteko harremanerako erabiltzen da nagusiki. Facebooken espiritua bizitza pertsonalaren eremura zuzenduta dago. Erabiltzaileei beste erabiltzaile batzuekin harremanetan ipintzeko aukera eskaintzen die, eta beren artean era askotako edukiak partekatzekoa ere bai.

Sare sozial horren kasuan, produkzioa eta kontsumoa zeharo uztartuta ageri dira, erabat banaezin. Erabiltzaileak produktore eta kontsumitzaile dira aldi berean. Eta Facebook enpresari, erabiltzaileek produzitutako testu, irudi, bideo edo bestelako edukiak besteekin partekatzetik datorkio errentagarritasun ekonomikoa. Ikusgaitasunaren eta lehiaren garai honetan, subjektu garaikideak norberaren irudia ekoitzi beharra dauka, eta Facebook horretarako ezinbesteko tresna denez, hura erabiliz enpresa erraldoiarentzat lan egin beharra. Doako zerbitzua delakoan, erabiltzaileak, berak hala erabakita baina jakitun izan

254 Ibidem (149. or.).

255 TERRANOVA, Tiziana: "Producing culture for a digital economy" kapitulua, *The new media and cibercultures antology*, Pramod K. Nayar, Erresuma Batua, 2010 (335. or.).

gabe, informazio, datu eta edukiak ematen dizkio enpresari, eta botere- eta informazio-transferentzia gertatzen da, Ingrid Guardiolak ohartarazten digunez.²⁵⁶

«*Ahora se explota lo social, la comunicación, incluso el comportamiento mismo*».²⁵⁷

Byung-Chul Hanen esanetan, orain, pertsonok gure datu, gustu, izaera, emozio, sentimendu eta pentsamenduak kanporatu, adierazi, jakitera eman ditzagun animatzen gaituzte. Askatasun-sentsazioak subjektuen borondatezko kolaborazioa dakar, eta hala, inolako mehatxurik gabe, norberak hala erabakita, biluzi egiten da sarean subjektua. Espresioa eta komunikazioa etengabekoak dira, eta hain zuzen ere, eremu sozial hori da inolako errukirik gabe zelatatzen eta esplotatzen dena, autore horren iritziz. Orain arte, kontsumitzailea kontsumitzera mugatzen zen. Horretan kapitalak eragin duen aldaketa itzelean datza, hain zuzen, fenomeno honen nobedadea: kapitalak kontsumitzailea modu masiboan aktibatzeke eta lanean ipintzeko izan duen gaitasunean. Izan ere, kontsumitzaileak kontsumitzaile huts izateari utzi eta produktore ere bihurtzea lortu du. David Harveyk esaten duen moduan:

«*[...] el capital moviliza a los consumidores para que produzcan sus propios espectáculos a través de YouTube, Facebook, Twitter y otras redes sociales*».²⁵⁸

Sarean eskaintzen diren “doako” zerbitzu eta aplikazioak erabiltzaileen mesedetan eskaintzen direla eman dezakeen arren, etekina ateratzea da azken helburua, eta etekina, jakina, zerbitzu eta aplikazio horien jabeentzat da. Enpresa horiek erabiltzaileen autoespresio- eta komunikazio-beharraz elikatzen dira.²⁵⁹ Interneten hitz baten bilaketa egin, Facebooken irudi bat jarri edo YouTubeen “Atsegin dut” sakatzen den bakoitzeko, algoritmoak direla tarteko, enpresentzako balioa produzitzen da. Emmanuel Rodríguezek esaten duen bezala, ezagutza, informazioa, afektuak eta harremanak produktibo bihurtu dituen oraingo kapitalismo hau ordaindu gabeko lanari esker sostengatzen da.²⁶⁰

Doako lanik inon izan bada, dena den, Interneten edo edozein azpikulturatan baino askoz areago, hori etxeko eremuan izan dela eta hala izaten jarraitzen duela gogoratu nahiko genuke berriz ere, ez baita ahaztekoa zer eta bizitza bera sostengatzeko ezinbestekoak diren lan ordaindu gabeei esker lortzen duela etekinik handiena kapitalak. Eta doako lanaren beste adibide argi bat, zaintza-lanen eremuak duen garrantziarekin inola ere ezin pareka badaiteke ere, artearen esparrua da. Produkzio-esparru horrek baditu Terranovak deskribatzen dituen ezaugarrietako asko. Carmen Navarretek esaten duenaren arabera, berriz, bada antzekotasunik etxeko zaintza-lanen eremuaren eta artearen esparruaren

256 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10. Saber, hacer, comprender*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/ingrid-guardiola-aula-oberta-10/226360>

257 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (2) (73. or.).

258 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (232. or.).

259 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

260 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (65. or.).

artean. Bestalde, artearen praktikan pairatzen diren lan-baldintza prekarioek antz handia dute, Navarretek dioenez, emakumezkoek lan-esparruan sartzean jasan behar izaten dituzten lan-baldintzenak.²⁶¹ Badira antzekotasunak, halaber, bai esparru batean eta bai bestean lanaren eta bizitzaren arteko mugak urtu egiten direlako, eta bai batean eta bai bestean produzitzen den balioak fabrikako balio-produkzioaren logika gainditzen duelako. Kanpokotasun positiboa gertatzen da bai zaintza-lanetan eta bai arte-lanean. Bata zein bestea hirugarren sektore batzuek irauteko beharrezkoak dira. Zaintza-lanekin gertatzen den bezala, praktika artistikoak ere badu lotura bokazioaren eta maitasunaren nozioekin, eta horregatik, lanak berak asebate egiten duela eta, askotan ez da ikusten ordain ekonomikoaren beharrik. Laburbilduz, beraz, artearen esparrua, etxeko eremua eta sarea bezala, doako lan askoren eremu da.

4.2.3. Fabrika soziala

*«Si no se ve la fábrica no es porque haya desaparecido, sino porque se ha socializado, se ha desbordado al conjunto de la ciudad. En este sentido ha devenido inmaterial: pero de una inmaterialidad que sigue produciendo —¡y cómo!— relaciones sociales, valores, beneficios».*²⁶²

Marcelo Expósito artistak, ikus-entzunezko proposamen batean, Turingo hirian zegoen Fiat autoen lantegi historikoa funtzio askotarako zentro erraldoi bihurtu denekoa azaltzen du. Azken finean, produkzio-eredu fordista oinarri izan zuen hiri bat produkzio-eredu post-fordistan oinarritutako hiri izatera nola pasatu den ulertzeko gako batzuk ematen ditu. Garbi ikus daiteke produkzio-ereduen aldaketak esplotazio-modu berriak sortzea ekarri duela, eta industriako proletariotza desagertzeak, prekariotza dei dakioken gizarte-klasea sortzea eragin. Richard Floridak gogoeta hau egiten du lanaren paisaia berriari buruz:

*«¿Están trabajando las personas que vemos en las cafeterías, con sus portátiles, o más bien descansando? Bueno, ambas cosas. Trabajan, pero si entra alguien interesante, pasan rápidamente al modo descanso, lo que, en cierta manera, se parece mucho a lo que hacían los antiguos artesanos de las tiendas de la calle mayor de los pueblos: siempre ocupados, pero siempre dispuestos a charlar con los amigos que les iban a ver y, quizás, a ofrecerles una taza de té. Efectivamente, para muchos, este entretendido de aspectos sociales y laborales es algo natural, una especie de retorno a los días de las industrias artesanales, cuando ambos aspectos de la vida estaban integrados en uno solo. Parece una reacción saludable ante el sistema de la era de las organizaciones que dividió la vida y el trabajo en compartimentos estancos y que exigía que fuéramos una persona en uno y otra distinta en el otro».*²⁶³

261 NAVARRETE, Carmen: op. cit., 2017 (116. or.).

262 EXPÓSITO, Marcelo: *Primero de mayo (la ciudad fábrica)*, 2004. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=nxMr8x9usv8>

263 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (218. or.).

Kapitalismoaren aurretik, lana eta bizitza bat ziren. Espazio eta denbora berean uztartzen zen dena. Norberak non egiten zuen lan, hantxe bizi zen. Han jaten zuen, han lan egin, hantxe lo eta haurrak hazi, hantxe bikoteko harremana josi... Lana, loa, aisia, afektuak, maitasuna, dena gertatzen zen espazio eta denbora berean. Kapitalismoa eta lan industrialaren etorrerak bizitza banatzea ezarri zuen, produkzioaren eta erreprodukzioaren artean zatitzea. Bakoitzari bere espazioa eta bere denbora zegozkion. Fabrikako langilea, etxetik lantokira joan, ordutegi baten barruan lan egin, eta amaitu ostean berriz ere etxera itzultzen zen. Bizitzaren eta lanaren arteko zatiketa nabarmena zen. Oso ondo zekien hark noiz zegoen lanean eta noiz lanetik kanpo. Oso ondo zekien noiz zegoen makina, zarata eta hots desatsegin haien artean eta noiz denbora libreaz, atsedenez, familiarekin edo lagunekin gozatzeko, nahiz eta eremu hura ere idilikoa ez izan. Orain berriro, fordismotik postfordismorako aldaketan, zatiketa hori lausotu egin da. "Zortzi orduz lan, zortzi orduz aisia eta zortzi orduz lo" hura, langileria industrialaren aldarrikapen eta lorpen garrantzitsua izan zena, desagertu egin da.²⁶⁴

Lan-eredu postindustrialetan, ez dago fabrikako lanean bezala fisikoki eta ordu jakin baterako lantegira joan beharrik lan egiteko. Informatizazioa, digitalizazioa eta aurrerapen teknologikoak lan-prozesuetan aplikatzean, edozein toki eta edozein ordutan lan egiteko aukerari bidea ireki diote. Gero eta jende gehiagok lan egiten du etxetik, adibidez. Ohikoa bihurtu da, halaber, edozein kafetegi, autobus-geltoki, parke edo hondartzatan, astegun, asteburu edo oporretan, bakarrik, bikotekidearekin edo lagunartean, ordenagailu eraman-garria, tableta edo mugikorra eskuetan hartuta, munduan auskalo non dagoen bezero batentzat jendea lanean ikustea. Produkzio-lanaren eta erreprodukzio-lanaren arteko marrak ezabatu egin dira, eta beraz, lanaren muga fisikoak zein denborazkoak desegin, urtu, Hardtek eta Negrik esaten duten bezala:

*«A medida que el trabajo se extiende fuera de las paredes de las fábricas, se hace cada vez más difícil mantener la ficción de cualquier medida de la jornada laboral y, por lo tanto, de separar al tiempo de producción del tiempo de reproducción o el tiempo de trabajo del tiempo libre».*²⁶⁵

Rodríguezek azaltzen duenez, balioaren teoria tradizionala jada ez da nahikoa produkzio postindustrial eta haren emaitzak analizatzeko.²⁶⁶ Ekonomia klasikoaren logikan, balioaren produkzioa objektiboa zen, neurgarria. Merkantzia produzitzeko zenbat denbora behar izan zen, horren arabera kalkulatu zen haren balioa. Orain, ordea, produkzio immaterial eta sinbolikoa bihurtu denean balio-produktore nagusi, informazioa, ezagutza, komunikazioa eta harremanak produktibo bihurtu direnean, eta gainera, ekonomiatzat definitzen den esparrutik kanpo gertatzen denean balioaren produkzioa, orduan, balio

264 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2011 (155. or.).

265 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Imperio*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2005 (422. or.).

266 RODRÍGUEZ, Emmanuel: "La Riqueza y la Ciudad" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Producta 50. Una introducción a algunas de las relaciones que se dan entre la cultura y la economía*, YProductions, Bartzelona, 2007 (191. or.).

hori kalkulazina da. Balioa, orain, subjektiboak diren beste ezaugarri batzuek baldintzatzen dute: kulturak, iritziak, irizpideak, gustuak, emozioek, desirak, afektuek, sedukzioak eta gizarte-harremenek, besteak beste. Bifok esaten duen bezala, produkzioa ez da ekonomiaren eremuan bakarrik gertatzen. Arrazoi horregatik, produkzio postindustriala zertan datzan eta nola gertatzen den ulertu nahi bada, beste ikuspuntu batetik begiratzea ezinbestekoa bihurtzen da:

*«No hay que considerar la producción como un proceso puramente económico, gobernado únicamente por las leyes de dar y tener; en ese proceso también entran factores extraeconómicos [...]. Y esto se hace tanto más claro cuanto más se involucran las energías emotivas, lingüísticas y proyectuales en el proceso de producción de valor».*²⁶⁷

Merkantziaren balioa jada ez du zehazten hura produzitzeko behar izan den denbora-kantitateak, baizik eta merkantziak dituen ezaugarri kualitatiboek, alegia, ezaugarri immaterial edo sinbolikoek. Eta ezaugarri kualitatiboak sozialak dira. Har dezagun, esate baterako, kamiseta bat. Haren balioa ez dute zehaztu ekoizteko behar izan den ordu-kopurua soilik kontuan hartuta. Produktu horren balioa, nagusiki, marka, publizitate, irudi, kapital sinboliko edo bestelako ezaugarri immaterial batzuen araberakoa da. Hain zuzen, alde sinboliko edo immaterialak justifikatzen du oraingo merkantzien balioaren hazkundera. Balioa ez da ekonomiak kontuan hartzen duen eremuan bakarrik produzitzen. Aintzakotzat hartzen ez diren beste hainbat elementu ere prozesuaren parte dira, hala nola ohiturak, gustuak eta hamaika praktika. Nahiz eta fabrikako hormetatik kanpo gertatu, nahiz eta produktibotzat hartuak ez izan, edo nahiz eta soldatapeko lanarekin loturarik ez eduki, egunerokotasunean bizitzako alderdi sozialaren eremuan oharkabean egiten diren hainbat jarduerak ere parte hartzen dute balioaren produkzioan. Lehen, balioa fabrikako lanari esker produzitzen zen, eta orain, eremu soziala da, batez ere, balio hori produzitzeaz arduratzen dena, Biforen esanetan.

70eko hamarkadatik aurrera lana fabrikatik atera eta bizitzako alderdi sozialaren eremura hedatu dela, horra Negriren tesia. Negri Hardtekin batera dio oraingo gobernatzeko modua biopolitiko dela. Bi autore horien arabera, biopolitikak produkzioa ez ezik erreproduzioaren esparrua ere gobernatzen du. Merkatu-ekonomian eragina izan dezakeen bizitzako edozein alderdi kontrolpean izatea du helburu biopolitikak, eta horregatik, erregimen horretan bizitza kapitalaren logikaren menpeko bihurtzen da, haien esanetan.²⁶⁸ Beste modu batean esanda: lehen, bizitzako alderdi soziala produkzio-prozesutik kanpokotzat hartzen zen, eta orain, aldiz, balio-produktore bihurtu da. Horregatik, lana ez da fabrikako paretan artean bakarrik gertatzen. Fabrikako paretak gainditu eta lana bizitzako alderdi sozialaren eremu osora barreiatu da, Negriren arabera:

267 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (69. or.).

268 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2005 (386. or.).

*«[...] el trabajo se aleja aún más de la fábrica, no la encuentra ni la considera ya como lugar específico de consolidación de la actividad laboral y de su transformación en valor. El trabajo abandona la fábrica para hallar en lo social, precisamente, el lugar adecuado a las funciones de consolidación y de transformación de la actividad laboral en valor».*²⁶⁹

Gizartearen eta fabrikaren arteko muga zeharo desagertu da. Hori dela eta, bizitzako alderdi sozialaren eremua, gizartea, balioaren produkzio eta metaketa kapitalistaren behar-arak asetzeko berrantolatu da. Fabrikaren aukerak eta indarra ahuldu egin dira produkzioa muga horietatik haratago hedatu denean, soziala bihurtu denean. Alde horretatik, fabrikak garai batean balioaren espazio produktibo gisa izan zuen nagusitasuna galdu du, Negriren esanetan. Autore horrek dioenez, balioaren produkzioa eremu sozialera hedatu denean, lantokia jada ez da fabrika edo bulegoa, baizik eta hiri osoa bihurtu da lantoki. Fabrikan produzitzen zen balioa, lehen, eta orain, metropolian produzitzen da.²⁷⁰ Metropolia da, bere kontraesan eta kontraktasun guztiekin, balioaren produkzioa gertatzen den leku nagusia. Hiria, hala, oso funtzionamendu konplexuko fabrika erraldoia bilakatu da Mendebaldeko herrialde postindustrialetan, eta gizartea, berriz, fabrika horretan lan egiten duen balio-produkte, autore horrek dioenez.

Hiriak, beraz, balioa produzitzen duen fabrika moduan funtzionatzen du, baina aldi berean, hiria bera fabrika horren produkzioaren emaitza da. Ederra izan daiteke, edota itsusia, zaratatsua, bihurria, berdea. Hiriak nortasun bat du, eta bere burua produzitzen du. Hiria marka ere bihurtzen da, saldu eta kontsumitu egiten da. Bere hiri-irudia ekoizteaz gain, hainbat hizkuntza-mota, esperientzia eta bizitzeko modu ere produzitzen ditu. Hiria, esan bezala, bere burua produzitzen duen fabrika erraldoi bat da. Eta kale, txoko eta plazetan gora eta behera dabiltzan pertsonak, espazio horiek ibili, okupatu eta bizitzen dituztenak, horiek dira, hain zuzen ere, hiria produzitzen dutenak. Beraz, hiria ez da paseatu, erosketak egin edo bestearekin topo egiten deneko toki bat bakarrik. Modu kolektiboan aberastasuna produzitzen duten tokiak dira hiriak. Hardten eta Negriren esanetan, hiria fabrika erraldoi bihurtu den neurrian espazio ekonomiko bat da:

*«[...] la organización de encuentros en la metrópolis no es sólo una cuestión política, sino también inmediatamente económica. [...] la metrópolis es a la multitud lo que la fábrica era a la clase obrera industrial».*²⁷¹

Federici ez dator bat Negri fabrika eremu sozialera barreiatu dela-eta esanez aditzera ematen duen ideiarekin. Haren esanetan, egia da herrialde postindustrialetan lanak fabrika eta bulegoetako paretak gainditu dituela. Lan industrialak, ordea, lehen aipatu

269 NEGRI, Toni: op. cit., 1992 (81. or.).

270 NEGRI, Antonio: "La metrópolis y la multitud". Iturria: <http://www.perrorabioso.com/sites/default/files/La-Metropolis-y-La-Multitud-Toni-Negri.pdf>

271 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2011 (261. or.).

dugun moduan, ez da desagertu, baizik eta “hirugarren munduko” herrialdeetara eraman, han produzitzea kapitalari merkeagoa gertatzen zaiolako. “Lehen munduko” herrialde postindustrialetan, ondorioz, zerbitzuen sektoreko lanak berebiziko gorakada izan du, sektore ekonomikoen artean garrantzi handienekoa bilakatzeraino. Prozesu horretan, Federicik kontatzen duen moduan, etxeko eremuko lanaren zati handi bat berrantolatzea gertatu da; alegia, lan asko etxetik kanpora eraman dira, eta zerbitzuen eremuko enplegua dira orain.²⁷² Hain zuzen, otorduak etxetik kanpo egitea, arropa garbitokietan garbitzea, haurrak haurtzaindegietan uztea eta abar gero eta arruntagoak dira. Baina Federiciren esanetan, Hardt eta Negri lana fabrikatik gizartera barreiatu izanaz ari direnean, ez dute aintzat hartzen 60-70eko hamarkadetan etxeko eremuan gertatutako iraultzaren ondorioz lehen etxean egiten ziren jarduera asko lan-merkatura irauli zirela.²⁷³

Horretan datza, hain zuzen ere, Federiciren desadostasuna. Jada behin baino gehiagotan esan dugun bezala, fabrikako lana (alegia, produkzioa) erreprodukzioaren beste aurpegia zen (bizitzarena, alegia). Produkzioa eta erreprodukzioa, lana eta bizitza, bananduta zeuden fordismoan. Fabrikako lana maskulinoa, mekanikoa eta errutinarioa zen. Kontrola eta diziplina arau zituen produkzio-eredu hartan, langilearen sentimenduak oztopo ziren. Makinek hobeto funtzionatzen dute emozio eta sentimenduetatik deskonektatzen direnean. Horregatik, langileak produkzio-prozesuan ukatuak zituen subjektibitatea, emozioak, afektuak eta harremanak. Horiek guztiak etxeko eremuko lanaren ezaugarriak ziren, emakumezkoen lanarenak, alegia. Lan industrialaren deslokalizazioaren eta zerbitzuetako lanaren gorakadaren ondorioz, italiarrek dioten bezala, fabrikako lanean ukatua zena (subjektibitatea, harremanak, afektuak, emozioak eta abar) produktibo bilakatu dira. Erregimen neoliberalak erabili egiten ditu emozioak, errendimendua eta produktibitatea areagotzeko baliabide gisa. Herrialde postindustrialetan etxeko eremuko lana definitzen zuten ezaugarriak produktibo bilakatu badira postfordismoan (alegia, erreprodukzio-lanarenak ziren ezaugarriak produktibo bihurtu badira), orduan, fabrikako lana eremu sozialera barreiatu dela aditzera ematea baino zuzenagoa litzateke esatea etxea dela eremu sozialera barreiatu dena:

*«[...] la mayor parte del trabajo industrial se ha “derramado” sobre el “Tercer Mundo”, mientras que el crecimiento del sector servicios ha sido en su mayoría producto de la mercantilización del trabajo reproductivo y, en consecuencia, se ha producido un “derrame” en el territorio pero no desde la fábrica sino desde el hogar».*²⁷⁴

Emmanuel Rodríguezek ere aitortzen du hirian gorpuzten den ekonomiak baduela alde iheskor eta bihurri bat, identifikatzen batere samurra ez dena. Baina hain zuzen ere, ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko, prozesu horri arretaz behatzea ezinbestekoa dela dio Rodríguezek. Garrantzitsua da, haren iritziz, produkzioan parte hartzen duten eremu

272 FEDERICI, Silvia: op. cit., 2013 (175. or.).

273 Ibidem (196. or.).

274 Ibidem (188. or.).

eta indar guztiak kontuan hartzea, nahiz eta ekonomiak lantzat ez eduki. Negriren tesiarekin bat dator, lana fabrikatik eremu sozialera aldatu eta gero, balio-produktore nagusia fabrika soziala dela baieztatzen duenean. Rodríguezen aburuz, hiri-eremuan produzitzen den aberastasuna espazio eta denbora hori okupatzen duten subjektuetatik eta haien arteko harremanetatik sortzen da. Federiciren gogoetarekin bat egiten du Rodríguezek eta esaten du erreprodukzio-lanaren ezaugarriak, fabrikako produkzioan ukatuak ziren haiexek (desirak, afektuak, zaintzak...), etxeko hormen artetik atera eta balio-produktore bihurtu zirenean, orduan sortu dela fabrika soziala:

*«Los rasgos antes confinados al espacio/tiempo de la reproducción salen del hogar y del barrio, conquistan la ciudad, el tejido productivo. Hablamos así de la fábrica social».*²⁷⁵

4.2.4. Lanak bizitza kolonizatu du

*«Hacen del mundo un reino en el que todos [...] están entusiasmados con trabajar sin interrupción, porque el trabajo y el placer son evidentemente la misma cosa. Véase la fantástica publicidad de un ordenador portátil en la que un joven teclea mientras esquía sobre las olas, bajo el lema “Trabajar en todas partes”».*²⁷⁶

Franco Berardi “Bifo”

Craryk esaten duen gisan, kapitalismoaren sorrerarako lehen baldintza gizakiak lurrarekiko zuen lotura haustea izan zela idatzi zuen Marxek.²⁷⁷ Industrializazioaren aurretik, gizakiak biziraupena bermatzeko behar zuen jarduera ekonomiko oro naturarekin uztartuta zegoen. Lurraren oparotasuna, urtaroak, klima, eguraldia, ilargia, eguzkia eta argia izan dira, nagusiki, lan-mota eta ordutegia zehaztu dituztenak. Produkzioa fenomeno horiek baldintzatzen zuten. Historiako sasoi luzeetan zehar, gizakiaren biziraupena lurraren oparotasunarekin eta urtaroen aldaketarekin lotuta egon da.²⁷⁸ Natura kontrolatu ezin zuela eta, gizakiak ezer gutxi kontrola zezakeen produkzioa. Jendeak, denbora luzean, gauetz lan egiteko aukerari uko egin zion, immoraltzat baitzeukaten eguzkia sartu ondoren eta eguna argitu aurretik lan egitea. Gaua, beraz, aberastasuna produzitzeko oztopo zen.

Robert Kurtzek azaltzen duen bezala, industrializazioarekin batera, XIX. mendean, gasezko argiztapen-sistema ezarri zen, eta mendearen amaierarako, argiztapen-sistema elektrikoak gas-lanparak ordezkatu zituen. Hala, industrializazioak “gaua egun bihurtu”

275 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (168. or.).

276 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2003 (86. or.).

277 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (73. or.).

278 RIFKIN, Jeremy: *El fin del trabajo. Nuevas tecnologías contra puestos de trabajo: el nacimiento de una nueva era*, 1996 (85. or.). Iturria: <http://www.uepaderecho.com/Libros/Libros-Extra/El%20Fin%20del%20Trabajo%20-%20Jeremy%20Rifkin.pdf>

eta produkzioa naturaren eraginetik bereiztea lortu zuen.²⁷⁹ Argiztapen artifizialak lanaren eta naturaren arteko etendura ekarri zuen. Lanak ilargiaren eta eguzkiaren zikloen menpeko izateari utzi zion, naturaren legeen menpeko izateari, nolabait. Ordura arte naturak ezartzen zuen lan-ordutegia, baina handik aurrera gizakiak kontrolatuko zuen. Fabrikara argiztapen artifiziala eramatea lortu zenean, produkzioaren denborak zeharo aldatu zituen. Etengabeko produkzioari ateak ireki zizkion. Berdin zion zer zen, eguna edo gaua, uda edo negua. Argi artifizialarekin, egunean 24 orduz eta astean 7 egunez produzitzen jardutea errealitate bihurtu zen, Kurtzek dioenez.²⁸⁰

Gaua, loa eta siesta, horra hor pertsonak produktibo eta lehiakor izateari uzten dioneko hiru denbora, atsedenera, geldotasunera edo kontenplaziora emana dabileneko. Lo daudenek, esna irauten duten subjektu hiperaktiboek ez bezala, aukerak galtzen dituzte, lehiatik kanpo gelditzen dira. Merkatu ekonomiak atsedetik hartzen ez duenez, norberak arrakasta izan nahi badu, haren erritmora egokitzea komeni zaio. Loaren denbora, beraz, produkzioa oztopatzen duen alferrikako tartea da, errentagarritasunik atera ezin zaion denbora. 24/7 produktibo izatea sustatzen duen kapitalismo hau gauzatzeko, loa oztupo da. Jonathan Craryren tesiaren arabera, loa bera ere arriskuan dago, lanak noiz kolonizatuko. Loa kontrolatzeko ikerketak egiten ari omen dira, zer eta lo edo atsedetik beharrik izango ez lukeen langile/kontsumitzailea lortzeko.²⁸¹ Orain bertan ere lo-orduen kopurua beherantz doa. Gero eta lo gutxiago egiten da. Craryren esanetan, XX. hamarkadaren hasieran 10 ordukoa zen loa, eta 6,5 ordura jaitsi da, AEBetan.²⁸² Lehia, hiperaktibitatea, etengabe konektatuta egotea eta Hartmut Rosak aipatzen duen azelerazioa²⁸³ dira loa murriztearen atzean dauden arrazoiak.

Espai en Blanc-en dioten bezala, langile-mugimenduen porrot politikoaren ondoren, globalizazioaren aroan, errealitatea eta kapitalismoa gauza bat eta bera bihurtu dira, berdintzat dauzkagu. Bizitza errealitateetik bereizezin gertatzen zaigun kapitalismo hau erreproduzitzeko mobilizatu dute. Kapitalak irentsi egin du bizitza, eta ondoren, lana bizitzako eremu guztietara eramanez dute. Subjektibitatea, afektuak eta harremanak produktibo bihurtu ostean, kapitalismotik kanpoko eremurik ez dago jada:

*«Se puede afirmar que la característica definitoria de la época global en la que estamos consiste en que realidad y capitalismo se han identificado. [...] La coincidencia entre capitalismo y realidad significa antes que nada, [...] que ya no hay afuera del capital».*²⁸⁴

279 KURTZ, Robert: "Luces de progreso" kapituluak, *El absurdo mercado de los hombres sin cualidades*, Pepitas de Calabaza, Logroño, 2014 (88. or.).

280 Ibidem (88. or.).

281 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (15.or.).

282 Ibidem (22.or.).

283 ROSA, Hartmut: *Alienación y aceleración. Hacia una teoría crítica de la temporalidad en la modernidad tardía*, Katz, Madrid, 2016 (20. or.).

284 ESPAI EN BLANC: "Prólogo: el malestar social en una sociedad terapéutica". Iturria: http://espaienblanc.net/?page_id=1676

Orain dena bihurtu da negozio. Presondegietan, ziega erosoagoa lortzeko aukera dute presoek, diru-kantitate bat ordaintzearen truke. Bada jendea, espektakulu baterako sarre-
ra lortu nahi baina ilara luzean hainbat orduan zain ez egotearren, etxegabe, langabetu
edo prekarioren bati ordaindu egin diona, bere ordez ilaran jarrita txanda gorde diezaion.
Enpresek ingurugiroa kutsatzeko eskubidea diruz eros dezakete. Haurrak diruz saritzen
hasiak dira, irakurketa sustatzeko edo ikasketak utz ez ditzaten. Giza organoen saleros-
keta errealitate bat da. Haurdunaldi subrogatuak erakusten digun bezala, amatasuna
ere alokagai ipini da. Diruz ia dena eros daitekeen garaian bizi gara, Michael J. Sandelen
esanetan,²⁸⁵ eta diruaren trukean edozeri, edozein gauza edo jarduerari errentagarritasun
ekonomikoa atera nahi zaio orain. Autore horren arabera, merkatu-ekonomia genuen lehen
eta merkatu-gizarte bihurtzen ari gara. Lehenengo kasuan, merkatuak produkzio-jarduera
antolatzeko funtzioa betetzen du, eta bigarrenean, berriz, merkatuak gizakiaren bizitzako
eremu guztiak baldintzatzen ditu. Bifo ere ondorio berera iristen da:

*«El capitalismo colonizó las áreas geográficas, los objetos de consumo, las formas de la vida cotidiana, y hasta las actividades de cuidado, de educación y de afecto que ligan a los seres humanos».*²⁸⁶

Salerosketaren logika ez da gainera ondasun materialetara bakarrik mugatzen. Giza-
kien artean errentagarritasun-asmorik gabeko harremanik ez dago jada, Biforen ustez.
Orain arte helburu komertzialen agindupetik kanpo zeuden eremuetara ere hedatu da
merkatuaren logika. Osasuna, heziketa, kultura, sexualitatea, afektibitatea, bai eta giza
harremanak ere, dena ekonomiaren mesedetan jarri da. Negozioen kulturak bizitza bere
osoan kolonizatu du.²⁸⁷

Bizitza merkantilizatzeko prozesuak kapitalismoaren logikak bizitza alderik alde zeharka-
tzea dakar, eta logika hori, Pérez Orozcok dioen bezala, eremu intimo zein biologikoraino
iritsi da. Autore horrek bizitza intimoan ipintzen du begirada; alegia, etxeko eremuan.
Lehen etxean emakumeek egin ohi zituzten jarduerak, baina baita zentzu hertsian gor-
putzarekin lotura duten funtzioak ere, fisikoak zein emozionalak, diru-iturri bilakatu dira:

*«[...] estamos experimentando una mercantilización de la vida íntima en la que cada vez más facetas del bien-estar relacionadas con los afectos, los sentimientos y el cuidado cotidiano de los cuerpos se derivan a los mercados. O, incluso, una mercantilización de la vida en su sentido biológico estricto: los cuerpos, la materia viva que los compone y sus funciones biológicas se convierten en nichos de negocio. [...] la vida se ha puesto a trabajar».*²⁸⁸

285 SANDEL, Michael J.: *Soy Cámara #37. Sueños que el dinero puede comprar*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/soy-camara-37-suenos-que-el-dinero-puede-comprar/216858>

286 BERARDI "Bifo", Franco: op. cit., 2003 (115. or.).

287 Ibidem (29. or.).

288 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (111. or.).

Illo horretan, dio Pérez Orozcok, bizitza bere osoan lanean ipini dute, lantzat diruaren truke egiten dena baizik ez daukatenean adieran, esan nahi da. Proletariotzak orain toki guztietan eta egun guztian produzitzen du,²⁸⁹ eta beste horrenbeste gertatzen da kontsumoarekin ere. Produkzio-kontsumo zikloak ez du jada atsedenik hartzen. Craryk kontatzen duen gisan, astelehenean hasi eta igandera bitarte, egun eta gau, 24/7 erritmoan martxan diren esparruak bihurtu dira bata zein bestea:

*«El planeta se reimagina como un lugar de trabajo sin descanso o un centro comercial siempre abierto [...] un estado en el que producir, consumir y desechar ocurre sin pausa [...]».*²⁹⁰

Lanetik kanpoko denbora kolonizatu egin du lanak, denbora librearen eremua gero eta gehiago baldintzatzen du eta:

*«[...] el disfrute de la vida está cada vez más subordinado al cultivo personal del mercado de trabajo».*²⁹¹

Fraynek azaltzen duen bezala, betirako lan egonkorra izatearen ideia amaitu da. Estatuak eta enpresariak ez dute beren burua langileei lanpostu finkoa eskaintzera derrigortuta ikusten, eta politika neoliberalak langileari nolabaiteko lasaitasuna ematen zioten babes sozialak desegin dituzte. Estatuak, lehen, subjektua babesteko funtzioa zuen, eta orain, aldiz, gehiago arduratzen da hark bere buruaren erantzukizuna bere gain har dezan, horretarako behar diren baldintzak sortu eta neurriak hartzeaz. Bizitzaren sostengua norbanakoaren ardura bihurtu da. Subjektuak enpresa bat balitz bezala funtzionatu behar du gizarte postindustrialean. Bere burua produktu bat bezala saldu beharra dauka. Horregatik, lanetik kanpoko denboran egiten dituen jardueretan askori subjektua ez zaio lotzen berez atsegingarri zaiolako, baizik eta oraingo lan-merkatu gorabeheratsu eta ezegonkor honetan langilea etengabeko formakuntzara behartuta dagoelako. Lanetik kanpo egiten dituen jarduerak lanerako esperientzia eta ezagutza bilakatu daitezke, eta hori garrantzitsua da lehiakortasunean oinarritzen den oraingo bizimoduan. Fraynek gehitzen duen bezala, langileak bere prestakuntza osatu behar du, curriculuma hobetu, harremanak, kontaktuak edo sarea egin, bere buruaren bertsiorik onena bihurtu, eta lan-munduaren beharretara egokitu. Horren guztiaren ardura du langileak. Bere izateko era, nortasuna, gaitasunak edo lorpenak zalantzan jartzen ditu etengabe. Sekula ez dago ziur denbora modu egokian aprobetxatzen ari ote den. Ardura horrek langilea bere denbora librean etengabe birziklatzen, prestatzen, ikasten aritzera darama. Besteekin lehian aritu behar duen lan-merkatu honetan ahalik eta ondoen prestatuta egon behar du. Betiko ikastaro, mintegi eta tailer askotarikoei beste hainbat gehitzen zaizkie orain, Interneten garaian: sarean eskuragarri dauden ikastaroak, YouTubeko tutorialak, konferentziak, testuak...

289 HARDT, Michael; Negri, Antonio: op. cit., 2005 (422. or.).

290 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (27.-28.or.).

291 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (87. or.).

Eta horretaz guztiaz gain, norberak egindako bidaiak, gobernuz kanpoko erakundeekin egindako lanak eta bestelako hainbat esperientzia ere curriculumaren parte dira.

Subjektua marka bihurtu den garaian, sare sozialetan egotea ere bere horretan ez da nahikoa. Hainbeste jende biltzen du, eta hainbesteko abiadan dabil, gaur ikusgaitasuna izateak ez baitu bermatzen bihar ere besteen begien arreta izango duenik. Sarean produktu eta jarritako edukiak ia igo orduko zaharkituta gelditzen dira, berehala desagertzen dira. Horregatik, gaur egungo subjektuak bere ikusgaitasuna lantzen eta elikatzen aritu behar du etengabe. Ikusgaitasuna posible egiten duten tresna, teknika eta hizkuntza mediatikoak ere etengabe aldatzen doaz, ordea, eta horiek ondo ezagutzea funtsezkoa izanda, horretan ere erabili beharko du denbora. Niaren produkzioa ezinbestekoa da pantailak nagusi diren mundu honetan, eta horren atzean, ardura ez ezik, bizitzari-edo lapurtu behar izan zaion denbora bat dago, ahalegin ez nolana hikoia, eta azken finean, lana. Horrela, aisia lan bihurtzen da, eta plazera, sakrifizio. Lehen, sakrifizio pertsonala egiteko eskakizuna fabrikako nagusiarengandik zetorkion langileari, eta orain, bere barrenetik datorkio exijentzia, bere buruari sakrifika dadila eskatzea. Langileak bere bizitza kinka larrian ikusten duenean etengabe, bere barrenetik sakrifizio pertsonalera dei egiten dion exijentzia amairik gabea da, isildu ezin den ahotsa, eta horrek badu izen bat: autoesplotazioa.

Negrik eta Hardtek laneko denboraren eta aisialdiaren artean egindako bereizketak behea jo du, eta bi-bien nahasketa izan da emaitza.²⁹² Teknologiaren papera funtsezkoa izan da lanak azkenerako bizitza erabat kolonizatu dueneko prozesuan. Internetek, ordenagailu eramangarriek eta smartphonea bezalako bitarteko eta gailuek izugarritzko iraultza ekarri dute produkzioaren ziklora. Bitarteko horien ondorioz, izan ere, lanak bere konfinamendua birrindu du, eta Fraynek esaten duen gisan, bizitzaren espazio gordeenetara ere hedatzea lortu du, guztietara, lehen tokirik ez zuenetara, ongi etorria ez zen horietara ere bai.²⁹³ Orain, edozein toki eta edozein ordutan produzitzen da.²⁹⁴ Alde horretatik, bazter guztietara soinean daramagun jarduera bihurtu da lana. Berdin dio zer den, eguna edo gaua. Eta berdin dio non gauden, etxeko sofán, tabernan, bulegoan, metroan edo mendian. Lanak ez du ordutegi jakinik, ez espazio finkorik. Gutxien espero dugun tokian ere ikus dezakegu haren presentzia. Inork gutxik pentsatuko zuen duela urte batzuk, sexu-langile izan ezean behintzat, ohean ere lan egiten amaituko genuela. Lanak zeharo harrapatuta gauzka, eta badirudi ihesbiderik ez dagoela:

*«De día y de noche, en la oficina, pero también en el metro, en el bar o en casa. [...] Ya nunca suena la sirena que anuncia la salida de la fábrica: la factoría es ubicua».*²⁹⁵

292 HARDT, Michael; Negri, Antonio: op. cit., 2011 (131. or.).

293 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (84. or.).

294 HARDT, Michael; Negri, Antonio: op. cit., 2005 (422. or.).

295 FANJUL, Sergio C.: "Currando a todas horas, en todos lados". Iturria: https://elpais.com/ccaa/2017/02/16/madrid/1487270353_858304.html

-5-

**ONDOEZAREN
GORPUTZA**



► **"KARRATU BELTZA", 2010.**

Lehen, lanean sakrifikatzeo exijentzia fabrikako nagusiarengandik zetorkion langileari. Orain, langilea bere burua-
ren jabe da. Lehiakortasun, produktibitate eta errendimenduaren logikapean funtzionatzen duen gizarte baten
parte da, ordea. Ez du nagusirik, baina horrexegatik, hain zuzen, exijentzia barrenetik datorkio. Esplotazioak
autoesplotazio-forma hartu du.

Lotura: <https://vimeo.com/166427279>



5.1. GIZARTE POSTINDUSTRIALAREN ERRADIOGRAFIA BAT

Gizarte postindustrialaren testuingurua zein den zehaztea, ezaugarri esanguratsuenak zein dituen analizatzea funtsezkoa da, lanaren, artearen eta autorrealizazioaren arteko harremanean sakondu nahi bada. Ikusiko dugunez, malgutasuna, indibidualtasuna, ikusgaitasuna, azelerazioa, hiperaktibitatea, denbora falta eta etengabeko oraina dira, besteak beste, gaur egungo Mendebaldeko gizartearen oinarriak. Ezaugarri horien guztien txirikordaketak zeharkatzen ditu, beraz, bai artea, bai lanaren eta autorrealizazioaren nozioak. Hurrengo lerroetan, testuingurua ulertze aldera, ezaugarri horien inguruko xehetasunak emango ditugu.

5.1.1. Malgutasuna

Richard Sennettek ikergai duen kasua ekarri nahi dugu gogora une batez: Enrico eta Rico aita-emeen kasua.²⁹⁶ Enrico, aita, maila apaleko langilea zen. Hiriguneko bulego bateko zorua eta komunak garbitzen lan egiten zuen. Enricorentzat, haren belaunaldiko langile guztientzat bezala, bizitzaren denbora lineala zen. Urtetik urtera ez zen aldaketa handirik. Lana egonkorra zen, eta bizimoduan ere apenas zegoen aldaketarik. Egonkortasun material eta psikologikoak aukera ematen zion, bizitzan epe luzera begira pentsatzen jarri eta denbora lineal hartan, bere bizi-proiektua hasieratik amaierara diseinatu eta antolatzeko. Jaio zen auzo xumean sozialki aintzatespena izateko modua eman zion denbora horretan egindako lorpenen metaketak: dirua aurrezteak, semeari goi-mailako ikasketak ematea, etxetxo bat erostea hiriko bizitegi-gune batean... Nahiz eta batzuetan semea eta haren belaunaldiko gazteak ez zituen ulertzen, eta nahiz eta bere lana egonkortasuna eta aintzatespena lortzeko baliagarri izan zitzaion, Enricok ez zuen semeak bide berberari jarraitzea nahi.

Ricok ere, semeak, ez zuen gurasoena bezalako bizimodu lineal, antolatu eta errutinariorik nahi. Ez zuen lanaren diziplinak antolatutako bizitzarik nahi. Haietaz lotsatu ere egiten zen, langile baldar eta kultura gabekoak zirelako, jokamolde arloak zituztelako. Ez zen haiekin identifikatua sentitzen. Gurasoen moduan, semeak ere gizarte-mailetan gora egin nahi zuen. Hura zen gurasoen zein semearen nahia. Ingeniaritza- eta enpresa-ikasketak egin zituen unibertsitatean. Aita ez bezala, sarri aldatu zen ogibidez. Lan batean amaitzean toki batetik bestera mugitzea gauza arrunta bihurtu zen Ricoren bizitzan. "Ezer ere ez luzarora", horixe zen haren leloa. Baina lan-denboraren diziplinari eta loturari ihes egin eta askatasunaren promesa zekarkion bizimodu malgu bezain ezegonkor horrek bere ondorioak izango ditu. Egin zion ihes bizimodu aspergarriari, bete du gizarte-mailetan gora egiteko ametsa, baina hala eta guztiz ere, Rico ez da erabat zoriontsu.

296 SENNETT, Richard: *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Anagrama, Barcelona, 2000 (13.-20. or.).

Belaunaldi bakoitzak lanarekiko nahiz bizimoduarekiko zituen xede eta nahiak, bai eta horien ondorioak ere, modu paregabeaz azaltzen ditu Sennettek, aita-semeen kasu horren bidez. Bizitza guztirako lan egonkorra izatearen ideia amaitu da. Bourdieuk ere idatzi zuen, jada badira urte batzuk, prekarietatea, egonkortasunik eza eta kalteberatasuna zirela bizimodu garaikidearen ezaugarriak zabalduenak eta, aldi berean, mingarrienak.²⁹⁷ Ford fabrikan aprendiz moduan ofizioa ikasten hasten zen gazteak, esaterako, seguru zekien han hasi eta han amaituko zuela bere lan-bizitza. Bazekien lan faltarik ez eta biziraupena bermatuta izango zuela. Egonkortasunak bizitza epe luzera planifikatzeko aukera ematen zion. Nahiz eta bizimodu gogorra izan harena, jasoko zuen horren sari edo ordaina, geroan. Halakorik jada ez dago. Gaztetan ofizio bat ikasi, lantoki batean lanean hasi, eta erretiratu arte eguna joan eta eguna etorri lan bera eginez bizimodua ateratzeko aukeraren bermea desagertu da.²⁹⁸ Prekarietatea bizitzaren bazter guztietara zabaldu eta normalizatu den kapitalismo malguaren garaian, lanaren etika berri bat dago, Sennetten arabera. Langileek lanpostu egonkorak zituzten lehen, garai hartan enplegua egonkorra zelako. Baina amaitu da egonkortasuna, eta orain lana ez dago ziurtatuta. Enplegua jada ez da, lehen bezala, egonkorra eta lineala. Langileak zalantzan bizi dira, bihar bertan ez ote diren kaleratuak izango, lortuko ote duten berriro ere lan bat edukitzea... Jarduera astun, errutinario eta mekanikoa zela eta, lan-eredu fordista amesgaizto moduko bat zen langilearentzat. Baina lan-eredu postfordistaren aldean, bazuen oraingo eredu honek eskaintzen ez duen zerbait: egonkortasuna.²⁹⁹ Horri dagokionez, honela dio Sennettek:

*«La rutina puede degradar, pero también puede proteger; puede descomponer el trabajo, pero también componer una vida».*³⁰⁰

Azpikontratazioa, aldi baterako lana, autoenplegua eta abar; horrelako guztiek malgutasunaren hazkundea ematen digute aditzera.³⁰¹ Nahiz eta egungo lan-baldintzen ezau-garri nagusietakoa izan, Biforen arabera, malgutasunaren kontzeptua ez da esplotatzaile kapitalistaren asmakizuna, 60-70eko hamarkadetako langile errebelde eta konformagaitzena baizik.³⁰² Sasoi hartan, industriaren esparruan lanik falta ez zenean, ohiko samarra zen langile gazteek fabrikan hilabete batzuek lan egin, dirua aurreztu, kontua eskatu eta, fabrika lagata, abentura bila abiatzea. Dirua amaitutakoan itzultzen ziren, eta beste lan koskor bat bilatu eta nahikoa diru aurreztutakoan, bizi-esperientzia bila joango ziren berriro ere. Jarrera hura, garai hartako gazteen desiren isla zen: autonomia, loturarik eza, mugikortasuna, esperientzia ugariko bizitza eta aske izatea, besteak beste. Gazte haiek testuinguru hartan aldarrikatzen zuten malgutasuna; lanean nahiz bizitzan autonomia

297 BOURDIEU, Pierre: *Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal*, Anagrama,artzelona, 1999 (121. or.).

298 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (20. or.).

299 GNUTTI, Rudy: *El mundo sin trabajo. Pensando con Zygmunt Bauman*, Icaria,artzelona, 2017 (38. or.).

300 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (44. or.).

301 HARVEY, David: op. cit., 1998 (215. or.).

302 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (78.-79. or.).

eta askatasuna izatearen aldeko apustua zen. Orduan zuen esanahia, beraz, ez da inondik inora gaur egun duena.

Bifok azaltzen duenez, 60-70eko hamarkadetako gazteen malgutasun-aldarrikapen haren aurka agertu ziren sindikatuak, langilearentzat kaltegarri izango zela iritzita. Sindikatuak lan egonkorraren eta eskubide kolektiboen alde ari ziren borrokan, eta malgutasun-eskaera hark egonkortasun eza eta irtenbide indibidualen aldeko joera ekarriko zituela uste zuten. Denborak arrazoia eman die. Malgutasuna gaur egungo produkzio-moduen ezaugarri nagusi bihurtu da, baina ez gazte haiek malgutasuntzat zeukatenaren zentzuan. Biforen esanetan, malgutasuna, gaur egun, kapitalismoak ekoizpenerako eta esplotaziorako duen tresna bat da, eta ez langilearen nahi edo aukera.³⁰³ Politika neoliberalen testuinguruan, malgutasunak lanaren prekarizazioa esan nahi du, behin-behinekotasuna, despidorako erraztasunak, eskubideen eta erosahalmenaren galera. Izan ere, kapitalismo neoliberalak ahalik eta etekin handiena ateratzea du helburu bakarra.³⁰⁴ Helburu horretarako bidean, oztopo gertatzen zaizkio langilea babesten duten erregulazio, lege eta arauak. Eta malgutasunak, hain zuzen ere, traba horiek guztiak bertan behera botatzeko eskumena ematen dio, funtzio hori betetzen du.

Nahiz eta 68ko testuinguruan jaiotako mugimenduen eskakizun izan, malgutasunaren nozioa ez zen inondik ere langileriaren mesedetan proposatzen zen ezaugarria, Robert Kurtzen iritziz:

*«Flexibilización significa, por lo general, desviación del riesgo sobre los empleados dependientes y delegación de la responsabilidad hacia abajo: más rendimiento y más estrés por menos dinero».*³⁰⁵

Lan fordistak, desabantaila ugari izanagatik ere, bizitza osorako lanpostua bermatzen zuen, eta langileak, beraz, gutxienez egonkortasuna eta lasaitasuna zituen. Orain ez. Lehen esan dugun bezala, bizitza osorako lanaren ideia, gaztetan hasi eta erretiratu arte lan berean aritzearena, desagertu da.³⁰⁶ Lana aldakorra bihurtu da, aldizkakoa, malgua. Malgutasunaren izenean, langileek ez dakite bihar bertan kaleratuak izango diren, soldata ordainduko dieten, diru-laguntzarik lortuko duten edo berriro ere lanik izango duten. Estatuak langilea merkatu-ekonomiatik babesteko zuen funtzioa ahuldu egin da. Bizitza desregularizatzeak, babes sozialak murrizteak, etengabe arrisku-egoeran egoteak, horrek guztiak ziurgabetasuna eta beldurra zabaltzea ekarri du, Aldazen esanetan.³⁰⁷

303 Ibidem (79. or.).

304 Ibidem (149. or.).

305 GRUPO KRISIS: *Manifiesto contra el trabajo*, Virus, Bartzelona, 2002 (78. or.).

306 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (20. or.).

307 ALDAZ, Maite: op. cit., 2017 (14.-15. or.)

Malgutasunaren nozioak zerbait positiboa zirudien langilearentzat 60-70eko hamarkadetakoa testuinguruan. Baina lan-eredu postindustrialetan zer funtzio betetzen duen ikusita, argi geratu da promesa hura ez dela izan espero zena. Orduategiak liberalizatzea, lantokira fisikoki joan behar ez izatea edo etxetik lan egin ahal izatea, modernitateko bizitza diziplinatuarekiko eta errutinarekiko garaipena ziruditen horiek, engainagarri gertatu dira azkenean. Izan ere, Richard Sennettek dioen moduan:

*«En la actualidad, el término flexibilidad se usa para suavizar la opresión que ejerce el capitalismo».*³⁰⁸

5.1.2. Azelerazioa

*«Como ves, aquí requiere que ahora corras tan rápido como puedas para permanecer en el mismo lugar. Si quieres ir a otra parte, debes correr al menos el doble de rápido que antes».*³⁰⁹

Lewis Carrol

Industria Iraultza bizi-erritmo baten amaiaren hasiera izan zen, harekin amaituko zen nekazaritza-munduko erritmoa, naturaren zikloen arabera bizitza. Industria Iraultzaz geroztik, lan kapitalistaren ondorioz, bizimoduaren azelerazioa etengabekoa izan da. Denboraren jabetzaren aldeko borroka kapitalistaren eta langilearen arteko borroka izan da hasieratik. Lan, atsedeen eta oporretako egun eta orduak zehaztuz joan dira hamarkadaz hamarkadako negoziaketa gatazkatsu horretan. Muntaketa-kateaz baliatzea, lana automatizatzea, lan-ordutegiak murriztea, garaia baino lehen erretiratzea eta era horretako aurrerapenak lanaren intentsitatea eta abiadura handituz berreskuratzen ditu kapitalak, Harveyk azaltzen duen moduan.³¹⁰

Azelerazioa ez da, ordea, produkzioaren esparruan bakarrik gertatu. Txanponaren beste aldean ere, kontsumoaren eremuan, izan du eragina, eta ez nolana hiko gainera. Garai batean, objektuak hondatu, hautsi edo beren funtzioa betetzeari uzten ziotenean, orduan ordezkatzeko zituen jendeak. Gauzak konpondu egiten zituzten, haien bizitza ahalik eta gehien luzatu eta berririk erosi behar ez izateko. Orain, aldiz, hondatu aurretik ere aldatzen ditugu, "zaharkituta" geratu edo modan ez daudelako. Eta hausten edo hondatzen direnean, gutxitan ahaleginduko gara konpontzen, zaharra konpontzea baino merkeago ateratu ohi baita zuzenean berria erostea. Altxariek, argazki-makinek, arropak eta orokorrean mota guztietako merkantziek gero eta bizi-denbora laburragoa dute. Zaharkitzapen

308 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (10. or.).

309 BAUMAN, Zygmunt: *Modernidad líquida*, Fondo de cultura económica de Argentina, Buenos Aires, 2004 (59. or.).

310 HARVEY, David: op. cit., 1998 (257. or.).

programatuaren nozioak³¹¹ aditzera ematen duenez, produkzio-kontsumo zikloaren denbora nabarmen bizkortu da, eta horrekin batera, ezinbestean, bizimoduaren abiadura.

Orain dena behar dugu unean bertan, gogoia egin eta berehala. Lehenbailehen iritsi nahi dugu toki guztietara, eta ordenagailuko teklatuan klik egitea nahikoa da jendearekin komunikatu, lagunak egin, sexu-harremanak izan, film bat ikusi edo auskalo zer herrialdetan salgai dagoen zapatila-parea hurrengo egunean bertan etxeko atarian izateko. Atlantikoa alde batetik bestera zeharkatzeko ordu gutxi batzuk nahikoa dira orain; lehen, ibilbide bera egiteko, asteak behar ziren. Ordenagailuak gero eta bizkorragoak dira. Interneteko konexioari abiadura eskatzen zaio. Informazioa istantean nahi da, eta komunikazioa ere bai. Hor dugu *fast food* janaria. Eta bikotekidea aurkitzeko hitzordu espresak. Mendian gero eta jende gehiago dabil pulstometroa soinean eta ordulariaren menpe zitzu bizian lasterka batetik bestera.

Mendebaldeko gizarteetan bizitza gero eta bizkorrago doa. Hartmut Rosak azelerazio soziala deitzen dio fenomeno horri.³¹² Autore horrek proposatzen duen tesiaren arabera, hautematen zailak diren patroik eta arauen menpeko da orain bizitza. Patroi eta arau sekretu horiek bizitza gobernatu eta alienatzen dute, eta "bizitza on" bat izango litzatekeena posible egitea eragozten. Rosaren esanetan, azelerazio soziala zenbait eremutan zenbait azelerazio-mota korapilatzearen ondorio da. Batetik, azelerazio teknologikoa aipatzen du. Garraioaren, produkzioaren eta komunikazioaren esparruetan gertatu den azelerazioa ematen du aditzera kontzeptu horrek. Bestetik, aldaketa sozialaren azelerazioari buruz hitz egiten du. Horren bitartez, gizarte batek dituen balioak, ohiturak, bizitzeko moduak, praktikak, modak eta abar gero eta azkarrago aldatzen direla adierazi nahi du. Eta azkenik, bizi-erritmoaren azelerazioaren berri ematen du. Gero eta gauza gehiago denbora gutxiagoan egiteko nahi edo behararekin du zerikusia. Hiru eremu horiek ez dira elkarrengandik apartekoak, Rosaren esanetan, baizik eta beren artean etengabe txirikordatu eta uztartu egiten dira, elkarri eragiten diote. Azelerazio sozialaren fenomenoak hiru azelerazio-mota horien arteko harremanetik sortzen den arren, hura eragiten duen indar nagusia lehiakortasuna da. Edo beste era batean esanda, azelerazio soziala, nagusiki, merkatu kapitalista lehiakorraren ondorio da, Rosaren esanetan.³¹³

Lehia oinarri duen produkzio-eredu kapitalistan ez dago atsedenerako tarterik. Egunean 24 orduz eta astean 7 egunez produzitu eta kontsumitzen den testuinguru honetan, gelditzeak eragina du norberaren posizioan. Etenaldi luze bat egiteak laster asko ekar dezake beste batzuk aurrera eginez eta postuak irabaziz joan direla-eta norbera zaharkituta,

311 Zaharkitzapen programatua produktu baten bizitza erabilgarriari alde aurretik bukaera zehatza ezartzea da. Ekoizleak berak produktua diseinatzean kalkulatu eta aurreikusten du zer bizitza erabilgarri izango duen produktuak, erabiltzaileak behar baino lehen baztertu behar izan dezan, ekoizleak produktu horretarako ordeko piezarik eskaintzen ez duelako, edo produktua konpontzeko zerbitzu teknikoa bertan behera utzi duelako, besteak beste. Politika honen helburua kontsumoa areagotzea da. Izan ere, zaharkitzapen programatuak produktu berriak behar baino lehen erostera behartzen du kontsumitzailea. Iturria: https://eu.wikipedia.org/wiki/Zaharkitzapen_programatua

312 ROSA, Hartmut: op. cit., 2016 (13. or.).

313 Ibidem (46. or.).

anakroniko eta jokoz kanpo gelditzea. Horregatik, gizartean gertatzen diren aldaketen aurrean norbera kanpoan, bazterrean, ertzean ez gelditzeko, erritmoari eutsi eta eguneratuta egotea ezinbestekoa da. Zeregin zaila da hori, ordea. Craryk ohartarazten digun bezala, azelerazioaren eraginez, lan eta bizimoduetan gertatzen diren aldaketak gero eta bizkorragoak dira, eta gizarteari gero eta zailagoa egiten zaio aldaketa horietara egokitu eta etengabe erritmoari eustea.³¹⁴ Horrenbestekoak dira berrikuntzak, horrenbestekoak aldaketak, horrenbestekoak aukerak, ezinezkoa izaten baita denera iristea. Azelerazioaren logikan, gainera, bizkorrenen erritmoak ezartzen du bizimoduaren abiadura, motelenena kontuan izan ordez. Bizi-erritmo azkarrera egokitzen dakien subjektua da egunean dagoena, saritua dena, arrakasta lortzen duena. Erritmoari eutsi ezin dionak, berriz, arrisku handia du teknologiaren agindupeko gizarte honetatik kanpo gelditzeko. Aldaketa horiek barneratzen eta eguneratzen ez dituenak, XXI. mendearen hasiera honetan, analfabeto digital bihurtzen da.

Teknologiaren esparruan gertatzen ari diren garapen eta aldaketak izugarritzko erritmoan doaz. Teknologiaz hitz egiten denean, eremu horretan aldaketak esponentzialak direla esaten da, oso denbora laburrean aldaketak erraldoiak direla, alegia. Alabaina, giza gorputzak, garunak, bere abiadura du, eta bere mugak. Eta ez dira alderagarriak: giza garapenaren erritmoa eta teknologiarena zeharo bestelakoak dira. Hala, desfase moduko bat sortzen da teknologiaren garapenean gertatzen diren aldaketen abiadaren eta giza garunak aldaketa horiek barneratzeko behar duen denboraren artean, ez doazelako erritmo berean, Bifok azaltzen duen bezala.³¹⁵ Lehena, jakina, bigarrena baino askoz bizkorrago gertatzen da. Batak bestearekin kointziditzea lortu nahi denean, talka bat sortzen da. Bat ez etortze horrek, aldaketa teknologikoetara etengabe egokitu beharrak, izugarritzko ahalegina eskatzen dio gizakiari. Teknologietan ondo moldatu behar du, eguneratuta egon, azken berrikuntzen berri jakin, eta horrek halako itolarri bat sortzen dio, ezintasuna, nekea. Gizakiaren sistema fisiko, emozional eta intelektualari nekeza egiten zaio etengabeko lehiakortasunak eragiten duen hiperaktibitatea, eta horrek, zalantzarik gabe, baditu ondorioak gizakiarengan.

5.1.3. Etenik gabeko oraina

*«La cultura del proyecto es la traducción productivista de esta condena a la permanente actualización. Cualquier configuración que hagamos de nuestro ser, queda agotada en su mismo proceso de articulación y ha de ser reemplazada por otra. Esta es la naturaleza estructural de la idea de proyecto: concentrar toda la energía en una producción que, en última instancia, no tiene otro objetivo que ser desplazado por un proyecto nuevo. Hacemos proyectos para asegurarnos otros proyectos.»*³¹⁶

Martí Peran

314 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (48. or.).

315 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (21. or.).

316 PERAN, Martí: *Indisposición general. Ensayo sobre la fatiga*, Hiru, Hondarribia, 2016 (34. or.).

Gailu teknologikoak, ordenagailu, tableta, mugikor, argazki-kamerak eta abar behin eta berriz berriztatu eta aldatzen dira, eta horiekin batera, gailuon funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren programa eta aplikazio guztiak ere bai. Eguneratuta egoteko beharra ez da teknologia edo aplikazioekin soilik gertatzen den kontua. Munduan jazotzen ari diren gertakari garrantzitsuenak, modako azken telesaila, unekoa den musika-taldea, sarean arrakasta betean dagoen bideoa, pentsamendu garaikideko azken joera, den-denean azkenekoetan azkena ezagutu nahi da. Gizakiak eguneratuta egoteko premia sentitzen du bizitzako esparru guztietan. Eskaintza infinitua da, ordea, eta dena ikusi, dena entzun eta dena jakitea ezinezkoa da. Egunero berritzen da zerbait, egunero da berrikuntzaren bat, albiste berriren bat. Eguneratuta egotea sekula bukatzen ez den eginkizuna da, amaierarik gabeko zeregina.

Eman dezagun goizean jaiki eta egiten dugun lehenengo gauza posta elektronikoa begiratzeari dela. Mezu batzuk irakurri eta erantzun egingo ditugu; beste batzuk, irakurri baino ez; eta batzuk zuzenean zakarrontzira joango dira. Hala, bada, zerrenda osoa gainbegiratzeari ekingo diogu, amaitu dugula ikusi arte. Eguna hasi berritan zeregin hori bukatutzat eman eta lasai gera gaitezkeela iruditu arren, bazkalordurako berriro ere mezu berriz beterik aurkituko dugu sarrerako ontzia. Eta goizean egindako gauza berbera errepikatuko dugu, kontagailua berriro ere hutsean utzi arte. Posta elektronikoarenak ez du amaierarik, ordea. Eta beste horrenbeste gertatuko zaigu sare sozialetan partekatutako komentario, argazki eta bideoekin. Hasiko gara halakoak irakurri, ikusi, entzun eta erantzuten, baina eduki berrien sarrera etengabekoa da. Eguna amaitzerako, egunaren hasieran genituen adina mezu elektroniko, bideo, komentario, zorion-mezu edo irakurri gabeko artikulua izango ditugu. Eta horrela egun bat, eta hurrena, eta hurrena...

Lanaren esparrura zuzenduz gero begirada, fenomeno berberaz ohartuko gara. Lan industrial fordistan, norbera lantokian finko egiten zutenean, erlaxatu eta arnasa lasai hartzen has zitekeen. Bere burua arriskutik kanpo ikusten zuen orduan, babestua, seguru. Gauza arrarorik gertatu ezean, bazekien bere ibilbidea han amaituko zuela. Baina lehiatzera behartzen gaituen testuinguru neoliberal honetan, ez dago atsedenerako tarterik. Garai-pen baten pozak ez du askorik irauten, biharra ez dugulako ziurtatua inondik ere. Lana prekariora bihurtu da, aldizkakoa. Proiektuka lan egiten denean, bekei eta diru-laguntzei esker ateratzen denean bizimodua, ez dago lasaitasunerako tarterik. Egonkortasun ezak eta ziurgabetasunak etengabe deialdien menpe egotea eta lehian ibili beharra eragiten dute. Egoera horretan urteak eman arren, Zafrak kontaktzen duen bezala, egun batetik bestera mapatik desagertzeko arriskuan bizi da bat.³¹⁷ Egoera bat-batean alda daiteke, eta beraz, zeregin nekagarria den arren, ezin da guardia jaitsi ziurtasunik ezak zeharkatutako bizimodu honetan.³¹⁸ Bizitza guztirako lan egonkorrik ez dago. Autoprodukzioaren subjektuak bere lana sortzeko eta kudeatzeko ardura osoa du. Ikusgaitasuna bermatzea, profila eguneratuta edukitzea eta kontaktuen sarea zaindu eta handitzea ere berari dagozkio.

317 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (62. or.).

318 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (157. or.).

Eta hori guztia gutxi balitz bezala, lan-munduak bizi duen egonkortasun ezak eta lehiakortasun basatiak etenik gabeko prestakuntzaren beharra ere ekarri dio.³¹⁹

Modernitateak eskain zitzakeen lana eta bizimodua kritikagarriak izanagatik ere, etorkizuna planifikatzeko eta bizimodu egonkor baterako aukera eskaintzen zuen behinik behin. Oraina sakrifikatzen zen etorkizuna bermatze aldera. Erregimen neoliberallean, orain azalduko dugun bezala, kontrakoa da: orainean iltzatuta gaude, etorkizuna nola ezeztatzen den ikusten.

Egunerokotasuna aldatzen doa, eta erritmo horretara egokitzen jakin behar da. Gizarteak hartu duen izaera aldakor, malgu eta ezegonkorra aditzera emateko, metafora moduan, likidoekin alderatzen du Baumanek.³²⁰ Solidoek denboraren joanean forma bera dute beti, baina likidoek ez dute formarik, fluidoak dira, eta ondorioz, aldakorak. Baumanen arabera, ongizate-gizartea solidoa zen, balio eta oinarri sendoen gainean eraikia. Baina balio eta oinarri haiek baliagarri izateari utzi eta gero, ziurgabetasuna etorri zen. Merkatuen desregularizazio eta liberalizazioaren ondorioz, dena bilakatu zen aldakor, malgu, likido; ezinezkoa zen etorkizuna aurreikustea, bizitza egonkor bat eraikitzea. Ildo beretik, likidoak zernahi edukiontzitara egokitzeko duen gaitasun hori bera eskatzen zaio orain subjektu neoliberalari; izan dezala gaitasuna oraingo malgutasunera eta ziurgabetasun-egoerara egokitzeko.

Nobedadeak, azken berrikuntzak, zuzenekoak eta bat-batekotasunak dute orain lehenetasuna. Baina aldi berean, desorientazio itzeleko garaia da oraingo hau, Lipovetsky eta Serroyren iritziz.³²¹ Informazio, datu eta irudi gehiegia, eta eremu guztietako produktu eta zerbitzuen eskaintza komertzial amaigabea, egungo gizartearen ezaugarri nagusietako bat dira, zalantzarik gabe. Bi autore horiek azaltzen duten moduan, kontsumitzaileak sekula ez du izan orain bezainbesteko aukera zabalik musika, zinema, teknologia, moda, elikadura eta turismoan, esate baterako. Eta gehiegikeria horrek estimulu, informazio eta datu guztiak barneratzeko ezintasuna sortzen du, garunak informazioz gainezka bukatzen du.

Azelerazioa, informazio gehiegia eta eguneratuta egon beharraren kondena direla eta, gaur egungo subjektuak bere esperientzia orainetik haratago proiektatzeko arazoak ditu.³²² Epe luzera begiratu eta pentsatzeko aukera ezeztatuta geratu da, eta haren orde epe motzekoa baino ez dugu.³²³ Orainaren *loop* errepikakorraren menpeko gara. Hedonismo indibidualista eta kontsumista honek³²⁴ aldaketa horren berri ematen digu:

319 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (81. or.).

320 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (8. or.).

321 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (23. or.).

322 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (34. or.).

323 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (134. or.).

324 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (53. or.).

orainaren diktadurak etorkizuna ukatu duen honetan, orainaz gozatzea bihurtu da helburu posible bakarra.

5.1.4. Hiperaktibitatea

Break dioenez, gaur egun gizakia zentzu, emozio eta afektu bila dabil, bizitza psikikoa asetzeko gogoz eta bizi-esperientziak areagotzeko gosez, horixe du eskaera nagusietakoa. Kapitalismo berantiarrean nortasuna eraikitzea da subjektuaren helburu nagusia.³²⁵ Subjektu garaikideaz ari garela, autoprodukzioa eta autorrealizazioa, desira baino gehiago, Craryk esaten duen bezala, haren ardura eta eginkizuna dira orain.³²⁶

Subjektibazioaren edo nitasunaren produkzioa bai lanean eta bai lanetik kanpoko denboran egiten da. Kontsumoak, gutxieneko bizi-baldintzak bermatu eta gero, norberaren burua eraiki eta definitzeko funtzioa betetzen du. Break aipatzen dituen subjektibitatearen industriek, hain zuzen ere, funtzio hori bereganatu dute, geroagoko atal batean azalduko dugun moduan. Iragarkien munduak zoriontasuna, edertasuna, osasuna, solidaritatea, errebelia eta beste hamaika ideia errealitate bihurtzeko aukera promesten du. Kontsumitzaileak, berriz, bere nortasuna eratu, aldatu eta modelatzen du, merkatuan eskuragai dituen objektu eta zerbitzuak kontsumitzearen bidez. Kontsumitzea nortasuna eraikitzeko ezinbesteko jardura da.

Harveyk gogorarazten digunez, hauxe idatzi zuen Gorzek, zeri eta 1968ko mugimendu iraultzaileari buruz ari zela: kontsumo-gizartearen etorrerarekin askatasunaren ideia kontsumorako aukerara mugatu zela azkenerako.³²⁷ Hiperkontsumoaren gizartean,³²⁸ eskaintza are eta zabalagoa izanik, badirudi norbanakoak bere desirak asetzeko, bere burua errealizatzeko eta zoriontasuna lortzeko aukerak ere ugaritu egin direla. Hainbat alorretan aniztasuna edo aukerak eskaintzearen aldeko apustua egin du Mendebaldeko gizarteak. Informazioa, datuak, filmak, diskoak, liburuak, artelanak eta abar zenbatezinak dira. Historia guztian zehar sekula ez da orain bezainbeste irudi, objektu, merkantzia eta zerbitzu produzitu eta kontsumitu. Merkantzia bat erosterakoan, kontsumitzaileak informazioa jaso, konparatu eta erabakia hartzeko hausnartu egiten duenez, eta eskaintza zabal baten aurrean aukeratzeko gaitasuna erakusten duenez, askatasuna ematen dion zerbait balitz bezala bizi du jardura hori. Kontsumitzailea ez da subjektu pasiboa, baizik eta aktiboa. Eta hiperkontsumoaren garai honetan, aktiboa baino, hobeto esanda, hiperaktiboa.

325 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (198. or.).

326 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (81. or.).

327 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (267. or.).

328 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (64. or.).

Izan ere, aukera zabala izateak erabakia hartzeko prozesua ere zaildu egiten du. Aukerak izatea ez izatea baino desiragarriagoa egiten da. Baina aldi berean, azelerazioaren garaian horren askotarikoa denean aukera, ez dago nahikoa denbora erakargarri egiten zaigun oro ikusi, probatu, esperimentatu eta kontsumitzeko. Zaharkitzapen programatuaren eraginak, gainera, eskaintza horren guztiaren amaierarik gabeko mugimendua eragiten du. Zer hautatuen aukera hain da zabala, gehiegia, neurrigabea, nahiko litzatekeen gutzira iritsi ezina egiten baitu, eta hala, aukeraketa obligazio bihurtzen. Gaur egun eskura dugun aukera-sorta itzelak sentsazio kontrajarriak sortzen ditu, Zafrak adierazten duen bezala.³²⁹ Batetik, aukera horiek guztiak eskura direla jakiteak lasaitasuna eta poztasuna eragiten ditu. Baina bestetik, antsietatea eta estresa ere sortzen du, autore horrek dioenez, hainbeste entzun, irakurri, esperimentatu nahi eta ezin iritsiak. Horrenbestez, askatasun-aukerak antsietate- eta frustrazio-forma har dezake.

Aukeren gehiegiak haien artean hautatzeko eta erabakiak hartzeko zailtasuna eta ezintasuna sor ditzake, nahasmena, desorientazioa, noraeza. Arazoa hor ez da aukera falta edo urritasuna, baizik eta gehiegizko aukera izatea. Gainproduktioak eta gehiegiak giza-kiarengan eragiten duen gainezka egoteko sentsazioari bizimoduak hartu duen abiada gehituta, azkenerako eragiten duena estutasun moduko bat da, edo paralisia, blokeoa. Halako abidan hainbeste ikusi eta esperimentatu nahi denean, begiratu bai baina ez da ezertxo ere arretaz ikusten, ez da ezer sakon esperimentatzen, eta azkenean, izandako aukera bakoitzari behar adinako etekina atera ez diolako zaporea gelditzen zaio bati, iruzur-sentsazioa, desengainuarena, desilusioa; azken batean, zerbait galtzen ari delako irudipen etengabekoa.

Horren barneratua dugu produkzio-eredu kapitalistaren logika, lanetik kanpoko denbora libreari ere errentagarritasuna ateratzera eramaten baikaitu. Denbora ahalik gehien aprobetxatu behar da. Errendimenduaren subjektua ez da gai bere denbora librean ezer egin gabe egoteko. Ohean behar baino denbora gehiago pasatzen badu, denbora xahutzen ari delako kulpa-sentimenduak berehala harrapatu eta gaizki sentiaraziko du. Ezer ez egitea denbora alferrik galtzearen pareko da, utzikeria da, porrota. Hiperaktibitateak eta hiperarretak agintzen duten oraingo kultura honetan, ez da onartzen ezer egin gabe egotea, Hanen esanetan. Aspertuta egotea ere debekatuta dago.³³⁰ Denborari ahalik eta etekin handiena ateratzeko nahiak edo beharrak bultzatuta, subjektuak *multitasking*³³¹ edo 'multiataza' izateko ezaugarria garatu du: zenbait jarduera aldi berean egiteko gaitasuna, alegia.

Bizirik sentitzeko beharrak aktibo eta produktibo egotera eramaten du subjektua, jarduera bat baino gehiago aldi berean egitera. Lagunekin tabernan zerbait hartzen ari den bitartean, laneko mezuei erantzuten die. Lanerako bidean autoa gidatzen ari den bitartean,

329 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (35. or.).

330 HAN, Byung-Chul: *La sociedad del cansancio*, Herder, Bartzelona, 2016 (1) (35. or.).

331 Iturria: <https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles/multitasking>

Internetetik deskargatutako ingelesezko ikastaroak entzun eta lan egiteko aprobetxatzen du. Bizikleta estatikoan ariketa fisikoa egiten duen bitartean, kongresu bateko hitzaldia ikusten du *streaming* bidez. Gero eta gehiago, atsedenerako tarteari errendimendua aterara beharrean dagoen oraingo subjektua, subjektu garaikidea, subjektu hiperaktiboa da, Peranek³³² nahiz Craryk³³³ baieztatzen duten bezala.

5.1.5. Niaren produkzioa

5.1.5.1. Nortasun materialetik espektakuluaren nortasun immaterialera

Nitasuna edo nortasuna, bakoitzaren izateko eta munduan egoteko modua, unean uneko garai eta testuinguruak definitzen du hein handi batean.³³⁴ Esparru politiko, sozial eta ekonomikoak baldintzatzen dute, eta aldakorra da.

Artistak diziplina bakar bat lantzen zuen. Ofizio bat ikasi, eta horretan trebatzen zen. Margolaria izango zen, edo eskultorea, idazlea, poeta. Nortasun artistiko definitu bat zuela esan daiteke. Orain, ordea, arte-praktika diziplina anitzekoa delako, batetik, eta artetik bakarrik bizimodua ateratzea ezinezkoa egiten delako, bestetik, artearen eremuan aritu nahi duenak beste ogibide batzuekin tartekatu behar du nahi eta nahi ez. Orain, aldi berean artista, DJ eta supermerkatuko langile izan daiteke bat. Artistaren nortasuna lausoa da.

Langile fordistaren kasuan, fabrikaren inguruan antolatutako bizimoduak eraikitzen zuen haren nortasuna; han jasotako ezagutza, esperientzia, harreman eta sinboloen bitartez eratzen zen hura. Fabrikako lana oinarri zuen bizimoduak langilearen nortasuna produzitu zuen.³³⁵ Baina Mendebaldeko herrialdeetan lan industrialia gain behera amildu eta gero, fabrika erraldoia eta haren inguruan produzitzen zen ezagutza, esperientzia, harreman eta iruditeria guztia deseginez eta urtuz joan dira, eta haiekin batera langilearen nortasuna ere bai.

Nortasuna lanak definitzen zuen lehen, lana egonkorra zelako. Baina betirako lana desagertu den neurrian, lana malgu, ezegonkor eta aldizkako bihurtu den heinean, lanaren bitartez eraikitzen den nortasuna ere ezegonkorra bilakatu da. Langileak, fordismo garaian, nortasun definitu bat zuen, sendoa, solidoa. Langilearen oraingo nortasuna ez da horrelakoa, aldakorragoa, malguagoa, konplexuagoa, lausoagoa, likidoagoa bihurtu da.

332 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (11. or.).

333 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (26. or.).

334 SIBILIA, Paula: op. cit., 2013 (20. or.).

335 PÉREZ OROZCO, Amaia: *El trabajo (es una lata)*. Iturria: <https://www.elsaltodiario.com/laboral/el-trabajo-es-una-lata> Lanak nortasun bat ematen zion langileari. Baina lanaren bitartez nortasun bat eraikitze hori nagusiki gizonezkoen kasuan gertatu da, Pérez Orozcoren esanetan. Emakumezkoen nortasuna oso bestelako oinarrien gainean eraiki da: etxeko eremuko lana, zaintza, ordaindu gabeko lana, aintzatespen sozialik gabeko jarduna.

Neoliberalismoko langileak ez du fordismo garaikoak bezalako nortasun definiturik.³³⁶ Gaur egun, beraz, lotura hori apurtu denean, lanak ez duela nortasuna edo nor izatea emateko balio ondoriozta daiteke.

Modernitatean ni sendo bat eraiki eta sostengatzen zuten instituzioak (fabrikarekin batera familia, estatua eta erlijioa, esaterako) kolokan jarriak izan dira. Horregatik, beste erreferentzia, helduleku eta oinarri batzuen beharrean dago gaur egun subjektua. Break esaten duen bezala, ekonomiaren eta kulturaren mugak desegin eta bata bestean urtzetik sortutako industria kulturalak dira (aisia, entretenimendu eta espektakuluaren industriak, alegia) nortasuna eratzeaz arduratzen direnak orain.³³⁷ "Subjektibitatearen industria" izendatzen dituen haiek dira, Brearen esanetan, nortasuna eraikitzeke boterea duten operadore sinboliko ahaltsuenak, zalantzarik gabe. Esan daiteke, nolabait, subjektibazio-prozesuetan lanaren esparruak protagonismoa galdu ahala kontsumoaren esparruak irabazi duela. Markek gaur egungo gizartean berebiziko boterea eta influentzia dutela eztaba daezina da, Naomi Kleinek bere saiakera batean esplikatzen duen moduan.³³⁸ Nortasuna, gaur egun, kontsumoaren bitartez eraikitzen da nagusiki, Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek ere esaten duten bezala.³³⁹

Nitasuna, kontsumoaren bitartez eraikia izateaz gain, produzitua ere bada. Industria kulturek eta markek sekulako eragina dute, esan berri dugun bezala, baina gainera, Internetek, sare sozialek eta gailu teknologiko berriek bizitzako eremu guztiak goitik behe-ra aldatu dituzte. Oraingo testuinguru berri honetan, Sibilia esaten duenez, subjektibitate berriak diseinatzen eta esperimintatzen ari dira.³⁴⁰ Praktika horiek, hain zuzen, izateko eta munduan egoteko modu berriak ematen dizkigute aditzera. Sibiliaren aburuz, oraingo nortasun zeharo ahulduak, indarberritzeko, izan badela adierazteko, ikusgaitasuna lortu eta errealizatua sentitzeko, Internet, sare sozial eta pantailen glamourrera jo du. Nortasun indibidualizatu hau besteen aurrean agertzeko eta bere burua nabarmentzeko irrikan dago. Bere pertsonalitatea eta bizitza pribatua, inolako lotsa, kezka eta beldurrik gabe eta berak hala nahi duelako, jendaurrean erakutsi eta jakitera ematen ditu subjektu garaikideak.

Besteek norbera ikus dezaten nahi izatearen arrazoia batzuetan ikusgaitasun hutsa den arren, zenbaitetan errentagarritasuna lortu nahia dago horren atzean; halaxe gertatzen da beren burua promozionatu nahi duten artista askoren kasuan, adibidez. Nork bere talentua, abilezia, autopromozioa eta autosalmenta gauzatu behar ditu, eta horretarako, ikusgaitasuna ezinbestekoa da. Lehia itzela da. Horixe baita merkatua: ni askoren arteko norgehiagoka. Eta arlo horretan ikusgaitasuna ezinbestekoa egiten zaio bati, posizio

336 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (61. or.).

337 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (24. or.).

338 KLEIN, Naomi: op. cit., 2007.

339 AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: "Gorputzen elkargunea, bizi dugun lurraldea" kapitulua, *Jakin* 221-222. *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean*, Donostia, 2017 (32. or.).

340 SIBILIA, Paula: op. cit., 2013 (104. or.).

onean kokatuko bada. Bakoitzak bere buruaren produkzioa egiten du, bere subjektibitatea eraikitzen du. Subjektuak orain bere burua marka bihurtzea, merkatuan lehiatzea eta balioa produzitzea du xede, Zafraren esanetan.³⁴¹ Marka eraikitzearen helburua, besteen begirada erakartzeaz gain, kapital sinbolikoaren jabe egitea da, etorkizunean kapital horretatik errentagarritasun ekonomikoa lortuko duen esperantzan. Izan ere, ikusgaitasunaren kulturaren erabateko garrantzia du irudiak, haren bidez baititugu besteekin harremanak. Lehiakortasuna arau den gizarte honetan, harremanak egiterakoan, kapital soziala metatzerakoan, ezinbestekoa da norberaren bertsiorik onena eskaintzea. Sibilia esaten duen bezala, norberaren irudiak erakargarria izan behar du, interesgarria, eta horren ondorioa, azkenean, niaren fikzionalizazioa, estetizazioa eta espektakularizazioa dira:

*«Por eso, hay que convertir el propio yo en un show, hay que espectacularizar la propia personalidad con estrategias performáticas y aderezos técnicos, recurriendo a métodos semejantes a los de una marca personal que debe posicionarse en el mercado. Porque la imagen de cada uno deviene su propia marca, un capital tan valioso que es necesario cuidarlo y cultivarlo con el fin de encarnar un personaje atrayente en el competitivo mercado de las miradas».*³⁴²

Ingrid Guardiolen esanetan, ni neoliberalaren nortasuna besteen aurrean atsegin izateko moduko nortasun bat eraikitzean sostengatzen da. Prozesu horretan, askatasunaren eta duintasunaren lekua ikusgaitasunak eta besteen aintzatespenak hartzen dute, eta hala, ezin proiektu gizatiar erabat ezinezkoa da.³⁴³

Sorkuntzaren demokratizazioa gertatu da eta edonor izan daiteke orain artista.³⁴⁴ Ikusgaitasunaren espektakulu globalean, niaren produkzioa ezinbestekoa da, subjektua nor izango bada. Eraiki eta erakusten den irudiak garrantzi eztabaidaezina du munduan tokia izateko. Nia nolakoa izatea nahi den, halaxe diseinatu eta neurrira egiten da. Sorkuntzalanaren parte garrantzitsua ez ezik, irudia bera sorkuntza-lana da. Horregatik, subjektuak, toki, ordu, janzkera eta orrazkera egokia aukeratu eta posea entseatu ostean, hamaika *selfie* egin eta gero, guztien artetik bat aukeratu eta hura editatzeari lotuko zaio, besteen aurrean eman nahi duen irudia lortu arte. Rolnikiek esaten duen bezala:

*«Ordena berri honetan, artearekin zerikusia duten gauzak zerbait salgarria bihurtu dira, baina baita ere, eta nagusiki, beste zerbait edo norbera saltzeko lagungarri diren zerbait».*³⁴⁵

341 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (33.-35. or.).

342 SIBILIA, Paula: op. cit., 2013 (292. or.).

343 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

344 SIBILIA, Paula: op. cit., 2013 (200. or.).

345 ROLNIK, Suely: "A vida na berlinda". Iturria: <http://www.pucsp.br/nucleodesubjetividade/Textos/SUELY/Berlinda.pdf> Jatorrizko testutik geuk euskaratua.

5.1.5.2. Nortasun indibidualizatuaren ahulezia

Neoliberalismoan, estatuak langileari ematen dion babes-maila izugarri murriztu da. Agirrek eta Eskisabelek ohartarazten diguten moduan, azken faseko kapitalismoaren ezaugarri nagusietako bat da estatuaren bitartekotza galdu egin dela, eta gizabanakoa eta merkatua aurrez aurre geratu direla orain, ia-ia inolako arartekorik gabe.³⁴⁶ Estatua eta enpresariak jada ez dira derrigortuak sentitzen langileei lanpostu ziur eta iraunkorrak bermatzera. Lan-merkatuaren ezegonkortasunari aurre egiteko langileek tradizionalki izan dituzten babes sozialak desegin egin dira. Merkatuaren desregularizazioa dela eta, ziurgabetasuna eta bermerik gabeko etorkizuna ditu aurrean langileak. Lipovetskyk esaten duen bezala, langilea da bere buruaren jabe orain, eta langileari dagokio bere burua eraikitzekeo ardura:

*«[...] cada cual se observa, se comprueba, se vuelca sobre sí mismo en busca de la verdad y de su bienestar, cada uno se hace responsable de su propia vida, debe gestionar de la mejor manera su capital estético, afectivo, psíquico, libidinal, etc.»*³⁴⁷

Lan tradizionalaren oinarriak deuseztatu eta langileak malgutasunera eta prekarietatera bultzatzearekin batera, subjektu ekintzaile, autonomo eta malguaren figura dugu orain, betiko langile-klase zaharraren jarraipena. Norberaren ongizatea eta existentzia indibiduala dira orain subjektuaren lehentasunak. Gaur egungo pentsamendu hegemonikoaren logika mundua nian hasi eta nian bukatzen dela sinestea da, Agirrerren eta Eskisabelen esanetan.³⁴⁸ Indibidualismoaren garaitik hiperindibidualismoaren garaira pasatu gara, Lipovetskyren iritziz.³⁴⁹ Indibidualtasuna erabatekoa da. Aske bizitzea, autorrealizazioa, nork bere bizitzarekin nahi duena egiteko aukera izatea eta hartaz ahalik gehien gozatzea, horiek guztiak ideologia indibidualistaren azken agerpenak dira:

*«El ideal moderno de subordinación de lo individual a las reglas racionales colectivas ha sido pulverizado, el proceso de personalización ha promovido y encarnado masivamente un valor fundamental, el de la realización personal, el respeto a la singularidad subjetiva, a la personalidad incomparable [...]»*³⁵⁰

Badirudi indibidualtasunak aske izateko aukerak eskaintzen dizkiola subjektuari. Zurruntasunak malgutasunari eman dio bidea, eta solidoak, likidoari. Baumanek dioen bezala, ordea, likidoek, forma zehatz bat izan eta gordeko badute, izugarrizko arreta, etengabeko zaintza eta amaigabeko ahalegina eskatzen dute. Subjektu garaikidea malgua da, likido

346 AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: *Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=AWYBpLLTTCc>

347 LIPOVETSKY, Gilles: *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*, Anagrama, Bartzelona, 1992 (24. or.).

348 AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: op. cit. (32. or.).

349 LIPOVETSKY, Gilles: op. cit., 1992 (12. or.).

350 Ibidem (7. or.).

baita ere, eta alde horretatik, Baumanek esaten duenaren harira, askatasun-esperientziaren aukera izan nahi badu, inoiz ez bezalako ahalegina egin beharko du, erantzukizun osoa eta ondorioen ardura bere gain hartzea, neoliberalismoaren logikaren pean.³⁵¹ Ildo beretik mintzo da Byung-Chul Han ere. Autore horren esanetan, diziplinazko gizartean kanpotik ezarritako agindu eta debekuen bitartez funtzionatzen zuen subjektuak, eta errendimenduaren gizartean, aldiz, kanpoa desagertu egin baita, inizatiba eta erantzukizun osoa subjektuarengan ipintzen da.³⁵²

Langilea ekintzaile, subjektu enpresa edo freelance bihurtu deneko ekonomia berri honetan, autonomia, autoprodukzioa, autorrealizazioa eta askatasuna jada ez dira aukera, baizik eta arau.³⁵³ Ez zaitez kexatu. Zeure burua prestatu, eraiki, produzi ezazu. Saia zaitez, egon aktibo, lan egin. Izan inizatiba, asmatu zerbait, sortu zure aukerak. Hori da kapitalismoaren produkzio-indar berria. Peranek dioen bezala, gainbalioa orain autogestio horretatik dator, autoprodukziotik, alegia.³⁵⁴ *Do it* subjektua autoprodukzioaren subjektua da, eta *Do it* programaren mandatua, berriz, autorrealizazioa.³⁵⁵ Subjektu hori, subjektu indibiduala, lehiakorra, nekazina eta eguneko 24 orduetan bere buruaren produkzioaz arduratzen den subjektu autoesplotatua da, denbora librean ere lan egiten duen subjektua, alegia.

Norberaren nagusi izanda bere burua asketzat daukat subjektua ez da gai besteekin modu librean harremanak sortzeko. Langilea lehiakorra eta indibidualizatua izanik, etekinak eta errendimenduaren logikak baldintzatzen dute. Bakartasun-egoeran, antolaera kolektiborik gauzatzeko gai ez denez, ekintza bateraturako ezindua ageri da. Erregimen neoliberalak isolamendu erabatekoa sustatzen eta bideratzen du, hiperindibidualismoa, eta horrek ez du subjektua aske egiten, Marxen hitzei jarraituz. Marxek ez zuen askatasuna indibidualtasunaren lorpen gisara ulertzen. Askatasun indibiduala kapitalaren tranpa bat zela zeritzon. Askatasun indibidualaren promesa dakarren lehia librearen logikaren pean, askatasuna morrontza bilakatzen da, kapitalismoaren helburuetan azkena eta bakarra bere burua ugaltzea delako. Kapitalak, bere erreprodukzioa bermatzeko, gizabanakoaren askatasuna esplotatzen du, Marxek zehazten duen bezala:

*«En la libre competencia no se pone como libres a los individuos, sino que se pone como libre al capital».*³⁵⁶

Nozio batek, bere-berez, ez digu ezer esaten. Abstraktua eta anbibalentea da, baldin eta testuinguru bat ematen ez bazaio. Ildo horretatik, neoliberalismoaren logikaren pean sustatzen den indibidualtasunak nortasun prekario eta kaltebera bat eraikitzen amaitzen

351 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (13. or.).

352 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (29. or.).

353 NAVARRETE, Carmen: op. cit., 2017 (109. or.).

354 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (11. or.).

355 Ibidem (45. or.).

356 MARX, Karl: *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política (Grundrisse) 1857-1858*, II. lib., Siglo XXI, Madril, 2007 (2) (167. or.).

du. Marxek esandakoari jarraituz, gizabanakoak komunitatearen parte izanda baizik ez ditu bere dohainak garatu ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko guztiak. Eta alde horretatik, besteekin harremanean eta komunitatearen barruan soilik lor dezake benetako askatasuna.

5.1.5.3. Nortasuna eta klasea

María Ruidok azaltzen duen bezala, proletariotza berria jada ezin da klasearen nozio tradizionalaren irizpideen arabera aztertu.³⁵⁷ Industria Iraultzaren hasieran klase-borroka kapitalistaren eta proletariotzaren klaseak kontuan hartuta planteatzen zen, baina formulazio hori ez da nahikoa gure garaiaz gogoeta egiteko.

Guy Standingen arabera, lanaren mundua horrenbeste aldatu da, ezen garai bateko langileria-masa uniformea osatzen zuen proletariotzaren kontzeptua motz gelditzen baita gaur egungo lan-egoera konplexua ulertzeko. Langile postfordistaren ezaugarriak eta fordismo garaiko proletarioarenak zeharo bestelakoak dira. Oraingo klase berria definitzeko, prekario eta proletariotza hitzak elkartetik sortzen den “prekariotza” kontzeptua proposatzen du Standingek.³⁵⁸ Proletariotzaren aldean, prekariotzak ogibide ezegonkorra du, ez ziurra, lana maiz aldatzen du. Ez du babesik, ez eta lan-eskubiderik ere, eta lan finkoak lehen eskaintzen zuen nortasunaren galera pairatzen du, gainera. Lan-egoera malgu eta ezegonkorak bizimodu malgu eta ezegonkorra du ondorio. Prekariotzako langileak ikasketak ditu, askotan goi-mailakoak, baina kalifikazio baxuko lanetan jarduten du. Etengabe ari da bere burua trebatzen, birziklatzen, curriculumak prestatu eta bidaltzen, kontaktuak egiten, lanpostu bat lortu edo duena baino hobeago batera salto egiteko aukerak asmatzen. Prekariotzaren lana soldatapeko denboratik haratago ere gauzatzen da; alegia, lanetik kanpo, lanean jarraitzen du. Prekarietatea ez baita soilik pobre izatea, Agirrek eta Eskisabelek azaltzen duten moduan.³⁵⁹ Prekarietatea, aberats edo eskale, eguneroko ezegonkortasunaren pendizetik behera etengabe amiltzeko zorian egotea da.

Artearen esparruko langilea, esate baterako, Standingek proposatzen duen klasearen noziotik gertuago dago Floridak proposatzen duen “klase kreatibo” noziotik baino. “Klase kreatibo” horren barruan daude, artistekin batera, zientzialariak, ingeniariak, unibertsitateko irakasleak, poetak, idazleak, aktoreak, diseinatzaileak, arkitektoak eta pentsalariak.³⁶⁰ Floridaren esanetan, langile kreatibo horiek, kalifikaziorik gabeko zerbitzu-lanetan dabiltzaten edo muntaketa-katean jarduten dutenen aldean, beren jardueraren bitartez gehiago gozatzeaz gain, askoz ere diru gehiago irabazten dute.³⁶¹ Autore horrek proposatzen duen

357 RUIDO, María: “Los trabajos y los días”. Iturria: <http://www.workandwords.net/es/texts/view/594>

358 STANDING, Guy: *El precariado. Una nueva clase social*, Pasado y Presente, Bartzelona, 2013 (26. or.).

359 AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: op. cit. (31. or.).

360 FLORIDA, Richard: op. cit., 2010 (47. or.).

361 Ibidem (14. or.).

klase nozioa oso problematikoa da, sorkuntzaren esparruan lan egiten duten artisten egoeraren errealtatea oso bestelakoa delako, orain arteko zenbait ataletan ere aipatu dugun moduan. Aldiz, Standingen prekariotza nozioarekin zeharo bat egiten dute artista eta kultura-produktore ugari, multzo horretan garbi ikusten dute beren burua, artearen lan-esparruan pairatzen den prekarietateari buruz ikertu duen Teresa Marín Garcíaren arabera.³⁶² Floridaren klase kreatiboak espiritu kapitalistari erantzuten dio, inolako zalan-tzarik gabe.³⁶³ Kultura eskuindarraren ametsa dela esaten du Ingrid Guardiola:³⁶⁴ klase kreatiboa, kreatiboa izateaz gain, apolitikoa delako, teknologia berrien erabiltzaile sutsu, eta zoriontasun faltsu baten adibide.

Hardtek eta Negrik proposatzen duten “*multitude*”³⁶⁵ kontzeptua motz gelditzen zaigu, klasea zer den ulertu eta egungo lanaren osaera berria zertan den eta artistak hor zer leku hartzen duen aztertzeko. Autore horiek proposatzen duten nozioak, izan ere, ez du adierazten langileriaren barruan dagoen pluraltasuna, kontrakoa baizik: langile-klasearen barruan diferentziarik ez dagoela ematen du aditzera termino horrek, “*multitudea*” langileez osatutako masa homogeneo bat dela pentsatzera eramaten gaituen neurrian. Baina Federicik esaten duen moduan, hori ilusio bat besterik ez da, eta horren barruan dauden botere-harremanak ez dituzte aintzakotzat hartzen pentsalari horiek.³⁶⁶ Berdintasunik ezaz ohar-tzeko, begiratu besterik ez dago genero-ikuspuntutik, esaterako, gizonen lan-baldintzen eta emakumeenen artean zer-nolako aldeak dauden oraindik, adibide bat ipintzearen. Lehen munduko gizarte zuri, heteropatriarkal eta burgesaren aldarrikapenak ez dira denon aldarrikapenak. Lekuan leku eta unean une, gatazkak eta horiek gainditzeko borrokak ez dira denentzat berdinak. Gizon zuri burgesaren aldarrikapenek ez dituzte beste borroka askorenak biltzen, haietatik kanpo baitaude hainbat ahotsenak: beltzak, emakumezkoak, gizarte-klase apalekoak, prekarioak... Gaia, bistan denez, biziki konplexua da.

Elkarguneko feminismoa edo feminismo interseksionala³⁶⁷ deritzon prismatik begiratuta Agirrek eta Eskisabelek diote, adibidez, pertsonok ez garela gauza bat eta bakarra, gure nortasunak ertz eta tasun askokoak direla, eta pluraltasun horretan eraikitzen direla gure nortasunak.³⁶⁸ Ondorioztatzen dute nortasunak gero eta malguagoak direla, malgutasuna adierarik onenean ulertuta kasu honetan. Agirre eta Eskisabelen esanetan, klasea baliabide materialetatik haratago doan zerbait da, eta gaur egun, zerbait izatekotan, klasea nagusiki nortasuna dela zehazten dute.

362 MARÍN GARCÍA, Teresa: op. cit., 2017 (70. or.).

363 HEATH, Joseph; POTTER, Andrew: op. cit., 2005 (235. or.).

364 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

365 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2004 (129. or.).

366 FEDERICI, Silvia: “El trabajo precario desde un punto de vista feminista”, op. cit.

367 SMITH, Sharon: “Una defensa marxista de la interseccionalidad”. Iturria: <https://marxismocritico.com/2017/10/17/una-defensa-marxista-de-la-interseccionalidad/>
Emakumezko beltzek jasaten zuten zapalkuntza bikoitza dela salatu zuten feminista beltzek: emakume izateagatik, bata, eta beltz izateagatik, bestea. Europako klase ertaineko feminismo zuria kritikatu zuten, haien borrokaren xedea beste bat zela leporatu eta ez zituztela ordezkatzeko esateko.

368 AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: *Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua*, op. cit.

5.1.6. Lehia

«[...] el oportunismo y la competición no son una desviación de esta forma de trabajo sino su estructura inherente». ³⁶⁹

Hito Steyerl

Lana "ondasun preziatua" da, baina aldi berean, eta garai edo testuinguruaren arabera, ondasun urria. Ez dago denen esku, eta are gutxiago desio izateko modukoa edo baldintza duinetan egitekoa den lana. Lanaren eskasiak langileen arteko lehiakortasuna, indibidualismoa eta eskusioa eragin eta esplotazioa areagotzen du. Lana edukitzea pribilegiotzat ere hartzen da krisiak astintzen duenean. Kapitalismo neoliberalak etekin ekonomikoa ateratzea du bere azken helburua, eta logika horrek bizitza kolonizatu du. Subjektu garaikidea logika horrek alderik alde zeharkatuta dago gaur egun. Bizitzako edozein esparrutan, lehiarako eta errentagarritasuna lortzeko bulkada ateratzen zaio etengabe. Eta garai batean diruaren eta merkatuaren eraginaren kontra agertu zen artista erromantiko, konformagaitz eta bohemioa ere jada ez dago logika horretatik salbu. Alde horretatik, hiperkapitalismoaren garaipena, ekonomikoa bakarrik ez, kulturala ere izan da, Lipovetsky eta Serroyren esanetan. ³⁷⁰

Biziraupena bermatzeko, lehiakorra izan behar da, ez dago beste biderik. Baita sorkuntzaren eremuan ere. Lehia, hori da behin eta berriz etengabe sustatzen dena. Zafraren arabera, praktika artistikoa, berdinen arteko loturak apurtzen dituen lehiaren testuinguruetan gertatzen da gero eta gehiago. ³⁷¹ Lehiakortasuna Internet sortu aurrekoa den arren, hura etortzeaz bat nabarmen areagotu da. Munduaren digitalizazioak, harremanak saretzea posible egiteaz batera, lehiarako agertoki zabal eta ikusgaiagorik ezin zuen eraiki. Plano fisiko zein birtualera eraman da borroka hori. Lanpostu, beka eta sari berberengatik lehiatu beharrean daude arte- eta kultura-produktore indibidualizatuak. Ikusgaitasuna, legimititatea, aintzatespena eta ogia daude jokoan. Lasterketa horretan giza harremanak ukituta ateratzea ekidinezina dela dirudi. Adiskidea lehiakide bihurtu da, ³⁷² eta beraz, etsai. Bigarren izatea galtzaileen artean txapeldun izatearen pareko da. Egoera are eta larriagoa gertatzen da, gainera, lehen ere esan dugun bezala, porrota eta kulpia indibidualizatu eta pribatizatu egin direnez, bere buruaren ardura osoa duen neoliberalismoko subjektua bere buruaren aurka ere borrokatzera kondenatuta dagoelako. Autoprodukzioaren subjektua ez da besteekin bakarrik lehiatzen, baizik eta, Ingrid Guardiola esaten duen moduan, bere buruaren aurka ere lehiatzen da orain. ³⁷³ Bifok honela azaltzen du:

369 STEYERL, Hito: op. cit., 2014 (102. or.).

370 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (41. or.).

371 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (25. or.).

372 Ibidem (49.-51. or.).

373 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

*«Se forma así un tipo humano que ya no sabe razonar en términos de placer, de disfrute, de tiempo, de libertad, de afectividad, sino tan sólo en términos de máximo beneficio. Esto representa [...] un efecto de empobrecimiento incalculable de la calidad de vida, de la cultura y de la misma posibilidad de sentir placer, gozar y respirar».*³⁷⁴

Ez saiatzea, ez mugitzea, pasibotasuna edo utzikeria porrotaren sinonimo dira, eta porrota, jakina, ez da onargarri. Kosta ahala kosta, garrantzitsuena anbizioa izatea da, gogoa erakustea, ahaleginean jardutea, jarrera positiboa azaltzea. Hori baloratzen da, nahiz eta merkatuaren baldintza berriek behartuta jende askok eta askok itzelezko arriskuak bere gain hartzea beste aukerarik ez duen, eta nahiz eta jakin etekina ateratzeko aukerak oso txikiak direla. Ekintzailtza sustatzen duen enpresen munduak aldaketarako beldurrik gabeko jende "ausarta" behar du, geroan zer etor litekeen jakin gabe ere arriskuak hartzeko prest dagoen jendea, jokaleku gorabeheratsuan eroso sentituko dena. Sennettek esan zuen moduan, malgutasunaren kapitalismoak oso arrisku astunak bere gain hartu beharra eta lasaitasunik gabe bizitzea dakarkio jendearen gehiengo zabalari.³⁷⁵ Irabazle eta galtzaileen logikak aginduta eraikitzen den gizarte batean, ordea, baten arrakastak beste guztien porrota esan nahi duenean, arrakasta indibiduala porrot kolektiboa da, Zafrak ondorioztatzen duenez.³⁷⁶

5.1.7. Ikusgaitasuna

*«En 1967 Guy Debord escribió un texto profético, La société du spectacle, y casi parece que los representantes del capital lo hubieran leído cuidadosamente y hubieran adoptado sus tesis como los fundamentos de sus estrategias consumistas. Ahí se incluyen desde los programas de televisión y otros productos de los medios de comunicación, como películas, conciertos, exposiciones y acontecimientos deportivos y megaculturales, hasta el turismo. Estas actividades dominan ahora el campo del consumo. Todavía más interesante es ver cómo el capital moviliza a los consumidores para que produzcan sus propios espectáculos a través de YouTube, Facebook, Twitter y otras redes sociales».*³⁷⁷

David Harvey

Walter Benjaminek esan zuen, erreprodukzio-teknikaren eragina zela medio, artearen balio errituala amaitzeaz zegoela.³⁷⁸ Produkzio-bideen sozializazioa gertatu da. Artea, zinema, telebista eta publizitatea arduratu dira iruditeriaren produkzioaz duela gutxi arte. Orain, ordea, Internet eta gailu teknologiko berriei esker, masak, bitarteko eta tresna horien jabe

374 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (214.-218. or.).

375 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (29. or.).

376 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (52. or.).

377 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (232. or.).

378 BENJAMIN, Walter: *La obra de arte en la era de su reproductibilidad técnica*, Ítaka, Mexiko, 2003 (51. or.).

baita, bere argazki eta bideo propioak ekoizten ditu. Produkzioa neurrigabea da, amaiezi-
na bihurtu da. Gizakia inoiz ez da horrenbeste irudiz inguratuta bizi izan historia luzean.
Munduaren estetizazioa errealitate bat da.

Beste behin ere, aipatutako fenomenoak gauzatu zedin, teknologiaren eragina funtsez-
koa izan da. Interneten etorrerak bizitzeko modua irauli du. Konexioaren garaia da, eta
munduan izateko eta egoteko, ordenagailuko teklatuari, tabletari edo mugikorrari lotuta
egon behar dugula konturatu gara. Remedios Zafrak azaltzen duen bezala, pantailek kolo-
nizatutako mundu batean bizi gara.³⁷⁹ Pantailei begira egunean zehar zenbat denbora
ematen dugun zenbatzea besterik ez dago horiek bizitzan zer-nolako protagonismoa
hartu duten jabetzeko. Pantailen bitartez gerturatzen gara mundura, pantailen bitartez
esperimentatzen dugu mundua, pantailen bitartez dugu harremana munduarekin. Ondo-
rioz, gure esperientzia, harremanak, izatea, subjektibitatea, nia, hori guztia alderik alde
fenomeno horrek zeharkatuta dago erabat. Apenas dagoen komunikazio edo harrema-
nik pantailak tartean direla gertatzen ez denik, eta hor, irudiak garrantzi handiko papera
betetzen du. Pantailen garaia irudiari lotuta doa neurri handi batean, eta alde horretatik,
pantailen arteko komunikazioa irudien arteko komunikazioa dela esan daiteke. Guy
Debordek espektakuluaren inguruan egiten dituen analisiek bete-betea asmatzen dute
beste behin ere:

*«El espectáculo [...] es [...] una relación social entre las personas mediatizada por las
imágenes».*³⁸⁰

Fotolog, Facebook, Instagram eta bestelako hainbat aplikaziok ikusgaitasunaren iraultza
ekarri dute. Azken batean, munduan izateko eta egoteko modu berri bat sortzea eragin
dute. Nortasunaren eta esperientziaren estetizazioa eta espektakularizazioa dira horren
ondorioa. Sibilia esaten duen moduan:

*«Vivimos una cultura de la visibilidad, la exhibición y el espectáculo [...]. La tendencia
es la performance, el ser visto, reconocido por los ojos ajenos. En la sociedad del
espectáculo aquello que no es visto no existe».*³⁸¹

Amaierarik ez duen etengabeko esposizioa da gaur egungo gizartean izateko modu
bakarra.³⁸² Lehen, intimitatea eta pribatutasuna zirela medio, subjektuak bere burua eta
gorputza babestu egin nahi izaten zituen. Orain, joera guztiz kontrakoa da. Norberaren bizi-
tza jendaurrean ageriko egin eta ikusgaitasuna lortzeko halako desira edo behar indartsu
bat hedatu da gizartean. Aintzatespena eta legitimazioa lortzeko modu eta balio-eskala

379 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2015 (17. or.).

380 DEBORD, Guy: op. cit., 2010 (38. or.).

381 SIBILIA, Paula: "La intimidad como espectáculo". Iturria: <https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=0ahUKewiXyaSG47bZAhWE7BQKHZIsAIIQFgggtMAE&url=http%3A%2F%2Falvarezteran.com.ar%2Fwp-content%2Fuploads%2F2014%2F10%2FLa-intimidad-como-espectaculo.doc&usg=AOvVaw2PQS-1skCBvwY938a9jeDN>

382 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (37. or.).

berriak sortu dira horren ondorioz. Izatea edo egotea jada ez da nahikoa. Hanek esaten duenez, ikusia izatea munduan izateko ezinbestekoa bihurtu da.³⁸³

Arrazoi horregatik, gero eta indibidualizatuagoa eta nartzisistagoa den gizarte honetan, ikusgaitasunaren eremua konkistatzea gero eta garrantzitsuagoa da. Ni guztiak, azken batean, gizartearen parte dira, eta etengabeko lehia eraikitzen da gizarte hau. Hala, sarea erakusleho erraldoi baten pareko bihurtu da, niak ikusteko katalogo erraldoi moduko bat. Ikusgaitasuna, berriz, existentzia baieztatzeko modua izateaz gain, norbera saldua edo erositza izateko aukera ere bada; aukera, edo, ni guztien arteko lehia sustatzen duen produkzio-eredu batean, aukera baino, obligazioa.

*«Frente a un video online de un artista entorno los ojos intentando moverlo o moverme, buscando intensidad o que me interpele. Pero por mucho que examine y gire la cabeza, nada. Así era que la mirada siempre se me iba al pie de foto donde rezaba: "602 visualizaciones, 17 like, 2 dislike, 5 comentarios. Se ha compartido 12 veces". [...] la ciencia que domina el gusto no se refugia ya en Internet en la estética sino en la estadística».*³⁸⁴

Ikusgaitasuna bihurtu da kultura digitalaren helburu. Hori da existitzeko era. Ahalik eta begi, lagun eta *like* gehien lortzeko lasterketa batean murgilduta dago errendimenduaren subjektua. Zenbat eta jende gehiagoren arreta lortu, ikusgaitasun handiagoa du batek. Audientzia baloratzen da, ikusle-kopurua, alde kuantitatiboa beraz, eta ez alde kualitatiboa. Astebetean zenbat *like* eta komentario izan diren, igotako edukia zenbat aldiz partekatu den, zenbat adiskide egin diren, horrek axola du. Orain, eskoletan, arrakasta gehien ez omen du mutil edo neska ederrenak, abeslari ona denak edo futboleko ondo jokatzen duenak, baizik eta sare sozialetan jarraitzaile gehien dituenak. Konexioa egunean 24 ordu eta astean 7 eguneko denean, esposizioa etengabekoa da. Nork bere aurpegiarik onena, atseginena, interesgarriena erakutsi behar du, eta denbora aprobetxatzen ari dela erakutsi, aktibo dagoela, bizitza aberats eta zoriontsua duela. Beharrezkoa da sare sozialetan nork bere bizitza erakutsi eta jarraitzaileen interesa piztu eta eustea. Hori da negozioaren oinarria.

Ikusgaitasuna eta autoestimua dira ordainsari berriak.³⁸⁵ Zafraren esanetan, balio-sistema berri bat ezarri du sarearen eta teknologia berrien etorrerak. Zenbat eta jarraitzaile, bisita edo *like* gehiago metatu, orduan eta ikusgaitasun handiagoa izango du artistak eta haren lanak, eta balioa ere horren arabera igo edo jaitsiko da.³⁸⁶ Gehien ikusia dena baita orain balioetsua. Horregatik ondorioztatzen du Zafrak sekula ez zutela begiek gaur adinako

383 HAN, Byung-Chul. "Ahora uno se explota a sí mismo y cree que está realizándose", 2018. Iturria: https://elpais.com/cultura/2018/02/07/actualidad/1517989873_086219.html

384 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2015 (89. or.).

385 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (56. or.).

386 Ibidem (26. or.).

baliorik produzitu. Interneten kulturean, ikusgaitasunarekin lotutako kopuruak definitzen du zenbat balio duen sarean jarritako edukiak, eta zenbat, eduki hori erakusten ari den subjektuak. Ikusgaitasunaren eta balioaren arteko erlazioa ezarri da Internetekin, edo beste modu batean esanda, begien eta kapitalaren artekoa:

«[...] recibir “ojos”, el bien máspreciado de las nuevas economías de la visualidad contemporánea. “Ser visto” como garantía de un mejor lugar para ser en Internet, acaso ya en el mundo». ³⁸⁷

Internet eta teknologia berrien sorrerak arte-praktikan ere eragina izan dute. Artista jenioa, marfilezko dorrean sartuta, bere bakardadean, tailerrean bakartuta, arreta bere maisulanean jarrita aritzen zen; orain, bere buruaren enpresari bihurtu den artistak bakardadearekin hautsi eta ikusgaitasuna lortu behar du. Oraingo artistarentzat, tailerrean 8 orduan lanean jardutea baino garrantzitsuagoa da lanordu-kopuru hori adina kontaktu berri egitea, edo sare sozialetan lanordu-kopuru hori adina *like* jasotzea. Nork bere kontaktu-sarea eratu behar du, sare sozialetan presentzia ziurtatu eta ikusgaitasuna lortu, eta azken finean, bere irudia eraiki, marka sortu. Eta horretarako ez da nahikoa norberaren lana erakustea; lan-prozesua, norberaren gustuak eta nolako bizimodua duen ere erakustea ezinbesteko bihurtu da.

Artistak produzitutakoa sarean erakusten du. Eta fenomeno horrek, bere lana ezagutzera emateaz batera, horri etekin ekonomikoa ateratzeko ere balio dio. Artelanak kontsumo-produktu bihurtzen ari dira gero eta gehiago. Break esaten duen moduan, ez dago jada aparteko mundurik, ³⁸⁸ eta artelanak beste objektu eta irudiekin nahasian daude orain. Artea ez dago lehen bezala erakusketa-aretoetako hormen artean zintzilik, espazio itxian gordeta. Brearen aburuz, XXI. mendeko gizarteetan, artea kubo zuriaren barruan erakutsi ordez, artea produzitu eta zabaldu egiten da. ³⁸⁹ Internet dela eta, gustuaren eta irizpidearen demokratizazioa gertatu dela esan daiteke, nolabait. Lehen, erakusketa baten inguruan, artearen esparruko aditu, kritikari edota intelektualak ziren iritzia plazaratu eta eremu publikoan oihartzuna zutenak. Orain, aldiz, bai erakusketak eta bai lan solteak sarera igotzean, erabiltzaileek balorazio, komentario eta kritikak egiten dituzte. Batek erakusten duena Facebook eta Instagrameko jarraitzaileek baloratzen dute, oso modu neurgarrian: *like*, komentario eta begiraden kopuruaren bitartez. Artistak istantean daki bere lanari nolako harrera egin dion sarean jarraitzen dion publikoak. Jakin dezake jendeari zer gustatu zaion, beste artistak zertan ari diren, nola posizionatuta dauden, zenbateko ikusgaitasun-maila duten eta zenbat jarraitzaile dituzten, besteak beste, baina horri begira eta horri jarraitzen egoteak denbora kentzen dio artistari. Lipovetskyk eta Serroyk azaltzen duten moduan, artista izatea ez da tailerrean sartu eta artelanak egitea soilik. Artista garaikideak, arrakasta izatekotan, bere irudia eraiki, komunikatu eta artearen merkatuan

387 ZAFRA, Remedios: *Un cuarto propio conectado. (Ciber)espacio y (auto)gestión del yo*, Fórcola, Madrid, 2010 (66. or.).

388 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (190. or.).

389 Ibidem (191. or.).

gero eta ikusgaitasun gehiago lortzeko ardura du orain.³⁹⁰ Ikusgaitasunaren lehian asko dauka jokoan.

5.1.8. Bizi-esperientziaren pobretzea

Abiadurak, gainproduktzioak, informazio gehiegiak, gainezka egoteak, hiperkontsumoak, hiperaktibitateak eta dena esperimentatzeko desirak denera iristeko ezintasuna sortzen dute. Alerta-egoeran bizi den subjektuak arreta dibertsifikatu egiten du, gauza askori adi dago. Gaur egungo bizimoduak esperientzia asko eskaintzen ditu, baina hiperestimuluz jositako gizarte hiperaktibo honek sortzen duen bizi-esperientzia pobrea eta hutsala gertatzen da, Peranen esanetan.³⁹¹

Bizitzako eremu guztiak ekonomiaren menpeko bihurtu dira, gainera: osasuna, heziketa, sexualitatea, afektibitatea, harremanak, kultura... Horren ondorioz, dena neurtzen da lehiakortasunaren, errentagarritasunaren eta etekinaren irizpideen arabera. Aldi berean, merkatuaren lehiakortasuna oztopatzen zutela eta, arau eta erregulazio sozialak baliogabetu egin dira. Neoliberalismoak ia erabat birrindu ditu gizartea ekonomiaren dinamika lehiakorretik babesten zuten bermeak.³⁹² Orain, malgutasunak eta prekarietateak eragindako egonkortasun eza eta ziurgabetasuna dira gizartean arau.

Sare sozialei eta gailu teknologikoei esker munduarekin inoiz baino konektatuago gaudela eta inoiz baino adiskide gehiago ditugula dirudi, baina subjektua bakarrik dago. Craryk esaten du, teknologia berriek bizitzan izan duten eraginari buruzko gogoetan ari dela, bai esperientzia pertsonalerako eta bai esperientzia sozial edo lagun artekorako kaltegarri gertatu direla, teknologia berriek esperientzia guztiak moztu, murriztu edo zatikatu egiten dituztelako.³⁹³ Pertsonen artean harreman estu eta sakonak eraikitzea orain zailagoa dela zioen Sennettek.³⁹⁴ Oraingo harremanak arinagoak, ahulagoak bihurtu dira,³⁹⁵ Baumanek esaten duen bezala, likido. Neoliberalismoa *likearen* kapitalismoa da, Hanen iritziz.³⁹⁶ Erabiltzaileen konpromisoa saguarekin klik egitera mugatzen da, edozertarako: lagunak egiteko zein horietaz libratzeko, erosketak egiteko, mundua aldatu gura duten ekimenak bultzatzeko... Faktore horiek guztiek bizi-esperientzia pobretzea eragin dute. Bifok esaten duen bezala:

«Se forma [...] un tipo humano que ya no sabe razonar en términos de placer, de disfrute, de tiempo, de libertad, de afectividad, sino tan sólo en términos de máximo

390 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (96. or.).

391 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (12. or.).

392 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (214.-218. or.).

393 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (43. or.).

394 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (24. or.).

395 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (158. or.).

396 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (2) (30. or.).

*beneficio. Esto representa una mutilación espantosa de la vida, la cultura y la socialización. [...] ese moldeamiento ha producido un efecto de empobrecimiento incalculable de la calidad de vida, de la cultura y de la misma posibilidad de sentir placer, gozar y respirar».*³⁹⁷

Black mirror izeneko telesailaren atal bateko eszenak ondo baino hobeto erakusten du bizi-esperientzia garaikidearen pobrezia zertan datzan. Protagonista kafetegi batean kafe bat eskatzen ageri da. Itxura benetan oneko kafe bat ekartzen dio zerbitzariak mahaira. Kafearekin batera, gailetatxo bat. Protagonistak, gailetatxoari hortzekin heldu eta ondo neurtutako pusketatxo bat kendu ostean, gaileta-zatia mastekatu eta irentsi ordez, eskuan gorde, eta kosk egindako gailetatxoa berriro ere platertxoan ipintzen du, kafearen alboan. Mugikorrarekin argazki dotore bat atera, eta sare sozialetako kontaktuekin partekatzen du. Mugikorra jaso, eta kafeari zurrupada bat ematen dio. Ezagun du aurpegieran ez zaiola askorik gustatu dastatutakoa. Horra bizi-esperientzia pobretzearen adibide garbi bat. Kafea eta gaileta dastatzearen esperientziaren aurretik jarri du esperientziaren irudia. Debordek esaten duen bezala:

*«La vida entera [...] se anuncia como una inmensa acumulación de espectáculos. Todo lo directamente experimentado se ha convertido en una representación».*³⁹⁸

Guy Debordek etorkizunari buruz egindako pronostikoan bete-betean asmatu zuela ondoriozta daiteke haren hitzetatik. Debordek irudikatutako espektakuluaren gizartean, irudia gizakiaren eta errealitatearen artean kokatzen da, haien arteko harremana baldintzazteraino. Espektakuluak bizitza soziala bere osotasunean bereganatuta, gizartea bere benetako behar eta desirak zeharo alboratzera iristen da, eta espektakuluaren menpeko bihurtzen. Horrenbestekoa da espektakuluaren boterea, irudia errealitateari gainjartzen baitzaio. Espektakulua itxuraren garaipena da, Deborden esanetan. Errealitateak irudia hartzen du eredu, errealitatea bera irudi bihurtzeraino; alegia, alderantzizkatze bat gertatzen da espektakuluaren logikaren pean. Horrela, Debordek dioenez, errealitatea espektakulu bihurtzen da, eta espektakulua, errealitate. Edo beste era batean esateko, errealitatea irudi bihurtzen da, eta irudia, berriz, errealitate. Espektakuluaren gizartean, bizitza errepresentazio bilakatzen da, Deborden esanetan, eta bere garaian esan zuen bezala, bizi-esperientziaren pobrezia dakar horrek.³⁹⁹ Deborden diagnosa gaurko testuinguruaren diagnosiarekin bat dator, eta hala, gaur egungo bizi-esperientziaren pobretzea baieztatu egin da.

397 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (214.-218. or.).

398 DEBORD, Guy: op. cit., 2010 (37. or.).

399 Ibidem (172.-173. or.).

5.1.9. Denbora falta

«Hoy el tiempo es un bien escaso».⁴⁰⁰

Remedios Zafra

Neoliberalismoaren subjektuak, subjektu libre gisa ikusten duen arren bere burua, askatasun nozioaren pertzepzioa kontraesankorra da, Hartmut Rosaren aburuz. Orain, inork ez dio agintzen zer egin bere bizitzarekin, bere lanarekin, nola pentsatu, nola gozatu, nola maitatu, baina hala eta guztiz ere, subjektua “egin beharraren” menpeko da. Aske izateko irudipena badu ere, betebeharren zerrenda gero eta luzeago bateko zereginen menpean hartuta sentitzen da: “lanera joan beharra daukat”, “osasuntsu egoteko zerbait egin beharra daukat”, “ingeleza ikasi beharra daukat”, “softwarea eguneratu beharra daukat”... Eta hori gutxi balitz bezala, behar horiek guztiek eragiten duten estimulu gehiegiaren eta hiperaktibitatearen ondorioak baretzeko, zer eta “yoga egitera joan beharra daukat”, “erlaxatu beharra daukat”, “deskonektatu beharra daukat” eta horrelako auskalo beste zenbat “egin behar” gehitzen zaizkio zerrenda azkenerako amaiezinari.

Etxetik lanera eta lanetik etxera joan, erosketak egin, jatekoa prestatu, garbigailua ipini, etxea txukundu, landareak ureztatu, haurrak haurtzaindegitik jaso, jaten eman, bankura joan, eta hortz-klinikara, yogara, sindikatuko bilerara, lagunekin garagardo batzuk hartu, tailerrera joan produzitzera, erakusketa bat ikusi, deialdi baterako dosierra prestatu, albiste-giak jarraitu, txakurra atera, modako seriea ikusi, irakurri, Skype bitartez bilera egin, mezu elektronikoei erantzun, Facebooken begiratu... Horren nekatuta iristen da bat egunaren amaierara, oraindik denbora-apurrik gelditzen bazaio leher eginda sofan botata amaituko baitu telebista-programaren bati begira, sare sozialetan kuxkuxean egin bitartean, nolabait deskonektatu eta bizitzan hartutako ardurak, tarte batez bada ere, alde batera uzteko. Baina loak hartu eta gutxira mugikorraren tonuak esnatzen du bat: laneko mezu elektronikoko bat iritsi zaio.

Bizitzako denborarik gehiena soldatapeko lanari eskaintzen zaio. Kasurik gehienetan behartua eta desatsegina den soldatapeko lanean agortzen ditu langileak, indar fisikoaz gain, indar mental eta emozionala. Hiperaktibitatea eragiten duten hamaika zeregin, “egin behar” edo eginkizunekin betetzen du lanetik kanpo gelditzen zaion denbora. Mendebaldeko gizarteetan, horren lanpetuta bizi da jendea, “denbora-gosez” baitago.⁴⁰¹ Denbora agortzen ari zaielako presioa sumatzen dute, denbora falta zaiela, denborarik ez dutela. Nahiz eta aurrerapen teknologikoen bilakaerak eta zabalkundeak denbora aurrezteko aukerak ireki dituzten, gero eta jende gehiagok gero eta lan gehiago egiten du, eta denbora libre gutxiago du, beraz.⁴⁰² Fenomeno hori paradoxikoa da. Badirudi azelerazio teknologikoak, edo teknologiararen garapenak eta horrek dakartzan erraztasunak, produkzio-

400 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (29. or.).

401 ROSA, Hartmut: op. cit., 2016 (29. or.).

402 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (266. or.).

nahiz kontsumo-mailan denbora librea areagotzea eta bizitzako erritmoa mantsotzea ekarri beharko lituzkeela. Lehengo aldean lan bera egiteko orain denbora gutxiago behar denez, denbora librea gehitzea errealitate bihurtu eta denbora libre horrek hobeto bizitzeko aukera sortu beharko lukeela ematen du. Baina hori horrela izan ordez, jende gehienak ez dauka lehen baino denbora libre gehiagoz gozatzeko aukera, geroagoko atal batean ikusiko dugun moduan.

*«Cada mañana recibo: 9 mensajes de spam y ofertas comerciales, 4 emails relativos a mi trabajo temporal, 1 saludo de un viejo amigo; 3 de personas que no conozco y me piden amistad, 2 de personas que me convocan a reuniones, revoluciones y eventos, 4 de personas que diariamente me informan de sus cosas y de sus gustos, 3 notificaciones pendientes. Maldito dedo. Cuanto más clickeo, más mensajes circulan y más obligaciones tengo. Adoro recibir cartas».*⁴⁰³

Posta elektronikoaren adibidera itzuliko gara berriro ere. Eskutitz konbentzional bat idatzi, bidali eta helbidera iristerako egunak behar dira; posta elektronikoa, alde horretatik, askoz ere arinagoa da, bat-batekoa. Teorian, lehen igortzen zen eskutitz-kopuru bera igorriko balitz orain ere, posta elektronikoari esker, denbora irabaziko litzatekeela pentsa daiteke. Baina posta elektronikoa erabiltzeak ez du denbora libre gehiago izatea ekarri. Posta konbentzionalaren bidez bidali eta jasotzen diren eskutitzen kopurua baino askoz handiagoa baita mezu elektronikoena. Horrenbeste kontaktu eta lagun ditugu orain, horrenbeste zabaldu eta hedatzen da sare hau, bidali eta jasotzen diren mezuen kopurua ikaragarri hazi baita. Interneten etorrerarekin, idatzi eta irakurtzen diren mezuen kopurua izugarri handitu da. Horrenbestez, denbora asko irabaziko litzateke, baldin eta beharrek lehengo berberak izaten jarraitu izan balute, ohiturak aldatu izan ez balira; baina hori, bistan denez, ez da horrela.

Sare sozialek aspaldiko lagunak berreskuratu eta berriak egiteko aukera ematen dute. Komunikazioa zenbait mailatakoa izaten da. Batzuetan eta batzuekin sakonagoa, beste batzuetan eta batzuekin azalekoagoa. Baina harremanek, edonola ere, denbora eskatzen dute. Entzun eta erantzutea. Partekatzea. Zenbat eta lagun gehiago izan, orduan eta denbora gehiago eskaini behar zaie haiei. Eta lagunak gehitzen joan arren, egunak ordu-kopuru bera izaten jarraitzen du, 24 ordu. Lagun/kontaktu guztiekin egoteko, egunak ez du ematen. Gure egunerokoan guztiz ohikoak diren "egongo gara", "ea noiz elkartzten garen" eta horien gisako hitzek ezin hobeto adierazten dute gaur egun dugun denbora falta.

"Jainkoa hil da" esan zuen Nietzschek.⁴⁰⁴ Bizitza biluzik dago. Hanek kontaktzen duen moduan, gizakia heriotzari dion beldurretik libratuko zuen erlijioak boterea galdu du. Heriotza gainditu eta beste mundu batean betikotasuna lortuko zuelako promesa erori egin da. Sinesmenak porrot egin du eta jada ez du balio gizakiak pairatzen duen ondoeza

403 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2015 (121. or.).

404 NIETZSCHE, Friedrich: *La ciencia jovial. La gaya scienza*, Monte Avila, Caracas, 1990 (115. or.).

jasangarri egiteko. Fedea galdu da, eta bizitzaren iheskortasuna areagotu besterik ez da egin. Bizitza, orain, guztiz iragankorra da. Hanen aburuz, bizitza inoiz ez da gaur bezain iragankorra izan.⁴⁰⁵

Carpe diem da gazteenen leloa. Ez dago beste etorkizunik, bizitza egokitu zaigun hau ez besterik. Bizitza bakarra da, eta bizitza bakar honi, ahalik eta intentsitate handienarekin biziz, ahalik eta etekin handiena atera behar zaio. Bestalde, ez da ahaztekoa hiperkontsumoaren gizarte honetan zorientasuna promestuz eskaintzen dituzten zerbitzu eta merkantzien zerrenda amaigabea. Bi faktore horiek batzeak, izan ere, bizitzaren mugaren kontzientzia izateak eta eskaintzen diren aukeren aniztasunak, alegia, baditu ondorioak. Ahalik eta esperientzia interesgarri gehien bizi eta bizitzari ahalik eta probetxu gehien atera nahi izateak, nahi eta nahi ez, bizitzaren erritmoa bizkortzea ekarri du. Denbora falta izatea hortik dator. Gero eta gauza, zeregin eta jarduera gehiago egiten dira denbora berean.⁴⁰⁶ Denborak badu bere muga, baina gizakiaren hiperaktibitateak, antza, ez.

Hiperaktibitatearen eta hiperkontsumoaren gizarteak, ditugun objektu, merkantzia eta zerbitzu guztiek, denbora libreza zeinen urri gerta daitekeen gogorarazten digute. Milaka eta milaka liburu, musika-disko eta film ditugu eskura, baina bizitzak ez digu ematen inondik ere guztiak irakurri, entzun eta ikusteko denbora. Denbora falta, gehiegizko aukera eta gehiegizko aktibitatea elkartzen direnean, aisialdiko denbora libreak poz- eta plazer-iturri izateari uzten dio. Denbora libre gutxi dugunean, tarte horiek tentsioz betetako denbora pisuak bihurtzen zaizkigu. Horixe da Fraynek azaltzen duena, aukeren oparotasunak, gehiegiak, hautatzeko zailtasuna eragiten duela, zalantza, ezintasuna edo paralisia. Eta denbora libreza urri izateak, berriz, antsietatea, itolarria.⁴⁰⁷

5.2. GAUR EGUNGO LAN ETA BIZIMODUAREN ZENBAIT ONDORIO

Artistak eta artearen esparruak testuinguru postindustrialean protagonismo berezia hartu dutela esan dugu. Ekintzailearen figurak artista bohemioaren mitoarekin bat egitean, eta artearen eta kulturaren esparruko lanak bereizgarri zituen hainbat ezaugarri bere egin ditueneko ekonomiak, lana erakargarri bihurtu da. Autonomia, autorrealizazio eta kreatibitatearen promesa dakarrenean kapitalismoaren produkzio-moduak, orduan, aurpegi seduktore, atsegin eta gizatiarra erakusten du, nahiz eta hori itxura besterik ez den.⁴⁰⁸ Artistaren lan eta bizimoldeak arrakastatsu izateko osagarri guztiak batzen dituela dirudi. Artearen lan-esparrua eta artista neoliberalismoari eredugarri gertatzen bazaizkio, bi arrazoiengatik da: artista langile kreatibo, autonomo eta motibatua delako, eta batez ere,

405 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (46. or.).

406 ROSA, Hartmut: op. cit., 2016 (33. or.).

407 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (186. or.).

408 YPRODUCTIONS: *Innovación en cultura. Una introducción crítica a la genealogía y usos del concepto*, Traficantes de sueños, Madril, 2009 (51. or.).

artearena lan-esparru indibidualizatu, lehiakor, eta eskubide eta babesik gabekoa delako. Autoprodukzio-gosez eta autorrealizazio-egarriz dagoen subjektua gurpil zoro batean bizi da, malgutasun, indibidualtasun, ikusgaitasun, azelerazio, hiperaktibitate, denbora falta eta orainaren errepikapen etengabearen zurrunbiloan harrapatuta. Eta lan- eta bizi-baldintza horiek badituzte ondorioak, hurrengo lerroetan azalduko dugun moduan.

5.2.1. Botereari buruz

Michel Foucaultek oso zorrotz eta sakon ikertu zuen botereari buruz.⁴⁰⁹ Ez da gure asmoa boterearen inguruko historiaren narrazioa egitea, baina hark planteatu zituen hainbat nozio ekarri nahi genituzke gurera, aipagai ditugun gaur egungo lan-ereduetara, langilerian izan duten eraginaz ohartzeak haren oraingo egoera ulertzeko giltza direla iruditzen baitzaigu.

Foucaulten tesiaren arabera, XVIII. mendean, burgesiaren etorrerak eragindako aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialak zirela medio, herritarrak gobernatzeko modu berriak agertu ziren. Ordura arte, botereak, gobernatzeko forma bortitz eta errepresiboa erabiltzen zuen. Arauak betetzen ez zituen oro, gizartearen funtzionamendu zuzena arriskuan ipini edo normaltasuna hausten zuena, preso hartu ondoren jendaurrean ipinita, indarkeria fisikoaren bitartez zigortzen zuten. Helburua bikoitza zen: jarrera “desbideratua” zigortzea, bata, eta arauak urratzeak nolako ondorioak zekartzan herritarrei ikusaraztea, bestea. Modernitatean, alabaina, Mendebaldeko herrialdeetan, botereaz baliatzeko modua aldatu egin zen, Foucaulten esanetan: errepresioan oinarritua izan beharrean, diziplinan oinarritua izango zen aurrerantzean;⁴¹⁰ jendaurrean zigortu beharrean, modu pribatu eta ezkutuan diziplinatuko zituzten herritarrak.

Diziplinazko boterea gauzatzeko, kartzela, fabrika, eskola eta psikiatrikoa bezalako instituzioak sortu ziren. Gizartearen funtzionamendu zuzena bermatzearen subjektu “normal” eta produktiboak ekoiztea zen diziplina-instituzio haien guztien zertarakoa. Horretarako diseinatuta zeuden: gorputzak diziplinamendu-espazio horietara bideratuta, gorputz orotan ohitura, pentsamendu eta jarrerak zuzendu eta moldatuta, botereari komeni zitzaion gizarte-ereduan hari komeni bezala joka zezaten. Beste modu batean esanda, diziplinazko instituzio horien bitartez, subjektuaren gorputza gizarte modernoaren beharrak asetzeko

409 FOUCAULT, Michel: *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Argentina, 2002.

410 Ibidem (121. or.).

Diziplinaren inguruko teoria Jeremy Bentham filosofo ingelesak kartzelarako diseinatutako arkitektura-eredu panoptikoan oinarritu zen. Kartzela panoptikoa forma zirkularrekoa zen, erdian dorre bat zuen, eta zirkuluaren kanpoko ertzean zituen presoentzako ziegak, inguru osoan. Hala, zaindariak, dorretik zelatan, preso guztiak ikusten zituen. Dorreko leihoak pertsienez estalita zeuden, ordea, eta beraz, zaindariak ziega guztiak ageri-agerian inolako oztoporik gabe zaindu zitzakeen arren, presoek ezin ikus zezaketen dorrearen barruan zer zegoen, zaindaria dorre barruan noiz zegoen eta noiz ez. Zaindariak begien bistan zituen presoak; presoek zaindaria ez, ordea. Hori horrela izateak erabat baldintzatzen zuen presoek jarrera eta portaera, etengabe zaindariaren begiradapean zeudelako irudipena baitzuten. Panoptikoaren funtzioa horixe zen, hain zuzen: atxilotua botereak zelatua eta haren kontrolpean sentitzea une oro, boterea une oro horretan egon gabe ere. Arkitektura haren bitartez, botereak automatikoki funtzionatzea lortzen zen, zuzenean ezartzen jardun behar ez izatea. Azken finean, atxilotuek boterea baneratu eta beren buruari aplikatzen zioten. Diziplinaren bidez, beraz, atxilotuaren autokontrola lortzen zen.

diziplinatzen zen.⁴¹¹ Diziplina, beste guztiaren gainetik, subjektuaren edo subjektibitatearen produkzioarako aparatua zela esaten du Foucaultek:

*«El poder disciplinario, en efecto, es un poder que, en lugar de sacar y de retirar, tiene como función principal la de “enderezar conductas”; o sin duda, de hacer esto para retirar mejor y sacar más. No encadena las fuerzas para reducirlas; lo hace de manera que a la vez pueda multiplicarlas y usarlas. [...] La disciplina “fabrica” individuos».*⁴¹²

Industrializazioarekin sortutako bizi- eta lan-moldeak gobernatzeko modu berri bat ipini zen praktikan. Helburua ez zen zigorraren bitartez mendeku publikoaz baliatzea, baizik eta etekina atera ahal izango zitzaien subjektu “normalak” produzitzea eta gizartearen egonkortasuna mehatxuan jar zezaketen portaera “anormalak” edo “desbideratuak” eragotzi eta eraldatzea. Foucaultek esaten duen bezala, botereak bere aurpegi positiboa erakusten du; ez da zigortu edo erreprimitu egiten duen botere bat, baizik eta botere eraikitzailea, normalizazioa eraikitzen duen botere bat. Gubernamentalitatea edo gobernatzeko modua sofistikatu egin zen. Botereaz baliatzeko, jada ez zen neurri errepresiboetara jotzen; aski zen subjektuek diziplina barneratu zezaten lortzea.

70eko hamarkadan gizartean beste aldaketa handi bat gertatzen hasi zen, Foucaultek ohartarazi zuenez. Boterea gauzatzeko modua, gobernatzeko modua, bestelako forma bat hartzen hasi zen, eta “gizarte diziplinarioa” “kontrolaren gizarte” bihurtu zen:

*«[...] va a significar una cierta regulación espontánea que va a hacer que el orden social se autoengendre, se perpetúe, se autocontrole a través de sus propios agentes de forma tal que el poder, ante una situación regularizada por sí misma, tendrá la posibilidad de intervenir lo menos posible y de la forma más discreta, incumbiendo a los propios interlocutores económicos y sociales el resolver los conflictos y las contradicciones, las hostilidades y las luchas que la situación económica provoque, bajo el control de un Estado que aparecerá, a la vez, desentendido y condescendiente».*⁴¹³

Subjektua diziplinatu eta gobernatzeko behar izan ziren instituzioak oso eraginkorrak gertatu ziren. Subjektuak boterea barneratzea lortu zen instituzio haien lana zela medio. Subjektuak “normal” eta produktibo izaten ikasi zuenez, instituzio haiek pisua galdu zuten, betetzen zuten funtzioa jada ez zen hain beharrezkoa. Subjektuak bere burua gobernatzen ikasi zuela eta, jada ez zegoen subjektua diziplinatzeke boterea hein berean erabiltzen jarraitu beharrik, aski zen autoprodukzioa posible egiten zuen autogobernua bermatzea eta, horretarako, harremanak erregulatu eta kontrolpean edukitzea. Gilles Deleuzek esan

411 Fordismoaren produkzio-arauei erantzuteko, langilea “otzandu” egin behar izan zuten. Alde horretatik, fabrika, lanaren esparrua ere gobernatzeko modu bat izan zen. Gogoratu dezagun, hasieran esan dugun bezala, lurraren desjabetzearen ondorioz bizitza bermatzeko baliabiderik gabe gelditu zen jende hura guztia fabrikako produkzio-moduaren itxialdi, ordutegi eta arauetara egokitu zedin, diziplinatu egin behar izan zutela.

412 FOUCAULT, Michel: op. cit., 2002 (157. or.).

413 FOUCAULT, Michel: *Saber y verdad*, La Piqueta, Madril, 1991 (166. or.).

duen moduan, diziplinaren ordezk kontrolaz baliatzen hastean, subjektuaren produkzioa, moldatu ordezk, modulatzten hasi ziren.⁴¹⁴ Lehen, boterea kanpotik ezartzen zen; orain, subjektuak barnerratuta dauka. Subjektua “bere buruaren enpresari”⁴¹⁵ bihurtu da, eta bere burua produzitu, kudeatu eta gobernatzeko ardura du orain. Horixe da neoliberalismoaren gobernatzeko modu berria, Foucaulten esanetan.

5.2.2. Prekarietatea, gobernantza-tresna

60-70eko hamarkadetan, hain zuzen produkzio-eredu industrialala gorenean zen unean, aldaketa ugari gertatzen hasi zen. Bifok adierazten duenez, langileria industrialala lanaren aurkako jarrera agertzen hasi zen irmoki.⁴¹⁶ Horren ondorio izan ziren, Biforen esanetan, 68ko maiatzean lan alienatzailearen aurka sortutako idatzi, manifestu eta leloak, eta orobat, Italiako auto-fabrika garrantzitsuenetan urte gutxi batzuk geroago langileek egindako protesta historikoak.

Fabrikara joatea kartzelara joatea bezala zen; itxialdia, kontrola, diziplina eta lan desatseginetan aritzea zekartzan. Langile nagusienak erretiratu ahala, erreleboa hartzen zuten gazteek ez zuten gurasoena bezalako bizimodurik nahi. Gurasoek bizitza fabrikako paretan artean alferrik galdu zutela pentsatzen zuten. Diziplinan eta kontrolean oinarritzen zen fabrikako lan alienatzaileari uko egin, eta beste modu batzuk esperimintatzeko gogoz ziren. Alienazioaren kontzeptua kritikaren erdigunean jarritz, langileak bere buruaren jabe izan nahi zuen. Burua eta gorputza berak gobernatzeko beharra zuen. Bizitzaren erantzukizuna bere eskuetan nahi zuen, hari nahi zuen forma eta zentzua emateko. Munduan izan eta egoteko modu berri bat aurkitu nahian zebilen, eta bilaketa hura autorrealizazioaren ideian errotu zen.

Bifok dioen bezala, arrazoi ekonomikoen ordezk, beste balio batzuek mobilizatzen zuten hura.⁴¹⁷ Benetako saria, bai lanean eta bai lanetik kanpo, norberaren gaitasunak garatzea, errerealizatu sentitzea eta bizi-esperientzia aberatsa izatea ziren. Horixe izan zen Italiako langile eta ikaslez osatutako mugimendu autonomoen esperientziaren motorra. “77ko mugimendua”⁴¹⁸ deritzonaren testuinguruan, fabrikako lanean ahal bezala irauten jarraitu baino, ziurtasuna laga eta hango lanetik kanpora migrazio kontziente bati ekitearen aldeko

414 DELEUZE, Gilles: “Post-scriptum sobre las sociedades de control”. Iturria: <https://polis.revues.org/5509>.

415 FOUCAULT, Michel: *Nacimiento de la biopolítica. Curso en el Collège de France (1978-1979)*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2007 (264. or.).

416 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2012 (22. or.).

417 Ibidem (116. or.).

418 BERARDI “BIFO”, Franco: “El año en el que el futuro se acabó” kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *El movimiento del 77*, Traficantes de sueños, Madril, 2007 (33. or.).

“77ko mugimendua” deritzonak langile gazte eta ikaslez osatutako Italiako mugimendu autonomoari egiten dio erreferentzia. Mugimendu hura hainbat urteren joanean gorpuztu zen, baina 1977ko lehenengo hilabeteetan mobilizatu zen, eta hortik datorkio mugimenduari izena. Mugimendu hark proletariotza industrial tradizionalaren logikarekin hautsi zuen. Langileria tradizionalak, lanaren aldeko defentsa edo lan-baldintzak hobetzearen aldeko borroka zuen helburu, eta “77ko mugimendua”k, berriz, lan industrialaren diktadurapetik askatu eta bizitzea merezi zuen bizitza baten aldeko aldarrikapena zuen lehentasun.

erabakia hartu zuten langile askok, Paolo Virnoren esanetan.⁴¹⁹ Motibazioa ekonomikoa ez zenez, lana ondo edo gaizki ordainduta egotea bigarren mailako zerbait zen haien kasuan. Ez zen garrantzi gehien zuen faktorea. Gazte haiek fabrikak eskaintzen zuen bizimodu egonkor bezain errutinarioari uko egin, eta askatasun handiagoa lortu nahian, bizimodu prekario baten aldeko hautua egin zuten, nahiz eta fenomeno osotasunean ulertu nahi bada, Federiciren gogoetak oso kontuan hartzekoak diren.⁴²⁰

Urte haietan, mugimendu autonomoen ideia indartsuenetako bat “prekarioa ederra da” izan zela azaltzen du Bifok. Prekariatatea aukera ederra zen haientzat, bizitza guztirako fabrikako lanari lotuta egotearen aldean autonomiarako bidea baitzen prekariatatearen aldeko hautua. 70eko hamarkadan ohikoa omen zen zenbait hilabete lan egin eta zenbait hilabeterako oporraldia hartzea, txandaka. Garai hartan ez zen lan faltarik, ez lehiakortasunik, ez eta gerora gizarte kontsumistak sortu duen merkantzia eta zerbitzuak eskuratzeko halako beharrik ere. Bizimodua ateratzeko aukerak ez zituen falta langileak, eta lana uzteak ez zekarren biziraupena arriskuan jartzea. Fabrikako lan egonkor baina alienatzailea edo bizimodu prekario baina intentsoagoa, artean bazeukaten bata edo bestea aukeratzea. Bigarren aukera prekariatatearen sinonimo izan arren, erakargarria zen, oso:

*«La precariedad del trabajo es una forma de autonomía frente al trabajo regular que dura toda la vida. En los años 70 era habitual trabajar unos meses, dejar el trabajo para irse de viaje, regresar y volver a trabajar unos meses y así sucesivamente. En condiciones de pleno empleo y en presencia de una extendida cultura igualitaria, no competitiva y no consumista, es posible un estilo de vida como éste, y le sienta bien al cuerpo y al espíritu».*⁴²¹

Testuinguru hartan, prekariatatea bazen kapitalismoaren logika produktiboari uko egin eta beste bizimodu batzuk entseatzeko era. Dena den, Parisko 68ko mugimenduen saialdiak eta Italiako esperientziaren ekarpenak gutxietsi nahi izan gabe, esan beharrekoa da, kapitalismoaren logikatik “kanpo” egon diren ekimen edo esparru nagusiak aipatzen hasita, artearen esparrua dela azpimarragarriena. Autonomia, ordutegirik eta nagusirik ez edukitzea, bizitza eta lana espazio eta denbora berean sustraituta izatea, edo lanaren bitartez gozatu eta errealizatzeko modua eskaintzen zuen ofiziorik inon izatekotan, arte-

419 VIRNO, Paolo: “Do you remember counterrevolution?” kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *El movimiento del 77*, Traficantes de sueños, Madril, 2007 (54. or.).

420 FEDERICI, Silvia: “El trabajo precario desde un punto de vista feminista”, op. cit. Frantziako 68ko maiatzaren testuinguruan, bai eta Italiako 77ko mugimenduaz aritzean ere, hautazko prekariatatea aipatzen da maiz. Baina prekariatatearen nozioa tokiaren eta garaiaren arabera aldatzen da. Ez da denentzat bera. Dimensio eta intentsitate desberdina hartzen du generoaren, arrazaren eta klasearen arabera. Prekariatatearen nozioaren ikuskera hori partziala gertatzen da, ekonomiak aintzakotzat hartzen duen esparru bakarrari soilik baitagokio: produkzioaren esparruari. Prekariatatearen nozioa osotasunean ulertzeko, erreproduzioaren esparrua ere kontuan hartzea ezinbestekoa da. Alde horretatik, Federicik esaten duen moduan, prekariatatearena ez da inola ere fenomeno berria, emakumeek soldatapeko lanarekin beti izan baitute harreman prekarioa.

421 BERARDI “BIFO”, Franco: “¿Qué significa hoy autonomía?”. Iturria: <http://eipcp.net/transversal/1203/bifo/es>

eta kultura-produkzioaren esparruan zegoen hura. Aipatu dugun bezala, artearen esparrua zeharo prekarioa zen, ordea.

Sorkuntzarekin lotura zuen zernahi jarduera lan-eredu industrialaren aldean erakargarria gertatzen zen, eta bazituen abantailak ere; baina autonomiaren eta askatasunaren aldeko apustuak, nahiz eta langileak bere buruari ezarritako borondatezko baldintza izan, egonkortasun eta babes falta zekarren, eta horrek, zoru prekario baten gainean kokatzea. Bizitza egonkor baina "hutsalago" batean bertan gozo gelditu baino nahiago zuten zenbait arrisku beren gain hartu eta bestelako bizi- eta lan-molde batzuk esperimentatu. Artearen eremu autonomoan, artistak bere "askatasuna" bermatzen zuen, gobernatua ez izateko era bat zen, eta beste zenbait ogibidek eskaintzen zuten egonkortasun eta bizimodu erosoari uko egiten bazion ere, prekarietateak zeharkatutako bizimodua erresistentzia-modu bat bilakatzen zen. Edo beste modu batean esanda, egunerokotasunaren diziplina, kontrol eta alienazioari ihes egiteko alternatiba bezala ageri zen prekarietatea. Italiako mugimendu autonomoen kasuan bezala, beraz, norberaren borondatezko hautua zen artearen esparruan lan egiteak zekarren prekarietatea.

Prekarietate edo prekarizazioaren kontzeptuari ematen zitzaion funtzioa aldatuz joan da denboraren joanean, eta oso bestelako esanahia du orain. Prekarietatea, lehen, fabrikako lan industrialak eskaintzen zuen egonkortasunetik kanpo kokatzea zen, eta orain, berriz, ezin da gauza bera esan. Azken hamarkadetan izan den bilakaeraren ondorioz, prekarietatea gizartearen ohiko ezaugarri bihurtu da, Biforen⁴²² nahiz Isabell Loreyren⁴²³ arabera. Eskubide laboral eta sozialen murrizketak gizartea egoera prekariora eraman dute, eta neoliberalismoa egoera prekario horretaz baliatzen da gobernatzeko.

Emakumezkoek ondo baino hobeto dakite zer den prekarietatea. Pérez Orozcoren esanetan, prekarietatea, bizitza bizigarri bat izateko beharrezkoak diren bitarteko eta baliabideak eskuratzeko ziurtasunik ez izatea da.⁴²⁴ Eta prekarietatean bizitzea, berriz, erortzeko arriskuaren aurrean egonda norbera sostengatuko lukeen sare kolektiborik gabe bizitzea. Autore horren esanetan, beraz, prekarietatea ez dagokio lanari soilik; aitzitik, bizitzari berari eragiten dion zerbait da. Lanekoa bizitzaren prekarietatearen parte bat baino ez da. Gainera, prekarietatea ez da denontzat berdina. Aldatu egiten da, dimentsio eta intentsitate desberdina hartzen du, generoaren, arrazaren eta klasearen arabera, besteak beste.

Prekarietatea eredu hegemonikoarekiko bereizteko eta erresistentziarako eremu moduan definitu bazitekeen lehen, gaur egun ez da horrela. Prekarietatearen nozioa ez da jada Italiako 77ko mugimenduaren testuinguruaren edo arte- edo kultura-produkzioaren esparruaren ezaugarria bakarrik. Ez da bazterretan soilik gertatzen den produkzio-modua,

422 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (220.-222. or.).

423 LOREY, Isabell: *Estado de inseguridad. Gobernar la precariedad*, Traficantes de sueños, Madril, 2016 (17. or.).

424 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (190. or.).

edo sektore jakin bat eta bakarrekoen munduan izan eta egoteko modua. Produkzio-erreprodukzio zikloaren geruza guztietara iragazi da, eta denari eragiten dio. Prekarietatea bizitzako eremu guztietara hedatu da,⁴²⁵ eta horregatik, prekario-kondizioa da orain normala. Orokortu egin da. Inor ez dago haren eraginetik kanpo. Prekarietatea jada ez da alternatiba bat, aukera bat, hautu bat. Ez da italiar gazte haiek ulertzen zutena, eta orain, eder izateari utzi dio.

Isabell Loreyk prekarietatearen inguruan planteatzen duen hausnarketak anbibalentzia bat jartzen du agerian, nozioaren zentzu bikoitzaren berri ematen duen heinean.⁴²⁶ Prekarietatea, alde batetik, liberalismoaren gobernatzeko moduarekiko kontrakotasun bezala uler daiteke; saihesbide gisa, alegia. Eta bestetik, neoliberalismoaren gobernatzeko modu bezala ere uler daiteke prekarietatea; hau da, arau moduan.

Loreyren tesiaren arabera, liberalismoaren garaian prekarietatea erresistentziarako aukera zen, eta neoliberalismoan, aldiz, gobernatzeko modua bihurtu da. Autore horrek kontatzen duenez, 60ko hamarkadaren testuinguruan jaiotako mugimendu feministek, ekologistek eta ezker erradikalak diziplinan eta kontrolean oinarritutako lan eta bizimoduaren baldintzapetik ihes egitea eta erresistentzian oinarritutako lan eta bizitzeko beste-lakoak moduak aldarrikatzen zituzten. Beraiek erabaki nahi zuten zertan lan egin, nola eta norekin. Lan eta bizimodu prekarizatuaren hautua egitearen aldekoak ziren orduan, Loreyren aburuz, baldin eta autonomia eta askatasun handiagoa bazekartzan erabakiak. Soldata hobea edo kaskarragoa izatea ez zen garrantzitsuena haientzat, baldin eta laneko jarduerak subjektuari eskaintzen zion gozamina bera nahikoa ordainsaritzat bazeukan hark. Lanaren bitartez errealizatu sentitzen bazen, nahiz eta diru askorik ez eskuratu, ordaindutat jotzeko moduan zegoen. Helburua norberaren gaitasun pertsonalak garatzeko aukera izatea zen. Lan- eta bizi-baldintza prekarioak beren borondatez onartzen bazituzten, hori, ohiko lanek bizitzeko desira oro suntsitzen zuelako gertatzen zela dio Loreyk. Baina paradoxikoki, autonomiaren eta askatasunaren aldeko desirak bultzatuta beren burua prekario bihurtzea erabakitzen zuten gazte konformagaitz haientzat lan- eta bizi-molde normalizatuetatik kanpora kokatzeko aukera bazen ere hura, gaur egun erabat neutralizatu izan da erresistentzia-eremu izandako hura, Loreyren arabera:

*«[...] son precisamente estas condiciones de vida y trabajo alternativas las que se han convertido de forma creciente en las más utilizables económicamente, puesto que favorecen la flexibilidad que exige el mercado de trabajo. [...] no sólo han sido resistentes y se han dirigido contra la normalización sino que también, al mismo tiempo, han formado parte de las transformaciones que han desembocado en una forma de gubernamentalidad neoliberal».*⁴²⁷

425 BOURDIEU, Pierre: op. cit., 1999 (120. or.).

426 LOREY, Isabell: op. cit., 2008 (59.-60. or.).

427 Ibidem (72. or.).

Prekarietatea gobernantzaren eremutik at posizionatzeko modua izan zen une batean, baina gaur, prekarietatea bera, gobernatzeko modu bihurtu da. Langabezia arazo larri bat denean, lehiakortasuna basatia denean, eta gizartea hiperkontsumismoan murgilduta dagoenean, prekarietatearen nozioak beste zentzu bat hartzen du, zeharo bestelakoa. Langile prekarizatuak orain ez du aukerarik “laneko” denboraldiak eta “lanik egin gabe-koak” tartekatuz bizitzeko. Langilea, biziraupena bermatzen dion lana galtzeko beldurraren menpe bizi ez denean, lana lortzeko ezintasunak sortzen duen itolarriaren menpe bizi da. Egoera horretan, prekarietatea langileak-eta azpian hartzeko modu bat bihurtzen da.

Nahiz eta gaur egungo testuinguruan ere bizimodu prekarioaren aldeko hautua egiten denean askatasunaren eta autonomiaren aldeko apustua egiten dela pentsatzen den (arte- eta kultura-produkte askok hala pentsatzen dute), Loreyk esaten duenari kasu egiten badiogu, hori ez da horrela. Loreyren esanetan, askatasunaren ideiak subjektibazio-modu hegemonikoekin bat egiten du Mendebaldeko gizarte kapitalistetan, eta beraz, hautazko prekarietateak harreman politiko eta ekonomiko neoliberalen parte aktibo bilakatea esan nahi du.⁴²⁸

Von Ostenek,⁴²⁹ Martí Peranek⁴³⁰ eta Hanek⁴³¹ azaltzen duten moduan, orain subjektua aske izatera derrigortuta dago. Hain zuzen ere, kontraesan horretan aurkitzen da neoliberalismoaren subjektua. Baina askatasunaren promesa zekarren hautazko prekarietatea ez da langilearen errealizazioaren eta emantzipazioaren sinonimo. Prekario izatea jada ez da neoliberalismoaren kanpoan kokatu eta aske izateko bermea; kondizio hori neoliberalismoaren lan- eta bizi-moduen ezinbesteko baldintza bihurtu da.

5.2.3. Esplotaziotik autoesplotaziora

«Lo que Orwell temía eran aquellos que pudieran prohibir libros, mientras que Huxley temía que no hubiera razón alguna para prohibirlos, debido a que nadie tuviera interés en leerlos. Orwell temía a los que pudieran privarnos de información. Huxley, en cambio, temía a los que llegaran a brindarnos tanta que pudiéramos ser reducidos a la pasividad y el egoísmo. Orwell temía que nos fuera ocultada la verdad, mientras que Huxley temía que la verdad fuera anegada por un mar de irrelevancia. Orwell temía que nos convirtiéramos en una cultura cautiva. Huxley temía que nuestra cultura se transformara en algo trivial, preocupada únicamente por algunos equivalentes de sensaciones varias. Como Huxley destacó en su libro Nueva visita a un mundo feliz, los libertarios civiles y racionalistas, siempre alertas para combatir la tiranía, “fracasaron en cuanto a tomar en cuenta el inmensurable apetito por distracciones

428 Ibidem (58. or.).

429 VON OSTEN, Marion: op. cit., 2008 (85. or.).

430 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (48. or.).

431 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (31. or.).

*experimentado por los humanos". En 1984, agregó Huxley, la gente es controlada infligiéndole dolor, mientras que en Un mundo feliz es controlada infligiéndole placer. Resumiendo, Orwell temía que lo que odiamos terminara arruinándonos, y en cambio, Huxley temía que aquello que amamos llegara a ser lo que nos arruinara».*⁴³²

Neil Postman

Interesgarria da Byung-Chul Hanek boterearen eta neoliberalismoaren arteko harremanari buruz egiten duen gogoeta. Autore horren arabera, neoliberalismoan, boterea, gobernatzeko modua, inteligentea da, malgua, sotila, ikusezina. Gobernatua den subjektuak ohartu gabe lan egiten du. Arauen eta zigorren mehatxupean subjektua menpeko bihurtu ordez, hura motibatzen eta aktibatzen ahalegintzen da. Izaera gizatiarra erakusten du, atsegina. Debekatu ordez, seduzitu egiten du. Ez da botere negatiboa, positiboa baizik. Ez da errepresiboa, baizik eta erakargarria. Subjektuen kolaborazioa eta inplikazioa bilatzen ditu. Parte hartzera animatzen du, subjektuei beren iritziak, beharrak, desirak komunika ditzaten eskatuz. Beste era batean esateko, ez du askatasuna ukatzen, kontrakoa baizik: sustatu eta esplotatu egiten du. Hanek esaten duen bezala: «*Hoy el poder [...] se ofrece como libertad*».⁴³³

Debekuan eta indarkerian oinarritutako botereak, gehienetan, subjektuaren borondatearen kontra jarduten du, eta erantzun moduan boterearekiko desobediencia- eta erresistentzia-moduak sortzen dira. Horregatik, botere eraginkorra isilpean, zaratarik egin gabe diharduena dela dio Hanek. Subjektua eroso sentiaraziz boterearen menpeko bihurtzea lortzen denean, boterea efikazagoa bilakatzen da. Boterea efektiboa bada, hori, subjektuaren ustez botere horrek bere bizitzan efektu positiboak dituelako gertatzen da. Edo beste era batean esateko, kontrolaren gizarteak efikazak dira subjektuak uste duelako gobernatzeko modu hori onuragarri zaiola. Boterea hautematen zaila denez, eta subjektua eroso dagoenez, ez da haren aurka borrokatzen. Ez du menpean hartua delako irudipena, eta horregatik, aske dela pentsatzen du. Neoliberalismoa, askatasuna esplotatzeko oso sistema inteligente eta eraginkorra da. Askatasunaren bitartez gauzatzen den esplotazioak errendimendu altuagoa du eta etekin mugagabeak ematen ditu, pentsalari horren esanetan.

Foucaultez aritzean ikusi dugun moduan, botereak nor bere buruaren enpresari izatera animatzen du. Orain, autoprodukziorako eta autogobernantzarako borondatea eta ardura dituen langilea sustatzen da, eta egoera hori norberarentzat onuragarria, mesedegarria eta positiboa dela pentsarazten da. Mendebaldeko lurraldeetan, autonomiaren eta autoenpleguaren nozioek indarra hartu dute, subjektuak bere lana asmatu behar du, bera da bere diru-sarreraren erantzulea, bere burua produzitzearen eta erreproduzitzearen arduradun. Autonomiaren eta autoenpleguaren logikan, langileak berak kudeatu behar ditu bere denbora, abileziak, ideiak eta ezagutza. Pertsona bakoitza bere gaitasunen jabe da. Horiek

432 POSTMAN, Neil: *Divertirse hasta morir. El discurso público en la era del espectáculo*, Tempestad, Bartzelona, 2001 (6. or.).

433 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (2) (28. or.).

kudeatzeko ardua du, eta enpresarien moduan, horiek esplotatzen eta ahalik eta etekin handiena ateratzen jakin behar du. Orain, ekintzailearen figurari gorazarre egiten zaion garaian, nor bere bizitzaren protagonista izatera animatzen da. Alde horretatik, oraingo botere berri honek, subjektua motibatu, estimulatu eta bultzatzeko gaitasuna erakusten du. Kudeaketa-teknikak, *coach* edo entrenatzaile pertsonalak, motibazio-tailerrak, lidergoari buruzko ikastaroak, eta sorkuntzari eta berrikuntzari buruzko hitzaldiak, besteak beste, aukera ugari ditu orain subjektuak, errendimendu handiena lortzeko. Hanek dioen bezala:

*«El régimen neoliberal transforma la explotación ajena en autoexplotación».*⁴³⁴

Hanen tesiaren arabera, subjektu neoliberalak subjektu autoesplotatua da. Industrializazioarekin, klase arteko borroka jaio zen, burgesiaren eta proletariotzaren arteko borroka. Burgesiak esplotatu egiten zuela salatzen zuen langileak. Garai hartan esplotazioa langileari kanpotik zetorkion. Boterea kanpotik gauzatzen zen. Baina neoliberalismoan, Rodríguez esanetan, langileria-masa desagertu ostean zatikatu egin da, atomizatu.⁴³⁵ Ekintzaile, autonomo, subjektu enpresa edo freelance forma du orain langile indibidualizatuak. Bere buruaren enpresari izatera pasatzean, nagusi eta morroi bihurtzen denez aldi berean, bere burua esplotatzen amaitzen du. Esplotazioak autoesplotazio-forma hartzen du. Lehen, nagusiak, kapitalistak, langilea esplotatzen zuen. Langileari kanpotik zetorkion indarkeria, eta hark bazuen noren kontra jo. Orain, ordea, boterea ez datorkio kanpotik, barrenetik baizik. Langileak bere buruari ahalik gehien exijitzen dio, hiperproduktibitatearen mundu lehiakor honetan bere burua esplotatzen du. Langilea kanporik gabe gelditu da. Ez dago nagusirik, ez dago esplotatzailerik, eta beraz, ez dago noren kontra jo. Horrenbestez, nahiz eta norberaren borondatez eta motibazioak bultzatuta jardun, subjektua aldi berean esplotatzailea eta esplotatua denez, bere buruaren aurka egiten amaitzen du:

*«El sujeto del rendimiento neoliberal, ese “empresario de sí mismo”, se explota de forma voluntaria y apasionada. El yo como obra de arte es una apariencia hermosa, engañosa, que el régimen neoliberal mantiene para poderlo explotar totalmente».*⁴³⁶

Neoliberalismoan, botereak askatasuna ukatu ordez, erabili egiten du. Gobernatzeko horrela errazagoa gertatzen dela aipatzen du Hanek, ez baitu desobedientziarik eta erresistentziarik aurkitzen bere bidean. Alderantziz, subjektua eroso sentitzen denez, errealizatua, libre, kolaboratu egiten du. Autoesplotazioa kanpotik ezarritako esplotazioa baino eragin-korragoa da, subjektu autoesplotatuak askatasun-sentsazioa duelako. Bere buruaren jabe den subjektua, kanpoko boterearen menpekotasunetik libratu den arren, ez da aske.⁴³⁷ Errendimenduaren gizartean askatasunak eta hertsapenak bat egiten dutela azaltzen du Hanek. Banaezinak dira. Aske izateak autoesplotatua izatea esan nahi du, eta alderantziz.

434 Ibidem (2) (18. or.).

435 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (165. or.).

436 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (2) (45.-46. or.).

437 Ibidem (2) (13. or.).

Elkarrizketa batean duela gutxi esan zuen moduan: «*Ahora uno se explota a sí mismo y cree que está realizándose*». ⁴³⁸

5.2.4. Nekea, gaixotasuna, ondoeza

«*Nosotros, los enfermos de normalidad, somos una anomalía. Un error del sistema. [...] Nuestra verdad es la verdad del mundo. De su funcionamiento*». ⁴³⁹

Santiago López Petit

Estatua, instituzioak edo langile-mugimendua, garai batean baziren etorkizunera begira subjektua babestua sentiarazten zuten nolabaiteko gida edo helduleku sendo, egonkor eta solidoak. Baina neoliberalismoarekin, boterearen eta politikaren arteko dibortzioa gertatu da. Merkatu-ekonomiak gobernatzen du bizitza. Norbanakoaren eta merkatu-ekonomiaren artean bitartekari-lanak egin beharko lituzke estatuak, baina gero eta paper ahulagoa du. Instituzioekiko fedea galdu da. Oraingo mundu globalizatu honetan, lanaren merkatu libreak eta deslokalizazio-prozesuek langileriak lehen zuen indar eta ahala desegitea lortu dute. Langileriaren kontzientzia kolektiboa eta nortasuna kaltetua aterata da. ⁴⁴⁰ Fordismo-garaian Mendebaldean hegemonikoa zen fabrika erraldoietako aktibitatea gain behera erori ostean, langileria-masa handi haiek ere desegin egin dira. Postfordismoan langileria zatikatuta, atomizatuta, indibidualizatuta dago. Langilea bakarrik dago, eta horrek badu haren kondizioan eragina.

Abiadurak, lehiak eta egonkortasun ezak ziurgabetasuna, beldurra eta presioa eragiten dute babesik gabe eta bakarrik dagoen langile horrengan. Eginkizunen eta betebeharren zerrenda gero eta luzeagoa da, amaiezina. Erritmoari jarraitzeko eta eskatzen zaion guztia betetzeko gai izango ez delako izua ikaragarria da. Gaixotzeko, baja eskatzeko, atsedendaldi bat hartzeko beldurrez dago, lehiakidez jositako lasterketa betean postuak galtzeko edo zuzenean lasterketatik kanpo gelditzeko arriskua dakarrelako horrek. Lehiakortasunean oinarritutako ekonomian, arrakasta pertsonalaren eta zorientasunaren aldeko lehiara deitua da gizarte osoa, baina gutxi dira, oso gutxi, helburua lortzera iristen direnak. Ez dago irabazlerik galtzailerik ezean. Arrakasta lorpen pertsonalaren fruitu bihurtu den bezala, porrotarekin beste horrenbeste gertatu da. Porrota, lehen, klasearen patua zen, eta orain, porrota pertsonala da, norberarena, Lipovetskyk eta Serroyk ohartarazten digutenez. ⁴⁴¹ Gizarteak exijitzen duen maila ematen ez badu batek, atzera geratzen bada eta porrot egiten badu, errua berea da eta ez beste inorena, Baumanek azaltzen duen bezala. ⁴⁴²

438 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2018.

439 LÓPEZ PETIT, Santiago: *Hijos de la noche*, Bellaterra, Bartzelona, 2014 (75. or.).

440 STANDING, Guy: "Por qué el precariado no es un 'concepto espurio'" kapitulua, *Sociología del trabajo 82. ¿Qué es el precariado?*, Siglo XXI, Madril, 2014 (12. or.). Iturria: https://www.guystanding.com/files/documents/Que_es_el_precariado_Sociologia_deL_Trabajo_82_-libre.pdf

441 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (40. or.).

442 BAUMAN, Zygmunt: op. cit., 2004 (13.or.).

Autoprodukzioaren eta autorrealizazioaren ardura duen subjektuak, helburuak lortzen ez baditu, bere burua gutxietsi, umiliatu eta zigortzen du. Lotsa sentitzen du. Proiektuak huts egiten badu, gauzak ondo egin ez dituen seinale dela pentsatzen du. Bizitza eta denborak ondo planifikatu ez izana, egoera modu egokian kudeatu ez izana edo behar adina saiatu ez izana, sentsazio horrexekin gelditzen da subjektua, eta errudun sentitzen da, beraz. Errendimenduaren gizarte neoliberalak, Rosak azaltzen duen bezala, kulparen subjektuak sortzen ditu.⁴⁴³ Bere porrotaren sustraia sistemaren antolaeran ez ote dagoen galdetu eta hura zalantzan jarri ordez, bere buruari eskatzen dizkio kontuak. Marxek planteatu zuen klase-borrokak⁴⁴⁴ esplotatuak elkartzeko, antolatzeko eta kanpotik zetorkien esplotazioari erantzuteko aukera posible egiten zuen. Baina autoprodukzioan oinarritutako erregimen neoliberallean, nor bere buruaren nagusi izanda, subjektuak porrota bere buruaren aurka zuzentzen amaitzen du.

Modernitateak eskaintzen zuen bizimodu egonkorra ez zen erakargarria, eta erregimen neoliberalak buelta eman dio horri. Kontrakotasunaz, debekuaz edo mehatxuaz baliatu ordez, sedukzioan oinarritako politika inteligente batez baliatuz, atsegina eta erakargarri ageri dela aipatu dugu lehen. Lanaren etika berriak, subjektuaren behar eta desirak erreprimitu ordez, estimulatu egiten ditu. Sennettek kontatzen duen gisan, lan-eredu industrialeko diziplina eta kontrol zorrotzak gobernatua izatetik ezegonkortasun- eta prekaritate-egoerak sortzen dituen beldur eta kezka gobernatua izatera pasatu da langilea, eta eraso horrek izaeraren korrosioa eragiten dio.⁴⁴⁵

Mendebaldean, lan industrialaren ehuna deseginez eta subjektibitatea produktibo bilakatzat joan den heinean, langilea ustezko askatasun-egoera batean dagoela pentsa daiteke. Baina iraganeko zenbait menpekotasunetatik libratu bada ere, ikusten zailak eta ulertzen nekezak gertatzen diren hainbat menpekotasun berriren eraginpean dago gaur egun. Autonomia lortu eta subjektu enpresa edo nor bere enpresari bihurtzean autorrealizazioaren esperantzak posible eman arren, zenbait ikerketaren emaitzek bestelakoa diote:

*«Los valores de la independencia y de la autoempresarialidad, [...] se han revelado formas de una nueva esclavitud que produce inseguridad social, pero sobre todo una catástrofe psíquica cuyas proporciones aún quedan por evaluar».*⁴⁴⁶

443 ROSA, Hartmut: op. cit., 2016 (131. or.).

444 ENGELS, Friedrich; MARX, Karl: op. cit., 2011 (86. or.).
Marxek eta Engelsek azaltzen duten bezala, kapitalistak jarduera ekonomiko bat abian ipintzen duenean, inbertitu duen kapitalaren balorizazioa gertatuko delako esperantzan egiten du. Alegia, zikloaren amaieran hasieran inbertitutako kapitala berreskuratzeaz gain, balio handiagoa edo gainbalioa lortuko duelakoan. Produzitzen den balioa bereganatzeko saiakera egiten du langileriak, zeren eta, produkzio-prozesuaren ondorioz sortutako aparteko balio edo gainbalio oro, kapitalistak bereganatu bai baina ordaindu ez duen lana da. Historia lehia horretatik eraikitzen da, klase-borrokatik: «[...] toda la historia de la humanidad ha sido una historia de lucha de clases, de lucha entre explotadores y explotados, entre clases dominantes y clases oprimidas».

445 SENNETT, Richard: op. cit., 2000 (9. or.).

446 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (220.-222. or.).

Neoliberalismoaren gobernatzeko modua sedukzioan, motibazioan, positibismoan eta askatasunean oinarritzen dela aipatu dugu. Esan dugu, halaber, bizitza intentsitatez bizitzearen aldeko diskurtsoak nagusitu diren garai honetan, lanetik kanpoko denborari ahalik eta etekin handiena atera behar zaiola eta, loa bera denbora-galtzetzat hartzen dela. Subjektu garaikideak etengabe zereginetan, konektatuta, komunikatzen, elkarreraginean, erantzuten edo prozesatzen agertu behar du, beti aktibo, inola ere ez geldirik, Craryren esanetan:

*«Estar siempre haciendo algo, moverse, cambiar: esto es lo que goza de prestigio frente a la estabilidad que es, a menudo, sinónimo de la inacción».*⁴⁴⁷

“Egizu”, “ahal duzu”, “zure esku dago”, “izan baikor”, “pentsatu positiboki”. Erantzukizun osoa bere gain hartu duen subjektu enpresa, ekintzaile, autonomo, freelanceari, “just do it”, “you can do it”, “do it yourself” eta antzeko mezuen bonbardaketarekin, ekitera animatzen zaio. Zernahi garai eta egoerataro moldatzeko gaitasuna, malgutasuna eta erresilientzia erakustea, aldaketetarako prest egotea, unean unekoa bizitzea, jarrera dinamiko eta aktiboa izatea eta motibazioa eskatzen zaie langileei. Erosotasuna alhora utzi eta bere burua arriskuan ipiniz bizitza muturrera eramaten duen langilea, huraxe da heroia. Horrelakoa behar du gaur egungo produkzio-indar berriak: autoproduzitu eta autorrealizatzen den subjektua.

Alabaina, lehia, hiperaktibitatea, errendimendua eta positibismoa barneratu dituen subjektu indibidualizatu aske horrek badu ezin ezkuta dezakeen ahulezia bat. Modernitatean, langilearen ondoezak diziplina zela-eta askatasuna erreprimitzen zion bizimodu errutinario eta egonkorrekin zuen zerikusia. Ondoeza ziurtasunetik zetorkion. Post-modernitatean, berriz, kontrakoa gertatzen da. Oraingo langileari ziurgabetasunak eragiten dio ondoeza, zorientasuna promesten dion malgutasun horrek berak, Baumanek dioenez.⁴⁴⁸ Langilearen ondoeza ez dator ukazio-jarrera edo negatibitatearekin, Biforen esanetan, baizik eta positibitatearen gehiegikeriarengatik. Gero eta denbora gehiago lan egitera behartuta dagoen langileari zoriotsu izateko mandatua ere jarri diote bere gain.⁴⁴⁹ Lipovetsky eta Serroyren esanetan, ordea, zorientasuna ez baina nekea eta gaixotasun zenbait pairatzen dituela pentsatzeko nahikoa arrazoi badago:

*«Cuanto más libre y más dueño de sí es el individuo, más vulnerable, frágil e interiormente desarmado parece. De ello dan fe la multiplicación de los suicidios y los intentos de suicidio, la espiral de la ansiedad y la depresión, el aumento de las toxicomanías, del consumo de psicotrópicos y de las demandas psiquiátricas».*⁴⁵⁰

447 CRARY, Jonathan: op. cit., 2015 (26. or.).

448 BAUMAN, Zygmunt: *La postmodernidad y sus descontentos*, Akal, Madril, 2001 (10. or.).

449 BERARDI “Bifo”, Franco: “En la solitaria cabina de nuestras vidas: a propósito de Andreas Lubitz”, 2015/03/31. Iturria: http://www.eldiario.es/interferencias/Andreas_Lubitz_6_372422775.html

450 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (61. or.).

Subjektu ekintzaile, autonomo eta malguaren figura fordismo garaiko langile-masa erraldoiaren alternatiba gisa ageri da. Autorrealizazioa eta autoprodukzioaren subjektua, bere indibidualtasunetik abiatuz, garapena, hobekuntza eta optimizazio pertsonala bilatzen eta aldarrikatzen dituen subjektua da. Autonomia eta norberaren ongizatea lehenesten diren garai honetan, kolektibitatean oinarritutako behinolako instituzioen eta langileriaren babesik gabe, subjektua bakarrik dago. Ustez zorientasuna helburu duen kapitalismoaren subjektu malgua arriskuaren zama guztia bere bizkar gainean daraman subjektu esplotatu eta indibidualizatua da. Azelerazioa, orainaren etengabeko errepikapena, berehalakotasuna, hiperestimulua, hiperaktibitatea, *multitaskinga* eta lehia zeharo normalizatuak dituen oraingoa bezalako bizimodu batean, malgutasunak esan nahi duenean norberaren gain hartzea bizitzaren erantzukizun osoa, eta subjektua errendimenduaren subjektu bihurtzen denean, Martí Peranek esaten duen bezala, askatasunak autoesplotazioaren forma hartzen du lehenik, eta nekearena ondoren.⁴⁵¹ Autore horren iritziz, *Do it* ideologiak ez du ezer ere erreprimitzen. Kontrakoa. Autoprodukzioaren helburua betetzeko, gaitasun guztiak produzitzen ipin ditzala eskatzen dio subjektuari. Baina horrek izan ditzakeen ondorioez ez dio ohartarazten. Errendimendu jasangaitzaren obligazioa bizitzaren kontrako eraso da, errendimenduaren subjektuaren aurkako eraso, azken finean:

*«El efecto último del programa Do it y su imperativo de autorrealización es la fatiga. A pesar de las promesas de libertad, prosperidad y felicidad que acompañan al programa, la hiperactividad incesante y la amenaza del fracaso no hacen sino alimentar el colapso y el miedo hasta niveles crónicos. "La fatiga de ser uno mismo" se ha generalizado. El sujeto de la autoproducción acaba por convertirse en el individuo más vulnerable».*⁴⁵²

Industrializazioaren sorreratik asmatutako lan-moduak nekea, sufrimendua, gaixotasuna eta, horrenbestez, ondoeza eragin dizkio langileari. Bizitza osoa makina baten aurrean pasatu duen langileak, egunero-egunero ariketa mekaniko bera egiten, jardueraren errepikakor horren ondorioak jasan ditu. Minutuko lau aldiz zortzi orduan hamar kiloko pieza bat gerri paretik buruaren altuerara igotzen jardutea egun batean bai eta hurrengoan ere bai 30 urtean, horrek ondorio fisiko nabariak eragin dizkie langileei, argi dago. Fordismoko produkzioa ordezkatzera etorri diren eredu berrietan jarduerak oso bestelakoak dira, eta lanak eragindako ondorioak ere hala dira. Garaiaren eta testuinguruaren arabera, lanak eragindako ondoez-motak aldatu egiten dira. Gizarte bakoitzak bere gaixotasunak omen ditu, eta Byung-Chul Hanen iritziz, XXI. mendeko gaixotasuna neuronal da.⁴⁵³

451 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (12. or.).

452 Ibidem (45. or.).

453 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (11. or.).

Kapitalismoaren bilakaera dela eta, erregimen neoliberalean, ekonomiaren produkzio-moduak eta beharrak aldatuz joan dira. Gaur egun balioa sortzen duen produkzio-mota immateriala, informazioarena, kognitiboa eta sinbolikoa dela esan dugu lehen. Balioa produzitzen duen langilearen gorputza desagertu ez den arren, nagusiki burua da lanean jarri dena zonalde postindustrialetan. Hanek esaten duen moduan, psikea da produkzio-indar berria.⁴⁵⁴ Burua, gorputzeko giharrak bezalaxe, lanaren ondorioz nekatu egiten da. Kreatibitateak eta lan intelektualak buruko nekea eragiten dute. Eta baita zaintza-lanek ere, afektuekin eta emozioekin harremana duten horiek. Oraingo nekea, beraz, ez da garai batean bezala nagusiki fisikoa, lan fisikoa baino gehiago burukoa delako oraingo lana, neurri handi batean. Kapitalak gaur energia psikikoa behar du. Askoz lan gehiago eginarazten zaio buruari, eta beraz, askoz ere gehiago estutzen da gorputz-atal hori orain lehen baino.

Hanen arabera, bizi-baldintza garaikideen ondorioz, jarduera, bizkortasun eta aukera gehiegiak superprodukzioa, supererrendimendua eta superkomunikazioa eragin ditu. Aurretik aipatu dugun moduan, errendimenduaren subjektuak bere buruarekiko duen harremana autoesplotaziokoa da. Horren ondorioz, dio Hanek, autoesplotatutako subjektuak "nekearen gizartea" deritzona ekarri du.⁴⁵⁵ Autore horren tesiaren arabera, errendimenduaren subjektua askatasun derrigortuaren subjektua da. Aske izateko obligazioa du. Eta testuinguru neoliberalean, askatasun horrek baditu ondorioak, Hanen esanetan. Autorrealizazioaren eta errendimenduaren erantzukizun eta presioak nekea eragiten dute, eta nekearen ondorio dira, hain zuzen ere, oso modu kezkarriaren gizartean zabaldu diren hainbat gaixotasun psikiko.⁴⁵⁶

Gaixotasun neuronalak, depresioa, arreta-defizitaren nahasmendua, neke profesionalaren sindromea eta suizidio-kasuen gorakada, hain zuzen, gaur egungo osasun-arazo larrienak dira Mendebaldean.

Santiago López Petitek dioenez, garai global hau ondoezak alderik alde zeharkatuta dago. Ondoeza, edo ondo ez egotea, oso argi zehaztu gabeko sintoma, erreakzio eta gaixotasun ugariren bitartez jartzen da agerian. Ondoezak nekearen forma hartzen du.⁴⁵⁷ Material bat behin eta berriz esfortzu baten pean jartzen denean, materialak apurka-apurka erresistentzia galdu eta azkenerako hautsi egiten da. Beste horrenbeste gertatzen da bizitzarekin, López Petiten aburuz. Badago ondo egoteko nahi bat, behar bat, baina inola ere lortzen ez dena. Porrot egiten duen saiakera bakoitzeko, nekea pilatuz doa, areagotzen, eta azkenean bizitza apurtzen amaitzen du.

454 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (2) (42. or.).

455 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (9. or.).

456 Ibidem (32. or.).

457 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2014 (71. or.).

Bizimodua eramangarria izanda ere, porrota, ondoeza edo krisiaren arriskua etengabea da. Botere terapeutikoaren subjektua zorientasunaren bila dabil, baina prekariedade existentzialaren menpeko gertatzen da. Bizitza, orduan, bizitzaren kontra doa, eta bizitza ez da bizigarria. López Petitek dioen moduan, «[...] *la vida es este no vivir para poder vivir*». ⁴⁵⁸

Bizitzak bizitza izateari utzi dio, Lipovetskyren esanetan. Bizitza depresioak kolonizatu zuen, eta harrezkero, gaixotasun bihurtu da:

«*Nadie puede ya vanagloriarse de librarse de [...] "la enfermedad de vivir", plaga actual difusa y endémica*». ⁴⁵⁹

“Bizitzearen gaitza” deritzon hori, depresioaz gain oro har buruko gaitzak bilduko lituzkeena, gizarte osora hedatu da, orokortu egin da. Gaixotasun horren jatorria aztertzerakoan, Lipovetskyren ustez, ez da zuzena norbanakoaren gorabehera psikologikoei edo egungo bizimoduaren “zailtasunei” egozteko egoeraren ardura. Lipovetskyk esaten duenez, *res publica* edo ‘eremu publikoa’ bizitzatik bazterreratzearekin bat, bere buruaren bila eta bere buruaz soilik arduratzen den gizabanako puruaren etorrera izan da ondoezaren arrazoia. Subjektu nartzisista hau ‘egiteko publikoa’ den horrekiko interes edo motibaziorik batere gabe dago. Ez dio axola. Egoera horrek, ordea, bere nortasunari zuzenean eragiten dio; izan ere, estresa, antsietatea, depresioa, larritasuna eta insomnioa bezalako gaitzak izatera emana da, autore horren esanetan. ⁴⁶⁰

Biforen ustez ere, egoera kezkarri hau ulertzeko, kontua ez da norbanakoari edo subjektu indibidualizatuari erreparatu eta arazoa pertsonala dela pentsatzea. Prekariedadean, egonkortasun ezean eta lehiakortasunean oinarritutako lan- eta bizi-moduaren ondorioa da ondoeza. Norbanakoaren arazo partikularra izatetik haratago doa. Arazoa egiturazkoa da. Bifok dioenez, azkeneko hamarkadetako datuei erreparatuta, izu-ikarak eta depresioak inoiz ez bezalako gorakada izan dutela gauza argia da:

«*La incidencia de las psicopatologías ha ido en aumento en las últimas décadas y, según la Organización Mundial de la Salud, la tasa de suicidios se ha incrementado en una 60 % en los últimos 40 años, de forma particularmente peligrosa entre los jóvenes. [...] Confieso que veo una relación entre esta increíble oleada de propensión al suicidio y el triunfo de la coerción neoliberal por competir. Confieso que veo una relación entre la generalización de la fragilidad psíquica y la soledad de una generación que solamente se encuentra a través de la pantalla. Por cada persona que logra suicidarse, hay otras 20 que intentan matarse sin poder consumar el hecho. Es por esto que deberíamos reconocer que hay una especie de epidemia del suicidio*

458 LÓPEZ PETIT, Santiago: “La politización del malestar en una sociedad terapéutica”. Iturria: <https://soundcloud.com/traficantesdesue-os/la-politizacion-del-malestar?in=traficantesdesue-os/sets/en-tu-interior>

459 LIPOVETSKY, Gilles: op. cit., 1992 (46. or.).

460 LIPOVETSKY, Gilles: op. cit., 1992 (111. or.).

*extendiéndose por el planeta tierra.[...] La causa más probable [...] es la transformación de la vida en sociedad en una fábrica de infelicidad de la cual parece imposible escapar».*⁴⁶¹

Bizitzaren oinarria lehiakortasun ekonomikoa denean, gizartearen depresio masibo baterako baldintzak ipintzen direla esaten du.⁴⁶² Babes falta, azelerazioa, gehiegikeria, gainezka egotea eta errendimendua dira arau. Egunean 24 orduz eta astean 7 egunez produzitu eta kontsumitzen duen gizartean, etengabe konektatuta, bere burua prestatzen edo lehiatzen egoteko beharra duen testuinguruan, subjektuari gero eta inplikazio handiagoa exijitzen zaion gizartean, indibidualtasunak, arriskuak, egonkortasun ezak edo etorkizunean zer izango den ez jakiteak izaeraren korrosioa, estresa, antsietatea, depresioa eta suizidioa eragiten dute. Biforen tesiaren arabera, gainera, lehiakorra, produktibista eta indibidualista bilakatu den egunerokotasunean, depresioa, autorrealizazioa eta zoriontsu izateko agintzen duen ideologia eskutik helduta doaz.⁴⁶³ Langilea esplotatua izatetik autoesplotatua izatera pasatu denean, besteengandik banatzen eta bakartzen duten neke, gaixotasun eta ondoez horrek, esplotatua eraldaketarako subjektu iraultzaile bihurtu ordez, gaixo eta kaltebera bihurtzen du, Biforen esanetan.


461 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2015/03/31.

462 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (81.-82. or.).

463 Ibidem (81. or.).

-6-

OHE GORRIA



► **"MANIFESTAZIO SUPREMATISTA", 2015.**

Kazimir Malevitxek Vladimir Maiakovskirekin batera 1915ean *Manifestu Suprematista* idatzi zuela eta, ehungarren urteurrenean gertakari hura gogora ekartzeko, manifestazio isil batek herriko kaleak hartu ditu. Aldi berean, gainera, badu ekintza honek Malevitxek nagitasuna gorai patzen dueneko idatzia gogoratzeko asmoa ere. Horregatik, Manifestazio Suprematista lanaren kontrako eta nagitasunaren aldeko aldarrikapena ere bada.

Lotura: <https://vimeo.com/137848169>



6.1. ONDOEZAREN POLITIZAZIOA

Prekarietatearen aldeko apustua egitea ez da jada kapitalismotik kanpo kokatzeko hautua. Prekarietatea da arau. Autonomo, bere buruaren jabe, subjektu enpresa, ekintzaile izatera derrigortuta dago norbanakoa gizarte postindustrialean. Gustukoa duen horren aldeko apustua egin eta ogibide bihur dezan animatzen da. 60ko hamarkadan ezkerreko mugimenduen eskakizun zirenak gobernatzeko modu neoliberalak bihurtu dira azkenean. Lanaren bitartez errealizazioa lortu nahi duen subjektuak gizarte azeleratu, indibidualista, lehiakor eta hiperproduktibo baten testuinguruan lan egiten du. Ikusi dugun bezala, explotazioak autoesplotazioaren forma hartzen du. Horren fruitu da, hain zuzen ere, nekeak jotako subjektu akitua, gaixoa, ondoezik dagoena. Hurrengo ataletan, ondoeza jasangarri edota baliagarri nola bihur daitekeen ikusiko dugu.

6.1.1. Errendimenduaren gizartetik dopinaren gizartera

Makinak lasai asko egon litezke egunean 24 orduz eta astean 7 egunez martxan, etenik gabe lanean, produzitzen, eta errendimenduaren subjektuak gero eta lo gutxiago eta lan gehiago egiten du. Bere mugak gainditzeko nahia eta desira erakusten du etengabe. Horrek, ordea, neke orokortua dakarkio. Logikoa den bezala, eskuzko lana makinek ordezkatu duten neurrian, indar fisikoa indar mentalak ordezkatu du, eta lehen nekea fisikoa bazen, postfordismoan nagusiki mentala da.

Ondoeza duen subjektuak ezingo luke produzitzen jarraitu, baldin eta eskaintzen diren "laguntza" ugariengatik ez balitz. Langileak, lanak eragiten dion neketik errekueratu eta hurrengo egunean berriz ere lanari ekiteko baldintza egokienetan egon dadin, atsedena behar du. Baina hori ere jada ez da nahikoa. Lan-denboran ez ezik hortik kanpo ere subjektua produktibo bihurtu denez, eta lanak bakarrik ez baizik eta bizitzak berak ere subjektuari nekea eta ondoeza eragiten dizkionez, lantokitik kanpoko denbora, asteburu edo oporretako atsedena ere ez da jada nahikoa.

Ondoez orokortu garaikidearen sendabidea ez da atsedenean bakarrik bilatzen. Orain terapia askotarikoak, autolaguntza-liburuak, erretiro mistiko-erlijiozkoak, yoga, meditazioa, *mindfulness* eta beste hamaika praktika modan daude. Sare sozialek ere, gaur egun barneratuta ditugun bizimoldeak direla eta, betetzen dute beren funtzioa alde horretatik, bakardadearekin hautsi eta lagun eta bikotekideak bilatzeko aukera ematen duten aldetik. Eta ez da ahaztekoa kirolaren edo ariketa fisikoaren garrantzia ere, jarduerak bere nekea eraginagatik sendagai ere bihurtu direlako. Gimnasioan sartu eta orduak eta orduak ematen dituzte batzuek, izerdia botatzeak on egiten diela eta. Eta oraingo gimnasioek osasuna

dutenez xede, eta lo falta eta loaren kalitatea arazo bihurtu direnez, siesta egiteko aukera ere eskaintzen hasiak dira batzuk, David Lloyd esanetan.⁴⁶⁴

Gomendio eta laguntza horiek guztiak ez dira bakarrak. Ondoezaren kontrako sendagai arrakastatsuenak, gaur egun, psikofarmakoak dira. Nekea, gaixotasuna eta ondoeza sendatzeko, industriak estimulatzaile, somnifero eta antidepresiboen sorta zabala du eskaintzeko.

Bifok kontatzen duenez, teknologiaren garapena zela medio 90eko hamarkadaren erditik aurrera abian jarritako ekonomia berriaren garapenarekin bat-bat dator sendagai horien erabilera masiboa ere. Prozac izeneko mirarizko sendagaia gizartean arrakastaz sartu zela aipatzen du. Botika hark pertsona beti zoriontsu, beti optimista eta beti produktibo egon zedin lortzen zuen, horretarako gaitasuna zuen, hezur-haragizko gizon-emakumeak makina efiziente bihurtzekoa. Harrezkero, euforizatzaile, antidepresibo eta neuroestimulatzaileen kontsumoa ezinbestekoa bihurtu da lehiakortasunak eta produktibismoak eragiten duen mobilizazio psikikoa jasan ahal izateko.⁴⁶⁵ Psikofarmakoak egunerokotasunaren parte dira, horrelakoen kontsumoa normalizatu egin da. Bifok esaten duen moduan, depresioa sendatzeko jartzen diren bitartekoak autorrealizazioa eta zoriontasunaren promesa dakarren ekonomia berriari oso estu lotuta daude:

*«El uso de sustancias psico-estimulantes o antidepresivas representa [...] la otra cara de la nueva economía. Un rostro escondido, negado, reprimido, y sin embargo absolutamente decisivo».*⁴⁶⁶

Hiperaktibitatea, errendimendua eta lehiakortasuna arau bihurtu diren gizarte honetan, subjektuak sasoiko egon behar du bere onena emateko. Subjektu horrek kale egiten duenean, makalaldi bat bizi duenean, nekatuta, gaixo edo ondoezik jartzen denean, gelditu, atsedean hartu eta "osatu" ostean, berriz ere indarberriturik produkziara itzultzen da. Beste era batean esanda, nekeak, gaixotasunak eta ondoezak subjektuaren produktibitatean eragin egiten duenez, orduan, dopatzea da konponbidea. Horregatik, neke orokortua duen errendimenduaren gizarte hau, zerbait izatekotan, dopinaren gizarte da.⁴⁶⁷ Errendimenduaren gizartean ez dago produkziarik dopinik gabe. Dopinaren gizarte, eraiki den lan egiteko eta bizitzeko eredu jakin baten ondorioa da, produkzioan, hiperaktibitatean eta lehian oinarritutako gizartearena, hain zuzen ere, Byung-Chul Hanek esaten duen bezala:

«[...] la tendencia de que ahora no sólo el cuerpo, sino el ser humano en su conjunto se convierta en una "máquina de rendimiento", cuyo objetivo consiste en el funciona-

464 LLOYD, David: *Napercise*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=w1kcL9-8Nd0>

465 BERARDI "BIFO", Franco: *Generación post-alfa. Patologías e imaginarios en el semiocapitalismo*, Tinta Limón, Buenos Aires, 2007 (1) (28.-29. or.).

466 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (120.-121. or.).

467 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (71. or.).

*miento sin alteraciones y en la maximización del rendimiento. El dopaje sólo es una consecuencia de este desarrollo [...]».*⁴⁶⁸

Ondoeza eragiten duen gizarteak berak ipintzen du ondoeza arintzeko sendabidea. Peranek esaten duen moduan, autoprodukzioaren eta autorrealizazioaren programak berak eskaintzen du errendimenduaren gizarteak eragiten duen ondoezetik osatzeko erremedioa.⁴⁶⁹

Produkzioak, hiperaktibitateak eta lehiak eragiten dute ondoeza, baina haiei ez zaie jartzen neurririk. Ondoezaren sustraietara jo ordez, hura eragiten duten baldintzak jasangarri egin eta lanean errenditzen jarraitu ahal izateko, “laguntza” da eskaintzen den gauza bakarra. Helburua nekea, gaixotasuna, ondoeza ahalik bizkorren sendatzea da, nekeak jota eta ondoezik dagoen subjektua zoriontasunaren promesa dakarkion autoprodukzio eta autorrealizazioaren esparrura lehenbailehen itzultzea.

Ondoeza duen subjektuaren alternatiba “botere terapeutikoa” delakoak dirudi.⁴⁷⁰ Nekearen eta gaixotasunaren ondorioak arindu eta ondoezetik osatzeko, botere terapeutikoaz baliatzen da. López Petitek azaltzen duen bezala, botere terapeutikoa makinariak egoki funtzionatzeaz arduratzen da, subjektua bizirik eta sasoiko mantendu, eta produktibo izan dadin, gutxieneko baldintzak bermatzeaz.⁴⁷¹ Botere terapeutikoak egiten duena da bizitza bat eman, hura produktibo bihurtzeko baldintzapean, lehen ere esan dugun bezala bizitza bizitza produktibo egitea delako errendimenduaren gizartean. López Petitek dioenez, botere terapeutikoa medikalizazio orokortuan oinarritzen da; hau da, medikuntza, psikologia eta psikiatriaren bidez subjektu prekarioaren kalteberatasuna kudeatzeaz. Botere terapeutikoak, indibidualismoaren gizartean, autolaguntza-forma hartzen du: “zeure burua alda dezakezu”, “zure bizitza beste bat izan daiteke, oso bestelakoa”, “nahi duzuna lortzeko gai zara”.

Subjektuari bere barrenera begiratu dezala eskatzen dio, bila dezala bere esentzia eta izan dadila berez den hura. Horixe da autolaguntzaren ideologia: “izan zaitez zu zeu”. Osasunez makal badabil bat, gaixotzen bada, bera da erruduna, behar bezala ez zaintzeagatik, ariketa fisikorik ez egiteagatik edo elikadura osasungarria ez izateagatik. Osasuna, zoriontasuna eta autorrealizazioa norberaren erantzukizuna dira. Nor bere buruaren nagusi, enpresari, ekintzaile bihurtzen da. Norberaren gaitasunak indartu eta emozioak kudeatu behar ditu, testuinguru aldakor bezain ezegonkorrera ahalik hobekien egokitu eta desafioei aurre egiteko. Bizitza nork bere bizitza kudeatzeko arduraren zama astuna bizkar gainean eramatea dela azaltzen du autore horrek. Eta gehitzen du irtenbide indibidual horrek, ondoez soziala ezkutatzeaz batera, norbera errudun sentiarazten

468 Ibidem (72. or.).

469 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (60. or.).

470 ESPAI EN BLANC: op. cit.

471 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2018/04/29.

duela. Bizimodu horrek sortzen duen ondoeza arintzeko oso modu efikaza gertatzen da botere terapeutikoa. Baina aldi berean, ondoez soziala ezkutatzen edo estaltzen du, botere terapeutikoak ondoeza arazo edo kontu pertsonaltzat hartzen baitu. Horregatik, botere terapeutikoa despolitizatzailea gertatzen da, López Petiten esanetan.⁴⁷² Ezin ahantz daiteke, egoera pertsonaletik haratago, subjektuak pairatzen duen ondoeza fenomeno orokortu bat dela.

Horregatik, suizidioari buruz gogoeta egiten duenean López Petitek, esaten du subjektua bere buruaz beste egitera eramaten duten arrazoen atzean ondoez orokortua dagoenez, suizidioa politikoa dela.⁴⁷³ Kultura terapeutikoa paradoxikoa da, hortaz. Ondoeza eta sufrimendua arintzen ahalegintzen da, baina ondoeza eta sufrimendua eragiten ditu aldi berean.

6.1.2. Ondoeza arazo politikoa denean

*«Quien quiera conocer la verdad sobre la vida inmediata, tendrá que estudiar su forma alienada, los poderes objetivos que determinan la existencia individual hasta en sus formas más ocultas».*⁴⁷⁴

Theodor W. Adorno

Gure gizartean, estresa, antsietatea, depresioa eta antzeko beste hainbat gaixotasun isilpean gordetzen dira. Disimulatu egiten dira. Subjektuak besteen aurrean bere emozioak faltsutzen ditu, inor ere konturatu ez dadin bere ondoezaz. Horrelako gaixotasunek lotsa eragiten diote gaixo dagoenari, ematen baitu pertsona hori ez dela gai bizitzako exigentzien eta obligazioen aurrean haiei aurre egiteko. Pentsatzen baita ez duela behar adina indar aurrera egiteko, ahula dela. Bizitzak kontrolpetik ihes egin diola eta ez dela norabidea zuzentzeko gai. Batek bere onena eman dezan prestatuta eta osasuntsu egotea eskatzen duen errendimenduaren gizarte honetan, gaixo dagoenak bere egoera kulpasentimenduarekin bizi du. Psikologiaren ikuspuntutik, arazo guztien muina indibiduala da, pribatua. Eta esan beharra daukagu, eremu horren ekarpenak garrantzitsutzat badauzkagu ere, ikuspegi hori gaur egungo ondoeza ulertzen saiatzeko ez dela nahikoa. Espai en Blanc-en esaten duten bezala, ondoeza detektatu eta deskribatzea gauza ona da.⁴⁷⁵ Botere terapeutikoak kudeatzen dituen "hutsaren gaixotasun" anitzen berri ematea ondo dago eta beharrezkoa da. Baina ondoez sozial hori politizatu eta eraldaketarako tresna bihurtzea da benetan funtsezkoa, nahiz eta aitortzen duten erantzunik ez dutela.

472 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2018/04/29.

473 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2014 (73. or.).

474 ADORNO, Theodor W.: *Mínima moralía. Reflexiones desde la vida dañada*, Taurus, Madril, 2001 (9. or.).

475 ESPAI EN BLANC: op. cit.

Ondoeza modu indibidualean bizitzeak ez du esan nahi haren jatorria ere indibiduala dela. Ondoezaren indibidualizazio bat gertatzen dela egia da, edo Mark Fisherrek esaten duen bezala, estresaren pribatizazioa gertatu da.⁴⁷⁶ Hala ere, nahiz eta norbanakoari modu indibidualean gertatzen zaion zerbait dela pentsatu, edo ondoeza norberaren barretetik datorrela uste izan, arazoa ez da partikularra, edo ez da partikularra soilik bederen. Nahiz eta modu indibidualean bizi izaten den, aipagai dugun ondoeza sozialki sortzen da. Bifok esaten duen bezala, sintoma indibidual horiek ezin dira zerbait bakana balira bezala tratatu,⁴⁷⁷ ez baitira marjinalak. Egiturazko ondoez orokortua da.

Amador Fernández-Savaterrek sufrimenduaren politizazioari buruz⁴⁷⁸ idatzitako artikulua batean azaltzen duenaren arabera, kapitalismoaren baitan eraikitako gizartea eraldatzeko ardatz klase-borroka ipintzen zenean, norbanakoaren mina, zauria, gaixotasuna edo ondoeza ez ziren aintzakotzat hartzen. Intimitatearen eremu partikularrean gertatzen zirenak "burgese txikiaren" arazoak ziren. Pertsonala eta politikoa bi termino bereiz ziren. Alde batean eremu intimo edo pribatua zegoen, etxeko pareten artean gertatzen zena, pertsonaren eta familiaren erantzukizun zena. Eta beste aldean eremu publikoa zegoen, amankomunean eta besteekin harremanean egiten zen bizitza. Eremu intimoa ez zen mugimendu kritiko eta iraultzaileen programetan tokia zuen gudu-zelai bat izan, harik eta 70eko hamarkada inguruan, feminismoetatik, "pertsonala ere politikoa" dela aldarrikatu zen arte.⁴⁷⁹

Politikari buruzko ikuspegi murrizta salatu zuten garai hartako mugimendu feministek, eta ohartarazi, alderdi politikoek (funtsean gizonezkoen esparru zirenak, gainera) beren arteko desadostasunak negoziatu, konpondu eta instituzioetako gobernantza-karguen banaketa egitea baino askoz eremu zabalagoa dela politika. Ez zen botere politikoa soilik jokoan zegoena. Beste ororen gaineratik, eguneroko bizimoduaren kalitatea, plazera, sufrimendua eta norberaren errealizazioa zeuden jokoan. Kate Milletek 70eko hamarkadan ohartarazi zuen bezala, politika menperakuntza-sistema bat irautarazi ahal izateko estrategia-multzo bat da.⁴⁸⁰ Familia eta sexualitatea, esate baterako, ordura arte kontu pertsonal eta pribatuen eremukotzat hartzen baitziren, patriarkatuak bere nagusitasuna ezarri eta irautarazteko erabiltzen zituen esparruak zirela salatu zuten mugimendu feministek. Ikusarazi nahi zuten egunerokotasuneko parte ziren gauzarik arruntenak ere, hala nola bikote-harremanak, maitasuna, sexualitatea eta abortua, garrantzi handirik gabekoak ziruditen ustezko kontu pertsonal horiek ere, botere-harremanak zirela,

476 FISHER, Mark: *Realismo capitalista. ¿No hay alternativa?*, Caja Negra, Buenos Aires, 2016 (125.or.).

477 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (24. or.).

478 FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: "Politizar el sufrimiento". Iturria: <http://www.circulobellasartes.com/revistaminerva/articulo.php?id=233>

479 HANISH, Carol: "The Personal is Political". Iturria: <http://www.carolhanisch.org/CHwritings/PIP.html>
Lelo hori 70eko hamarkadako mugimendu feministaren lelo esanguratsuen bihurtu zen. Carol Hanish izeneko feministak "The Personal is Political" izeneko artikulua idatzi zuen 1969an. Artikuluaren bitartez, ezkerreko mugimenduen kritikei erantzun zien. Izan ere, garai hartan, ezkerreko mugimenduen burla eta iseka egiten zieten feministei, azken hauek injustizia sozialez arduratu ordez (emakumezkoen aurkako diskriminazioa ez baitzen orduan injustiziatzat hartzen), "terapia" taldeetan bildu eta beren arazo "indibidualez" arduratuago agertzen zirela leporatuz.

480 MILLET, Kate: *Política sexual*, Cátedra, Madril, 1995 (68. or.).

menperakuntzarako eremu, eta beraz, politikaren eremu edo eremu politikoak. Beste modu batean esateko, politikaren eremua eremu pertsonalari ere bazegokiola. Emakumezkoek jasaten zuten diskriminazioa eta indarkeria sistema patriarkalaren logikaren pean oinarritutako gizartearen ondorio ziren. Beraz, arazoa politikoa zen, eta horregatik, eztabaidak zein konponbideak ere politikoa behar zuen izan.

Mugimendu feministen ekarpenak ezinbestekoak dira, beste behin ere, gure garaiko ondoezaren inguruan pentsatzeko. Nahigabe indibidual zein kolektiboetan arreta jarriz eta horiek aztertuz bakarrik iritsi gaitzke gizartearen ondoeza ulertzea; izan ere, Amador Fernández-Savaterrek lehen aipatutako artikuluan azaltzen duen moduan, gure gorputzetan bizi ditugun depresio, ondoez eta gaixotasunak gizarteak pairatzen dituen depresio, ondoez eta gaixotasunak dira.⁴⁸¹ Alde horretatik, testuinguruak aldatu egin direla eta ondoez-moduak ere ez direla berberak dio autore horrek. Kapitalismoak orain ez du bizimodu estandarizatu, errutinario, aspergarri eta ukatzailerik nahi. Bizitza erreprimitu ordez, mobilizatu egiten du, eta komunikazioa, kreatibitatea nahiz nortasuna lanean jarri eta esplotatu egiten ditu. Baina hain zuzen ere horregatik, kapitalismoak intimitatea bere helburuetarako bide gisa erabiltzen duenean, intimitatea erresistentziarako eremu bihurtzen dela gehitzen du.

Egiten du norberak ahalegina pairatzen ari den ondoeza bere bakardadean ahal duen bezala eta dakien ondoen eramaten, baina arazoa kolektiboa denez, konponbideak ere kolektiboa izan behar du. Ezinbestekoa da, orduan, ondoezari argi apur bat ipintzea, hura partekatu, konpartitu, sozializatzea. Besteek ere pairatzen duten zerbait dela ohartaraztea, "normalizatutako" errealitatearen parte dela ikusaraztea. Egunerokotasunean hutsalak diruditen eta pertsonaltzat hartzen ditugun hainbat arazo politizatzea funtsezkoa da, Pérez Orozcoren esanetan.⁴⁸²

Zafrak dioen bezala, geure burua besteak ez bezalakoa ikus dezakegu edo bakarrik senti gaitzke. Pentsa dezakegu geureak direla zauritutako bizitza bakarrak, baina denok oso antzeko bizipenak ditugu. Hori ikusi eta onartzeko gai izatea, bada ondoeza ulertu eta sendatzen hasteko modu bat.⁴⁸³ Ildo horretatik, Ingrid Guardiolak dio ahultasun hori erabili eta geure burua indartzeko balio beharko ligukeela, ahultasuna ezeztatu eta ezkutatzekak are ahulago egiten gaituelako.⁴⁸⁴ Fisherrek esaten duenez, berriz, osasun mentalaren eremua birpolitizatzea premiazko kontu bat da, kapitalismoari aurre egin nahi bazaio bederen.⁴⁸⁵ Autoprodukzio eta autorrealizazioaren subjektu indibidualizatuak pairatzen duen ondoez kolektiboa politizatzea bestelako errealitate bat eraikitzen hasteko oinarria bihurtzen da orduan.

481 FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: op. cit.

482 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (27. or.).

483 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (54. or.).

484 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

485 FISHER, Mark: op. cit., 2016 (69.or.).

6.1.3. Ondoezaren ahalmen eraldatzailea

Bada jendea kapitalismo neoliberalak ezarri duen lan- eta bizi-erritmoari jarraitu ezin diona eta babesik gabe oraingo malgutasun-egoera prekarizatuan egotea gatazkatsu egiten zaiona. Bada jendea, halaber, subjektu marka, autoprodukzioaren subjektu edo ekintzaile bihurtzea ondoezerako arrazoi bihurtzen zaiona. Ondoeza zauri, min, gaixotasun, neke moduan somatizatzen da. Eta hori norberak egoera horretan denbora gehiagoan jarraitu ezin duenean agertzen da azalera, norberak jada hondoa jotzen duenean.

Ondoeza gorputzak egoera jakin baten aurrean bizi duen desadostasuna adierazteko modu bat da, nolabait. Jasaten ari den tratua aurrean errebelatu egiten da. Zerbait ondo ez doanaren seinale, egoerarekiko erreakzioak izan ohi dira ondoezaren sintoma maiz askotan zehaztugabeak. Gorputzak protesta egiteko duen era dela esan daiteke. Horrenbestez, gorputzak eraso sentitzen dela-eta eraso horri erantzuteko erreakzioa izanik ondoeza, erasoaz ohartzeko ez ezik, ondoeza zerk eragiten duen jakiteko bidea ere ematen du, sustraira edo muinera jotzeko modua. Hala eginez gero, zergatiaren muinera iristean, ondoezarekin bizitzen jarraitzeko edo harekikoa egiteko aukera zabaltzen zaigu. Santiago López Petitek azaltzen duen moduan, nekea gaixotasun gerta daiteke, baina eraldaketarako tresna ere bai:

*«Si el malestar social es la disfuncionalidad de un grito de protesta generalizado, la fatiga son las múltiples anomalías concretas que, en silencio y diariamente, son producidas por el funcionamiento de esta realidad. Ahora bien, la anomalía es efecto y, a la vez, causa. La fatiga, en tanto que enfermedad, es un efecto producido por esta máquina capitalista que llamo realidad, pero también es un modo de rebelión».*⁴⁸⁶

Ondoeza, esan berri dugunez, gaixotasun gisa har daiteke, baina aldi berean, subjektuari kaltea zerk edo zein egoerak eragiten dion jakiteko aukera ere bada, eta horrenbestez, sendabiderako abiapuntu. Ondoezarekin bestelako harremana izan behar dugula dio Fernández-Savaterrek.⁴⁸⁷ Ondoeza, oro har, gaiztat daukagu, anomalia baten pareko, gertatu beharko ez lukeen zerbait bezala ulertzen da. Horregatik, ondoeza konpondu edo osatzeko urgentzia sortzen da. Ahalik bizkorren konpondu eta normaltasunera itzultzeko modua bilatzen da. Ondoezarekin bestelako harremana izateak, harekiko beste ikuspegi bat izateak, hura kalte edo galera moduan ulertu beharrean aukera moduan ikustea ekarriko luke. Ondoeza senda daiteke eta normaltasunera itzuli, edo egoera horretan jarraituz erresistentzia-modu bilakatu, dio Peranek.⁴⁸⁸ Minak eragiten duen kezkatik dator zalantza, galdera, kontzientziaren esnatzea, autore horren esanetan. Ondoezean, nekean, minean, zaurian, arazo bat jartzen zaigu begien bistan, eta hain zuzen ere, hor sortzen da

486 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2014 (74. or.).

487 FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: "Una fuerza vulnerable: el malestar como energía de transformación social". Iturria: http://www.eldiario.es/interferencias/malestar-energia-transformacion_social_6_606199392.html

488 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (62. or.).

egoera gainditzeko aukera. Peranen ustez, kontua ez da funtsean ondoez hori sendatu eta lehengo bizimodura itzultzea. Ondoeza eragiten duen egoera nola aldatu pentsatzea da kontua. Gaixotasuna abagune bat da. Sendatu behar den zerbait baino gehiago, egoera baten aldaketa abian jar dezakeen zerbait. Ikuspuntu horretatik begiratuta, eta amankomuna dugun horri eragiten dion fenomeno bat dela kontuan izanda, ondoeza aldaketarako aukera ahalbidetu eta dimentsio politikoa izango lukeen zerbait izan daiteke.

Ondoezak erresistentzia-funtzioa izan dezan, ordea, haren indarra ezin da ondoeza zein egoerak eragiten duen adieraztera bakarrik mugatu. Ezin da pentsamenduaren eremuan bakarrik gelditu. Jabetuta egote hutsetik ez dago aldaketarik, baldin eta harekin batera ekintzarik ez badago. Pauso garrantzitsua da egoeraren jakitun izatea, baina horrek ez du inongo irtenbide praktikorik bermatzen. Beraz, Peranek iradokitzen duen bezala, ondoezari sendabidea jarri eta berriro ere produkziara itzuli ordez, ondoezaren intentsitate eta indar guztia aprobeitzeko aukerak aztertu beharko lirateke. Azken batean, nekea, gaixotasuna edo ondoeza eraldaketarako arma politiko nola bihurtu da aurrean dugun erronka.

6.2. NORK EZ DU LANIK EGIN GABE BIZI NAHI?

«No son los lunes lo que odias, es tu trabajo».⁴⁸⁹

Nick Srnicek, Alex Williams

Lanaren aldeko diskurtsoei eta etikari buruz aritzean esan dugun bezala, lanak nekea, sufrimendua, gaixotasuna eta ondoeza eragiten dituen heinean, lana ukatzearen aldeko jarreraren inguruan ere bada zer arakatu. Atal honetan lanaren kontrako jarrera horien berri emango dugu, eta lanaren ukazioak bere baitan dituen aukera, abagune zein kontraesantetan sakonduko.

6.2.1. Lanaren ukazioa

Duela bi mendetik hona, lanaren nozioaren gainean eraikitako gizarteak dira gureak.⁴⁹⁰ Lanak gaur egun duen protagonismoa eta garrantzia ukaezina da. Jarduera horrek bizitzako zati handi bezain garrantzitsua betetzen du. Gizakiaren oinarrizko jardueratzat hartzen da, eta alde horretatik, lana araua da. Mundura kapital ekonomiko handi samar baten jabe jaio ezean behintzat, lanaren inguruan eraikitako mundutik kanpoko bizitza posiblerik ez dago. Biziraupena bermatzeko ezinbesteko jarduera da. Oinarrizko beharrak asetzeko nahitaezkoa, baina baita gizartearen funtzionamendu “zuzena” ziurtatzeko ere. Gizartearen antolakuntza eta ordena soziala gauzatzen ditu. Norbanakoak harreman sozial horietan zer toki duen ere zehazten du. Nork bere buruari balioa eman, inguru-

489 SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: *Inventing the future. Postcapitalism and a World Without Work*, Verso, Londres, 2015 (114. or.).

490 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (9. or.).

rentzat erabilgarri sentitu, aintzatespen soziala lortu eta norberaren helburu nahiz desirak betetzeko bitarteko ere bada. Fraynek dioen bezala, lana behar ekonomikoa eta bete-behar sozial bat baino gehiago da. Eskubideak eduki, gizartearen parte izan eta prestigioa lortzeko modua ere bada. Lana da, gehien-gehienontzat, oinarritzko behar materialak eta immaterialak, aintzatespena eta errespetua lortzeko modu bakarra.⁴⁹¹

Lanaz ari garenetan, aipatzen da lanik badugun edo ez, lan on samarra edo kaskarra den, ondo edo gaizki ordainduta dagoen, baina horrelako kontuez haratago nekez joaten da oro har, eta areago, ez da inondik ere zalantzan jartzen lanak bizitzan duen zentralitatea. Industrializazioarekin batera jaio zen lan kapitalistaren nozioa, eta urte gutxi ditu, hortaz, baina hala eta guztiz ere, jarduera horrek duen garrantzia eta protagonismoa guztiz naturalizatuta dago gizartean, eta ontzat ematen da. Bi arrazoi daude barreneraino sartuta daukagun ideia horren atzean.

Batetik, eta hauxe da arrazoi nagusia, nekazariak produkzio-bideez desjabetuak izan eta gero, gizarte kapitalistan bizi ahal izateko, langileari bere lan-indarra saltzea edo ogia irabazi ahal izateko lan bat aurkitzea beste biderik ez zitzaion geratu, lehen ere aipatu dugun bezala. Kapitalismoaren azken fase hau, prekarietateak eta ezegonkortasunak markatutako testuingurua da. Lana gero eta urriagoa da. Baina lana da oraindik ere bizi-raupena bermatu, herritar gisa aitortua izan eta eskubideen jabe izateko modu bakarra. Egoera horren aurrean, lanik desatseginena ere desiragarri bihurtzen da. Langabetuari begiratzea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Berdin du non, zertan, zer baldintzatan; lana izatea bera esker oneko izateko nahikoa arrazoi da egoera horretan. Lanik ez duenak lana izatearekin egiten du amets. Lanik ez izatea gizartearen soberakin izatearen pareko da, eskean bizitzea esan nahi du. Beraz, lehenengo arrazoa biziraupenarekin lotuta dago.

Bestetik, lanak horrenbesteko garrantzia hartu badu gaur, biziraupena bermatzen duela-ko eta gizakiari nor izatea ematen diolako ez ezik, norbanakoari errealizatua sentitzeko ematen dion esperantzarengatik da. Lanarekiko miresmenaren atzean, gustukoa den lanarekiko maitasuna ezkututzen da. Lan-eredu postindustrialetan ikusten ari garen bezala, kreatibitatearen, autonomiaren eta autorrealizazioaren nozioak jasotzen dituen lanaren aldeko etika berria, hain zuzen, lanari izaera erakargarriago bat eman eta langileen motibazioa eta errendimendua areagotzean datza. Lanak autorrealizazioaren promesa dakarrenean, zoriontasuna posible egiten duen jarduera bihurtzen da. Carlos Taibok esaten duen bezala, lanarekiko gurtzaren eta miresmenaren mailarik gorena hura zoriontasunarekin identifikatzean gertatzen da.⁴⁹²

Bai batean eta bai bestean, Hitlerren Alemania Naziak gerran preso egindakoak zigortzeko eraiki zituen kontzentrazio-esparruen sarreran ipinitako esaldia datorkigu gogora

491 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (25. or.).

492 TAIBO, Carlos: *La parábola del pescador mexicano. Sobre trabajo, necesidades, decrecimiento y felicidad*, Catarata, Madrid, 2016 (34. or.).

une batez: *Arbeit macht frei* ('Lanak aske egingo zaituzte'). Rodríguezek aipatzen duen bezala, kontzentrazio-esparruetatik kanpo ere derrigortutako eginkizuna eta betebeharra izan da lana:

«[...] *el viejo capitalismo ha fomentado siempre [...] una ideología que hacía de la actividad productiva un deber, una moral social*». ⁴⁹³

Baina gauza bat da lanak gizartean duen garrantzia, zentralitate erabatekoa, eta beste bat, oso bestelakoa, lanak zer dakarkien langile gehienei, zer ondorio eragiten dituen langilearengan. Gizarte kapitalistan, lana aspergarritasun, zentzugabekeria eta nekearen sinonimo da. Gorzek esaten duen moduan, lan kapitalista ez da inondik ere autorrealizazioa posible egiten duen jarduera bat. Honela definitzen du autore horrek lan kapitalista:

«*Actividad forzada, heterodeterminada, heterónoma, el trabajo es percibido por la mayoría de los que lo buscan y de los que lo "tienen", como una venta de tiempo en el que el objeto poco importa. [...] el trabajo no es más que un medio de ganar dinero, no una actividad que tiene en sí misma su propia finalidad; no es la libertad*». ⁴⁹⁴

Langilea hamaika estrategia txikiz baliatzen da lanaldiak eraman ahal izateko. Lanari ihes egiteko edozein aitzakia da baleko. Lankideen arteko txantxak eta solasaldiak lanpostuan edo kafe-makinan, komunean ezkutatzea, baja hartzea edo buruan beste pentsamendu batzuei tokia egitea nahikoa da, une batez bada ere, lanak dakarren sufrimendu eta miseriarri ihes egiteko. Jarrera horiek, ordea, ez dira ondo ikusiak. Lanaren aurkako edozein erresistentzia-mota jokabide gaiztotzat hartzen da, eta hala, salatu eta kritikatu. Lanarekiko motibazio eza, jarrera ezkorra, ukatzailea, zigortu edo zuzendu beharreko zerbait da, eta horixe da lanaren etikaren funtzioa, Frayneren arabera. ⁴⁹⁵ Helburu horri erantzuten diote gaur egun oso modan dauden *coaching*-, autolaguntza- eta motibazio-tailerrak. Produktibitatea, hiperaktibitatea eta errendimendua gailendu diren garai honetan, industrializazioaren hasieran gertatu zen bezalaxe, alferkeria eta nagitasuna gaizki ikusiak dira.

Horren kontra aritu eta ari denik ere bada, ordea, eta teorialari batek baino gehiagok idatzi du lanak bizitzan duen zentralitatearen aurka eta haren ondorio kaltegarrien inguruan. Batzuek lana bere osotasunean ukatuz, beste batzuek lan-denbora murriztearen alde agertuz. Bertrand Russellek, adibidez, aisialdiari buruz idatzitako liburu batean, lanaren ustezko bertuteei zitzaien fedea ondoez izugarri bat eragiten ari zirela ohartarazi zuen. Autore horrek (garai hartako industrializazioaren garapenak horretarako aukerak ematen zituen eta) lanaldiaren murrizketa eta denbora librearen konkista aldarrikatu zituen ondoezari amaiera ipintzeko konponbide moduan. Honela mintzo da Russell:

493 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (28. or.).

494 GORZ, André: *Crítica de la razón productivista*, Catarata, Madril, 2008 (86. or.).

495 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (114. or.).

«Creo que se ha trabajado demasiado en el mundo, que la creencia de que el trabajo es una virtud ha causado enormes daños y que lo que hay que predicar en los países industriales modernos es algo completamente distinto de lo que siempre se ha predicado». ⁴⁹⁶

Fraynek azaltzen duenaren arabera, produkzio-teknika modernoei esker, gizartearen bizi-raupena bermatzeko beharrezkoa zen lan-kantitatea erdira jaisteko aukera sortu zen. Lanaldia murriztuz, aisiako denbora areagotzea lor zitekeen. Baina XX. mendearen hasieran, abagune hura aprobetxatu eta denbora libre gehiagoz gozatzeko aukeraren alde egin ordez, enpresaburuek, lanaren alde onak azpimarratuz, lanaren aldeko propaganda egiteari ekin zioten, eta bide batez, lanaren aurkako jarrera oro gaiztotzat hartu. ⁴⁹⁷ Lan gutxiago eginez bizitzeko aukeraren aldeko apustua egin nahi zutenentzat oztoporik handiena “duintasuna” izan zen, Fraynek aipatzen duenez: lanak gizakiari ematen omen dion duintasuna, hain zuzen. Soldatapeko lanaldiaren murrizketak duintasunaren murrizketa ekarriko zuela sinetsi zuen langileak.

Lanaren aurkako obrarik entzutetsuenetakoa, zalantzarik gabe, Paul Lafarguek idatzitako *Nagitasunerako eskubidea* da. Louis Blancek lanerako eskubidearen aldeko liburu bat argitara eman eta gero, ⁴⁹⁸ honela erantzun zuen Lafarguek:

«Una extraña locura posee a las clases obreras de las naciones en las que reina la civilización capitalista. Esa locura produce miserias individuales y sociales que, luego de dos siglos, torturan a la triste humanidad. Esa locura es el amor por el trabajo [...]». ⁴⁹⁹

Lafarguek, aski ospetsu bihurtu den liburu horretan, lanaren gorespena, santifikazioa eta zentralitatea kritikatzeko dituen. Salatzen du ahaleginean eta aszetismoan oinarritutako lanaren inguruko etika burgesa erabat barneratua zuela gizakiak, hasi predikatzailerik protestanteetatik eta buka langile-mugimenduei eta ezkerreko pentsamenduari lotutako korronteetan. Lafarguerentzat argi zegoen. Lana zen gizakiaren ondoez nagusia, ⁵⁰⁰ eta hura desagerrarazteko alternatiba nagitasuna zen. Lafargueren “nagi” horrek, ordea (alfertasun edo nagitasun kontzeptuak, alegia), nahasmena sortzen du, eta ez da behar bezala interpretatzen sarritan. Hori argitzea komeni da, beraz, alfertasun edo nagitasun kontzeptua modu okerrean ulertua izan ez dadin.

Batetik, kontuan izan behar da Lafargueren liburua ikuspegi antikerikal batetik idatzita dagoela, erlijioaren kontrako ikuspegitik edo. ⁵⁰¹ Jakina da etika protestanteak lanari eman

496 RUSSELL, Bertrand: *Elogio de la ociosidad*, Edhasa, Bartzelona, 2000 (11. or.).

497 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (114. or.).

498 BLANC, Louis: *Le Socialisme. Droit au travail*, Hachette Livre BNF, Paris, 2012.

499 LAFARGUE, Paul: *El derecho a la pereza*, Diario Público, Madril, 2010 (13. or.).

500 Ibidem (16. or.).

501 RIEZNIK, Pablo: op. cit.

zion bedeinkapena erabakigarria izan zela lanaren aldeko diskurtsoak gizartea zeharkatu zezan, gizarteak diskurtso haiek barneratu zitzaizkien. Nagitasuna bekatu kapitaleko bat zela kontuan izanda, eta Lafargue sozialista, argi dago nagitasunaren nozioa hautatzea ez zela ustekabeko zerbait izan. Lanak gizakiari eskaintzen zion "onura" eta salbazioaren kontra, Lafarguek nagitasunaren bekatu kapitala omentzearen alde egin zuen.

Bestetik, produkzio-eredu kapitalistak ezarritako lan-moduak gizakiari nekea, sufrimendua eta miseria zekarzkie. Atsedetik gabe jardutea, esfortzua, sakrifizioa eta lan gogorra sustatzen zituen etika hartan oinarritutako gizartearen kontrakoa zen Lafarguek defendatzen zuen gizarte sozialista. Haren aburuz, langilearen helburuak jarduera hura desagerraraztea izan behar zuen. Nagitasuna ez zen ezer egin gabe, kolperik jo gabe bizitzea Lafarguerentzat.⁵⁰² Nagitasuna erabateko pasibotasun, utzikeria, geldirik egote edo ez egitearekin lotzen da normalean, baina kasu honetan ez da horrela irakurri behar, liburuaren hasiera bereko aipuak argi iradokitzen duen bezala:

*«Seamos perezosos en todas las cosas, excepto al amar y al beber, excepto al ser perezosos».*⁵⁰³

Kapitalismoak, teknologiaren garapenari eta lanaren automatizazioari esker, gizakiari desatsegina zitzaien lanaren desagertzea aurreratzen zuela pentsatzen zuen Lafarguek. Hala, norberak desira zitzaien jardueretan aritzeko aukera emango zuen. Gizarte aurreratu eta sozialista ororen xede eta nahia horrek izan behar zuela esaten zuen, eta ez sufrimendua eta miseria eragiten zituen lana aldarrikatzeak eta jarduera horretan lehertzeak. Nagitasunerako eskubidearen aldarrikapena bizitzaz gozatu eta dibertitzearen aldeko deia zen.

*«El trabajo es la fuente de casi toda la miseria existente en el mundo. Casi todos los males que se pueden nombrar proceden del trabajo o de vivir en un mundo diseñado en función del trabajo. Para dejar de sufrir, hemos de dejar de trabajar».*⁵⁰⁴

Bob Black ere bat dator Lafarguerekin. Hark ere lanari leporatzen dio munduak pairatzen duen ondorez nagusia. Blacken esanetan, lana produkzio derrigortua da. Dena delako jarduera eginarazteko makilaz baliatzen diren, edo azenarioaz, horrek berdin dio; edonola ere, behartuta egiten den jarduera da beti, dio Blackek. Lana alderik alde diziplinaren nozioak zeharkatuta dago, haren esanetan, eta fabrikek nahiz bestelako ezein lantokik nozio horixe dute amankomunean eskola, kartzela eta psikiatrikoekin. Foucaultek ikergai izan zituen espetxea, psikiatrikoa eta eskola bezalako itxialdi-espazioak. Fabrikari erreferentzia eginez, esaten du lanean ere diziplinaren bidez ezartzen den kontrola langileari umiliagarria gertatzen zaiola: fitxatzea, lan errepikakorra, produkzio-kantitatea, etengabe

502 RIEZNIK, Pablo: op. cit.

503 LAFARGUE, Paul: op. cit., 2010 (13. or.).

504 BLACK, Bob: *La abolición del trabajo*, Pepitas de calabaza, Logroño, 2013 (7. or.).

zaintzapean egon eta zelatatua izatea... Ondoezaren sendabidea zein den argi dagoela dio: lanik ez egitea. Baina zehazten du lanik ez egiteak ez duela esan nahi ezer egin gabe egotea. Lanari kontrajarrita jolasa⁵⁰⁵ dago, Blacken esanetan. Lehena diruaren truke egiten den jarduera derrigortu eta desatsegina da, eta bigarrena, aldiz, norberak bere borondatez egiten duen zerbait, sari bakartzat jolastetik beretik norberak lortzen duen bizipena daukana. Blackek, hala, jolasa oinarri izango duen bestelako bizimodu bat asmatzearen aldeko apustua egiten du.

Frantziako 68ko mugimendua izan zen lanaren gorespenezko eta langilekeriazko ideologia "trabajistarekin" hautsi zuena, Rodríguezzen esanetan.⁵⁰⁶ Lehenengo aldiz, lanaren kontrako aldarrikapenak lotsatzeko arrazoi izateari utzi ziola zirudien. Belaunaldien arteko aldaketa bat gertatu zen lana ulertzeko moduari zegokionez. Testuinguru hartan mobilizatu ziren gazteek lanari errespetua galdu eta diziplinarik gabeak agertu ziren, autore horrek dioenez:

*«La década de 1960 asistió a este desvío del punto de interés: del viejo conflicto de fábrica sobre la redistribución de la riqueza, hacia la lucha de más tiempo para sí, de más libertad. "Liberar la vida del trabajo" fue la consigna más repetida».*⁵⁰⁷

Ildo horretatik, aipamen berezia merezi du 68ko mugimenduaren ondoren, urte gutxi batzuk geroago, Italian lanaren kontra agertutako jarrerak edo "lanaren ukazioa"⁵⁰⁸ izenaz ezagutzen den esperientziak. Izan ere, Franco Berardi "Bifo"k kontatzen duenez, 70eko hamarkadan zehar, teknologiaren garapenarekin batera, lanerako eskubidearen aldeko defentsa egiten zuten ezkerreko partidu, sindikatu eta mugimendu tradizionalen diziplina-rekin hautsiz sortutako langile-mugimendu autonomoek lanaren aldeko etikaren amaiera eta agertoki postindustrial berriaren etorrera eragin zuten.⁵⁰⁹ "77ko mugimendua"⁵¹⁰ deritzon hura mugimendu postobrerista izan zen. Hau da, XX. mendean zehar mugimendu komunistaren historia kulturalak eraikitako lanaren etikaren kontra joz, lanaren aurkako jarrera irmoa erakutsi zuen:

*«La reivindicación más fuerte era la existencial. La calidad de la vida, la reivindicación de una existencia realizada, la voluntad de liberar el tiempo y el cuerpo de las ataduras de la prestación de trabajo industrial».*⁵¹¹

505 Ibidem (15. or.). Jolasa normalean hitz honekin ulertzen denetik haratago ulertu behar da Bob Blacken kasuan. Jolasaren barruan sartuko lirateke arauak dituztela-eta euskaraz "joko" deritzegunak ere (xakea, beisbola eta monopolya, adibidez), baina jolastzat dauzka, halaber, ohiko jolasez gain, hizketan jardutea, larrutan egitea, bidaiatzea...

506 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (28. or.).

507 Ibidem (34. or.).

508 PETRI, Elio: *La clase obrera va al paraíso*. Iturria: <https://vimeo.com/217470060>

509 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2007 (1) (38. or.).

510 Ibidem (45.or.).

511 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2007 (33. or.).

Garai hartan, *È ora, è ora, lavora solo un'ora!* leloa indarrez oihukatzen zen Italiako fabrika garrantzitsuenetan. Langileek ikusi zuten, teknologiaren garapena zela medio, tradizioz fabriketan langileak bere eskuekin egin ohi zuena makinek egin zezaketela, makinek giza-orka ordezkatzeko aukera bazegoela. Gazteenek, bestalde, ez zuten gurasoek bezala bizitza osoa fabrikako pareten artean itxita pasatu nahi. Bizimodu aberasgarriagoak bazirela jakin zuten, mugikortasuna eta eskolatzea hedatu eta kultura kritikorako sarbidea eskura izan zuten heinean. Askatasun, aisia eta kulturarako gosez ageri ziren, bizi-esperientzia aberats eta intentsoak nahi zituzten, eta horren agerpena izan zen lanaren kontrako jarrera. Eta horrekin batera, garapen teknologikoak eta lanaren automatizazioak produktiorako behar zen denbora murrizteko aukera irekitzen zuen. Biforen esanetan, orduan hasi zen gorpuzten langileen eta sindikatuen desobedientzia. Gaixotasun-bajak hartuz, gutxi eta gaizki lan eginez, sabotajeen bidez eta greba basatiak antolatuz gauzatu zen italiar langile-mugimenduen esperientzian "lanaren ukazioa" esaten zaiona. Elio Petrik zuzendutako *Langile-klasea paradisura doa* filmak ederki jasotzen ditu fabrikako langileriak pairatzen zuen alienazio- eta esplotazio-egoera zela-eta garai hartan izandako tentsio eta erantzunak.

Langilearen ondoeza eta miseria eragiten zuen lan industrialari denbora lapurtzea zen haien helburua, denbora hori langilea errealizatua sentituko zeneko jardueretan eman ahal izan zezan. Haren emaitza izan zen azkenean, Virnok dioen bezala, lantokietatik kanporako "migrazio kolektiboa".⁵¹² Rodríguez-en esanetan, haien zat onespren soziala eta errealizazioa ez zeuzkan lanean. Benetako bizitza lanetik kanpo zegoen. Eta Virnok esaten duenaren haritik, fabrikako lanari uko egin eta beste bizimodu batzuk esperimentatzera eramane zuen horrek langilea:

*«Se podía reconocer, así, una auténtica migración de la subjetividad: de la fábrica al tiempo de vida, del espacio de trabajo a la ambigua esfera de la reproducción, del trabajo repetitivo e inmediato a la experimentación y creación de nuevas formas de vida».*⁵¹³

Italiako esperientzia hartan sortutako "lanaren ukazio" hura ere ez zen ezer egin gabe bizitzaren aldeko aldarria. Langile-mugimenduek, intelektualekin eta ikasle-mugimenduekin harremanetan, beren ondoezaren inguruan pentsatu eta teorizatu zuten. Ondoeza politizatuz, erantzun bat emateko prestatu eta antolatu ziren. Alienatzailea eta esplotatzailea zen lan-modu hura desagerraraztea zuten xede, eta halaber, malgutasuna, autonomia, kreatibitatea eta autorrealizazioa oinarri izango zituen bizimodu baten aldeko apustua egitea. "Lanaren ukazioa" esaten zaiona, beraz, langilea alienatzen zuen lan industrialaren desagerrarazteko ekimena izan zen:

«Rechazo al trabajo industrial, reivindicación de espacios cada vez más amplios de libertad y, por tanto, absentismo, insubordinación, sabotaje, lucha política organizada

512 VIRNO, Paolo: op. cit., 2003 (81. or.).

513 RODRÍGUEZ, Emmanuel: op. cit., 2003 (33. or.).

*contra los patrones y contra los ritmos de trabajo. Todo esto marcó la historia social de los primeros años setenta hasta estallar en forma de auténticas insurrecciones pacíficas de los obreros contra el trabajo industrial».*⁵¹⁴

Lanaren ukazioari buruz idatzi zuen beste autore bat André Gorz da. Haren ustez, jende gehien-gehienak lana gorroto du, langilearentzat lanaren ondorioak ez dira batere konstruktiboak, eta horregatik, Gorzen pentsamendu eta idatzietan garrantzi handiko gaia izan zen lanaren ukazioa. Autore horrek dioenez, lanak langilearen miseria eragiten duenean, guztiz zentzuzkoa da hura desagerrarazi nahi izatea:

*«La abolición del trabajo es [...] un objetivo central para los que, [...] sienten que “su” trabajo jamás podrá ser para ellos una fuente de realización personal ni el contenido principal de su vida [...]».*⁵¹⁵

Gorzek soldatapeko lana eta jarduera autodeterminatua bereizten ditu,⁵¹⁶ eta haien artean dagoen desberdintasuna “truke-balioa” eta “erabilera-balioa” deritzenen artean dagoen berbera da. Lehenak kapitalaren metaketa neurrigabe eta amaierarik gabea du helburu, eta langilea helburu horren zerbitzura ipintzen da. Lan kapitalistari dagokio hura, lanbideari, ofizioari, soldatapekoari. Kasu horretan, lana dirua irabazteko bitartekoa besterik ez da, eta berdin dio zer produzitzen den. Bigarrenak beste esanahi bat ematen dio lanari. Jarduerak berak du garrantzia, jarduera bera da helburu. Motibazioa ez da soldata, lana bera baizik. Jolasa, amodioa edo jarduera artistikoa dira, besteak beste, multzo horretakoen adibide.

Lafargueren ikuspegiarekin eta italiarren “lanaren ukazioa” delakoarekin gertatu ohi den bezala, Gorzek “lanaren amaiera” nozioarekin esan nahi zuena nahasteko joera dago, eta sarritan nagitasunaren aldeko apologia hustzat hartzen da, edota ezer egin gabe bizitzearen ideiarekin nahasten. Baina Gorzek argi utzi zuen behartuta egiten den lan alienatzaileari dela, eta ez jarduera autodeterminatuari, amaiera ipini behar zaiona.

Lanaren ukazioa aipatzen denean, soldatapean gizonak egin izan duten lan-moduarekin lotutako fenomenotzat deskribatu ohi da, baina lanaren kontrako jarrerak etxeko eremuan ere izan du indarra, Malok azaltzen duen bezala.⁵¹⁷ Autore horren esanetan, Industria Iraultzak etxea ere, fabrika bezala, lanerako itxialdi-espazio bihurtzea ekarri zuen. Sexuaren araberako lan-banaketa ezartzeaz batera, gizona izanik soldatapeko lana egiten zuena, emakumea senarraren menpeko izatera pasatu zen. Malok dioenez, mugimendu feministak emakumezkoen menpekotasun-egoera hura salatzen hasi ziren. Ohartu ziren emakumeek, etxeko itxialdira derrigortuak eta etxeko lanetara behartuak, beren nahi eta desirak erreprimitzen zituztela, eta pairatzen zituzten patologiak eta ondoeza horren ondorio

514 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2007 (1) (39. or.).

515 GORZ, André: op. cit., 2008 (92. or.).

516 Ibidem (86. or.).

517 MALO, Marta: op. cit.

zirela. Etxeko eremuko lanak aintzatespen sozialik ez zuelako, batetik, eta gizonarekiko sortutako menpekotasun-harremanagatik, bestetik, pertsona gisa hutsaren hurrengo eta ikusezin bihurtuta zeuden. Hala, itxialdiarekin eta menpekotasuneko kondizioarekin hautsi, etxetik atera, lan-merkatuan sartu, eta autonomia eta autorrealizazioa bermatzeko baldintzak aldarrikatzen hasi ziren. Beraz, lanaren kontrako jarrera ez da lan industrialaren eremuan soilik gertatu den fenomeno, Malok argudiatzen duen bezala, nahiz eta etxeko eremuko lana ukatzeak lan-merkatuan murgiltzea ekarri duen.

6.2.2. Ezetzaren ahala eta ezina

Ingrid Guardiolak esan zuen, hitzaldi batean, ez esatea egiteko modu bat dela,⁵¹⁸ eta gu zeharo bat gatoz harekin. Kapitalak sortutako aparatu diziplinatzaileen menpeko izateari kontra egiteak ezinbesteko garrantzia izan du klase-borrokaren dinamikan. Kapitalistaren oparotasunaren funtsa balioaren produkzioa izanik, langileek hura moteldu, sabotatu edo eteteko duten gaitasuna azpimarratu izan dute Marxek berak eta Harveyk.⁵¹⁹ Ukazioa eraldaketarako tresna bat da langileriaren eskuetan. Ezetza era kolektiboan antolatzen denean, ondoeza politizatzeke modu bat bihurtzen da. Ezetzak jarrera hutsa izateari uzten dio une horretan, eta Zafrak esaten duenari jarraituz, ondoezari amaiera ipintzen hasteko modua bilakatzen da.⁵²⁰

Ezetzaren, ukazioaren edo jarduerarik ezaren adibide argienetako bat Herman Melvillek *Bartleby eskribatzailea*⁵²¹ liburuan jasotzen duen kontakizuneko protagonistaren jarrera da. Bartleby, protagonista, New Yorkeko abokatu batentzat aritzen da kopista-lanetan. Lan errutinario eta mekanikoa da harena. Ondo baino hobeto betetzen du bere eginkizuna. Langile eredugarria da hasieran. Baina halako batean, hara non hasten den, nagusiak lan bat agintzen dion aldiro, argibiderik batere eman gabe, besterik gabe *I would prefer not to* erantzuten; alegia, 'aukeran nahiago ez'. Agindua betetzeari uko egiten dio. Bartleby pertsonaia misteriotsua da, hermetikoa, itxia, ezagutzen zaila. Ez du iraganik, ez etorkizunik. Lasai eta bare ageri da beti. Inork ez daki nor den, ez jarrera horretara zerk eramaten duen. Eta deigarria egiten da ez nagusiarekiko eta ez lanarekiko gorroto-izpirik ez duela erakusten ikustea. Kontua ez da zerbaitek bultzatuta errebeldiara emanda dagoela. Bartlebyk, inolako azalpenik eman gabe, eskaintzen zaion proposamen, aukera, irtenbide oro ukatu egiten du, besterik gabe. Eta ukazioa, sinplea bezain tinkoa, negoziatzina da, erabatekoa, absolutua. Jarrera horrek lanetik kanporatua izatea dakarkio, lehenik, eta kartzelaratua izatea, ondoren. Eta han ere, lanean egiten zuen bezalaxe, kanpotik datorkion agindu orori beti esaldi berberarekin erantzuten dio: "aukeran nahiago ez". Amaiera dramatikoa du pertsonaiak, tristea, azkenerako jateari ere uko egiten baitio. Heriotza du emaitza.

518 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

519 HARVEY, David: *Guía de El Capital de Marx*, 1. lib., Akal, Madril, 2014 (2) (316. or.).

520 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (57. or.).

521 MELVILLE, Herman: *Bartleby eskribatzailea*, Erein, Donostia, 2016.

Bartlebyren ukazioa irmoa, erabatekoa, eztabaidaezina da. Gelditasun totalaren eta ukazio absolutuaren eredu da. Ukazio erradikalenaren paradoxa. Baina aldi berean, muturreraino eramanda, ukazioa irtenbiderik gabeko kale itsua ere bada, eta ildo beretik, Bartlebyren ukazioa suizidio bat da.

Peranen esanetan, nekeak dimentsio politikoa du, baldin eta subjektuak neke-egoeran jarraitzeko gaitasuna erakusten badu.⁵²² Edo beste modu batean esanda, nekea arma politiko bihurtzeko modu bakarra, Peranen iritziz, neke-egoeran egonda gaixotasun- edo ondoez-egoeran jarraitzea da. Geldirik egotea, jarduerarik eza edo produktibo ez izatea litzateke logika horri aurka egiteko modurik erradikalena. Alabaina, erresistentzia-modu hori zertan datzan zehazterakoan, egoeraren jakitun izate horretatik haratago erantzunik ez dagoela aitortzen du Peranek. Bartlebyren kasuan bezala, Martí Peranen planteamendua ere, zentzu eta ahal handikoa izanagatik ere, egiatan ezin eutsizko jarrera da. Nekatuta dagoenak atsedena nahi du; gaixo dagoenak, sendatu, eta ondoezik dagoenak ez du egoera horretan etengabe jarraitu nahi. Alderantziz. Prekarioa denak egoera prekarizatuari nola edo hala ihes egitea lortu nahi du. Peranek esaten duen bezala, ondoezean jarraitzea zauria irekita iraunarazi eta errendimenduaren gizarteari erresistentzia ipintzeko modua baden arren, aldi berean, bizitza duin eta bizigarri bati uko egitea ere badakar. Alegia, ondoezean, gaixotasunean, nekean jarraitzea ez bizitzearen pareko bihurtzen da.

Nihilismoaren ezezko absolutuak planteatzen duen erradikaltasuna ez da bateragarria bizitzarekin. Bartlebyren ukazioa suizidio bat da. Eta Peranen proposamena ere, ondoezean jarraitzearena, bizitzaren kontra doa. Errendimenduaren subjektu prekarizatu eta autoesplotatuaren ondoeza desagerrarazteko, beraz, une jakin batean eta denbora baterako tresna baliagarriak izan daitezkeen arren, ez dute balio, ez dira mugagabeki erabil daitezkeen estrategiak. Errepresentazioaren esparruan edo esparru sinbolikoan bere funtzioa betetzen dute jarrera tinko, koherente eta boteretsu moduan, baina hortik kanpo nekez eutsiko zaie, ez dira praktikoak.

6.2.3. *Ne travaillez jamais?*

1953an, Parisko Rue de Seine kalean pintada bat agertu zen horma batean: *Ne travaillez jamais* ('ez ezazue lanik egin inoiz'). Egilea Guy Debord zen, Internazional Situazionistaren burua.⁵²³ Mezu hark ez zuen praktikan ondorio handirik izan langile-mugimenduan. Leloak

522 PERAN, Martí: op. cit., 2016 (67. or.).

523 Internazional Letrista eta Bauhaus Imaginista baten aldeko Nazioarteko Mugimendua taldeen batasunetik jaio zen Internazional Situazionista (1957-1972). Artistaz eta intelektualez osatutako abangoardiako mugimendua izan zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, esparru artistiko-kulturala eta politikoa uztartuz, Europan izan ziren teoria kritiko eta proposamen erradikalenak planteatu zituen. Mendebaldeko gizartean erabat nagusi zen kapitalismoa eta sistema hark eragiten zuen ondoeza desagerraraztea zuen helburu taldeak. Momentuko moda eta korrante intelektual nagusietatik aldendu zen. Internazional Situazionistaren proposamenek dibulgazio eskasa eta irregularra izan zuten, baina haren ideia, pentsamendu, teoria, hizkuntza eta estetikak eragin esanguratsua izan zuen 68ko maiatzaren testuinguruan. Taldearen esperientzia eta ekarpenak gaurkotasun betekoak dira, eta oraindik ere inspirazio-iturri gertatzen dira, arte- eta kultura-produkzioaren esparruarentzat nagusiki, baina baita mugimendu sozial eta politikoentzat ere.

luzatutako gonbita erakargarria da, baina haren eragina hutsean gelditu da, eta bistakoa da eraginkortasunik ez izate horren arrazoia: langileari bizimodua ateratzeko duen bide bakarrari uko egitea eskatzen dio, eta horrek, lanaren abolizioa defendatzen duen diskurtsoak, harridura eta ezin ulertua ere sortu izan du langilearengan. Langabezia-tasa altuko herrialde batean, adibidez, lanak bermatzen duenean bizitza, lanaren abolizioaren aldeko aldarriak ez du zentzurik, ez oihartzunik, baldin eta biziraupena bermatuko duten neurriak gehitzen ez badira aldarriarekin batera.

Langileriak lanerako eskubidea defendatu izan du tradizionalki. Lanaren aldeko apustua egin izan du, eta horretan jarraitzen du orain ere. Eta lana galtzeko arriskua sortu den bakoitzean sutsuki defendatu du, gainera. Jarrera hori, ordea, dakigun bezala, ez da lana maite duelako, baizik eta lana izan delako, eta jarraitzen duelako izaten, bizirik iraun ahal izateko egin dezakeen jarduera bakarra. Lana da oraindik ere gizartearen parte izateko nahitaez eduki behar den jarduera. Lanaren bitartez eskuratzen du langileak duen botere apurra. Gorzek esaten duen bezala, soilik lanaren bitartez ditu norbanakoak eskubideak, hiritartasuna.⁵²⁴

Beti intentsitate berdinekoa ez, baina lan derrigortuak beti aurkitu izan du erresistentzia, eta orain ere bai. Lehen esan dugu, Marxen eta Harveyren hitzak geure eginez, langileriak produkzio-prozesua eten edo baldintzatzeko gaitasuna baduela, eta esan dugu, halaber, lanaren ukazioa eraldaketarako tresna izan daitekeela, baina aipatzekoa da, orobat, bide horretan aurkitutako zenbait oztopo eta muga. Italiako "operaismo" delakoaren esperientzia garatu zenean, ez zegoen lan batetik beste batera aldatzeko arazorik. Ez zegoen lan faltarik. Baina testuinguru guztiak ez dira berdinak, eta garaiak ere ez. Langabezia-tasa altua duten tokietan, lanaren kontrako jarrerak muga itzela izaten du. Lanik ezean nola bizi, galdera horixe sortzen baita. Marx eta Harvey ere muga horretaz kontziente dira:

*«Esa capacidad de los trabajadores se ve por supuesto limitada por el hecho de que tienen que vivir y el salario les resulta imprescindible a menos que dispongan de algún otro medio de subsistencia [...]».*⁵²⁵

Internet eta sare sozialen erabilerak lanaren mundua eraldatu duten garai honetan, ezetzak ondorio jakin batzuk ditu, Zafraren esanetan. Horien artean bat, dio autore horrek, ikusgaitasunaren galera da, eta orain ikusgaitasuna ezinbestekoa da izena eta prestigioa lortzeko.⁵²⁶ Ikusgaitasuna funtsezkoa da nortasuna eraiki, norberaren lana ezagutzera eman, kontaktuak egin, harreman-sarea osatu, lehiatu eta lan-merkatuan toki bat egiteko. Ezetza porrotarekin lotzen da. Ez mugitzea, ez egitea, mutu agertzea, ikusgaitasunaren kontra doa. Ikusgaitasuna arrakasta lortzeko ezinbesteko baldintza bada, ikusgaitasuna ukatzen duen ezetzak porrota izango du emaitza. Nor bere buruaren enpresari, autonomo

524 GORZ, André: op. cit., 1998 (74. or.).

525 HARVEY, David: op. cit., 2014 (2) (316. or.).

526 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (59. or.).

edo ekintzaile izatea denean gizarte-mailan sustatzen dena, orduan, eskatzen den uka-
zio hori (jarduerari, errendimenduari, lehiari, ikusgaitasunari, aintzatespenari, izenari edo
markari uko egitea, alegia) autosabotaje moduko bat bihurtzen da.

Lanari ezezkoa emateko aukera ez du edonork. Ezetzaren aukera ere pribilegio-kontu bat
izan daiteke zenbaitetan. Behartsuaren beldurra azaleratzen da. Batek ongi elikatutako
familiarren babes faltarik izango ez balu, edo bizitza aurrera ateratzeko arazo ekonomiko-
rik izango ez balu, ausart jokatu eta amore eman gabe ezetz erantzun eta desagertzeko
arazorik ez luke izango. "Beharraren erreinuan" dagoen subjektu prekarizatuak, ordea, ez
du aukerarik, lan egin beharra dauka, nahi eta nahi ez. Aukeran nahiago luke ez egin, baina
beste irtenbiderik ez dauka, baldin eta era kolektiboan antolatuta egoerari aurre egiteko
moduak asmatzen ez badira.

6.2.4. Ezetzarekin eta nagitasunarekin bueltaka

Europako Ekialde sozialistaren eta Mendebalde kapitalistaren arteko kontrakotasune-
tik abiatuta, alde batean eta bestean tokian tokiko egoerak baldintzatuta arte-praktikak
zer-nolako garapen eta bilakaera izan duen azaltzen du Mladen Stilinovic kroaziar jato-
rriko artistak. Stilinovicek dioenez, kapitalismoak gobernatutako Mendebaldean arte-
praktikarako baldintzak ez ziren egokiak. Haren esanetan, Mendebaldean, artista, produk-
zioaz ez ezik, promozioaz, lehiakortasunaz edo lana erakutsi eta saltzeko galerien eta
museoen sistemaren funtzionamenduaz arduratuta zegoen. Mendebaldean, artista lan-
petuta bizi zen, eta horrek bere benetako zereginetik urruntzen zuen; artearen praktikatik,
alegia. Mendebaldean, guztiari errentagarritasun ekonomikoa bilatu behar zitzaion, baita
alferrekoa edo baliogabea zenari ere, eta praktika artistikoa ere hor kokatzen da.

Ekialdean, berriz, artista produkzio-eredu kapitalistaren menpeko ez zenez, artea egite-
ko baldintzak egokiak ziren, Stilinovicek dioenez. Mendebaldeko baldintza hutsal haiek
guztiak ez zeudenez, alfertasunerako nahi adina denbora zuten. Nagitasunaren bertuteak
faktore garrantzitsuak ziren artearen praktikan. Haren esanetan, ez zegoen arterik nagi-
tasunik gabe.⁵²⁷ Horregatik, nahiz eta behartsuak ziren, nagi izateko eta artean jarduteko
aukera guztiak zeuzkaten. Artea egiten zutenean, bazekiten egiten ari ziren hura ez zela
"ezer", baliorik ez zuela, artea baino ez zela.

Baina muga eta eredu politikoak aldatu zirenean, banaketa haren amaiera iritsi zen,
Stilinovicek aitortzen duenez.⁵²⁸ Produkzio-eredu kapitalistak mundua kolonizatu zuen.
Stilinovicek deskribatzen duen kapitalismotik "kanpoko" hura, artean Europako Ekialdean
existitzen zen nagitasunaren esparrua, alegia, desagertu egin zen.

527 STILINOVIC, Mladen: "Elogio de la pereza" kapituluak, 1+2= *Mladen Stilinovic*, UNAM (Mexikoko Unibertsitate Nazional Autono-
moa), Mexiko D.F., 2015 (20. or.).

528 *Ibidem* (19. or.).

Produktiboa ez denik edo lanari erabilgarri gertatzen ez zaion tokirik ez dago jada. Edozeri bilatzen zaio errentagarritasuna. Produktibitate ezaren eta ukazio absolutuaren sinbolo zen Bartlebyren *I would prefer not to* esaldia ere produktibo bihurtu da azkenean. Merkatuan, lelo hori inprimatuta daramaten kamisetak salgai aurkitu daitezke orain.⁵²⁹ Azkenerako, Bartleby bera ere langile emankorra bihurtu da.

Artista alfer edo nagia ren jarrera orain ez da sinesgarria. Akademian prestatu eta gero bere praktikaren profesionalizazioa helburu duen artista langile eredugarria bihurtu da neoliberalismoarentzat. Egunean 24 orduz eta astean 7 egunez aktibo dago langile hori. Lanerako bizi eta lanak bizi duen artista prekarizatu eta autoesplotatuak lana besterik ez du egiten. Berea afizioa ez baina ofizioa dela aldarrikatzen duen produktorea lanpetuta bizi da. Bere jarduerari errentagarritasuna ateratzen saiatzen den artistak lan kapitalistaren azpian ezkutuan legokeen alferkeria azalarazteko gaitasuna galdu du. Mitoak mito, artista ez da inondik ere langile alferraren isla. Bojana Kunsten gogoeta ildo beretik doa:

*«Cada uno de sus gestos, no importa lo perezosos que sean, deben ser necesariamente transformados en trabajo, si no por los propios artistas, a través de y en conexión con las instituciones y otros elementos del sistema que hacen visible el trabajo de los artistas y lo valoran como tal. En esta lucha constante por eliminar cualquier rastro de vagancia y pereza de su trabajo inútil, los artistas pasan por alto el hecho de que de esa manera pierden todo poder crítico para mostrar un espejo a la pereza real que subyace al sistema capitalista.[...] es esencialmente un tipo de holgazanería tolerada y guiada».*⁵³⁰

Nagitasunarekin batera, artistaren ezetzak garai batean izan zezakeen sinesgarritasuna ere galdu du. Obrarik gabeko artisten kasuan bezala, edo jarrera ukatzaile batek definitutako proposamen artistikoen kasuan bezala, aspaldi da proposamen oro artearen esparruak inolako arazorik gabe bereganatzen duela, Break esaten duen moduan.⁵³¹ Alferkeriaren eta ukazioaren artistak ere arazorik gabe jaso ditu artearen eremuak, Bartlebyren leloa daramaten kamisetekin gertatzen den modu berean, haien alferkeria eta ukazioa ere produktiboak dira-eta legitimatutako espazioen barruan.

Beste ogibide batzuetan ez da hala gertatzen, baina arte-praktika eta nagitasunaren aldeko aldarria bateragaitzak dira, sustraitik beretik kontrakoa adierazten dute eta. Une jakin batean desatsegina zaion zerbait egitera behartuta ikusten duenean batek bere burua, orduan azaltzen da nagitasuna. Alabaina, gogokoa duen horretan ari denean bat, nagitasunik ez dago. Lan desatsegina eta alienatzailea duen langile esplotatuak nahiago luke

529 Iturria: <https://www.amazon.com/I-Would-Prefer-Not-T-Shirt/dp/B01AXPIVXY>

530 KUNST, Bojana: "Tiempo inútil". Iturria: <http://bulegoa.org/glosario-tiempo-por-bojana-kunst/>
Oharra: Testu hau ez dago sarean. Arte- eta jakintza-arloan lan egiten duen Bulegoa z/g izeneko ekimenak antolatutako saioan parte hartutakoen artean banatu zen. Esteka horretan testuaren zati batzuk besterik ez dira ageri.

531 BREA, José Luis: op. cit., 2008 (13.-14. or.).

ez egin, baina beste aukerarik ez eta, egin beharrean suertatzen da, lehen esan dugun bezala. Artistak, aldiz, "aukeran nahiago ez" aldarrika dezakeen arren, sorkuntza-lanarekiko duen desira, maitasuna, espresatu eta egin beharra hain dira indar handikoak, nagitasuna eta ukazioa baino askoz indartsuagoak, ezen menpean hartzen baitute. Beste ogibide batzuk ez bezala, sorkuntzaren praktika lanarekiko pasioak definitzen du, eta horregatik, artiestez ari garela, lanari uko egitea edo nagitasuna aldarrikatzea ez dira sinesgarriak. Jaron Rowanek esaten duen bezala:

*«Hoy en día Bartleby trabaja en una productora muy cool y pese a ser autónomo, compatibilizar tres trabajos a la vez y no conseguir que las administraciones le paguen lo que le deben ya no puede decir que "preferiría no hacerlo", porque en el fondo le gusta su trabajo».*⁵³²

Rowanen baieztapen horrekin erabat ados gaude. Hala ere, beste sektoreetako langileen moduan, artearen esparruko langileak ere, nahiz eta lanaren esparruan jardutea gustukoa duten, hain lan-baldintza eskasetan aritu behar izaten dutenez, haiek ere ondoezaren biktima dira. Horregatik, artearen esparruan, lanaren kontrako ukazioa edo nagitasunaren aldeko aldarria egiten bada, ez da sorkuntza-lanaren nolakotasun edo ezaugarriengatik, baizik eta arte-praktika baldintzatzen duten arrazoiengatik. Lanaren munduan ezetza anbigua da, zeren eta alde batetik lana desagerrarazi nahi baita, baina bestetik, aldiz, haren aldeko defentsa egiten da, lana delako bizitza berma dezakeen jarduera bakarra. Artearen esparruan ere anbigua da ezetza, baina beste arrazoi batzuegatik. Alde batetik, langilea asebetetzen duen jarduera denez, egiteko desira indartsu bat du artistak; baina bestetik, lan-baldintzen eraginez, lana bera kaltetua ateratzen da. Lehenak, egitearenak, prekario- eta autoesplotazio-egoera onartzea dakar, eta bigarrenak, erabateko ukazioarenak, bizitza ezerezten du. Dena egin edo ezer ez egin, aukera batak zein besteak ez du ondoeza desagerraraztea lortzen, ez behintzat bizitzari kalterik eragin gabe.

Badago, gure ustez, hiperaktibitateak eta gehiegikeriak sortzen duten ondoezaren aurrean, eta ukazio absolutuaren irteerarik gabeko kale itsuaren aldeko hautua egin gabe, ezetza, ukazioa edo nagitasuna ardatz izango lituzkeen beste aukera bat. Badago, gure ustez, errealitatean gauzatu ezin den Bartlebyren "ukazio pasiboari" kontrajarrita, halako "ukazio aktibo" bat. Badago leku bat, non baietzak eta ezetzak, lanak eta atsedanak, produktibitateak eta aktibitate ezak, bat egiten duten. Leku horretan, "ukazio pasiboa" eta "ukazio aktiboa" elkartu, gainjarri eta diluitu egiten dira. Tarte horretan, zentzurik gabeko hiperproduktibitatearen mandatua onartzeari uko egiten zaio, eta ukazio absolutuan oinarritutako jarrera nihilistari ere ezetz esaten zaio. "Ukazio aktiboa" jardutearen kontra eta jardutearen alde agertzen da aldi berean. Hala ere, kontraesanak zeharkatutako posizio hori ezin da ulertu jarrera kritiko bati lotuta ez bada. Edo beste modu batean esanda: egitea edo ez egitea, hiperaktibitatea edo aktibitate eza, lanaren aldeko edo kontrako jarrera, horien

532 Rowan, Jaron: "Preferiría no hacerlo, pero me gusta tanto...".
Iturria: http://www.demasiadosuperavit.net/wp-content/uploads/2012/03/me-gusta-tanto..rowan_1.pdf

bidez lortu nahi den helburuaren araberakoa da. Alde horretatik, nagitasuna ere “ukazio aktiboa” delakoaren eremuan kokatzen dugu. Nagia edo alferra, lanik egin nahi ez duena edo lanerako gogorik ez duena da. Lana gorestera eta bizitzaren une bakoitza intentsitatez bizitzera gonbidatzen gaituen gizarteetan, langilea izatea eta lanetik kanpoko denbora hamaika zeregin eta jardueratan ematea ongi ikusiak eta balioetsiak dira, eta nagitasuna edo jarduerarik eza, berriz, estigmatizatuta daude. Paradoxikoa den arren, gorroto den lanari ihes egiten zaion bakoitzean, pauso hori ematen duena hatzarekin seinalatua da. Lanetik kanpoko denbora ohean etzanda ematea ere denbora-galtzetzat hartzen da, ez da begi onez ikusten. Alde horretatik, bada nagitasun-modu bat, ondoeza sortzen duen hiperaktibitatearekiko erresistentzia gisa funtzionatzen duen jarrera moduan ulertu behar dena. Bartlebyren “ukazio pasibo” hura ez bezala, “nagitasun aktiboa” deituko diogun hau lan alienatzaile eta esplotatzailea egitearen kontra agertzen da, baina lan alienatzaile eta esplotatzailea desagerrarazteko lan egiteko prest dago. Lanaren kontrako langilea da, eta lanik ez egiteko egiten du lan.

6.3. TEKNOLOGIAREN ALDE, TEKNOLOGIAREN KONTRA

*«La historia se desarrolla en un lugar de la Amazonia brasileña, habitado por una tribu de indios que ese dedicaban ante todo a cortar leña con instrumentos extremadamente primitivos. Unos misioneros que accedieron a esa región, al percatarse del duro trabajo de los indios, decidieron obsequiar a éstos con unos cuchillos de acero inoxidable de fabricación norteamericana. Un par de años después los misioneros regresaron y uno de ellos preguntó —era inevitable— por los cuchillos. La respuesta fue inmediata: su utilidad era evidente, no en vano los indios tardaban ahora diez veces menos tiempo en cortar la leña. Como quiera que el misionero diese por descontado que, entonces, estaban produciendo diez veces más leña que antes, recibió inmediatamente una réplica: conseguían la misma cantidad de leña que con anterioridad, en el buen entendido de que ahora disfrutaban de diez veces más tiempo para dedicarlo a aquello que objetivamente tenía que ver con su bienestar y su felicidad...».*⁵³³

Carlos Taibo

Teknologia eta lana eskutik helduta doazen bi kontzeptu dira. Biek batera egiten dute bidea, eta bata bestea eraldatzen du. Teknologiak lanaren esparruan eskaintzen dituen aukerek promesak zein mesfidantzak sortzen dituzte, eta horiek aztertzeari lotuko gatzaizkio hurrengo lerroetan.

6.3.1. Teknologiaren promesa

Hardtek eta Negrik azaltzen duten gisan, kapitalismoaren garai bakoitzak bere produkzio-, esplotazio- eta kontrol-moduak ditu. Langileriak unean-unean eskura dituen bitartekoak erabiltzen ditu borroka-molde berriak asmatu eta bere interesak defendatzeko. Langileria- ren erantzun horrek hartaratuta, produkzioaren, esplotazioaren eta kontrolaren oinarriak berrantolatzen ditu berriz ere kapitalak, eta horrela, etengabe.⁵³⁴ Kapitalaren eta langileria- ren klase-interesen kontraktasunaren emaitza da kapitalismoaren bilakaera. Kapitalak ahalik eta denbora eta balio gehien atera nahi izan dio langileriari beti. Langileria, berriz, kontrakoan ahalegindu da: kapitalak ahalik eta gutxien esplotatu dezan, ahalik eta indar fisiko eta intelektual gehien beretzat gordetzeko asmoz. Baina era berean, interes komun batean biak bat etorri dira. Zein bere arrazoiengatik, baina bai bata eta bat bestea, laneko denbora ahalik gehien murrizte aldera, automaten, makinaren eta teknologiaren inplementazioa sustatu dituzte. Marxek arrazoitu zuen bezala, lanaren automatizazioa kapitalismoaren ondorio logikoa zen. Marxek iragarri zuen moduan, kapitalaren joera izango zen gizakiak egiten zuen lana gero eta teknologia sofistikatuagoak egin zezan ahalegintzea eta gizakiak etorkizuneko produkzio-prozesuetan ahalik eta toki murriztena izatea, hutsala bihurtzeraino.⁵³⁵

Lehiakortasunak teknologiaren aukerak muturreraino garatu eta esplotatzera darama kapitalista, produktibitatea areagotu eta etekin ekonomikoa eskuratzeko. Lehiakorra izateko, langileak baino errentagarriagoa aterako zaion teknologiaren aldeko hautua egiten du kapitalistak. Langileak makinek ordezkutzen dituzte. Kapitalistak langile gutxiago behar du. Produkzioa merkatu egiten da, eta nahiz eta kapitalistak etekin handiagoa ateratzea lortzen duen ikuspegi indibidualetik, merkatuko produkzio guztiaren balio orokorra murriztu egiten da. Lehiaren logikak bultzatuta, iristen da une bat, non langileen ordezkariak jarrita, produkzio-denbora eta produkzio-kostua minimoak diren. Horregatik dio Marxek aberastasuna jada ez dutela baldintzatzen lan-denborak eta langile-kopuruak, baizik eta produkzio-prozesuetan aplikatuko den garapen zientifiko eta teknologikoak.⁵³⁶

Marxek makinaren ahalaren berri eman eta automatizazioak zabaltzen zituen aukerak azpimarratu zituen. Historian lehendabiziko aldiz, produkzio-indarren garapenak oparotasun-egoera posible egiten zuen. Horrela, pertsona ororen bizimodua bermatzeko behar materialak asetzeko aukera eskaintzeaz gain, behar material horiek produzitzeko beharrezkoa zen lana ere gutxienekora murrizteko aukera zabaltzen zen. Zientziaren eta teknologiaren ekarpenek askatasuna eta oparotasuna uztartzea ekarriko zuten. Ordu arte, gizakiak zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta gehiago produzitzen zuen. Balioaren produkzioa lan egindako denboraren arabera zen. Baina makinaren etorrerak logika hori hautsi zuen. Aberastasunaren produkzioa eta gizakiak sartutako lan-denbora

534 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2011 (81. or.).

535 MARX, Karl. Op. 2007 (2) (218.-219. or.).

536 Ibidem (227.-228. or.).

bananduta geratu ziren. Teknologia aplikatzeak produkzioa haztea ekarri zuen. Edo beste modu batean esanda, makinek langileek produzitzen zutena baino askoz ere gehiago produzitzen zuten, eta eginkizun hartarako askoz ere esku gutxiago behar izateaz gain, askoz ere denbora gutxiago behar zen. Hala, bazirudien langileei denbora sobera geratuko zitzaielara, produkzio bera atera arren.

Automatizazioak bazuen gizakiarentzako onura bikoitzaren promesa: behar materialak guztientzat ziurtatzeko aukera ekarriko zuen, eta lanaldia murriztekoa ere bai. Bazirudien produkzio-indarraren ardua makinan ipintzean, oparotasuna lortzeaz gain, langileak lanetik denbora libratzeko aukera izango zuela. Denbora libre nabarmen areagotzea lortuko zen, eta bakoitzak denbora hori nahi bezala eta nahi zuen jardueretan erabili ahal izango zuen. Zientziaren eta teknologiaren ekarpenak aurrerapausoa ziren Marxentzat:

*«A través de este proceso, efectivamente, se reduce a un mínimo el cuanto de trabajo necesario para la producción de un objeto dado, [...] el trabajo humano, el gasto de energías. Esto redundará en beneficio del trabajo emancipado y es la condición de su emancipación».*⁵³⁷

Marxen arabera, zientziaren eta teknologiaren ekarpenei esker, neurrigabeko produktibismoko fase edo aro bat izango zen lehenbizi. Lanaren bitartez, natura gizatiartzea eta oinarritzko beharrak asetzea lortuko zen. Prozesu horretan, progresiboki, lan alienatzailea eta gizakiaren esfortzua murriztuz joango ziren, emantzipaziorako oinarriak sortzen ziren neurrian. Horren ostean, beste aro bat hasiko zen. Oparotasun-egoerara iritsi ondoren, lanak jarduera alienatua izateari utziko zion, autoespresiorako eta autorrealizaziorako aukera ematen zuen bestelako jarduera-modu bat bilakatuko zen. Marxen iritziz, automatizazioaren bitartez, kapitalismoak gizartea oparotasun-egoerara eramateko aukera sortzen zuen lehenik. Horrela, behin "beharraren erreinua" gainditu eta gero, "askatasunaren erreinua" errealitate bihurtzeko aukera eskaintzen zitzaion. Alienazioa eta esplotazioa eragiten zituen lan behartua desagerraraziz soilik lor zitekeen gizakiaren askatasuna:

*«[...] el reino de la libertad sólo comienza allí donde cesa el trabajo determinado por la necesidad y la adecuación a finalidades exteriores; con arreglo a la naturaleza de las cosas, por consiguiente, está más allá de la esfera de la producción material propiamente dicha».*⁵³⁸

Marxek zioenez, gizakiak historikoki bere beharrak ase nahian, kanpotik ezarritako indarkeria gainditu eta bere biziraupena bermatzeko lan egin zuen. "Beharraren erreinuan", behar materialak asetzeko premia zuenez, ez zuen bere alde gizatiarraz arduratzeko aukerarik. Baina gizakiak egiten zuen lan astuna makinaren esku utzi eta langilearen denbora lanaren menpekotasunetik libratzean, "askatasunaren erreinuan" errealizazio

537 Ibidem (224. or.).

538 MARX, Karl: op. cit., I. lib., 3. libk., 2009 (1.044. or.).

pertsonal zein kolektiborako baldintzak izango ziren. Lan behartua desagerrarazitakoan, gizarte postkapitalista baterako oinarri materialak ezartzen ziren.

Ezaguna da, bestalde, lehen ere aipatu dugun bezala, Paul Lafarguek lan industrialaren izaera alienatzailearen kontra egitearren nagitasunaren eskubidearen alde erakutsi zuen jarrera.⁵³⁹ Lanaren aldeko diskurtsoen aurka, autore horrek lanaren abolizioaren aldeko defentsa egin zuen. Helburu hori lortu ahal izateko, teknologiak funtsezko papera betetzen zuen, Lafargueren idatzietan irakur dezakegun bezala:

*«Todavía no comprenden que la máquina es la redentora de la humanidad, el Dios que liberará al hombre de las sórdidas artes y del trabajo asalariado, el Dios que le dará el ocio y la libertad».*⁵⁴⁰

John Maynard Keynesek 1930ean idatzitako saiakera batean azaldu zuenez⁵⁴¹, teknologiaren aurrerapenei esker, merkantzien eta zerbitzuen produkzioaren kostua jaitea eta eskasia desagerraraztea ez ezik, horretarako behar izango zen lan-denbora murriztea lortuko zen. Hark iragarri zuenez, teknologiak munduak bizi izandako garapen ekonomikorik handiena ekarriko zuen. Ekonomiak gizakiarentzat arazo izateari utziko zion, eta 2030. urterako, eguneko lanaldia 3 ordura murriztuko zen. Produktiorako beharrezkoa zen eskulana hain modu erradikalean gutxitzean, langile asko eta asko lanik gabe geldituko zirela eta, “desenplegu teknologikoa” izendatu zuena gertatuko zen. Baina “desenplegu teknologikoa” horren ondorioak epe motzera kaltegarritzat har bazitezkeen ere, etorkizunera begira onuragarriak izango omen ziren. Keynesek zioenez, behar zen oro eta oso merke produzituko zenez makinei esker, gizakia lan astun hartatik libratu eta benetan interesatzen zitzaizkion kontuetan murgiltzeko aukera emango zion.

Garai berean, Bertrand Russellek saiakera batean aisiaren aldarria egin zuen. Esan zuen aisia ezinbestekoa dela benetako bizitza bat nahi duen gizarte batentzat. Lau orduko lanaldia proposatu zuen, denbora horrela antolatuta pertsona orok aukera izango zuelako bere afizioak garatu eta zorientasuna berreskuratzeko. Kexu agertzen bazen ere ordura arte teknologiak eskainitako aukera baliatu ez izanagatik, ez zuen esperantzarik galdu, saiakeraren amaieran esandakoan ikus daitekeen bezala:

*«Los métodos de producción modernos nos han dado la posibilidad de la paz y la seguridad para todos; hemos elegido, en vez de esto, el exceso de trabajo para unos y la inanición para otros. Hasta aquí, hemos sido tan activos como lo éramos antes de que hubiese máquinas; en esto, hemos sido unos necios, pero no hay razón para seguir siendo necios para siempre».*⁵⁴²

539 LAFARGUE, Paul: op. cit., 2010 (59. or.).

540 Ibidem (59. or.).

541 KEYNES, John Maynard: *Las posibilidades económicas de nuestros nietos*, Taurus, Madril, 2015.

542 RUSSELL, Bertrand: op. cit., 2000 (21. or.).

Abangoardiak automatizazioaren inguruan jarrera ezkorra izan zuelako iritzia zuen Asger Jorn Internazional Situazionistaren figura garrantzitsua izan zenak, idatzietako batean adierazitakoa kontuan hartuta.⁵⁴³ Automatizazioak eskaintzen zituen aukerak gutxietsi egin zirela esan zuen hark ere. Automatizazioa gizakia bere beharretatik askatzeko aukera izan zitekeela ikusten zuen Jornek. Aukera hark aurrez inoiz izandako aldaketa kultural handiena bultzatzeko modua eskaintzen zuelakoan zegoen. Automatizazioaren onurez ez ezik arriskuez ere jabetuta egon arren, bai Jornek eta baita Internazional Situazionistak ere makinarekiko interesa agertu zuten. Kezkak eta susmoak aparte, lana desagerrarazteko eta denbora libre lortzeko aukera posible izango zelako esperantza izan zuten haiek ere:

*«La automatización de la producción y la socialización de los bienes vitales reducirán cada vez más el trabajo como necesidad exterior y proporcionarán finalmente, plena libertad al individuo. Liberado así de toda responsabilidad económica, de todas sus deudas y culpabilidades hacia el pasado y el prójimo, el hombre dispondrá de una nueva plusvalía incalculable en dinero porque no se la puede reducir a la medida del trabajo asalariado: el valor del juego, de la vida libremente construida. El ejercicio de dicha creación lúdica es la garantía de la libertad de cada uno y de todos en el marco de la única igualdad garantizada con la no explotación del hombre por el hombre».*⁵⁴⁴

6.3.2. Utopia teknologikoaren berpiztea

Modernitate garaiko optimismo teknologikoa, ahantzia zirudien arren, ez da desagertu, ez horixe. Harengan ipinita zegoen esperantza indarrez azaleratu da berriro ere, bioteknologia, biokimika, nanoteknologia edo mikroelektronikaren esparruetan egiten ari den lana dela eta. Teknologiaren balizko onuren artean, lanik gabeko mundu baten amets utopikoaren berpizte bat ere gertatu da.⁵⁴⁵ Teknologia garaikidearen alorrean egin diren aurrerapen eta aurkikuntza berriek, sasoi batean zirenak baino are eta aukera gehiago eskaintzen dituzte amets hura hezur-haragitzeko.

Pertsonen bizitzeko moduen eraldaketaren arrazoi nagusia inolako zalantzarik gabe teknologia dela baieztatzen dute Brynjolfssonek eta McAfeek.⁵⁴⁶ Makinaren lehenengo aroari eta bigarrenari buruz hitz egiten dute, MIT, Massachusseteko Institutu Teknologikoko irakasle diren bi autoreek. Industrializazioaren sorrerarekin, lehenengo teknologiei esker asmatutako makinak medio, gizakiak bere gorputzarekin egin behar zuen lan fisikoa ordezkatzeko hasi ziren. Egungo teknologia berriak, berriz, buruarekin egiten den

543 JORN, Asger: "Los situacionistas y la automatización" kapituluua, *Internacional Situacionista. Vol I. La realización del arte*, Literatura Gris, Madril, 1999 (26. or.). Iturria: https://monoskop.org/images/d/da/Internacional_Situacionista_Vol_1.pdf

544 INTERNACIONAL SITUACIONISTA: *Internacional Situacionista. Vol I. La realización del arte*, Literatura Gris, Madril, 1999 (127. or.). Iturria: https://monoskop.org/images/d/da/Internacional_Situacionista_Vol_1.pdf

545 RIFKIN, Jeremy: op. cit., 1996 (33. or.).

546 BRYNJOLFSSON, Erik; MCAFEE, Andrew: *La carrera contra la máquina. Cómo la revolución digital está acelerando la innovación, aumentando la productividad y transformando irreversiblemente el empleo y la economía*, Antoni Bosch, Bartzelona, 2013 (18. or.).

lan mental ugari ordezkutzen du. Lehenengo aroko makinek gizakiaren gaitasun fisikoa areagotu zuten bezala, bigarren aro honetakoek gaitasun mentala areagotuko dutela dio. Lurrun-makinak, motor elektrikoak eta beste makina ugari ekarri zuten iraultza areagotu egiten da orain Internet, ordenagailu, robot eta bestelako tresna digitalen asmakizunarekin. Horrenbestekoa izaten ari da teknologia digitalaren iraultzaren bilakaera, non aurrez inoiz ez bezala, gizakiaren muga fisiko zein psikologikoak gainditzea lortuko baitu. Azken urteetan garatutako asmakizun teknologikoek trebezia txundigarriak erakutsi dituzte, eta McAfeek dio hau hasi besterik ez dela egin. Oraindik ez omen dugu ezer ikusi. Hoberena iristear omen dago, baina jada aurreratzen dute langile asko makinaren aurkako lasterketa galtzen ari direla.⁵⁴⁷

Lehen, automatizazioari buruz hitz egiten zenean, eskuz egiten zen lan industrialaren produkzio mekaniko, errepikakor eta estandarizatuan soilik pentsatzen zen. Makinak gizakiak baino hobeak eta azkarragoak zirela lan errutinario eta errepikakorretan, horixe zetorkigun gogora, baina ez, ordea, makinak gizakiekin interaktuatzera edo egoera “irregularragoetan” modu autonomo batean erabakiak hartu eta inprobisatzera iritsiko zirenik. Ikuspegi hori aldatzen hasia da, eta automatizazioaren aplikazio eta eragina industriaren esparrura mugatuko zela pentsatzen bazen ere, zerbitzuen edo ezagutzaren esparruetan ere jada aurrerapauso handiak ikusten ari gara.

Makinek orain urte batzuk pentsaezinak ziren zeregin ugari egiten dituzte. Telefono bidez bezeroei erantzun, autoak gidatu, eta xakean jokatzeko gai dira, adibidez. Ezaguna da Watsonen kasua.⁵⁴⁸ Watson AEBetako telebistan ematen zen *Jeopardy* izeneko lehiaketara aurkeztu eta bi lehiakiderik onenak gainditzea lortu ostean egin zen ospetsu. Watson ez zen pertsona bat, IBM enpresak diseinatutako “superordenagailu” bat baizik. Halakoak, superordenagailuak, testuak idatzi, itzulpen arruntak egin zein metafora konplexuak deszifratzeko gai dira. Informazioa analizatu, hipotesiak planteatu eta gaixotasunak diagnostikatu ere egin dezakete. Galdera eta erantzun sinplez osatutako elkarrizketak izateko nahiz modu pertsonalagoan interaktuatzeko prestatuak izaten ari dira. Gizakiak eskatutakoa ikasi eta ulertzeko gero eta gaitasun handiagoa dute. Singularitate teknologikoaren kontzeptuak, hau da, makina gizakia baino adimentsuagoa izatera iritsiko delako ideiak, gero eta gaurkotasun gehiago du. Teknologiarene esparruan aldaketak esponentzialak dira, eta atzo zientzia fikzioa ziruditen hainbat gauza errealitate dira gaur.

6.3.3. Lanaren amaiera

Teknologia berriek produktibitatearen esparruan ere berebiziko aldaketa ekarri dute. Lehen, herrialde batek produktibitatea eta, beraz, aberastasuna sortzeko zuen gaitasuna langile-kopuruaren arabera zen; hau da, zenbat eta langile gehiago, orduan eta

547 Ibidem (18. or.).

548 Iturria: http://www.bbc.com/mundo/noticias/2011/02/110217_ibm_computadora_jeopardy_en

produktibitate altuagoa zuen eta, beraz, ondasun gehiago ekoizteko ahalmena. Baina gizakiak egindako lanaren eta herrialdeak lortzen duen balioaren arteko harreman hori ere amaitu da, jarraian ikusiko dugun moduan.

Orain arte, nekazaritzaren eta industriaren sektoreei eragin die nagusiki automatizazioak eta robotizazioak, baina gaur egun, edozein sektoretako jarduerak automatiza daitezke, horretarako baldintzak sortzen ari dira. Gero eta gehiago dira produkzio-prozesuetan gizakia ordezkatzeko ari diren makinak, eta badirudi horrek lan kreatibo eta gizatiarrago-entzako aukera zabaltzen duela.

Rudy Gnuttik dioenaren arabera, teknologian aditu diren gehienek iritziz, bai eta Silicon Valleyko enpresari garrantzitsuenen ustez ere, digitalizazioak gaur egungo lan asko desagerraraziko ditu. Desagertzen ari den lanpostuen kopurua sortzen dena baino handiagoa da, prozesua bizkorrago doa gainera, eta epe motz edo ertainera, behintzat, galdutako lanpostu horiek ordezkatzeko modurik ez dago.⁵⁴⁹

Brynjolfsson eta McAfeeren arabera, 2000. urtetik aurrera produktibitateak eta hazkunde ekonomikoak nabarmen gora egin duten bitartean, enpleguarekin alderantzizkoa gertatzen hasi da.⁵⁵⁰ Hazkunde ekonomikoa ez du lanpostu berriak sortzeak eragin, ez da hori izan eragilea. Edo beste modu batean esateko, azken hamarkadetako teknologiaren garapenari esker, ekonomiak, produktibitatea handituz, langileen kopurua txikituta ere aberastasun gehiago sortzea lortu du.

Lan eta denbora gutxiago behar da orain, lehen sortzen zen adina aberastasun produzitzeko. Badirudi balioaren produkzioan orain arte lanak izan duen garrantzia desagertzen ari dela. Horixe da bederen André Gorzek bere garaian egin zuen iragarpena:

*«[...] la abolición del trabajo es un proceso en curso y que parece llamado a irse acelerando».*⁵⁵¹

Errendimenduak eta lehiakortasunak eragindako garapen teknologikoaren ondorioz, produkzio sozialaren prozesuak gero eta langile gutxiagoren beharra duela azaltzen du Gorzek.⁵⁵² Horrek esan nahi du, gero eta gehiago, lanik gabeko langilez osatutako gizarteak bihurtzen ari garela. Ekonomia kapitalistak ezin du inola ere pertsona bakoitzak lanerako duen eskubidea bermatu. Gizartearen osotasuna enplegatuta egotearen promesak lehen ere sinesgarritasun handirik ez zuen, eta orain promesa hori zeharo desagertu dela esan daiteke. Langabeziaren arazoa gero eta kezka handiagoa sortzen duen fenomeno da. Gero eta langile gehiago ikusten da lana aurkitzeko zailtasunekin, eta etorkizunak ez

549 GNUTTI, Rudy: op. cit., 2017 (33. or.).

550 BRYNJOLFSSON, Erik; MCAFEE, Andrew: op. cit., 2013 (41.-42. or.).

551 GORZ, André: op. cit., 2008 (87. or.).

552 GORZ, André: op. cit., 1998 (83. or.).

du itxura hobeia eskaintzen. Lanaren abolizioa jada martxan zegoela esan zuen Gorzek, eta haren aurreikuspenarekin bat egitera dator Rifkin ere, baieztapen honetan ikus daitezkeen moduan:

«*Los grandes datos, los análisis avanzados, los algoritmos, la IA y la robótica sustituyen al ser humano en los sectores de la industria, los servicios, el conocimiento y el espectáculo, planteando la posibilidad muy real de que centenares de millones de personas dejen de trabajar [...]».*⁵⁵³

Aspalditik ari autore hori lanaren amaiera bidean dela esaten. 1995ean, langilerik gabeko mundu baten etorrera iragarri zuen; teknologia informatikoaren garapenak eta aplikazioak eragingo omen zuten hori hala izatea.⁵⁵⁴ Urte batzuk joan dira ordutik, eta Rifkinen orduan egindako pronostikoa zuzena zela esaten jarraitzen du.⁵⁵⁵

Oxfordeko Unibertsitateko Frey eta Osborne irakasleek duela gutxi egindako ikerketa batek oihartzun handia izan zuen. Txosten hartan ziotenez, izan ere, iraultza digitalaren ondorioz, AEBetako lanpostu guztien erdiak hurrengo 20 urteetan desagertzeko arriskuan daude.⁵⁵⁶

Nick Srnicek eta Alex Williams ere baikor ageri dira teknologiak ekar diezazkigukeen aukerak direla eta. Ezkerraren eskakizun historiko garrantzitsuenetako batzuk, hala nola gizakiari umiliagarri, aspergarri eta astun gertatzen zaion lanaren amaiera, edota eskasia materialik gabeko mundu oparo baten sorrera, historiako beste ezein garaitan baino lorgarriagoak dira orain, bi autore horien esanetan.⁵⁵⁷ Datuen arabera, gaur egun duela 200 urteko gure arbasoak baino 100 aldiz aberatsagoak gara.⁵⁵⁸ Teknologiaren erabilera egokiaren ahal askatzailea azpimarratu, eta kapitalismotik postkapitalismorako saltoa egiteko aukera iradokitzen dute Srnicekek eta Williamsek. Aldaketa horrek, hain zuzen, lanik gabeko mundu baten etorrera ekarriko luke: postlanarena.

Antza, oso ekonomia produktiboa izango da, baina ez ditu langile asko behar izango.⁵⁵⁹ Eta McAfeeek dioenez, trantsizio horren kudeaketa izango da gizakiak azken urteetan izan dituen erronketan handienetakoa. Teknologia digitalak lana desagerraraziko duen edo ez, hori ikusteko dago.

553 RIFKIN, Jeremy: *La sociedad de coste marginal cero. El Internet de las cosas, el procomún colaborativo y el eclipse del capitalismo*, Paidós, Bartzelona, 2014 (155. or.).

554 RIFKIN, Jeremy: op. cit., 1996 (17. or.).

555 RIFKIN, Jeremy: op. cit., 2014 (155. or.).

556 FREY, Carl Benedikt; OSBORNE, Michael A.: "The future of employment: how susceptible are jobs to computerisation?", University of Oxford, 2013. Iturria: http://www.oxfordmartin.ox.ac.uk/downloads/academic/The_Future_of_Employment.pdf.

557 SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: op. cit., 2015 (150. or.).

558 GNUTTI, Rudy: op. cit., 2017 (50. or.).

559 MCAFEE, Andrew: *Are droids taking our jobs?*. Iturria: https://www.ted.com/talks/andrew_mcafee_are_droids_taking_our_jobs/transcript?language=es#t-66733

6.3.4. Teknologiarekiko mesfidantza

*«La contradicción principal [...] es la que existe entre el increíble incremento de las fuerzas productivas (genéricamente entendidas como capacidades y potencialidades tecnológicas) y la incapacidad del capital de aprovechar esa productividad para el bienestar común [...]. [...] la gran mayoría de la población mundial solo puede degradarse para ganarse la vida o morirse de hambre».*⁵⁶⁰

Harveyk adierazten duen bezala, horixe da marxismoak hasiera-hasieratik salatu ez ezik konpondu nahi izan duen kontraesan nagusia. Alegia, produkzio-indar edo ahalmen teknologikoaren bilakaera nahiz hazkundera eta haren ondorioz sortutako produkzio sozial oparoa guztion ongizaterako bideratu ez izana.

Lehen esan dugunez, teknologia digitalaren iraultzan uste handia zegoen, lan fordistaren miseria desagerrarazi eta ondoren sortutako lan-molde berriak autonomia, malgutasuna, sorkuntza eta lan gizatiarrago baterako aukera zabalduko zuela iritzita. Baina Remedios Zafrak ongi baino hobeto ikusarazi ditu ekonomia berriaren promesaren itzalak. Teknologia berrien etorrerak lanaren amaiera ekarri edo hura gizatiarragoa bihurtu ordez, subjektibitatea produktiboagoa bihurtu dela argi ondorioztatzen da haren lanetik. Ikertu dituen sektoreetako langileen hiperproduktibitatea eta prekarizazio- eta autoesplotazio-egoeraren zergatiak aztertzen jarrita, sorburuan dauden osagaietan nagusietako bat teknologia dela guztiz agerikoa da.⁵⁶¹ Bada, beraz, teknologiaren, robotizazioaren eta automatizazioaren promesekin mesfidati agertzeko arrazoirik, orain ikusiko dugun moduan.

Fraynek azaltzen duenez, lana desagerrarazteko aukerak irekitzen ari zirenean, une batean, kontrako norabidea hartu eta lanaren aldeko apustua egin zen.⁵⁶² Haren esanetan, XX. mendearen hasieran, AEBetan, lorgarria zirudien aisialdi gehiago izango lukeen gizarte batera iristea. Hamarkadak zeramatzaten lanaldiak murrizten, langileriaren eta sindikatuen eskaerek bultzatuta. Alderdi politikoez ere babesten zuten eskakizun hura. XX. mendearen erdian, asteko lanaldia 40 ordura murriztea lortu zen. Enpresariak, alabaina, joera haren aurka agertzen hasi ziren. Lanordu gutxiago eta aisiako denbora gehiago izatearen logika bateraezina zen, haien ustez, hazkunde ekonomikoarekin. Produkzioko teknologiaren garapenak ekoiztako ondasuna, denbora librearen bitartez ordaindu ordez, kontsumorako eskaintzen zen aukera areagotuz ordaindu zen. Beharrak ase eta denbora libre gehiago izatea eman ordez, merkantzien produkzio-eremua zabaldu, areagotu, handitzeko erabakia hartu zen, eta publizitatearen sedukzio eta manipulazio psikologikoaz baliatu. Hala, gizakia lanaren menpekotasunetik askatu ordez, kontrakoa gertatu zela argudiatzen du Zafrak. Gizakiari etengabe beharrak sortuz, nahiz eta jakin haietako askoren beharrak benetan ez zela, nahiz eta jakin merkantzia iraunkorrakoak egin zitezkeela,

560 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (101. or.).

561 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (25.-26. or.).

562 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (95.-97. or.).

eta nahiz eta ogibide askok uste izan zentzugabeak zirela, hala eta guztiz ere, langilea lanari lotuta irauraztea erabaki zen. Produkzioko teknologiaren garapenak Mendebaldeko gizartea bi aukeraren aurrean ipini zuen, beraz, XX. mendearen hasieran: denbora libre gehiago izatea, edo ondasunen produkzioa eta kontsumorako aukera areagotzea. Eta kapitalismoak, badakigu, bigarren bide horretatik eraman zuen gizartea: aisia eta atsedeen gehiago izateko ametsa errealitate bihurtu ordez, merkantzien produkzioa areagotu eta kontsumoaren aukera bultzatu zuen. Edo Fraynek dioen bezala, lanorduak murriztearen aldeko eskaera baztertu, eta lanaren aldeko apustua egin zen.

Lanordu-kopurua jaitsi edo lana desagerrarazteko beste saiakera bat 60-70eko hamarkadetako testuinguruan agertzen da. Lan-eredu produktibo fordistak goia jotzeaz batera, langileengan sortzen zuen ondoeza zela eta, lan-eredu haren aurkako jarrera zabaldu zen, Gorzen ikerketek jasotzen duten bezala. Saiakera haiek, ordea, ez zuten fruiturik eman. Gorzek kontatzen duenaren arabera, fordismotik postfordismorako aldaketa abian jarri zen, eta lanaren aboliziorako aukera ez zen gauzatu.⁵⁶³

Ekonomiaren esparruko merkatu lehiakorak, teknologiaren eta makinaren aldeko apustua egiteak arrazoi bati erantzuten dio: makinak gizakiak baino azkarrago eta merkeago lan egiten du. Ez dira gaixotzen, ez eta haurdun gelditzen ere. Ez dute hamaiketakorik egiten, ez soldata-igoerarik eskatzen, ez grebarik antolatzen. Ziurtasun handiagoa ematen dute. Harveyk esaten duenez, ahal zen neurrian gizakiaren lekuan robotak eta makinak jartzeak eta fabriketan lana antolatu eta automatizatzeako erak nahi horri erantzuten diote hasierarik beretik:

*«[...] la innovación tecnológica era un arma crucial en la lucha de clases y que el capital había adoptado muchas innovaciones con el único propósito de obstaculizar o impedir las huelgas, interiorizando además la creencia fetichista de que la solución para hacer crecer sin cesar la rentabilidad era la innovación tecnológica permanente dirigida hacia el disciplinamiento y pérdida de poder de los trabajadores».*⁵⁶⁴

“Bizarra kentzeko makinaren sindromea”⁵⁶⁵ pairatzen dugu. Hona hemen sindromearen deskribapena: bizarra ahalik azkarren moztu eta ahalik eta denbora libre gehien lortzea da helburua, zertarako eta bizarra are azkarrago kentzen lagunduko digun beste makina are bizkorrago bat asmatu/erosi eta denbora gehiago izateko, zertarako eta berriro ere bizarra are azkarrago kentzeko eta... Horrela, infinitura arte. Gurrpil zoro moduko bat eratu da, eta teknologia bera bihurtu da teknologiaren helburu. Teknologiaren garapena, lana aurreztera bideratu ordez, garapenera bera dago bideratuta, itxura guztien arabera amaierarik gabekoa den bide batean. Harveyk badu logika horrentzat azalpen bat. Teknologia

563 GORZ, André: op. cit., 1998 (14. or.).

564 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (111.-112. or.).

565 TAIBO, Carlos: op. cit., 2016 (40. or.).

berrien garapena bera ekonomiaren esparruari oso erakargarria gertatzen zaio, eta hala, berrikuntza teknologikoa garrantzi handiko ekonomia-jarduera bilakatu da.

*«La cultura capitalista se obsesionó por el poder de la innovación tecnológica, convertida en objeto fetiche de deseo para el capitalista».*⁵⁶⁶

Horri dagokionez, gogora ekarri nahi genuke Marxek automatizazioaren onuren alde egindako tesian garrantzi handikoa den xehetasun bat, tesiaren garapenean funtsezkoa, eta beraz, azpimarratzekoa. Izan ere, Marxek automatizazioari ahalmen askatzailea aitortzen dionean, zehazten du baldintza jakin batzuetan soilik gerta daitekeela hori. Haren esanetan, zientziaren eta teknologiaren garapena historian zehar metatuz joandako adimen sozialaren fruitua da, ez beste ezerena. Eta soilik metaketaren fruitu den ezagutza eta teknika sozial hori langileriaren eskuetan izandakoan, guztien onaren mesedetan jarritakoan, orduan, eta orduan soilik iritsiko da agindutako "askatasunaren erreinua", eta orduan izango da posible banakotasunen garapen askea:

*«Desarrollo libre de las individualidades, [...] al cual corresponde entonces la formación artística, científica, etc., de los individuos gracias al tiempo que se ha vuelto libre y a los medios creados para todos».*⁵⁶⁷

Alabaina, Marxek planteatzen duenaren aurkakoa da teknologiari gaur egun ematen zaion funtzioa, César Renduelesen esanetan. Fetitxismo teknologikoa dugu orain. Badirudi teknologia garaikidea postpolitikoa dela, politikak ia ez baitu eraginik haren erabilera sozialean. Ez daukagu eraldaketarako tresnatzat, baizik eta teknologia bera da helburua. Eta alde horretatik, teknologiaren defendatzaile sutsuek aditzera ematen dute teknologiak bere-berez duela eraldaketa sozial askatzaileetarako gaitasuna; alegia, teknologiak berak, inolako erabakirik izan gabe tarteko, gizakiaren eraldaketa askatzailea gauzatzeko aukera eskaintzen duela.

Renduelesek azaltzen duenez, Marxek, aldaketa historikoa gauzatzeko prozesuari begira, garrantzi handia eman zion teknologiari.⁵⁶⁸ Baina prestaketa-fasean soilik izango omen zen garrantzitsua. Eta honela argudiatzen du. Eskasia nagusi zenean, aldaketa materialik gabe, ez zen posible aldaketa politikorik planteatzea. Proiektu sozialistak oparotasun materiala behar zuen, eta hain zuzen ere, behar hura asetzeko aukera eskaintzen zuen Industria Iraultzak. Kapitalismoak bere burua suntsitu aurretik, lagungarri gerta zitekeen prozesu hartan lortutako produkzioa. Produkzio-indarren garapenari esker halako oparotasun-maila bat lortu eta gero, erabaki eta kudeaketa politikoa zirela medio, enfrontamendua desagerrarazteko eta berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko ametsaren mesedetara jarri behar zen teknologiaren erabilera. Behin autonomia-maila hori lorturik,

566 Ibidem (104. or.).

567 MARX, Karl: op. cit., 2007 (2) (229. or.).

568 RENDUELES, César: "Ciberfetichismo". Iturria: http://www.eldiario.es/cultura/Ciberfetichismo_0_173932957.html

teknologiak ez zuen inolako paper berezirik izango harreman sozial emantzipatzaileak bermatu edo alienazioa gainditzeko bidean, Renduelesen esanetan.

Marxek, sistema kapitalistaren izaera alienatzaile eta esplotatzailearen berri ematen duen arren, aitortzen du kapitalismoaren ahalmen produktiboa eta oparotasunean oinarritutako mundu bat sortzeko duen gaitasuna. Alde horretatik, kapitalismoak bere baitan duen kontraesana azpimarratzen du: “askatasunaren erreinua” sortzeko aukera eskaintzeaz batera, ukatu egiten du.

Jeremy Rifkin edo André Gorz bezalako teorialarien aurreikuspenek porrot egin dute, Biforen iritziz. Azken horren arabera, lanaldiaren murrizketa eta denbora librearen areagotzea aurreikusi bazuten ere, 90eko hamarkadatik aurrera hain justu kontrakoa gertatu da.⁵⁶⁹ Ordutik, lanaldia mugagabea bihurtu da. Argudio hori oinarritzeko ematen dituen datuak esanguratsuak dira: 1935ean jaiotako pertsona batek 95.000 orduz lan egingo zuen bere bizitza osoan, hil aurretik; 1972an, kopurua 40.000 ordura murriztu zen; baina gerora, lanorduen murrizketaren aldeko joerak kontrako norabidea hartu, eta 2000. urtean, adibidez, 100.000 ordura igo zen.

Bifok azaltzen duenez, langileak gero eta lan gutxiago egitea lortu nahian zabiltzala, ingeniariak, beren aldetik, lan-denbora murrizteko teknologiak ikertzen ari ziren, produkzioa automatizatzeko moduak aztertzen.⁵⁷⁰ 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, bi joera haiek elkarrekin topo egin zuten. Baina gurutzaketa hartan, langileria-aren interesak kontuan izan eta haiei lehentasuna eman ordez, haien aurkako errebantxa hartu omen zuen kapitalismoak. Langileriak ez zuen lortu bere protesta eta aldarrikapenen bitartez produkzio-prozesua eraldatzerik. Bifok Italiako esperientzia adibidetzat hartuz kontatzen duenaren arabera, 70eko hamarkadaren testuinguruan lanaren aurkako mugimenduak indartsu agertu baziren ere, eta teknologiaren ekarpena garrantzitsua izan bazen ere, ez zuten lortu lana desagerraraztea. Oso aitzitik, berrikuntza teknologikoek produkzio-moduak goitik behera berrantolatzea eragin zuten 80-90eko hamarkadetan, baina hura langileria-aren interesen alde zuzendu ordez, kontrakoa gertatu zen, Biforen esanetan.⁵⁷¹

Egiten ditugun lan asko eta asko makinek egin ditzaketela aspaldiko kontua da, baina orain arte behintzat, zientziaren eta teknologiaren alorrean egin diren urratsak ez dira baliatu Marxek iragarritako “askatasunaren erreinua” gauzatzeko. Ingalaterran Industria Iraultzarekin abian jarritako norabideak, zoritxarrez, ez du bide beretik jarraitu, bidea hautsi du. Makinen bitartez aurreztutako giza lana kapitalistaren etekinak handitzeko balio du, eta lanpostuen galera bihurtu da. Produktibitatea handituz doa, eta ostera, lanpostuak galtzen ari dira, berriak nekez sortzen dira eta langilearen erosahalmena gero eta txikiagoa

569 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2007 (1) (26.-27. or.).

570 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2007 (32. or.).

571 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2007 (1) (32. or.).

da.⁵⁷² Lanaren mundura zuzendutako teknologiak botererik gabe utzi du langile-jendea, eta hain zuzen ere langileria menpean edukitzeko funtzioa bete du, Harveyk esaten duen moduan.⁵⁷³ Teknologia, denbora librearen gizarte baten amets utopikora gerturako gaituen tresna izan ordez, gero eta etorkizun distopikoagoa eraikitzekeko aparatu bihurtu dela aitortzen du Rifkinek berak ere.⁵⁷⁴

Gizarte ezegonkor eta prekario honetan, ondoeza orokortua dela eta errealizazio pertsonal eta kolektiboa gehiengoari ukatuak zaizkiola, Marxek amestutako “askatasunaren erreinua” gauzatzetik urrun gaude. Produkzioaren eta errealizazioaren arteko batasunik ez dago ekonomia globalean. Mundu-mailan sortzen den aberastasuna goraka doa, baina herrialdeen zein gizarte-mailen arteko diferentziak areagotzearen truke.⁵⁷⁵ Oparotasuna gutxi batzuen eskuetan pilatuta dago. Egoera paradoxikoa da, gutxienez: inoiz izan den ahalmen zientifiko eta teknologiko handienari esker sekula baino aberastasun gehiago produzitzen da, baina jendea inoiz baino lanpetuago dago. David Harveyk, Marxek aurrez adierazitako kontraesanarekin bat eginez, honela azaltzen du gaur bizi duguna:

*«Lo más paradójico es que la automatización y la inteligencia artificial nos ofrecen ahora medios suficientes para alcanzar el sueño marxiano de la libertad más allá del reino de la necesidad, mientras que las leyes de la economía política capitalista sitúan esa libertad cada vez más lejos y fuera del alcance».*⁵⁷⁶

Gorzek azaltzen zuen bezala, bada halako uste hedatu bat, lan gehiago eginez eta gehiago produzituz aberatsago bihurtzen garelako. Baina lanaren inguruko ikerketa oparoa egin duen autore horrek adierazten duen moduan, joera kontrakoa da. Aberastasunaren produkzioa gorantz doan bezala, horrekin batera, desentregua, diferentziak, pobrezia eta marjinalitate soziala ere handitzen ari dira.⁵⁷⁷ “Gehiago=hobeto” logika bere azkenera iritsi da. Gorzek dio ez dela egia gehiago produzitzeko lan gehiago egin behar denik, ez eta gehiago produzitzeak bizitza hobetoago bat bermatzen duenik ere. Gorzen formulazioak bi gogoeta biltzen ditu. Bata ondasun materialaren banaketari buruz ari da. Eta bestea, eta gure ustez honetan datza Gorzen ekarpenaren interesa, lanari ematen zaion funtzioaz eta behar materialez bestelakoak asetzekoan horien artean sortzen den talkaz. Hau da, lana, gaur egiten den bezala, traba gertatzen da behar materialez bestelakoak asetzeko. Gure gizarteetan jende gehien-gehienak behar materialak aseta dituen arren, Gorzen arabera, materialak ez diren beharrak ezin dira lan gehiago eginez eta gehiago produzituz ase, baizik eta beste modu batean eta gutxiago lan eginez.

572 MCAFEE, Andrew: op. cit.

573 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (263. or.).

574 RIFKIN, Jeremy. Op. Cit 1996 (81. or.).

575 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (38. or.).

576 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (205. or.).

577 GORZ, André: op. cit., 1998 (56.-57. or.).

Silicon Valley edo MITetik datozen diskurtsoetan bada halako euforia edo optimismo teknologiko moduko bat. Badirudi teknologia dela orain arazo guztien konponbidea. Lypovetskyk eta Serroyk esaten duten gisan, mundu hiperteknologizatu honetan, badirudi politikak ez baizik eta teknologiak salbatuko gaituela miseriatik, teknologiak lagunduko digula bizitza hobea bat lortzen.⁵⁷⁸ Tamalez, ordea, argi dago agertoki horretatik oso urrun gaudela. Teknologiak, robotizazioak eta adimen artifizialaren garapenak bere-berez ez dute gizarte osoarentzako oparotasuna bermatzen, ez eta lana desagerraraztea ere, baldin eta helburu horiek lortze aldera bestelako neurririk hartzen ez bada. Baina aldi berean, teknologiaren fetixizazioarekiko fidagaitz egoteko arrazoiak badiren arren, horrek ez du esan nahi, lana desagerrarazteko eta oparotasun-egoera lortzeko abagunea egokituz gero, hari uko egin behar zaionik.

6.3.5. Teknologia eta etorkizuna

*«Por primera vez en la historia moderna muchos seres humanos podrían quedar liberados de un gran número de horas de trabajo, y así adquirir una mayor libertad para llevar a cabo más actividades de tiempo libre. Las mismas fuerzas tecnológicas podrían, sin embargo, llevarnos a mayores niveles de desempleo y a una depresión de ámbito internacional. El hecho de que nos espere un futuro de utopías o de realidades depende, en gran medida, de cómo queden distribuidas las ganancias en la productividad [...]».*⁵⁷⁹

Bai Rifkinek eta bai Gorzek, lanaren amaierak bi aukera ekar ditzakeela diote biek. Teknologia, robotika eta adimen artifiziala zein noranzkotan zuzentzen diren, horren arabera egongo da gizakia agertoki baten edo bestearen aurrean. Lanaren amaierak gizakiaren askatasuna ekarriko du, edota miseria areagotzea bestela, Rifkinen esanetan, eta Gorzek ere bi agertoki posible ikusten ditu etorkizunera begira: langabeziaren gizartea edota denbora librearena.⁵⁸⁰

Lanaren amaierak, beraz, ondorio negatiboak izan ditzake. Automatizazioak, nahiz eta produktibitatea handitzea, aberastasuna sortzea eta denbora librearen areagotzea eragin, ez du bermatzen produkzio materialaren eta denbora librearen banaketa justua gizarte osoarentzat. Hala, gizartearen miseria eta ondoeza areagotu ditzake, baldin eta lanak bizimodua ateratzeko modu bakarra izaten jarraitzen badu behintzat, eta gainera, aberastasuna esku gutxi batzuetan pilatu eta gero, langabetuen masa erraldoia biziraupena bermatzeko baliabiderik gabe gelditzen bada. Ordea, lana desagertzea pozgarria ere gerta daiteke, baldin eta produkzio-eredu kapitalista deuseztatu, eta eraldaketa sozial, politiko eta ekonomiko baten hasiera bada. Gizakia lan alienatzailearen morrontzatik

578 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (47. or.).

579 RIFKIN, Jeremy: op. cit., 1996 (34. or.).

580 GORZ, André: op. cit., 2008 (88. or.).

libre gelditzean, behartutako jarduerak eragiten dion ondoeza eta sufrimendua amaituko egingo lirateke. Oparotasuneko testuinguru batean, gizakiak bere barne-desirak asetzeko aukera izango luke.

Srniceki eta Williamsi lanaren automatizazioaren aukerez galdetu zieten elkarrizketa batean.⁵⁸¹ Orduan azaldu zutenaren arabera, azken hamarkadetan teknologiaren esparruan egin diren aurrerapen handiek gizakia lanaren zamatik askatu eta gizarte osoarentzat nahikoa aberastasun produzitzeko aukera benetakoa da. Baina beste behin ere, gehitu zuten, badirudi bi aukeren artean erabaki behar dela: lana gutxitu eta, horrekin batera, ekoizten diren produktuen kopurua ere murriztu, edota lana gehitu eta ekoizten diren produktuen kopurua handitu. Lehenengo kasuan, askatasuna balioesten eta lehenesten da aberastasunaren gaintik, eta bigarreanean, berriz, alderantzizkoa. Automatizazioaren promesak, ordea, banaketa horri amaiera ipiniko lioke, haien esanetan. Alegia, askatasunaren eta oparotasunaren aurrean bata edo bestea aukeratu beharrik gabe, automatizazioak biak izateko aukera ematen duela.

Bi autore horiek ikuspuntu optimista samarra agertzen dute, baina ezin dira teknologiaren arriskuak inola ere alboratu. Finean, teknologiaren alde edo kontrako jarrera izatea, tresna horien bitartez lortu nahi diren helburuen arabera izango da. Gorz argi mintzo da horri dagokionez. Eta nahiz eta teknologiaren aukera garrantzizkotzat daukan, ez dago hura edonola edo edozeren ordainetan onartzeko prest. Gorzek dio teknologiaren garapenaren zertarakoa ezin izan daitekeela merkatu-ekonomiaren lehiakortasunak bultzatuta kapitalaren metaketa amaierarik gabea. Badirela bizitzan produktibitatea eta lana baino gauza garrantzitsuagoak. Eta gauza horiek, hain zuzen, ukatuak izan zaizkiola gizakiari. Behartutako lanean lanpetuta eduki dute gizakia, eta ez du izan nahikoa denbora bestelako jarduera horietan aritzeko. Teknologia alde onik baldin badu, hori, gizakia lan desatseginetatik libratzeko modua ematea ez ezik, denbora aurrezteko duen ahalmena da. Hori da teknologiaren abantaila, eta horrek izan beharko luke, Gorzen iritziz, teknologiaren aldeko defentsaren xedea:

*«Este precio de la tecnificación no llega a ser aceptable más que en la medida en que economiza trabajo y tiempo. Este es su fin declarado. No tiene otro. Está hecha para que los hombres produzcan más y mejor con menos esfuerzo y en menos tiempo. [...] El sentido de la actual revolución técnica no puede ser rehabilitar la ética del trabajo, la identificación con el trabajo. Esta revolución solamente tiene sentido si ensancha el campo de las actividades no profesionales en las cuales cada uno, cada una, comprendidos los trabajadores de nuevo tipo, puedan desarrollar plenamente la parte de humanidad que, en el trabajo tecnificado, no encuentra empleo».*⁵⁸²

581 SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: "Cinco razones para trabajar menos (o nada)". Iturria: <http://www.sinpermiso.info/textos/cinco-razones-para-trabajar-menos-o-nada>

582 GORZ, André: op. cit., 1995 (120. or.).

.7.

**ATSEDEN HARTZERA
JOAN AURRETIK**



► **"GURE PANKARTAK", 2016.**

Egunerokotasuneko paisaiaren parte dira izara zuriak, balkoietatik behera eskegiak, produkzio-sistemaren oinarria diren gure etxeetan. Fabrikatik haratago dauden lantoki hauek, janaria prestatu, arropa garbitu, lan-indarra produzitu eta bertakoak zaintzeko espazioak izateaz gain, borroka-gune dira.



7.1. ONDORIOAK

Orain arte esandakoak kontuan hartuz, eta ikerketa amaitze aldera, zenbait ondorio bilduko ditugu orain, hiru ataletan banatuta.

7.1.1. Lanak aske egiten ez duenean

Mendebaldeko gizarte postindustrialetan, sarritan, bada aurreko garaiak hobekak izan zirela pentsatzeko halako joera nostalgiko bat, Marta Malok azaltzen duen moduan.⁵⁸³ Alegia, pentsatzea gaur egungo lan-mundu dinamiko, ezegonkor, malgu eta prekarioaren aldean, lehengo lan-moduak, bizitza osorako “bermatuta” zegoen hark, jarduera mekaniko eta errutinarioa izanagatik ere, gutxienez bizimodu antolatu, lasai eta egonkorra izateko modua ematen zuela. Baina nahiz eta lan fordista abantailak eta onurak ere bazituen, beharrezkoa da gogoratzea langileari egonkortasuna eta lasaitasuna ekartzen zizkionean bizimodu errutinario eta aspergarri batera kondentatzen zuela. Diziplinan eta kontrolean oinarritutako jarduera hark ez zuen langilea aske egiten. Lanak esplotazioa eta alienazioa zekartzan.

Lan industrialaren garapenaren ondorioz eta hainbat borrokari esker eraikitako ongizate-gizarteak ere ez zuen langilearen desirak asetzea lortu. Kultura industrial kapitalistaren kontrako erreakzioaren adibide izan ziren 60-70eko hamarkadetan sortutako esperientzia antagoniko eta kontrakultural ugariak. Eguna joan eta eguna etorri, toki berean itxita, gustukoa ez zen jarduera behartu bat behin eta berriz egin behararen ondorio logikoa zen lanaren kontrako jarrera edo gustuko lan bat egiteko nahia piztea. Alde horretatik, nor bere buruaren jabe izatea, nork bere denbora kudeatzea, malgutasuna izatea, era askotako jarduerak egitea, lanean ez aspertzeta eta abar, bizitza interesgarri, intentso eta aberatsa izateko nahiarekin lotuta zeuden horiek guztiak. Horrek eraman zuen jendea autonomia, malgutasuna eta kreatibitatea aldarrikatzera.

Orduan saiatu eta abian jarritako lan, bizimodu eta subjektibazio-prozesuak kapitalismoaren bilakaerarako elikagai izan ziren, hala ere, gerora ikusi ahal izan den bezala. 60-70eko hamarkadetako gertakarien eraginez, ekonomiaren kulturizazioa eta kulturaren ekonomizazioa gertatu da, lehen esan dugun bezala. Mugimendu bikoitz horren ondorioz, bi esparruen arteko mugak desegin egin dira, urtu, eta arteak eta ekonomiak bat egiten amaitu dute. Jada ez dago, arteak autonomia aldarrikatzen zuen garaian bezala, produkzio-lan kapitalistaren eremutik kanpoko lan-esparrurik. Logika kapitalistak bizitzaren esparru guztiak kolonizatu ditu. Prozesu horretan, artista ekintzaile bihurtu da, eta ekintzailea, artista. Artista langile bat gehiago da orain, eta langileari artista izatea eskatzen zaio, izan dadila sortzaile, original, lehiakor eta ausart. Norberak maite duen jarduera bere

ogibide bihur dezala, horretara bultzatzen da jendea. Garatu ditzala ahalmen kreatiboa eta harremanetarako ahalmena, eta aprobeitza dezala lanaren eta bizitzaren arteko lotura modu produktiboan. Lan industrialean ukatuak zitzaizkion autonomia, sorkuntza eta autorrealizazioa, behinola aldarrikapen izandakoak, produktibo bihurtzea eskatzen zaio orain langile postindustrialari.

Autonomia, sorkuntza eta autorrealizazioa bezalako terminoak erakargarri egiten zaizkio orain kapitala sortzea eta metatzea beste helbururik ez duen merkatu-ekonomiari. Haren motorra bilakatu dira. Jarduera artistikoak bereizgarri zituen ezaugarriak bere egin ditu produkzio-lanak, eta artista neoliberalismoaren langile eredu-garri bihurtu da. Artista bohemioaren figura erabakigarria izan da bilakaera horretan. Horixe izan da, hain zuzen ere, neoliberalismoaren arrakastaren gakoa: lanaren etika berri bat proposatzen asmatzea, sorkuntza eta autorrealizazio-nahia lan-eredu berriek sustatzen dituzten balioekin bat etor daitezkeen lortzea.

Artista bohemioari buruzko atalean azaldu dugun bezala, artista, pertsona berezi, indibidualista eta eszentriko gisa ez ezik, konformagaitz, ausart edo heroi moduan ikusia da oraindik. Beste horrenbeste gertatzen da ekintzailearen figurarekin ere. Alabaina, artista-irudi horrek egia oso urrun dagoen figura mitifikatu eta idealizatu bati erantzuten dio. Lan-indarra ahalik merkeena eta esplotatzen ahalik errazena izan dadin, prekarietate eta malgutasun maximoa nahi ditu neoliberalismoak. Beste ogibide gehienetan ez bezala, arte-praktikak lanaren bitartez errealizatua sentitzeko aukera ematen du, baina lan hori baldintza malgu eta prekarioetan egin beharra dauka. Maite du artistak bere lana, eta horretatik bizitzeko desirak lan-baldintzarik kaskarrenak ere onartzera darama. Gurutzaketa horretan arazo bihurtzen zaio artistari bere jarduera: batetik autorrealizazio-nahia eta bestetik lan-baldintza kaskarrak onartu beharra uztartzen diren horretan. Badago halako autoprekarizazio bat, prekarietatearen aldeko borondatezko hautu moduko bat. Artista kontziente baita bere erabakiaz, baina lan- eta bizi-baldintza horien alde egiten badu, beste ororen ginetik, autonomiarako eta askatasunerako bidea direla pentsatzen duelako da. Eta hain zuzen arrazoi horregatik, bere lana pasioz bizi duen produktore prekarizatua esplotatzen erraza da. Beraz, artista neoliberalismoarentzat langile eredu-garria bada, autorrealizazio-nahiak eta bere lana maite izateak bultzatuta artista lan hori egiteko edozein baldintza onartzeko prest dagoelako da.

Langileak aldaketetara irekia egon behar du, arriskuak bere gain hartzeko eta etorkizun hurbilean zer izango den arrastorik izan gabe bizitzeko prest. Nor bere buruaren nagusi izatera derrigortuta dago. Autoprodukzioa eta autorrealizazioa norberaren ardura direnean, lehiakortasuna arau duen ekonomia honetan ez dago atsedenerako tarterik. Ikusgaitasuna eta arrakasta bermatzeko, egunean 24 orduz eta astean 7 egunez aktibo, eguneratuta, konektatuta egon beharra dago. Lanaren bitartez autorrealizatzearen ideia sustatzen duen ideologiak nia etengabe lanean jartzea exijitzen du, hiperaktibo izatea. Askatasunez egindako jarduera eman dezake, baina lehen argudiatu dugun moduan, askatasun-sentsazio ustela da, horren azpian esplotazioa baizik ez baitago, autoesplotazio-forman.

Lana autorrealizazioaren nozioaz lagunduta aurkezten denean, baita baldintza prekarioenetan egin behar denetan ere, esplotaziotzat hartzetik onartzera pasatzen da. Bizitzari errentagarritasuna ateratzean dagoen subjektua, alabaina, bizitzaren jabe den arren, ez da bizi. Eta horregatik, ondorioa argia da: eredu neoliberallean, lanak ez du inor aske egiten, ezta autonomia, sorkuntza eta autorrealizazioaren promesekin jantzita datorrenean ere.

Kapitalismoak sedukzio-makina erraldoi baten moduan funtzionatzen du. Hura eraldatu edo desagerrarazi nahian jaiotako mugimendu guztien eskaerak bereganatu eta irentsi ditu, eta denboraren joanean ikusi denez, desiragarriak ziren aldarrikapen haiek, testuinguru neoliberallean, oso bestelako zentzua hartu dute. Ametsak amesgaizto bihurtu ditu, egonkortasun eza dela medio, aldarrikapen haiek erabateko prekarietaterako bide bilakatuta.

Lan-eredu berriek artearen esparrua eredutzat hartu dute, beraz, baina ez da hura oraingo eredu neoliberallean lan-mundura zeharo hedatzen ari den esparru bakarra, eta ezinbestekotzat daukagu atal hau amaitu aurretik hori ere aipatzea, zeren eta lana malgua eta prekarioa inon izan bada, lan feminizatueta izan baita. Lanaren eta bizitzaren arteko mugak desagertu eta bi eremuak bata bestean urteza, ordutegirik eza, etxetik lan egitea, eta afektuak, sentsibilitatea eta subjektibitatea lanean jarri beharra, ezaugarri horiek esparruren baten bereizgarri izan badira, artearenak baino lehen, emakumezkoei egokitu izan zaizkien lan soldatapeko nahiz ordaingabeenak izan dira zalantzarik gabe. Horra, beraz, lan-eredu berri feminizatu eta artistizatuak.

7.1.2. Denbora librerik gabeko denbora

Gorzek zehazten duen bezala, industrializazioaren sorreran zeuden beharrek eta oraingoek apenas duten zerikusirik.⁵⁸⁴ Marxek “beharraren erreinua” eta “askatasunaren erreinua” kontrajartzen dituenean, kontuan izan behar da garai hartan langilea 15 orduko lanaldiak egitera behartuta zegoela eta jaiegunik ez zuela. Produkzio industrialia hastapenetan zegoen, eta kontsumo-gizartea jaiotzeko, artean. Ordutik hona izan den bilakaera dela eta, produkzioa ikaragarri aldatu da bai ekonomiaren esparruan eta bai etxeko eremuan. Produkzioa automatizatuz joan da, fabriketan lehen langileek eskuz egiten zituzten hainbat zeregin makinek egiten dituzte orain, eta etxeko eremuan ere antzera gertatu da hein batean zeregin batzuetan. Egia da harrezkero lanordua izugarri murriztu direla,⁵⁸⁵ eta egia da bizimodua ikaragarri errazten diguten teknologia eta zerbitzu ugari ditugula orain. Eta hori guztia hala izanda, denbora gutxiago lan eginez produkzioa handitzea lortzen denez, gero eta denbora libre gehiagoren jabe izan beharko genuke. Baina ez da horrela.

584 GORZ, André: op. cit., 1995 (213. or.).

585 Murrizketa produkzio-lanaren eremuan gertatu dela zehaztea komeni da. Etxeko eremukoak diren lanetan, izan ere, nahiz eta gailu teknologikoek zeregin batzuk izugarri errazten dituzten, erreprodukzio lanak lehengo berean jarraitzen du, eta bizitzaren erreprodukzioak eta zaintza-lanak orain ere atsedetik ez dute.

Lanordueak murriztu diren arren, lanpetuta bizi gara, eta horixe izan da, neurri batean, sistema kapitalistaren nahia eta, are, garaipena. Hito Steyerlek azaltzen duen bezala, lehen lana zena orain "okupazio" bihurtu da.⁵⁸⁶ Eta "okupazio" nozioa bi zentzuetan ulertu behar dugu, haren esanetan: lanpetuta edo "okupatuta" egotearen zentzuan, denbora eta baliabide guztiak etengabe agortzen ari garelako, eta "okupazio" terminoaren zentzu militarrean ere bai.⁵⁸⁷ Steyerlek dioenez, izan ere, desira ez dugun horrek alderik alde zeharkatzen eta neutralizatzen gaituela bizitzea okupatua izatea da; nor bere bizitzaren kontrola galdu duelako sentsazioarekin bizitzea, gainezka eginda egotea, zerbaitek okupatu gaituen edo zerbaitek okupatuta gauden seinale da. Lana eta okupazioa ez dira, ordea, gauza bera. Autore horren esanetan, lanean norbera aktibo dago, zerbaite egiten, eta ordaindu egiten diote horregatik. Okupazioaren fruitu den produkzioa, ordea, ez da ordaintzen. Eta azken horixe da, Steyerlek azaltzen duenez, gizarte postindustrialetan bilatzen dena: jendea gauzak egiten egotea, baina kobratu gabe, zeregin edo jarduera horiek aberastasuna sortu eta bizitza sostengatzen baitute. Hain zuzen, Hardten eta Negriren hitzei jarraituz, kapitalismo garaikidea produkzio-eremutik kanpo dagoen ororen harrapaketa-aparatu erraldoi bat besterik ez da.⁵⁸⁸

Denbora falta gaur egungo bizimoduaren ezaugarri nagusietako bat da, Hanen esanetan.⁵⁸⁹ Lanak bizitza kolonizatu du, eta lanetik kanpo gelditzen den denbora apurrean ere lanpetuta gaude zeharo. Autore horren esanetan, lanak, eta lanaren zati osagarria litzatekeen denbora libreak, denboraz desjabetu gaituzte. Produkzio-kontsumo logikaren baitan eraikitako bizimodua da horren arrazoa, eta benetan egin nahi ditugun gauzetarako denborarik gabe utzi gaituztela esaten du.

Errendimenduaren gizarrean, subjektu enpresa, freelance edo ekintzailea ez da, fabrikako lanean gertatzen zen bezala, lan-ordutegi jakin bat betetzera mugatzen. Bere ikusgaitasuna eraiki, zaindu, promozionatu eta saldu behar du. Oraingo lan-merkatua ezegonkorra eta zeharo aldakorra dela eta, etengabe ikasten, prestatzen eta birziklatzen ibili beharrean dago. Beste langileekin lehiatzeko, ahalik ondoen prestatuta egon behar du. Ezin da erlaxatu. Hori guztia dela eta, lana ohiko orduetatik askoz haratago hedatzen den jarduera bihurtu da, eta teknologiaren garapenak funtsezko papera bete du prozesu horretan. Orain lanak ez du ez ordutegi eta ez espazio finkorik. Errendimenduaren subjektuak lanorduetatik kanpo lanean jarraitzen du.

Lana, gainera, ez da lantzat hartu ohi den jarduera-mota hori bakarrik. Produkzioaren eta erreproduzioaren artean egindako bereizketak, sexuaren araberako lan-banaketak, zer den lana eta zer ez katalogatzeko balio izan zuen, eta muga horiek ezartzea, funts-funtsean, lan-mota batzuk ikusezin bihurtzeko eta aitortuak ez izateko modua besterik ez

586 STEYERL, Hito: op. cit., 2014 (107. or.).

587 Ibidem (109. or.).

588 HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: op. cit., 2005 (53. or.).

589 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2018.

da izan; lan-mota bati balio soziala eman eta beste batzuei kentzeko modua, azken finean. Lana ez da, ordea, diruaren truke egiten den jarduera-mota hori bakarrik. Edo beste hitz batzuekin esanda, lana ez da enplegua soilik. Soldatapeko lana baino gehiago da. Diruaren truke egiten den jardueratik askoz haratago doa. Kapitalak lantzat izendatzen duena, kapitalaren mesedetan egiten dena, edo kapitalak aldarrikatu eta saritzen duena baino askoz gehiago da lana, Pérez Orozcok esaten duen bezala.⁵⁹⁰ Enplegu deitzen diogun jardueratik haratago egiten diren beste hainbat eta hainbat jarduera, baliorik produzitzen ez dutelako aitzakiarekin itzalpean eta ikusezin utzi nahi izan direnak, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak dira. Erreprodukzioaren eremua izendatu ohi dena, bizitza sortu eta zaintzeaz arduratzen dena, nahiz eta ordaindua ez den, hori ere lana da, lehendabiziko lana eta lanik garrantzitsuena gainera.

Aldi berean, lana, fabrikako eremua eta etxekoa gainditu eta gero, bizitzaren alderdi sozialera hedatu da. Logika ekonomikotik salbu ziren hainbat eremu kolonizatuak izan dira. Subjektibitatea, afektuak eta harremanak produktibo bihurtu dira. Dirua beti tarteko, erosi edo saldu ezin daitekeen ia ezer ez dago jada. Produktore eta kontsumitzaile nozioen artean egiten zen bereizketak berak ere zentzua galdu du. Subjektu garaikidea produktorea eta kontsumitzailea da aldi berean. Internet eta sare sozialen kasuan argi eta garbi ikusten den bezala, aisia produkzio-modu bat bihurtu da. Lanaren nozioari, beraz, askoz ikuspegi zabalago batetik begiratu behar zaio orain. Industrializazioaren sorreraz geroztik lantzat izan dugun soldatapeko jardueraren eremutik haratago hedatu baita, eta erreprodukzioaren nahiz aisiaren eremuak ere, ustez “ez-lanak” ziren horiek, lanaren eremuaren parte dira.

Informazio, datu, soinu eta irudien metaketak gainezka eginarazi dute mundua. Eta gainprodukzioak eta gehiegikeriak eragindako saturazio eta gainezkatze horri bizimoduak hartu duen abiada eta hiperaktibitatea gehituta, eskaintzen dena zabalegia gertatzen zaigu, ezin iritsizkoa, geure baitan ezin hartuzkoa. Ez dago merkantzia, eduki eta zerbitzu guztiei nahi adina denbora eta arreta eskaintzerik, ez dago horietaz baliatzeko eta gozatzeko denborarik. Mendebaldeko gizarteetan, jendea “egin beharrak” harrapatuta bizi da, denbora falta zaiolako sentsazio etengabekoan. Eta bizitza ahalik gehien bizi nahi baina horretarako nahikoa asti ez izateak itolarria eragiten du, tentsio betekoa eta estresagarria bihurtzen du denbora hori, gozamenerako eta plazererako izan beharko lukeena.

Zientzia, teknologia eta automatizazioari esker denbora gutxiagoan produkzio handiagoa ateratzea lortzen den arren, oraingoz denbora “aurrezte” hori ez da lanorduak murrizteko eta denbora librea areagotzeko erabili. Gizarte kapitalistan, lana automatizatzen denean, lehiakorra izan eta produktua ahalik merkeen produzituz ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzeko izaten da. Eta teknologiaren garapena eta lanaren automatizazioa lana desagerrarazteko edo lan-denbora murrizteko bideratzen ez badira, horren atzean ezkutuko arrazoi bat dagoelako da, Harveyk dioenez, oraintxe azalduko dugun moduan.

Kapitalak teknologia berriek produktiotik askatzen duten denbora nolabait erabiltzeko moduak aurkitzen ditu, autore horren esanetan. Zenbat eta denbora gehiago libratu produkzioaren eremutik, are eta denbora gehiago xurgatzen du kontsumoaren eremuak. Denbora librea areagotzeko aukera mehatxagarria gertatzen zaio boterea duen klase kapitalistari.⁵⁹¹ Harveyren arabera, kapitalistak ez du nahi jendeak denbora librerik izatea, baldin eta kontsumorako ez bada, zeren eta, azken finean, kapitalismoak horrexeri baitio beldurra, zerbaiti izatekotan: merkatu-ekonomiaren menpe dagoen produkzio-kontsumo logikarekin hautsi eta kapitalaren metaketa lehenetsiko ez duen bestelako harreman eta bizimolde batzuk sortzeko aukerari:

*«El peligro permanente es que unos individuos autónomos y libremente asociados, liberados de las tareas de la producción y bendecidos con toda una serie de tecnologías de ahorro de trabajo y de tiempo para ayudar a su consumo [...], puedan empezar a construir un mundo alternativo no capitalista».*⁵⁹²

Zafra ere, Harveyren tesiarekin bat eginez, kapitalismoak denbora liberatuari dion beldurraz mintzo da. Eta beldur horrek badu zerikusia, gainera, pentsamenduari orain ukatua zaion tokia ematearekin. Izan ere, Zafraren esanetan, liberatutako denborak pentsamendu, kontzientziario eta mobilizazioari aukerak irekitzen dizkie, eta hori beti da kezkarria gauzak dauden-daudenean iraurarazi nahi litzukeenarentzat.⁵⁹³

Oraingo gizarte neoliberal hiperproduktibo eta hiperkontsumista honetan, lan behartu eta desatseginari eskaintzen zaio eguneko zatirik handiena, gure desirak asetzeko promesa dakarten merkantzia eta zerbitzu ugariak erosi ahal izateko gero. Kapitalaren metaketa gerta dadin, ezinbestekoa da lanaren bitartez produzitutakoa lanetik kanpo kontsumitua izatea. Lanean, bai eta lanetik kanpoko eginbeharrek ere, subjektu lanpetuak egin gaituzte. Ez dago atsedenerako, ezer egin gabe egoteko, produktibo ez izateko denborarik. Egunerokotasuneko abiadura itzelaren erritmoari jarraitu ezinik, egin nahi ditugun gauzak egin ahal izateko denborarik ez dugu. Ez dago pentsamendu kritikorako tarterik, eta horrenbestez, eraldaketa posible baterako beharko litzatekeen prozesua abian jartzeko aukera bera ukatua da. Errendimenduaren eta hiperkontsumoaren gizarte honetan, denbora librea produkzioaren eta kontsumoaren logikak kolonizatu duela eta, denbora libre ez dela benetan libre ondorioztatzea begien bistakoa gertatzen da.⁵⁹⁴

591 HARVEY, David: op. cit., 2014 (1) (270. or.).

592 Ibidem (269. or.).

593 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (17. or.).

594 RIFKIN, Jeremy: op. cit., 1996 (41.-42. or.). Kontsumo-gizarteak eskaintzen duen denbora libre ez dela benetan libre esateko, denbora libreaki buruzko atalean jasotakoari Jeremy Rifkinen ekarpena gehitu nahiko genioke. Rifkinek azaltzen duenez, eta sarritan entzun ohi denaren kontra, kontsumoan oinarritutako gure gizarte hau ez da gizakiaren "izaera asegaitzaren" ondorioz sortua. XX. mendearen amaieran ekonomialariak ohartu omen ziren langileak erraz konformatzen zirela bizitzeko adina irabazi eta oinarritzko luxu txikiren bat bazuten. Ez zutela helburu edo nahi material handirik. Lanordu gehiago egin eta diru-sarrera handiagoak izatea baino nahiago zutela denbora libre gehiago izan. Eta ekonomialariak ohartu omen ziren, orduan, aurretik sekula desira izan ez zituzten produktuak desiragarri izateko, "kontsumitzaile kontentagaitza" delakoaren figura sortu beharra zegoela. Iragarki-kanpaina indartsuak egin zituzten, jendea zeukan produktuekin gustura sentitu ez zedin, eta merkatuak eskaintzen zizkion produktuak desira zitzen. Hala, jendeari behar bat sortzen zioten, eta behar hura asetzeko, jakina, aparteko ahalegina egin beharko zuen.

7.1.3. Ondoeza

Errendimenduaren gizarte postindustrialia nekearen gizartea da, ondo ez dagoen gizartea, gizarte gaixoa. XXI. mendeko gaixotasuna neuronal da nagusiki, psikikoa. Estresa, antsietatea, depresioa eta era horretako gaitzak arazo larri bihurtu dira Mendebaldeko herrialdeetan. Osasuna obsesio bihurtu da, eta osasuntsu egoteko produktu zein zerbitzuen “superkontsumoa” dugu gaur egun.⁵⁹⁵ Bai medikuntza tradizionalaren bidetik eta bai bide alternatiboetatik, ondoeza desagerrarazteko erremedioen aukera zabala eskaintzen du merkatuak.

Ondo ez egotearen zergatia aztertu, arrazoiak identifikatu eta horiek ekiditeko saiakera egin ordez, ondoeza eragiten duten egoerak jasangarri bihurtzera eta produktibo izaten jarraitu ahal izateko bitartekoak eskaintzera mugatzen da botere terapeutikoa. Horren xedea, jakina, nekea, gaixotasuna eta ondoeza pairatzen ari den subjektua ahalik bizkorren sendatzea eta berriro ere produkzioaren esparruan lanean jartzea da.

Autorrealizazioa helburu duen errendimenduaren subjektu autoesplotatuak, bere buruaren ardura duenez, ondo ez egotearen errua berea dela uste du. Gertatzen zaionaren erantzule sentitzen da. Baina ondoeza modu indibidualean bizi izaten den arren, sozialki produzitua da, lehen ikusi dugun bezala. Bifok esaten duen moduan, sintoma indibidual horiek ezin dira zerbait bakana balira bezala tratatu, ez baitira marjinalak.⁵⁹⁶ Ondoezaren arrazoa egiturazkoa da. Irtenbide indibidualek ondo ez egotea arindu edo osatzea lortu dezakete, bai, baina ondoeza erreproduzitzeari ez zaio utziko, baldin eta hura eragiten duen bizimoldean eraldaketarik egiten ez bada. Kolektiboa den arazo horri erremediorik aurkitu ezean, kolektiboari eragiten dion ondoeza ez da sendatuko, eta bere horretan jarraituko du gaixotasunak.

Do it edo autoprodukzioaren ideologia neoliberalak ekimenik eta jarduerarik eza, ezetza, ukazioa eta nagitasuna gaitzetsi eta subjektua ekitera bultzatzen du etengabe. “Ahal duzu”, “zeure buruan sinetsi”, “izan zaitetz baikor” eta gisa horretako leloz beteta daude *coaching* eta autolaguntzako liburu eta orrialdeak. Lanaren bitartez errealizatzeko aukeraren promesak, eta denbora librea ukatzen duen bizimodu honek, nekea eragiten dute, ordea. Etenik gabeko ekina nagusitu eta ezer ez egitearena ezeztatzen bada, orduan, gizartea hiperaktibitate mortalean amiltzen da, Hanen esanetan.⁵⁹⁷ Autoprodukzioaren eta autorrealizazioaren aldeko ideologiak nekea, gaixotasuna eta ondoeza eragiten ditu paradoxikoki, eta bizitzaren kontra egiten amaitzen du azkenerako.

595 LIPOVETSKY, Gilles: op. cit., 1992 (60.-61. or.).

596 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2003 (24. or.).

597 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (59. or.).

7.2. AMAITZEKO

Ondorio horien ostean, ezin esan dezakegu ikerketa honetan planteatutako gatazka, tentsio eta kontraesanak gainditzeko formularik eskaintzeko moduan gaudenik. Jakin badakigu zeharo gai konplexua dela hau, eta halako plan edo erremedioren bat proposatzea ezinezkoa da. Baina, dena den, ateratako ondorioen aurrean ez dugu ezkorrak izan nahi. Izan ere, etorkizuna distopia baten modura irudikatzen dutenentzat ez bezala, gure ustez, bada itxaropenerako arrazoirik ere. Eta ildo horretatik, geroan jarraipena eman diezaioketen zenbait ildo aipatuz eta azpimarratuz jarri nahiko genioke amaiera ikerketa honi.

7.2.1. Gelditu, atsedeen hartu, pentsatu

Kapitalismoa ez den bestelako eredu bat sortu edo abian ipintzeko aukerarik ez dagoela ematen du. Irudikatzen den etorkizuneko agertoki posible oro mehatxagarri, apokaliptiko, distopiko ageri da, Arantza Lauzirikak azaltzen duenaren arabera.⁵⁹⁸ Klima-aldaketa, krisialdi ekonomikoak, teknologiaren garapena, adimen artifiziala, genomarekin lotutako ikerketak, izurriteak eta abar, hamaika faktorek giza existentzia mehatxupearan jartzen duela dirudi behin eta berriz. Ez da nahi izateko moduko etorkizunik irudikatzen geroan. Ziurgabetasuna, norarik eza, nahasmendua eta beldurra nagusitu dira, eta horregatik, biharrak iluna dirudi. Alternatibarik ezean, halako ezintasun- eta kalteberatasun-sentimendu bat hedatzen da gizartean. Honela azaltzen du Bifok:

*«“No future”, declaró la cultura punk [...]. Aún estamos en ese punto, mientras la guerra más demencial que la humanidad haya conocido destruye las consciencias y las esperanzas de una vida vivible».*⁵⁹⁹

“Hauxe besterik ez dago”, horixe da, López Petitek esaten duen bezala, kapitalismoan arrakasta duen kontsigna.⁶⁰⁰ Garrasi egiten duenaren ahotsa isilarazteko, pentsatzen duenaren garuna husteko, edo altxatu nahi duenaren gorputza lurrera tinko josteko, lelo horixe erabiltzen da. Alternatiba posiblerik ezean, gelditzen den aukera bakarra intentsitatez bizi eta gozatzea da, biharrak ez balego bezala bizitzea oraina. Eta hala, hedonismo indibidualistaren apologiaren garaipena jazo da.⁶⁰¹

Teknologiaren fetitxismoaren lilurak eraginda, badirudi berealdiko aldaketen atarian gaudela, baina azelerazioak eta hiperaktibitateak aldaketaren ukazioa besterik ez dute

598 LAUZIRIKA, Arantza: “Minando el sistema desde el interior. Metodología para programar un apocalipsis” kapitulua; *in* ZENBAIT AUTORE: *Contra Escritos Sobre Crítica & Contracultura*, Popurrit, Bilbo, 2017 (53. or.).

599 BERARDI “BIFO”, Franco: op. cit., 2007 (1) (55. or.).

600 LÓPEZ PETIT, Santiago: op. cit., 2014 (74. or.).

601 LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: op. cit., 2010 (53. or.).

eragiten. Mugimendua inertziaren ondorio baino ez da. Ruidok esaten duen moduan: «[...] *todo parece cambiar para que nada cambie*». ⁶⁰² Nobedadez eta berrikuntzaz inguratutako oraingo bizimodu hiperaktiboak errepikapen hutsa du emaitza. Hanek azaltzen duen bezala:

«*La pura agitación no genera nada nuevo. Reproduce y acelera lo ya existente*». ⁶⁰³

Gehiegikeriak eta abiadurak pentsamendua eta gogoetarako tarteaz oztopatzen dituzte, eta ez diote pentsamendu kritikoari behar duen denbora eta tokia uzten, Zafrak dioenez. Lehendik ezagunak eta barneratuak ditugun ideia, sinesmen, iritzi, logika eta hegemoniak dira abiaduraren eraginpean hobekien toleratzen ditugunak, haren esanetan, horrexegatik, hain zuzen ere: geuregan txertatuta daudelako, alderik alde zeharkatzen gaituztelako, ezagunak zaizkigulako eta normalizatuak ditugulako. Eta hala, mugimendu zoro horretan, lehendik uste, sinesten edo pentsatzen genuena erreproduzitu eta indarbertzen da. Inertziak ez dio subjektuari une batez gelditu, atsedean hartu eta gogoetararako aukerarik ematen. “Munduaren errepikapena” betikotzen du, eta hura eraldatzea ukatzen. ⁶⁰⁴ Egunerokoaren biadurak, hiperaktibitateak, nekeak eta atsedean faltak, hala, ezinezkoa egiten dute inolako etorkizun zeharo bestelako bat irudikatzea. Aldaketarik izatekotan, dio Zafrak:

«[...] *serían clave los renovados espacios dedicados al pensamiento libre y al sentido, la alianza tecnológica y humanística desde la creatividad y [...] la desconexión temporal*». ⁶⁰⁵

Ondoeza eragiten duen inertzia horri amaiera nola ipini ikusteko beharrezkoak dira denbora eta espazioa, eta horiek gabe nekez planteatu ahal izango da ondoeza desagerrarazteko hausnarketa sakonik, ez alternatibarik, Harveyren iritziz ere. ⁶⁰⁶

Gezurra badirudi ere, Hanek esaten duen moduan, hiperaktibitatea, inolako jardueraren librerik posible egiten ez duen “aktibitate ezin pasiboagoa” bihurtzen da. Hiperaktibitatea inertzia bilakatu da, eta ez du aldaketarako aukerarik ematen. Aldiz, ondoeza eragiten duen egoerari negatibitatez, ezetzaren bidez, ukazioz edo nagitasunaren bitartez erantzutean, orduan bai, norbera ondoezean daukan dinamikarekin hausteko modua bihurtzen da. Ez egiteak eraldaketarako aukera sortzen du orduan, eta hala, ezetza jarrera aktibo bihurtzen da. Hanek azaltzen duen bezala, paradoxikoki, alderantzizkatze bat gertatzen da:

602 RUIDO, María: “Los trabajos y los días”, op. cit.

603 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (35. or.).

604 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (92. or.).

605 Ibidem (94. or.).

606 HARVEY, David: *17 contradicciones y el fin del capitalismo*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=-Nk-QHrGj3U>

*«La negatividad del “no-...” constituye un proceso extremadamente activo, a saber, es todo menos pasividad. Es un ejercicio que consiste en alcanzar en sí mismo un punto de soberanía, en ser centro. Si solo se poseyera la potencia positiva, se estaría, por el contrario, expuesto al objeto de una manera del todo pasiva. La hiperactividad es, paradójicamente, una forma en extremo pasiva de actividad que ya no permite ninguna acción libre».*⁶⁰⁷

Ondoeza eteteak izan behar du helburua lehenik eta behin. Autorrealizazioaren promesa dakarren errendimenduaren gizarte honetan, ekitea, abiadura, lehia eta autoesplotazioa izanik ondoezaren sorburu eta eragile, gelditzea, atsedean hartzea eta ez egitea izango dira ondoeza geldiarazteko modua. Nekea, gaixotasuna eta ondoeza eragiten dituen autoesplotazioaren aurrean, ukazioa eta nagitasuna erresistentzia-modu eta bizitzaren aldeko aldarri bihurtzen dira. Baina ez ukazioa, ezta nagitasuna ere, ez dira bere-berez betiko helburu. Ondoeza geldiarazi ostean, atsedenerako eskubidea bermatzeaz gain, bizitza bizigarri bat zer litzateken definitzea eta hori nola gauzatu pentsatzea da hurrengo urratsa. Hala jasotzen du Internazional Situazionistak: *«Se trata de producirnos a nosotros mismos, y no cosas que no nos sirvan».*⁶⁰⁸

Aldi berean, nekea eta ondoeza pairatzen dituen gizarte honetan, botere terapeutikoa eta dopina, nahiz eta bizimodu garaikideak sortzen duen ondoeza baretzeko modu eraginkorrak diren, ondoeza desagerrarazteko ez dira nahikoa, lehen eta ondorioztatu dugunez. Ondoeza arintzeko halako saiakerek, kasu partikularrak balira bezala tratatzeak, gaitzaren egiazko dimentsioa ezkututzen dute, eta despoltizatzaileak gertatzen dira. Garrantzitsua da ondoezari arreta ipini, partekatu eta sozializatzea. Ohartaraztea ez dela arazo pertsonal bat, baizik eta besteek ere pairatzen duten zerbait, eta ikusaraztea “normalizatutako” errealitatearen parte dela gaitza. Egunerokotasunean hutsalak diruditen eta pertsonaltzat hartzen ditugun hainbat arazok alderik alde errotik zeharkatzen gaituzte, eta horiek politizatzea funtsezkoa da, Pérez Orozcoren esanetan.⁶⁰⁹ Subjektu indibidualizatuak jasaten duen ondoeza politizatuz soilik has daiteke egoera iraultzen. Fernández-Savaterrek dioen moduan, hortaz: *«La sanación no pasa entonces por la reparación, sino por la (auto)transformación».*⁶¹⁰

Bide horretan, lan intelektual eta artistikoak badute boterea eta ahala, Zafren esanetan.⁶¹¹ Izan ere, beren kontraesan eta guzti, pentsamenduaren eta sorkuntzaren eremuak dira toki gutxietakoak aukera ematen dutenak irudimena, desira, subjektibitatea eta lana elkarrekin uztartu eta errealitate berriak pentsatu, irudikatu eta saiatzekoa, betiere hiperproduktibitate, errendimendu, azelerazio eta lehiaren logikatik salbu babesten badira.

607 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2016 (1) (60. or.).

608 INTERNACIONAL SITUACIONISTA: op. cit., 1999 (23. or.).

609 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (27. or.).

610 FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: “Una fuerza vulnerable”, op. cit.

611 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2017 (94. or.).

7.2.2. Denbora librearen alde

*«No tenemos ya tiempo para el amor, la ternura, la naturaleza, el placer y la compasión. Nuestra atención está cada vez más asediada y por tanto la dedicamos solamente a la carrera, a la competencia, a la decisión económica. Y, en todo caso, nuestro tiempo no puede seguir la loca velocidad de la máquina digital hiper-compleja».*⁶¹²

Franco Berardi "Bifo"

Produkzioak, eta haren aurpegi osagarria den merkantzien kontsumoak, benetako denbora librerik gabe uzten gaituzte. Hanek esaten duen bezala, lanak, eta lanaren baitan antolatzen den aisialdiak, denboraz desjabetu gaituzte. Bizitza produkzioaren eta kontsumoaren arabera antolatuta egoteak denbora galtzea eragiten duela dio, eta bizitzea, beraz, denbora galdua bihurtzen duela. Horregatik esaten du:

*«[...] necesitamos un tiempo propio que el sistema productivo no nos deja; requerimos de un tiempo de fiesta, que significa estar parados, sin nada productivo que hacer, pero que no debe confundirse con un tiempo de recuperación para seguir trabajando; el tiempo trabajado es tiempo perdido, no es tiempo para nosotros».*⁶¹³

Eredu kapitalistak hazkunde ekonomikoa eta bizi-kalitatearen hobetzea gauza bat eta bera balira bezala planteatu izan ditu, Fraynek dioenez, lehena hazteak bigarrenaren onura ekarriko zuelakoan. Baina irakurketa hori zeharo okerra gertatu dela zalantzarik ez dago, Biforen esanetan.⁶¹⁴ Aitortzen du, jakina, gutxieneko bizi-kalitatea ere bermatuta ez dagoen munduko lurraldeetan hazkunde ekonomikoa ezinbestekoa dela. Baina gehitzen du ekonomikoki garatuta dauden herrialdeetan ongizatea ezin mugatu daitekeela gauza materialak edo zerbitzuak edukitzera. Bizitzaren alde sozialaren garrantziaz gero eta kontzienteago, denbora libre gehiago edukitzea da bizi-kalitate onarekin lotzen dena. Elkarrizketa batean argi ohartarazten zuen, denbora librearen garrantzia azpimarratzeaz batera, jendeak ez duela behar ez jertse, ez oinetako eta ez auto gehiago.⁶¹⁵ Eta ezta ere, beraz, horiek eskuratu ahal izateko lan gehiago. Mendebaldeko herrialdeetan, denbora libre eta harreman afektiboak dira ondasun preziatuak, Biforen esanetan. Produktibitatea eta kontsumoa areagotzeak ez du inola ere ondoeza desagerraraztea lortuko, arazoa ez baita behartuta egiten den jarduera desatsegin bati lotuta bizitz eta beharrezkoak ez ditugun merkantziak eskuratuz konponduko. Irtenbidea, etortzekotan, ondasun materialak metatzeak zorientasuna eta bizitza hobea bat dakartelako ideia

612 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (23. or.).

613 HAN, Byung-Chul: op. cit., 2018.

614 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (14. or.).

615 BERARDI "BIFO", Franco: "El futuro era mentira". Iturria: <http://blogs.publico.es/numeros-rojos/2015/04/08/el-futuro-era-mentira-entrevista-con-franco-berardi-bifo/>

baztertzetik eta aberastasunaren nozioa birplanteatzetik etorriko da. Italiarrak azaltzen duen bezala:

*«[...] hay que ralentizar el ritmo, abandonar el fanatismo economicista y repensar colectivamente el mismo significado de la palabra riqueza: no es rico quien posee muchas cosas, es rico quien dispone del tiempo para disfrutar de lo que la naturaleza y la colaboración humana ponen al alcance de todos».*⁶¹⁶

David Harveyk gero eta denbora libre gutxiagoren jabe garela esan zuen konferentzia batean duela gutxi.⁶¹⁷ Iparralde globalizatuan produkzioa handitu eta lan-denbora aurrezteko mota guztietako teknologiak garatu diren arren, jendeak lan gehiago egiten duela aipatzen zuen. Haren esanetan, egin nahi ez ditugun gauzetan agortzen dugu denbora gehiena, benetan desira ditugun gauzetan eman beharrean. Eta bere burua zibilizatutzat daukan gizarte batean, hori zentzugabea da, zeren eta egiazko gizarte zibilizatu bat, kalitatezko bizitza eskaini nahi duen gizarte bat, denbora libre asko duen gizartea baita, Harveyren esanetan.

Kapitalismoan, lanak bizitza erabat kolonizatu eta produktibo bihurtu du, eta subjektuari hutsune existentziala egin zaio barrenean. Merkatuak mila eta bat merkantzia eta zerbitzu eskaintzen dizkio, baina hiperkontsumoak ez du lortzen oraingo bizimoldeak sortzen dizkion hutsunea eta ondoeza arintzea. Hiperaktibitateak, azelerazioak eta lehiak menpean hartuta daukaten gizarte honek denbora librearen premia du. Bi arrazoiengatik, gainera: errendimenduaren gizarte honen ondoezarekin eten eta atsedeen hartzeko, lehenik, eta desira indibidual zein kolektiboak kontuan hartuko lituzkeen eraldaketa-prozesu bat abian jartzeko, ondoren. Denbora libre konkistatzea gakoa eta ardatza da, baldin eta bizitza bizigarri bat asmatu nahi bada. Harveyren hitzei jarraituz, denbora librearen aldeko borroka beti izan da funtsezkoa langileriarentzat,⁶¹⁸ eta gaur egun ere bada arrazoirik aski aspaldian alboratua dirudien aldarrikapen hori berpiztu, dagokion tokian ipini eta ematen zaion baino garrantzi handiagoa emateko. Oparotasun materiala bermatuta dagoen tokietan, bizitzaz gozatzeko denbora da falta dena. Ekonomikoki garatuta dauden herrialde hiperproduktibo eta hiperkontsumistetan, lan gutxiago eta denbora gehiago da jendeak behar duena, norberak modu askean benetan nahi duen horretan xahutu dezan. Zafrak esaten duen bezala:

*«El tiempo siempre es y será valor en alza. [...] Tiempo que pueda llamarse propio para la pasión que nos arrastra o para, sencillamente, ver pasar el tiempo».*⁶¹⁹

616 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2012 (190.-191. or.).

617 HARVEY, David: op. cit., *17 contradicciones y el fin del capitalismo*.

618 HARVEY, David: op. cit., 1998 (120. or.).

619 ZAFRA, Remedios: op. cit., 2015 (151. or.).

7.2.3. Lanaren kontra

*«El sabio es el heredero del trabajo humano, de la inteligencia acumulada en la infinita sucesión de gestos de trabajo y de actos de rechazo del trabajo. El rechazo del trabajo —el ahorro de fatiga— es el motor evolutivo de la inteligencia. La inteligencia es el rechazo del trabajo que se materializa en forma socialmente útil».*⁶²⁰

Franco Berardi "Bifo"

Teknologiaren defendatzaile sutsuenek aditzera ematen dute teknologiak baduela, bereberez, mundu hobea eta bidezkoago bat eraiki eta eraldaketa sozial askatzaileetarako halako gaitasun berezko bat; alegia, teknologiak, inolako erabakirik izan gabe tarteko, gizakiaren arazoak konpontzeko aukera ematen duela. Teknologiaren defentsak zer helburu politiko, sozial eta ekonomikori erantzuten dion zehazten ez denean, ordea, problematikoa gertatzen da. Ingrid Guardiolak ohartarazten duen moduan, XXI. mendean, utopia sozialen porrotaren ostean, badirudi utopia teknologikoaren alternatiba soilik gelditu zaigula. Hori, ordea, arazo bat izango litzateke, haren esanetan, horrek esan nahiko bailuke gizakiaren etorkizuna Silicon Valleyko fetitxista teknologikoen eskuetan uztea.⁶²¹

Ez dugu zalantzan jartzen teknologia lana desagerrarazteko ezinbesteko bitartekoa dela, horretan gu ere ados gaude, baina teknologiak bereberez ez du ezer bermatzen. Bada halako joera bat teknologiaren afera gizakiaren eta robotaren arteko lehia moduan aurkeztekoa. Batzuek diote automatizazioak gizakiari lana ostu eta miseriara kondenatuko duela. Beste batzuek, berriz, automatizazioak oparotasun materiala eta lanik gabeko bizimodua posible egingo duela. Robota, beraz, gizakiaren arerio edo gizakiaren aliatu da, zer ikuspegitatik aurkezten den. Baina edonola ere, badirudi gizakiaren etorkizuna roboten eskuetan dagoela, haien borondatearen menpe, alegia. Eta pentsamendu inozo samarra da hori, gure ustez, arazoa ez baita langileen eta roboten artekoa, langileen eta roboten jabeen artekoa baizik. Edo beste modu batean esanda, robotek eta automatizazioak gizartean zer funtzio beteko duten, hori gizakiek erabakitako zerbait izango da, eta ez makina edo roboten erabakia.

Lana behartuta egiten den jarduera desatsegina izanik, eta gehiengoari miseria existentzialaren eta ondoezaren sorburu eta eragile nagusietakoa bilakatu zaion neurrian, langileriaren jarrerak ezin du lanaren aldekoa izan, Bob Blackek dioen bezala.⁶²² Teknologiaren arriskuez jakitun izanik, hein batean ulergarria da automatizazioaren kontrako jarrera, baina ez da bide zuzena, lanaren zama astuna arintzeko aukera langileari horrexek eskaintzen dio eta. Gizakiari desatseginak zaizkion eta miseria morala dakarkioten lanpostuei eustearen alde egin ordez, beste helburu bat izan behar du langileen borrokak: bizitza bizigarri bat izan ahal izateko diru-sarrerak nola bermatu pentsatzea eta gauzatzea.

620 BERARDI "BIFO", Franco: op. cit., 2003 (157. or.).

621 GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10*: op. cit.

622 BLACK, Bob: op. cit., 2013 (7. or.).

Langileriak, alienazioa eta esplotazioa eragiten dituzten jarduerak defendatu eta teknologiaren aurka ekin beharrean, bere burua errealizatua senti dadin, ahalik eta denbora libre gehien izango duen bizimodu bat nola eraiki pentsatzea hartu behar du helburu.⁶²³ Alegia, gizarte osoak bizitza duin bat izan ahal izateko baliabideak nola eskuratu ditzakeen pentsatu eta lortzea, eta ez bizitzako denbora gehiena sufrimendu-iturri, hutsal eta zentzugabea egiten duten lanpostuen alde kostatuta ahala kostatuta egitea.

Jendeari galdetuz gero, zeharo gauza agerikoa da oso gutxi maite duela bere lana. Lan kapitalistak eta haren inguruan eraikitako bizimoduak alienazioa eta esplotazioa eragiten ditu, lehen ere esan dugun bezala. Nekea, gaixotasuna eta ondoeza dakartza. Lanarengatik sakrifikatzen da bizitza, eta bizimodua ateratzeko ahaleginean bizitzaren kontra egiten amaitzen da. Russellek aspaldi ohartarazi zigun gizarte moderno industrialetan lanaren ustezko onuretan gizakiak jarritako fedea zer-nolako kalteak eragin zituen, eta ohartarazi zigun, halaber, lanaren bertuteak gorai patzen zituzten sermoi, fede eta sinesmenen aurka, zorientasunerako eta oparotasunerako bidea lanaren murrizketa antolatutik etorriko zela.⁶²⁴ Gorzek esaten duen bezala, lanak autorrealizatorako aukera ukatzen duenean eta sufrimendua eta ondoeza eragiten ditenean, lanaren abolizioa helburu bihurtzen da. Horri dagokionez, komeni da Gorzek lanaren abolizioaz zer ulertzen zuten gogora ekartzea:

*«Abolir el trabajo no significa [...] abolir la necesidad del esfuerzo, el deseo de la actividad, el amor a lo que uno hace o la necesidad de cooperar con los demás y de ser útil a la colectividad. Al contrario: la abolición del trabajo es solamente la supresión progresiva, que nunca será total, de la necesidad que tenemos de comprar nuestro derecho a la vida (prácticamente sinónimo del derecho al salario), alienando nuestro tiempo, nuestra vida. Abolir el trabajo y liberar el tiempo; liberar el tiempo para que los individuos puedan convertirse en dueños de sus cuerpos, de sus propios empleos, de escoger sus actividades, de sus fines, de sus obras [...]. La exigencia de "trabajar menos" no tiene como sentido y objetivo el "descansar más" sino el "vivir más" [...].»*⁶²⁵

Gauza sinplea bezain konplexua da gogoeta horrek biltzen duena. Lana bada ondoezaren sorburu eta eragile nagusia, ondoeza desagerrarazteko, lana desagerrarazi behar da. Hala ere, lanaren abolizioak ez du esan nahi lana desagertuko denik. Ez du esan nahi ezertxo ere egin gabe eskua eskuari emanda kontenplaziozko bizitza pasibo hutsean biziko den gizarte bat etorriko denik. Ideia hori, zentzurik batere gabea izateaz gain, ez da bateragarria bizitzarekin.

623 REZOLA IZTUETA, Igor: "Hiperproduktibitatearen kultura eta zenbait ondorio" kapitulua; in ZENBAIT AUTORE: *Contra Escritos Sobre Crítica & Contracultura*, Popurrit, Bilbo, 2017 (83. or.).

624 RUSSELL, Bertrand: op. cit.

625 GORZ, André: op. cit., 2008 (87. or.).

Batetik, gizakiak munduan bere iraupena bermatu eta bizitza ahalik erosoan egiteko, bere ingurua eraikitzeko beharra du. Eta ez hori bakarrik. Ikerketaren hasieran Marxen bitartez esan dugun bezala, gizakiak lanaren bidez mundua sortzeaz gain, bere burua ere sortzen du. Gizakia lanaren emaitza da, eta horrenbestez, lanik gabe ez dago ez gizakirik, ez bizitzarik. Engels ere argi mintzatu zen ildo beretik:

*«El trabajo es la fuente de toda riqueza, afirman los especialistas en Economía política. Lo es, en efecto, a la par que la naturaleza, proveedora de los materiales que él convierte en riqueza. Pero el trabajo es muchísimo más que eso. Es la condición básica y fundamental de toda la vida humana. Y lo es en tal grado que, hasta cierto punto, debemos decir que el trabajo ha creado al propio hombre».*⁶²⁶

Bestetik, nahiz eta teknologiaren fetitxismoaren aldeko diskurtsoek baieztatzen duten makinek edozein lan ordezkatzeko modua izango dela noizbait, automatizazioak baditu mugak, eta ez nolana hikoak. Lana, ikerketa honetan hainbatetan esan dugunez, ez da produkzioaren eremuan egiten den jarduera-mota hori soilik. Alde horretatik, automatizazioaren eta robotizazioaren bitartez planteatzen den lanaren abolizioak gizonezkoaren begiradari erantzuten dio, Federiciren esanetan. Teknologiaren garapenari esker lana desagerraraztea lortuko dela esaten denean, funtsean, oraindik ere nagusiki gizonezkoek egiten duten soldatapeko lana desagerraraziko dela esan nahi da, zeren eta historikoki emakumezkoek egokitu zaien lan-esparrua, zaintza-lanena, bizitzaren erreproduktioari dagokion hori, automatizatu ezina baita, Federicik dioen bezala.⁶²⁷ Eta gainera, automatizazioaren promesak eta aurrerapenak handiak izanagatik ere, beste horrenbeste gertatuko litzateke pentsamendua eta sorkuntza tarteko diren lanekin.

Lanaren abolizioak, beraz, lan kapitalistaren abolizioa esan nahi du, ezeztatzea kapitalak sortu, aldarrikatu eta saritzen duen jarduera-mota hori, kapitala bizitzaren aurretik ipintzen duena, lan abstraktua, produkzioaren eremuan soldataren truke behartuta egiten den jarduera alienatzaile eta esplotatzailea. Lanaren abolizioak esan nahi du ondoeza baizik eragiten ez duten errendimendu, hiperaktibitate eta lehiaren logikaren pean egiten den jarduera-mota hori desagerraraztea, gozamenari, plazerari, jolasari, zaintzei eta azken batean bizitza bizigarriari lehentasuna emateko.

Gizarte kapitalistan lana da aberastasuna sortu eta banatzeko mekanismo behinena. Lana da gizakiaren behar eta betebeharrak moral nagusia, lehentasuna, egitekorik garrantzitsuena. Lana sakratua da. Lanik gabe ez dago jatekorik, ez arroparik, ez etxerik. Lanak baldintzatzen ditu gizabanakoaren nortasuna eta ingurukoekiko harremanak. Lanak ematen du prestigio soziala, norberak gizartean zer toki izango duen zehazten duena. Lanak definitzen du klasea. Lana dena edo ia dena da, eta horregatik, lanaren abolizioan

626 ENGELS, Friedrich: "El papel del trabajo en la transformación del mono en hombre". Iturria: <https://www.marxists.org/espanol/m-e/1870s/1876trab.htm>

627 FEDERICI, Silvia: op. cit., 2018 (21. or.).

pentsatze hutsak beldurra eragiten du.⁶²⁸ Normala da. Ez da harritzekoa. Fredic Jamesonek esaten duen moduan, errazagoa da munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino,⁶²⁹ eta ildo beretik gehi dakioke errazagoa dela munduaren amaiera imajinatzea lanaren amaiera imajinatzea baino. Lanik gabeko mundu bat irudikatzea hain zaila gertatzeak ezin hobeto erakusten du zenbaterainoko pisua duen. Zailtasunak zailtasun, baina, alienatzailea eta esplotatzailea den lan beharturik gabeko gizarte bat eraiki nahi bada, hura pentsatzen eta irudikatzen hasteak izan behar du inondik ere lehenengo urratsa. Pérez Orozcok esaten duen bezala:

«[...] para poder actuar sobre el mundo necesitamos pensarlo. [...] a medida que nombramos la vida desde otros sitios, podemos ir construyendo otros mundos y otras formas de estar en ellos».⁶³⁰

Errealitatetik ezin urrunago dagoen ideia gauzaezintzat ikusten da lanaren abolizioa, utopia bat balitz bezala. Baina utopiak, maiz askotan txarrerako eta gutxiespen-zentzuan erabili ohi bada ere, etorkizun ezaren aurrean gauden honetan are eta zentzu handiagoa hartzen du. Horren garrantzia defendatu beharreko zerbait dela deritzo David Fraynek,⁶³¹ bizitzeko modu hobeto bat lortzeko desiraren adierazpena delako, hain zuzen ere. Inolako aldaketa sozial, politiko edo ekonomikorik ez litzateke posible izango, baldin eta bide berriak urratu eta saiatzeko nahirik ez balego. *No future* leloaren aurrean, pentsamendu utopikoak irtenbiderik ez dagoelako ideiarekin haustera eta non eta nola bizi nahiko genukeen pentsatzera bultzatzen gaitu. Bizitzeko beste eredu batzuk posible direla gogorarazten digu. Eta horregatik, indar eta ahal osoz ageri zaigu utopia orain, zeharo nagusitzen ari diren diskurtso distopikoei aurre egiteko.

Lanaren abolizioak utopia bat eman dezake, egia da; baina, aldi berean, nahi hori gauzatzeko inoiz ez bezalako baldintzak ditugu orain, eta hori ere ukaezina da. Alde batetik, Internet, robotika eta adimen artifiziala direla medio, gaur egun gizakiak egiten dituen lan asko automatizatu eta makinaren eginkizun bihurtuko dira datozen hamarkadetan. Lanaren automatizazio-prozesuek, beraz, posible egingo dute lana murriztea edo desagerraraztea, baldin eta norabide horretara bideratzen badira.

Bestetik, kapitalismoaren hazkunde-gose amaierarik gabeak bere ondorioak ditu. Oraingo mundu globalizatu honetako Iparraldeko herrialde aberatsenek ingurumenari egingo erasoek, baliabide naturalak agortzearekin batera, arriskuan ipini dute gizakiaren eta gainerako espezie guztien etorkizuna. Jada ez da jasangarria hiperproduktioan eta

628 WEEKS, Kathi: "El trabajo no es la esencia de lo que significa ser humano". Iturria: <http://ctxt.es/es/20160413/Politica/5394/Kathi-Weeks-Feminismo-Trabajo-Reivindicaciones-utopicas-Autonimistas-italianos-trabajo-remunerado-renta-basica-Internacional-Econom%C3%ADa.htm>

629 JAMESON, Fredic: "Arqueologías del futuro. Una charla de Fredic Jameson". Iturria: <https://bibliocecifi.files.wordpress.com/2017/05/arqueologias-del-futuro-una-charla-de-fredic-jameson-irene-fortea-y-gariokoitz-gamarra.pdf>

630 PÉREZ OROZCO, Amaia: op. cit., 2014 (29. or.).

631 FRAYNE, David: op. cit., 2017 (245.-246. or.).

hiperkontsumoan oinarritutako eredu hau. Kolapsorako bidean gaudela ohartarazten duten ahotsak gero eta ugariagoak dira, eta beranduegi izan baino lehen produkzio- eta kontsumo-maila nabarmen murriztu beharra azpimarratzen dute gehienek. Korrante azelerazionistaren arabera, berriz, protestak, desazelerazioa eta teknologiaren aurkako jarrera ez dira eraginkorrak kapitalismoa gainditu eta paradigma sozial, politiko eta ekonomiko berri batera iristeko, eta kapitalismoaren logika suntsitzailea bizkortzea proposatzen du, hain zuzen, haren kolapsoa eragin eta gizarte postkapitalistari ongietorria egiteko.⁶³²

Irtenbideak bat baino gehiago izan daitezke, beraz, eta ikusi beharko da subjektuak pairatzen duen ondorezarekin eta dituen desirekin nola artikulatuko diren. Dena den, aipatu ditugun iragarpen horien artean kontraesanak izan badiren arren, guztiek aurreikusten duten zerbait da urte gutxian lana nabarmen murriztuko dela; denak bat datoz horretan. Lanaren murrizketak zer eragin izango duen, etorkizun utopiko edo distopiko baten aurrean jarriko gaituen, hori ikusteko dago.

Lanaren abolizioa pentsaezina iruditu arren, gizakiaren esku dagoen zerbait da. Lanaren nozioa ez baita nozio absolutu bat, zerbait esentziala, berezkoa, aldaezina. Ez da beti gaur egun duguna bezalako izan. Lanaren nozioa historikoa da, Dominique Médaren esanetan.⁶³³ Historiaren joanean konnotazio material, politiko, sozial, etiko eta erlijiozko desberdinak izan ditu, eta lanaren esanahia gizarte edo testuinguruaren arabera aldatuz joan da. Gaur lantzat ulertzen duguna, industrializazioarekin sortu eta soldata baten truke egiten den hori, alegia, ez da beti horrela izan, eta nozio eraikia da, beraz. Eta eraiki den bezalaxe deseraiki daitekeela esaten du Gorzek.⁶³⁴ Gizarte kapitalistan langileak ametsik badu, lanik egin gabe bizi ahal izatea da. Marxekin batera esan dugun bezala, "beharraren erreinutik" "askatasunaren erreinurako" pausoa ematea da helburua, errealizazio pertsonal zein kolektiborako baldintzak orduan soilik izango baitira. Bizitza lan kapitalistaren menpekotasunetik askatzeko ahalegina egin behar da, beraz. Denbora librea produzitzeak eta lanaren amaiera lortzeak izan behar du lanaren xedea. Edo beste hitz batzuetan esanda, lanik ez egiteko lan egiteak izan behar du langileen lehentasuna. Lanaren zentzua, haren funtsa, azkeneko arrazoaia, lana desagerrarazteak izan behar du, orduan bakarrik izango baita langilea benetan aske. Boris Groysek elkarriketa batean esan zuen moduan: «*La verdadera libertad es no trabajar*». ⁶³⁵

632 SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: "Manifiesto Aceleracionista". Iturria: <https://comitedisperso.wordpress.com/2013/07/30/manifiestoaceleracionista1/>

633 MÉDA, Dominique: op. cit., 1998 (27. or.).

634 GORZ, André: op. cit., 1998 (12. or.).

635 GROYS, Boris: "El consumo es hoy la gran ideología". Iturria: https://elpais.com/diario/2008/07/26/babelia/1217029811_850215.html

DATA- FECHA: 05/04/2018

IZEN-ABIZENAK - NOMBRE y APELLIDOS: IGOR REZOLA IZTUETA

SEK/TXAPA - SECC/CHAPA: 194-1795


LANBIDEA-PROFESION: SOLDADOR MAILA- CATEGORÍA: 1:

ESKAERA-SOLICITUD:

YO IGOR REZOLA IZTUETA, ANTE LA PROPUESTA DE CAF DE INCORPORARME A TRABAJAR EL DIA 9 DE ABRIL TRAS LA EXCEDENCIA VOLUNTARIA, COMUNICO QUE RECHAZO LA PROPUESTA, Y DOY POR FINALIZADA MI RELACION CON LA EMPRESA.



Vº Bº


hasta: 5/4/2018

Sin./Fdo.



DIVISIO BURUA/ JEFE DE DIVISION

► "2018-04-05", 2018.

la hamaika urte pasatu dira "Fugas"ek fabrika utzi zuenetik. Hainbeste denboraren ostean, fabrikak berriro ere lanpostura bueltatzeko aukera eskaini dio, baina haren erantzuna ezezkoa izan da.



► "IZENBURURIK GABE", 2018.

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK

A

ADORNO, Theodor W.: *Crítica de la cultura y sociedad II*, Akal, Madril, 2009.

ADORNO, Theodor W.: *Mínima moralia. Reflexiones desde la vida dañada*, Taurus, Madril, 2001.

ADORNO, Theodor W.; HORKHEIMER, Max: *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madril, 1998.

AMORÓS, Miguel: *Tecnología y disolución de clases. Las armas de la crítica*, Likiniano Elkarte, Bilbo, 2004.

B

BAUMAN, Zygmunt: *Modernidad líquida*, Fondo de cultura económica de Argentina, Buenos Aires, 2004.

BAUMAN, Zygmunt: *La postmodernidad y sus descontentos*, Akal, Madril, 2001.

BAUMAN, Zygmunt: *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Gedisa, Bartzelona, 2000.

BENJAMIN, Walter: *La obra de arte en la era de su reproductibilidad técnica*, Ítaka, Mexiko, 2003.

BERARDI "BIFO", Franco: *El alma y el trabajo*, Elefanta, Mexiko, 2012.

BERARDI "BIFO", Franco: *Generación post-alfa. Patologías e imaginarios en el semiocapitalismo*, Tinta Limón, Buenos Aires, 2007 (1).

BERARDI "BIFO", Franco: *La fábrica de la infelicidad. Nuevas formas de trabajo y movimiento global*, Traficantes de sueños, Madril, 2003.

BLACK, Bob: *La abolición del trabajo*, Pepitas de calabaza, Logroño, 2013.

BLANC, Louis: *Le Socialisme. Droit au travail*, Hachette Livre BNF, Paris, 2012.

BOLTANSKI, LUC; CHIAPELLO, Ève: *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madril, 2002.

BOURDIEU, Pierre: *El sentido práctico*, Siglo Veintiuno, Buenos Aires, 2007.

BOURDIEU, Pierre: *Campo de poder, campo intelectual. Itinerario de un concepto*, Montessor, Buenos Aires, 2002. Iturria: <http://ceiphistorica.com/wp-content/uploads/2016/01/bourdieu-campo-de-poder-campo-intelectual.pdf>

BOURDIEU, Pierre: *Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal*, Anagrama, Bartzelona, 1999.

BOURDIEU, Pierre: *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Taurus, Madril, 1998.

BOURDIEU, Pierre: *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*, Anagrama, Bartzelona, 1995.

BOURDIEU, Pierre; WACQUANT, Loïc J.D.: *Respuestas por una antropología reflexiva*, Grijalbo, Mexiko, 1995.

BREA, José Luis: *El tercer umbral. Estatuto de las prácticas artísticas en la era del capitalismo cultural*, Cendeac, Murtzia, 2008.

BRYNJOLFSSON, Erik; MCAFEE, Andrew: *La carrera contra la máquina. Cómo la revolución digital está acelerando la innovación, aumentando la productividad y transformando irreversiblemente el empleo y la economía*, Antoni Bosch, Bartzelona, 2013.

BÜRGER, Peter: *Teoría de la vanguardia*, Península, Bartzelona, 2000.

C

COMERON, Octavi: *La Fábrica Transparente. Arte y Trabajo en la época postfordista*, doktore-tesia, Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelona, 2007. Iturria: http://mpison.webs.upv.es/seminario2/archivos/thesis/Octavi_Comeron.pdf

CRARY, Jonathan: *24/7. El capitalismo al asalto del sueño*, Planeta, Bartzelona, 2015.

D

DEBORD, Guy: *La sociedad del espectáculo*, Pre-Textos, Valentzia, 2010.

E

ENGELS, Friedrich; MARX, Karl: *Manifiesto del Partido Comunista*, Centro de Estudios Socialistas Carlos Marx, Mexiko, 2011. Iturria: <https://centromarx.org/images/stories/PDF/manifiesto%20comunista.pdf>

F

FEDERICI, Silvia: *El patriarcado del salario. Críticas feministas al marxismo*, Traficantes de sueños, Madril, 2018.

FEDERICI, Silvia: *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*, Elkar eta Jakin, Donostia, 2017.

FEDERICI, Silvia: *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Traficantes de sueños, Madril, 2013.

FISHER, Mark: *Realismo capitalista. ¿No hay alternativa?*, Caja Negra, Buenos Aires, 2016.

FLORIDA, Richard: *La clase creativa. La transformación de la cultura del trabajo y el ocio en el siglo XXI*, Paidós, Bartzelona, 2010.

FOUCAULT, Michel: *Nacimiento de la biopolítica. Curso en el Collège de France (1978-1979)*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2007.

FOUCAULT, Michel: *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Argentina, 2002.

FOUCAULT, Michel: *Saber y verdad*, La Piqueta, Madril, 1991.

FRANK, Thomas: *La conquista de lo cool. El negocio de la cultura y la contracultura y el nacimiento del consumismo moderno*, Alpha Decay, Bartzelona, 2011.

FRAYNE, David: *El rechazo del trabajo. Teoría y práctica de la resistencia al trabajo*, Akal, Madril, 2017.

G

GNUTTI, Rudy: *El mundo sin trabajo. Pensando con Zygmunt Bauman*, Icaria, Bartzelona, 2017.

GORZ, André: *Crítica de la razón productivista*, Catarata, Madril, 2008.

GORZ, André: *Miserias del presente, riqueza de lo posible*, Paidós, Buenos Aires, 1998.

GORZ, André: *Metamorfosis del trabajo. Búsqueda del sentido. Crítica de la razón económica*, Sistema, Madril, 1995.

GRUPO KRISIS: *Manifiesto contra el trabajo*, Virus, Bartzelona, 2002.

H

HAN, Byung-Chul: *La sociedad del cansancio*, Herder, Bartzelona, 2016 (1).

HAN, Byung-Chul: *Psicopolítica. Neoliberalismo y nuevas técnicas de poder*, Herder, Bartzelona, 2016 (2).

HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Commonwealth. El proyecto de una revolución del común*, Akal, Madril, 2011.

HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Imperio*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2005.

HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio*, Debate, Bartzelona, 2004.

HARDT, Michael; NEGRI, Antonio: *Imperio*, Harvard University Press, Massachussets, 2000. Iturria: <http://www.infojur.ufsc.br/aires/arquivos/michael%20hard%20-%20antonio%20negri%20-%20imperio.pdf>

HARVEY, David: *Diecisiete contradicciones y el fin del capitalismo*, Traficantes de sueños, Madril, 2014 (1).

HARVEY, David: *Guía de El Capital de Marx*, 1. lib., Akal, Madril, 2014 (2).

HARVEY, David: *La condición de la posmodernidad. Investigación sobre los orígenes del cambio cultural*, Amorrortu, Buenos Aires, 1998.

HARVEY, David: "Breve historia del Neoliberalismo." Iturria: <https://teoriaeconomicatercersemestreri.files.wordpress.com/2012/09/breve-historia-del-neoliberalismo-de-david-harvey1.pdf>

HEATH, Joseph; POTTER, Andrew: *Rebelarse vende. El negocio de la contracultura*, Taurus, Madril, 2005.

I

INTERNACIONAL SITUACIONISTA: *Internacional Situacionista. Vol I. La realización del arte*, Literatura Gris, Madril, 1999. Iturria: https://monoskop.org/images/d/da/Internacional_Situacionista_Vol_1.pdf

- JORN, Asger: "Los situacionistas y la automatización".

J

JAMESON, Fredric: *El posmodernismo o la lógica del capital cultural avanzado*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 1991.

JAMESON, Fredric: *El giro cultural. Escritos seleccionados sobre el posmodernismo 1983-1998*, Manantial, Buenos Aires, 2002.

K

KEYNES, John Maynard: *Las posibilidades económicas de nuestros nietos*, Taurus, Madril, 2015.

KLEIN, Naomi: *No Logo. El poder de las marcas*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2001. Iturria: <https://hemerotecaroja.files.wordpress.com/2013/07/klein-naomi-no-logo-el-poder-de-las-marcas-2000.pdf>

KURTZ, Robert: "Luces de progreso" kapitulua, *El absurdo mercado de los hombres sin cualidades*, Pepitas de Calabaza, Logroño, 2014.

L

LAFARGUE, Paul: *El derecho a la pereza*, Diario Público, Madril, 2010.

LANDRY, Charles: *The Creative City: A toolkit for Urban Innovators*, Earthscan, Londres, 2000.

LIPOVETSKY, Gilles: *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*, Anagrama, Bartzelona, 1992.

LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: *La estetización del mundo. Vivir en la época del capitalismo artístico*, Anagrama, Bartzelona, 2015.

LIPOVETSKY, Gilles; SERROY, Jean: *La cultura-mundo. Respuesta a una sociedad desorientada*, Anagrama, Bartzelona, 2010.

LÓPEZ PETIT, Santiago: *Hijos de la noche*, Bellaterra, Bartzelona, 2014.

LOREY, Isabell: *Estado de inseguridad. Gobernar la precariedad*, Traficantes de sueños, Madril, 2016.

M

MARX, Karl: *El capital. Crítica de la economía política. El proceso de producción del capital*, I. lib., 1. libk., Siglo XXI, Madril, 2010.

MARX, Karl: *El capital. Crítica de la economía política. El proceso de producción del capital*, I. lib., 3. libk., Siglo XXI, Madril, 2009.

MARX, Karl: *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política (Grundrisse) 1857-1858*, I. lib., Siglo XXI, Mexiko, 2007 (1).

MARX, Karl: *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política (Grundrisse) 1857-1858*, II. lib., Siglo XXI, Mexiko, 2007 (2).

MARX, Karl: *Manuscritos: economía y filosofía*, Alianza, Madril, 1980 (1).

MARX, Karl: *Teorías de la plusvalía I. Tomo IV de El Capital*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1980 (2).

MÉDA, Dominique: *El trabajo. Un valor en peligro de extinción*, Gedisa, Bartzelona, 1998.

MELVILLE, Herman: *Bartleby eskribatzailea*, Erein, Donostia, 2016.

MILLET, Kate: *Política sexual*, Cátedra, Madril, 1995.

N

NEGRI, Toni: *Fin de siglo*, Paidós, Bartzelona, 1992.

Iturria: <http://fpschool.es/doc/matematicas-1-eso-ejercicios-resueltos.pdf>

NIETZSCHE, Friedrich: *La ciencia jovial. La gaya scienza*, Monte Avila, Caracas, 1990.

P

PERAN, Martí: *Indisposición general. Ensayo sobre la fatiga*, Hiru, Hondarribia, 2016.

PÉREZ OROZCO, Amaia: *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Traficantes de sueños, Madril, 2014.

POSTMAN, Neil: *Divertirse hasta morir. El discurso público en la era del espectáculo*, Tempestad, Bartzelona, 2001.

PRECARIAS A LA DERIVA: *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*, Traficantes de sueños, Madril, 2004.

- RUIDO, María: "Mamá, ¡quiero ser artista! Apuntes sobre la situación de algunas trabajadoras en el sector de la producción de imágenes, aquí y ahora".

R

RANCIÈRE, Jacques: *El espectador emancipado*, Manantial, Buenos Aires, 2010.

RIFKIN, Jeremy: *La sociedad de coste marginal cero. El Internet de las cosas, el procomún colaborativo y el eclipse del capitalismo*, Paidós, Bartzelona, 2014.

RIFKIN, Jeremy: *La era del acceso. La revolución de la nueva economía*, Paidós Ibérica, Bartzelona, 2000. Iturria: <https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=ZGVmYXVsdGRvbWFpbXxwdW50b3BoaXxneDozZjU4MDQwM2U2MTk3Z-TI2>

RIFKIN, Jeremy: *El fin del trabajo. Nuevas tecnologías contra puestos de trabajo: el nacimiento de una nueva era*, 1996. Iturria: <http://www.upeaderecho.com/Libros/Libros-Extra/El%20Fin%20del%20Trabajo%20-%20Jeremy%20Rifkin.pdf>

RODRÍGUEZ, Emmanuel: *El gobierno imposible. Trabajo y fronteras en las metrópolis de la abundancia*, Traficantes de sueños, Madril, 2003.

ROSA, Hartmut: *Alienación y aceleración. Hacia una teoría crítica de la temporalidad en la modernidad tardía*, Katz, Madril, 2016.

ROWAN, Jaron: *Emprendizajes en cultura. Discursos, instituciones y contradicciones de la empresarialidad cultural*, Traficantes de Sueños, Madril, 2010.

RUSSELL, Bertrand: *Elogio de la ociosidad*, Edhasa, Bartzelona, 2000.

S

SÁNCHEZ VÁZQUEZ, Adolfo: *Las ideas estéticas de Marx*, Era, Mexiko, 1979.

SCHUMPETER, Joseph A.: *Capitalismo, socialismo y democracia*, 1. lib., Folio, Bartzelona, 1996.

SENNETT, Richard: *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona, 2000.

SIBILIA, Paula: *La intimidad como espectáculo*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires, 2013.

SMITH, Adam: *La riqueza de las naciones*, Alianza, Madril, 1996. Iturria:
<http://ceiphistorica.com/wp-content/uploads/2016/04/Smith-Adam-La-Riqueza-de-las-Naciones.pdf>

SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: *Inventing the future. Postcapitalism and a World Without Work*, Verso, Londres, 2015.

STANDING, Guy: *El precariado. Una nueva clase social*, Pasado y Presente, Bartzelona, 2013.

STEYERL, Hito: *Los condenados de la pantalla*, Caja Negra, Buenos Aires, 2014.

STILINOVIC, Mladen: *1+2= Mladen Stilinovic*, UNAM (Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa), Mexiko D.F., 2105.

T

TAIBO, Carlos: *La parábola del pescador mexicano. Sobre trabajo, necesidades, decrecimiento y felicidad*, Catarata, Madril, 2016.

TERRANOVA, Tiziana: "Producing culture for a digital economy" kapitulua, *The new media and cibercultures antology*, Pramod K. Nayar, Erresuma Batua, 2010.

TOFFLER, Alvin: *La tercera ola*, Edinal, Bogota, 1981.

V

VIRNO, Paolo: *Virtuosismo y revolución. La acción política en la era del desencanto*, Traficantes de sueños, Madril, 2003.

W

WEBER, Max: *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, Península, Bartzelona, 1969.

WOOLF, Virginia: *Gela bat norberarena*, Consonni, Bilbo, 2013.

Y

YPRODUCTIONS: *Innovación en cultura. Una introducción crítica a la genealogía y usos del concepto*, Traficantes de sueños, Madril, 2009.

YÚDICE, George: *La cultura como recurso. Usos de la cultura en la era global*, Gedisa, Bartzelona, 2002.

Z

ZAFRA, Remedios: *El entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital*, Anagrama, Bartzelona, 2017.

ZAFRA, Remedios: *Ojos y capital*, Consonni, Bilbo, 2015.

ZAFRA, Remedios: *Un cuarto propio conectado. (Ciber)espacio y (auto)gestión del yo*, Fórcola, Madril, 2010.

ZENBAIT AUTORE: *Contra Escritos Sobre Crítica & Contracultura*, Popurrit, Bilbo, 2017.

- LAUZIRIKA, Arantza: "Minando el sistema desde el interior. Metodología para programar un apocalipsis".
- ORDÚÑEZ, Juan Pablo: "Del pedestal al suelo. Monumento a los débiles, a las fracasadas y a héroes de barrio".
- REZOLA IZTUETA, Igor: "Hiperproduktibitatearen kultura eta zenbait ondorio".

ZENBAIT AUTORE: *Producción artística en tiempos del precariado laboral*, Tierradenadie, Madril, 2017.

- ALDAZ, Maite: "Institución arte y precariedad. Las prácticas artísticas en la época de la mercantilización de la vida".
- ALIAGA, Juan Vicente: "A salto de mata. Algunas notas sobre la precarización del los/as artistas".
- ALIAGA, Juan Vicente; NAVARRETE, Carmen (ed.): "Prólogo"
- MARÍN GARCÍA, Teresa: "Frente a la precariedad laboral en las artes. Situación y tentativas colectivas (en el estado español)".
- NAVARRETE, Carmen: "Del artista como productor a la feminización del trabajo".
- NAVARRETE, Carmen: "Mujeres artistas: precarias, pobres y silenciadas".

ZENBAIT AUTORE: *Ciudad Picasso*, Galería Juana de Aizpuru, Madril, 2011. Iturria: http://www.malagana.com/libros/ciudad_picasso.pdf

- LÓPEZ CUENCA, Rogelio: "Ciudad Picasso".

ZENBAIT AUTORE: *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional*, Traficantes de sueños, Madril, 2008.

- LAZZARATO, Maurizio: "Las miserias de la 'crítica artista' y del empleo cultural".
- LOREY, Isabell: "Gubernamentalidad y precarización de sí. Sobre la normalización de los productores y las productoras culturales".
- RAUNIG, Gerald: "La industria creativa como engaño de masas".
- VON OSTEN, Marion: "Salidas Incalculables".

ZENBAIT AUTORE: *El movimiento del 77*, Traficantes de sueños, Madril, 2007.

- BERARDI "BIFO", Franco: "El año en el que el futuro se acabó".
- VIRNO, Paolo: "Do you remember counterrevolution?".

ZENBAIT AUTORE: *Producta 50. Una introducción a algunas de las relaciones que se dan entre la cultura y la economía*, YProductions, Bartzelona, 2007.

- CORSANI, Antonella: "Los Fabricantes de Espectáculos del Empleo Discontinuo".
- RODRÍGUEZ, Emmanuel: "La Riqueza y la Ciudad".
- ROWAN, Jaron; RUIDO, María: "*In the Mood for Work*. ¿Puede la representación alterar los procesos de valorización del trabajo cultural?".
- RULLANI, Enzo: "Arte y Economía: la Creación de Valor en el Capitalismo Cognitivo".

ZENBAIT AUTORE: *Brumaria 7. Arte, máquinas, trabajo inmaterial*, Brumaria, Madril, 2006.

- LAZZARATO, Maurizio: "El ciclo de la producción inmaterial".
- LAZZARATO, Maurizio; NEGRI, Antonio: "Trabajo inmaterial y subjetividad".

ZENBAIT AUTORE: *Capitalismo cognitivo, propiedad intelectual y creación colectiva*, Traficantes de sueños, Madril, 2004.

- RODRÍGUEZ, Emmanuel; SÁNCHEZ, Raúl: "Prólogo. Entre el capitalismo cognitivo y el Commonfare".

ZIZEK, Slavoj: *Primero como tragedia, después como farsa*, Akal, Madril, 2011.

ARTIKULUAK

A

AGIRRE, Lorea; ESKISABEL, Idurre: "Gorputzen elkargunea, bizi dugun lurraldea", *Jakin* 221-222. *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean*, Donostia, 2017.

B

BERARDI "BIFO", Franco: "En la solitaria cabina de nuestras vidas: a propósito de Andreas Lubitz". Iturria: http://www.eldiario.es/interferencias/Andreas_Lubitz_6_372422775.html

BERARDI "BIFO", Franco: "¿Qué significa hoy autonomía?". Iturria: <http://eipcp.net/transversal/1203/bifo/es>

BERARDINI, Andrew: "Cómo ser un artista no profesional". Iturria: <http://esferapublica.org/nfblog/artista-no-profesional/>

D

DELEUZE, Gilles: "Post-scriptum sobre las sociedades de control". Iturria: <https://journals.openedition.org/polis/5509>

DELGADO, Manuel: "Lo sagrado en el arte contemporáneo". Iturria: <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com.es/2013/02/lo-sagrado-en-el-arte-contemporaneo.html>

DERESIWICZ, William: "La muerte del Artista, y el nacimiento del Emprendedor Creativo". Iturria: <http://esferapublica.org/nfblog/la-muerte-del-artista-nacimiento-del-emprendedor-creativo/>

E

ENGELS, Friedrich: "El papel del trabajo en la transformación del mono en hombre". Iturria: <https://www.marxists.org/espanol/m-e/1870s/1876trab.htm>

ESPAI EN BLANC: "Prólogo: el malestar social en una sociedad terapéutica". Iturria: http://espaienblanc.net/?page_id=1676

F

FANJUL, Sergio C.: "Currando a todas horas, en todos los lados". Iturria: https://elpais.com/ccaa/2017/02/16/madrid/1487270353_858304.html

FEDERICI, Silvia: "El trabajo precario desde un punto de vista feminista". Iturria: <http://www.sinpermiso.info/textos/el-trabajo-precario-desde-un-punto-de-vista-feminista>

FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: "Politizar el sufrimiento". Iturria: <http://www.circulobellasartes.com/revistaminerva/articulo.php?id=233>

FERNÁNDEZ-SAVATER, Amador: "Una fuerza vulnerable: el malestar como energía de transformación social" Iturria: http://www.eldiario.es/interferencias/malestar-energia-transformacion_social_6_606199392.html

FREY, Carl Benedikt; OSBORNE, Michael A.: "The future of employment: how susceptible are jobs to computerisation?", University of Oxford, 2013. Iturria: http://www.oxfordmartin.ox.ac.uk/downloads/academic/The_Future_of_Employment.pdf

G

GALAFATE, Cristina: "La tendencia 'before work' llega a España". Iturria: <http://www.elmundo.es/vida-sana/estilo-y-gastro/2016/02/29/56d40be2e2704e4d238b45ff.html>

GARCÉS, Marina: "La Honestidad con lo Real". Iturria: <http://www.tea-tron.com/sismo/blog/2011/10/06/la-honestidad-con-lo-real-de-marina-garces/>

H

HAN, Byung-Chul: "Ahora uno se explota a sí mismo y cree que está realizándose", 2018. Iturria: https://elpais.com/cultura/2018/02/07/actualidad/1517989873_086219.html

HANISH, Carol: "The Personal is Political". Iturria: <http://www.carolhanisch.org/CHwritings/PIP.html>

K

KUNST, Bojana: "Tiempo inútil". Iturria:
<http://bulegoa.org/glosario-tiempo-por-bojana-kunst/>

M

MÉDA, Dominique: "¿Qué sabemos sobre el trabajo?". Iturria:
http://www.trabajo.gob.ar/left/estadisticas/descargas/revistaDeTrabajo/2007n04_revistaDeTrabajo/2007n04_a01_dM%C3%A9da.pdf

N

NEGRI, Antonio: "La metrópolis y la multitud". Iturria: <http://www.perrorabioso.com/sites/default/files/La-Metropolis-y-La-Multitud-Toni-Negri.pdf>

P

PTQK, María: "*Be creative under-class!* Mitos, paradojas y estrategias de la economía del talento". Iturria: <http://www.mariaptqk.net/be-creative/>

R

RENDUELES, César: "Ciberfetichismo". Iturria:
http://www.eldiario.es/cultura/Ciberfetichismo_0_173932957.html

RIEZNIK, Pablo: "La pereza y la celebración de lo humano". Iturria:
<https://es.scribd.com/document/883471/La-pereza-y-la-celebracion-de-lo-humano>

ROLNIK, Suely: "Geopolítica del chuleo". Iturria:
<http://eipcp.net/transversal/1106/rolnik/es>

ROLNIK, Suely: "A vida na berlinda". Iturria:
<http://www.pucsp.br/nucleodesubjetividade/Textos/SUELY/Berlinda.pdf>

ROWAN, Jaron: "Preferiría no hacerlo, pero me gusta tanto...". Iturria: http://www.demasiadosuperavit.net/wp-content/uploads/2012/03/me-gusta-tanto..rowan_1.pdf

RUIDO, María: "Los trabajos y los días". Iturria:
<http://www.workandwords.net/es/texts/view/594>

S

SIBILIA, Paula: "La intimidad como espectáculo". Iturria: <https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&ved=0ahUKEwiXyaSG47bZAhWE7BQKHZIsAllQFgggtMAE&url=http%3A%2F%2Falvarezteran.com.ar%2Fwp-content%2Fuploads%2F2014%2F10%2FLa-intimidad-como-espectaculo.doc&usg=AOvVaw2PQS-1skCBvwY938a9jeDN>

SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: "Manifiesto Aceleracionista". Iturria: <https://comitedisperso.wordpress.com/2013/07/30/manifiestoaceleracionista1/>

SMITH, Sharon: "Una defensa marxista de la interseccionalidad". Iturria: <https://marxismocritico.com/2017/10/17/una-defensa-marxista-de-la-interseccionalidad/>

STANDING, Guy: "Por qué el precariado no es un 'concepto espurio". Iturria: https://www.guystanding.com/files/documents/Que_es_el_precariado_Sociologia_del_Trabajo_82_libre.pdf

T

TOKUMITSU, Miya: "En el Nombre del Amor", 2014. Iturria: <https://www.diagonalperiodico.net/la-plaza/22753-nada-lubrica-mejor-la-explotacion-convencer-trabajadores-estan-haciendo-lo-aman.html>

U

UNESCO. Iturria: http://portal.unesco.org/culture/es/files/30850/11467401723cultural_stat_es.pdf/cultural_stat_es.pdf

ELKARRIZKETAK**B**

BERARDI "BIFO", Franco: "El futuro era mentira". Iturria: <http://blogs.publico.es/numeros-rojos/2015/04/08/el-futuro-era-mentira-entrevista-con-franco-berardi-bifo/>

E

ESPEJO, Bea: "¿De qué viven los artistas?". Iturria: <http://www.elcultural.com/noticias/arte/De-que-viven-los-artistas/9565>

F

FEDERICI, Silvia: "La construcción del patriarcado capitalista" Iturria: <http://marxismocritico.com/2014/03/12/la-construccion-del-patriarcado-capitalista/>

G

GODARD, Jean Luc: *Godard on Tout va bien (1972)*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=hnx7mxjm1k0>

GROYS, Boris: "El consumo es hoy la gran ideología". Iturria: https://elpais.com/diario/2008/07/26/babelia/1217029811_850215.html

J

JAMESON, Fredric: "Arqueologías del futuro. Una charla de Fredric Jameson". Iturria: <https://bibliocefi.files.wordpress.com/2017/05/arqueologias-del-futuro-una-charla-de-fredric-jameson-irene-fortea-y-gariokoitz-gamarra.pdf>

L

LÓPEZ PETIT, Santiago: "La politización del malestar en una sociedad terapéutica". Iturria: <https://soundcloud.com/traficantesdesue-os/la-politizacion-del-malestar?in=traficantesdesue-os/sets/en-tu-interior>

R

ROWAN, Jaron: Iturria: <http://www.nativa.cat/2010/09/entrevista-jaron-rowan/>

S

SRNICEK, Nick; WILLIAMS, Alex: "Cinco razones para trabajar menos (o nada)". Iturria:
<http://www.sinpermiso.info/textos/cinco-razones-para-trabajar-menos-o-nada>

T

TOFFLER, Alvin: "Sobre prosumo y prosumidores". Iturria:
<https://www.youtube.com/watch?v=4PXI618jTGY>

W

WEEKS, Kathi: "El trabajo no es la esencia de lo que significa ser humano". Iturria:
<http://ctxt.es/es/20160413/Politica/5394/Kathi-Weeks-Feminismo-Trabajo-Reivindicaciones-utopicas-Autonomistas-italianos-trabajo-remunerado-renta-basica-Internacional-Econom%C3%ADa.htm>

HITZALDIAK

A

AGIRRE Lorea; ESKISABEL, Idurre: *Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=AWYBpLLTTCc>

G

GUARDIOLA, Ingrid: *Aula oberta #10. Saber, hacer, comprender*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/ingrid-guardiola-aula-oberta-10/226360>

H

HARVEY, David: *17 contradicciones y el fin del capitalismo*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=-Nk-QHrGj3U>

M

MALO, Marta: *Treball més enllà de l'ocupació: producció i reproducció en l'era de la postfeina*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=IHwVSU6JVXo>

MC AFEE, Andrew: *Are droids taking our jobs?*. Iturria: https://www.ted.com/talks/andrew_mcafee_are_droids_taking_our_jobs/transcript?language=es#t-66733

R

RUIDO, María: *Aula oberta #7. Saber, hacer, comprender*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/maria-ruido-aula-oberta7/226094>

S

SANDEL, Michael J.: *Soy Cámara #37. Sueños que el dinero puede comprar*. Iturria: <http://www.cccb.org/es/multimedia/videos/soy-camara-37-suenos-que-el-dinero-puede-comprar/216858>

Z

ZENBAIT AUTORE: *El trabajo (es una lata)*. Iturria: <https://www.elsaltodiario.com/laboral/el-trabajo-es-una-lata>

BIDEOAK

E

EXPÓSITO, Marcelo: *Primero de mayo (la ciudad fábrica)*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=nxMr8x9usv8>

F

FAROCKI, Harun: *Arbeiter verlassen di Fabrik (Workers leaving the factory)*. Iturria: <https://vimeo.com/59338090>

L

LLOYD, David: *Napercise*. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=w1kcL9-8Nd0>

P

PETRI, Elio: *La clase obrera va al paraiso*. Iturria: <https://vimeo.com/217470060>

LANAREN KONTRAKO (BESTE) LAN-SAIAKERA BAT

•
Igor Rezola Iztueta

Zuzendaria: Arantza Lauzirika Morea

•
2018

Arte eta Teknologia Saila
Arte Ederren Fakultatea
UPV/EHU

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2018

•

Arte eta Teknologia Saila
Arte Ederren Fakultatea
UPV/EHU



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea